



EUSKAL EKONOMIA

2019ko Txostena

Ikerketa Departamentua
Zuzendaria: Joseba Madariaga
Lan taldea: IKEI research & consultancy SA

© Laboral Kutxa

ISBN: 978-84-946432-5-5

1. LABURPEN EXEKUTIBOA	13
2. ESPARRU OROKORRA.....	18
1. INGURUNE EKONOMIKOA (NAZIOARTEKOA ETA ESTATUKOA)	19
1.1 NAZIOARTEKO EKONOMIA.....	19
1.2 ESPAINIAKO EKONOMIA	27
2. IKUSPEGI OROKORRA	36
2.1 PRODUKZIOA.....	37
2.2 ESKARIA.....	41
2.3 PREZIOAK ETA SOLDATAK.....	46
2.4 LAN-MERKATUA ETA DEMOGRAFIA	48
3. INDUSTRIA	55
1. IKUSPEGI OROKORRA	56
2. ENERGIA.....	62
2.1 EAEKO BALANTZE ENERGETIKOA.....	64
2.2 ENERGIA ELEKTRIKOA.....	68
3. SIDERURGIA.....	71
3.1 IKUSPEGI OROKORRA.....	71
3.2 ESPAINIAKO SIDERURGIA.....	73
3.3 EUSKAL SIDERURGIA	76
4. ONTZIGINTZA	84
4.1 NAZIOARTEKO EGOERA.....	84
4.2 ONTZIGINTZA ESPAINIAN.....	86
4.3 ONTZIGINTZA EUSKAL HERRIAN	88
5. AUTOMOBILGINTZA.....	93
5.1 NAZIOARTEKO EGOERA.....	94
5.2 SEKTOREA ESPAINIAN	96
5.3 AUTOMOBILGINTZAKO HORNIDURA-INDUSTRIA EAEN	101
6. MAKINA-ERREMINTAK ETA FABRIKAZIO-TEKNOLOGIAK	104
6.1 MUNDUKO EGOERA.....	104
6.2 MAKINA-ERREMINTAK ETA FABRIKAZIO-TEKNOLOGIAK.....	104
6.3 MAKINA-ERREMINTA EUSKAL HERRIAN	106
6.4 ESKU-ERREMINTA.....	109
7. PAPERA	111
7.1 NAZIOARTEKO EGOERA.....	111
7.2 SEKTOREA ESPAINIAN	113
7.3 SEKTOREA EUSKAL HERRIAN	116
8. KAUTXUA.....	118
8.1 NAZIOARTEKO EGOERA.....	118
8.2 KAUTXUAREN ERALDAKETA-SEKTOREA ESPAINIAN ETA EAEN.....	118
8.3 PNEUMATIKOEN ETA BIRKAUTXUTATUAREN AZPISEKTOREA	120
9. SEKTORE ELETRONIKO-INFORMATIKOA	123
9.1 SEKTOREA ESPAINIAN ETA NAZIOARTEKO JOERAK.....	123
9.2 SEKTOREA EAEN	123
10. ERAIKUNTZA	126
11. SEKTOREEN ANALISI EKONOMIKOA ETA FINANTZARIOA.....	137
11.1 SARRERA.....	137
11.2 METODOLOGIA.....	137

11.3	RATIOEN PIRAMIDEA.....	148
11.4	FUNTSEN ITURRIEN ERA ERABILEREN EGOERA.....	154
12.	EAEKO ENPRESA-SAREAREN AZTERKETA.....	188
12.1	SARRERA.....	188
12.2	BILAKAERA OROKORRA.....	188
12.3	SEKTORE EKONOMIKOAK.....	191
12.4	SOLDATAPEKOEN ESTRATUAK.....	193
4.	LEHEN SEKTOREA.....	197
1.	IKUSPEGI OROKORRA.....	198
1.1	BILAKAERA ESTATU MAILAN.....	198
1.2	BILAKAERA EUSKAL HERRIAN.....	200
2.	NEKAZARITZA-AZPISEKTOREA.....	207
2.1	EKOIZPENAK, AZALERAK ETA ERRENDIMENDUAK.....	208
2.2	NEKAZARITZAKO PREZIOAK.....	212
3.	ABELTZAINZTA-AZPISEKTOREA.....	214
3.1	ABELTZAINZTA-ERROLDA.....	215
3.2	ABERE-EKOIZPENA ETA EMAITZA EKONOMIKOAK.....	216
4.	BASOGINTZAREN AZPISEKTOREA.....	225
5.	ARRANTZA-SEKTOREA.....	227
5.1	IKUSPEGI OROKORRA.....	227
5.2	BAXURAKO ARRANTZA.....	228
5.3	ALTURAKO ARRANTZA.....	236
5.	ZERBITZUAK.....	237
1.	IKUSPEGI OROKORRA.....	238
2.	HEZKUNTZA.....	239
2.1	UNIBERTSITATEKOAK EZ DIREN IKASLEEN BILAKAERA.....	239
2.2	UNIBERTSITATEKO IKASLEEN BILAKAERA.....	248
3.	GARRAIOA.....	257
3.1	TRENBIDE BIDEZKO GARRAIOA.....	257
3.2	ERREPIDE BIDEZKO GARRAIOA.....	261
3.3	ITSASO BIDEZKO GARRAIOA.....	266
3.4	AIRE BIDEZKO GARRAIOA.....	275
4.	TURISMOA.....	279
4.1	COVID-19: AGERTOKI-ALDAKETA.....	279
4.2	NAZIOARTEKO EGOERA.....	279
4.3	TURISMOA ESPAINIAN.....	280
4.4	TURISMOA EAEN.....	286
6.	FINANTZA SEKTOREA.....	297
1.	IKUSPEGI OROKORRA.....	298
2.	KREDITU ERAKUNDEAK.....	305
2.1	KREDITUAREN BILAKAERA.....	305
2.2	GORDAILUEN BILAKAERA.....	316
3.	INBERTSIO KOLEKTIBOKO ERAKUNDEAK.....	322
4.	BURTSA-MERKATUA.....	327
4.1	IKUSPEGI OROKORRA.....	328
4.2	BILBOKO BURTSA.....	332

Koadro aurkibidea

1. koadroa	Barne Produktu Gordinaren bilakaera	19
2. koadroa	Kontsumo pribatuaren, kontsumo publikoaren eta inbertsioaren bilakaera	20
3. koadroa	Ondasun eta zerbitzuen truke-bolumenaren aldakuntzak	21
4. koadroa	Kontsumoaren prezio-indizearen bilakaera	21
5. koadroa	Langabezia-tasa	22
6. koadroa	Administrazio Publikoen finantzaketa-beharrak (finantzaketa-ahalmena (+) edo finantzaketa-beharra (-), BPG nominalaren ehunekoaren arabera)	22
7. koadroa	Adierazle nagusiak (EB-27)	24
8. koadroa	Barne Produktu Gordinaren (BPG) hazkundera (Europar Batasuna)	25
9. koadroa	Europar Batasuneko per capita BPGa (2019)	26
10. koadroa	Ekonomia-aurreikuspenak (industrializatutako herrialdeak)	27
11. koadroa	Barne-produktu gordina eta haren osagaiak (Eskaria eta Eskaintza)	29
12. koadroa	Barne Produktu Gordinaren banaketa (Errenta)	30
13. koadroa	Kontsumoko Prezioen Indizea (KPI) eta Industriako Prezioen Indizea (IPI)	31
14. koadroa	Errenten eta soldata-kostuen adierazleak	32
15. koadroa	Lan-magnitude nagusien bilakaera. Urteko batezbestekoak	33
16. koadroa	Enplegua, lan-egoeraren eta kontratu-motaren arabera. Urteko batezbestekoak	33
17. koadroa	Defizit publikoa	34
18. koadroa	Espainiako ekonomiaren aurreikuspenak (2020)	35
19. koadroa	Bilakaera orokorra	36
20. koadroa	Barne produktu gordinaren (BPG) bilakaera	38
21. koadroa	Industria Sektoreko Adierazleak	39
22. koadroa	Eraikuntza Sektoreko Adierazleak	40
23. koadroa	Zerbitzuen Sektoreko Adierazleak	41
24. koadroa	Barne-eskariaren adierazleak	41
25. koadroa	Kontsumo- eta inbertsio-adierazleak	42
26. koadroa	Kanpo-merkataritzaren bilakaera Euskal Herrian	43
27. koadroa	EAEko esportazioak eta inportazioak, herrialdeen eta sekzioen arabera	44
28. koadroa	Nafarroako esportazioak eta inportazioak, herrialdeen eta sektoreen arabera	45
29. koadroa	Prezioen bilakaera EAEn eta Nafarroan	46
30. koadroa	Soldata-adierazleak	47
31. koadroa	Biztanleria aktiboa, enplegua eta langabezia	49
32. koadroa	Langabezia-tasa adin-tarteen arabera. Urteko batezbestekoak	50
33. koadroa	Enpleguaren bilakaera, sektore ekonomikoaren arabera. Urteko batezbestekoak	51
34. koadroa	SEPEren bulegoetan erregistratutako kontratuak	52
35. koadroa	Hitzarmen kolektiboak eta grebak	52
36. koadroa	Biztanleriaren mugimendu naturala. Jaiotza- eta heriotza-tasak, 2018	53
37. koadroa	Euskal Herriko biztanleriaren mugimenduen bilakaera	54
38. koadroa	Industria Produktzioaren Indizearen (IPI) bilakaera	56
39. koadroa	Euskal Herriko Industria Produktzioaren Indizearen (IPI) bilakaera, ondasunen jomuga ekonomikoaren arabera	57
40. koadroa	EAEko Industria Produktzioaren Indizearen (IPI) bilakaera, jarduera-adarraren arabera*	58
41. koadroa	Nafarroako Industria Produktzioaren Indizearen (IPI) bilakaera, jarduera-adarraren arabera	58
42. koadroa	Ratio batzuen bilakaera, euskal industria-enpresen lagin baterako	59
43. koadroa	Emaitzen kontua. Urte arteko bilakaera (enpresa berei dagozkien hazkunde-tasak, aurreko urteko aldi berarekiko)	60
44. koadroa	EAEko balantze energetikoa (2018)	65
45. koadroa	EAEko azken kontsumoa energia moten arabera	65
46. koadroa	EAEko azken kontsumoa sektoreen arabera	67
47. koadroa	Energia elektrikoaren ekoizpena eta eskaria Euskal Herrian	69

48. koadroa	Energia elektrikoaren kontsumo garbia lurraldearen arabera	69
49. koadroa	Altzairu gordinaren ekoizpena	72
50. koadroa	Siderurgia-produktuen kontsumoa	73
51. koadroa	Espainiako siderurgia-sektoreko magnitude nagusiak*	73
52. koadroa	Inportatutako lehengaiak	75
53. koadroa	EAEko siderurgia-industriaren kanpo-merkataritza	77
54. koadroa	Siderurgia-jarduerak EAEko industriari egindako ekarpena	78
55. koadroa	Altzairuaren ageriko kontsumoa, produktuen arabera	78
56. koadroa	Beroan ijeztutako produktuen ekoizpena*	79
57. koadroa	Soldadurarik gabeko hodiaren kanpo-merkataritza	80
58. koadroa	Soldadurarik gabeko hodiaren esportazioak, helmugako herrialdeen arabera	81
59. koadroa	Negozio arloak eta enpresa-unitateak. Tubos Reunidos taldea. 2018	83
60. koadroa	Munduko merkataritza-flota	84
61. koadroa	Munduko merkataritza-flota, jatorrizko herrialdearen arabera	85
62. koadroa	Munduko merkataritza-flota, itsasontzi motaren arabera	86
63. koadroa	Espainiako itsasontzien ekoizpena	87
64. koadroa	Eskarien zorroa urtearen amaieran	87
65. koadroa	Eskarien zorroa itsasontzi motaren arabera, urtearen amaieran. 2019	88
66. koadroa	Ontzigintza Euskal Herrian	89
67. koadroa	Ontzigintza Euskal Herrian. Estatuko partaidetza. Tonaje konpentsatua	89
68. koadroa	Eskarien zorroa Euskal Herrian	91
69. koadroa	Eskarien zorroa, amaitutako ontziak eta hasitako ontziak, enpresen arabera	91
70. koadroa	Ibilgailuen ekoizpena. Herrialde nagusiak	95
71. koadroa	Ibilgailuen matrikulazioa herrialdeen arabera. Europa.	96
72. koadroa	Espainiako automobil-industriaren ekoizpena, matrikulazioa eta kanpoko merkataritza	97
73. koadroa	Turismoen matrikulazioa marken arabera	98
74. koadroa	Ibilgailuen esportazio nazionalen jomugako herrialde nagusiak	99
75. koadroa	Automobilgintza-sektoreko esportazioak eta inportaziok (ibilgailuak gehi osagarriak)	99
76. koadroa	Automobilgintzako ekipoen eta osagaien Espainiako industriaren zifra nagusiak	101
77. koadroa	Automobilgintzako euskal hornidura-sektorearen bilakaera	102
78. koadroa	Makina-erreminten eta fabrikazio-teknologiaren sektorearen ekoizpena	105
79. koadroa	Makina-erreminten eta fabrikazio-teknologiaren sektorearen esportazioa	106
80. koadroa	Espainiar Estatuko makina-erreminten sektorearen aldagai nagusien bilakaera	107
81. koadroa	Espainiako makina-erreminten esportazioen jomugako herrialde nagusiak*	108
82. koadroa	Espainiak inportatutako makina-erreminten jatorrizko herrialde nagusiak*	108
83. koadroa	Sektorearen magnitude nagusien bilakaera	110
84. koadroa	Paperaren eta kartoiaren ekoizpena (CEPIko kideak)	111
85. koadroa	Paperaren eta kartoiaren ekoizpena, herrialdeka	112
86. koadroa	Ore-ekoizpena, herrialdeen arabera	113
87. koadroa	Paperaren eta kartoiaren ekoizpena eta kontsumoa. Espainia, guztira	114
88. koadroa	Ekoizpena eta kontsumoa, paper motaren arabera	115
89. koadroa	Ekoizpena eta kontsumoa, ore motaren arabera	115
90. koadroa	Paperaren eta orearen ekoizpena Euskal Herrian	116
91. koadroa	Euskal Herriko paperaren sektoreko enpresa nagusiak	117
92. koadroa	Kautxu naturalaren eta sintetikoaren munduko kontsumoa	118
93. koadroa	Kautxuaren eraldaketa-sektorearen oinarritako datuak ⁰ Espainian	119
94. koadroa	Kautxuaren eraldatuen kanpo-merkataritza, azpisektore handien arabera	119
95. koadroa	Kautxuaren eraldatuen kanpo-merkataritza, azpisektore handien arabera	120
96. koadroa	Pneumatikoen eta birkautxutatuaren ekoizpena, kontsumoa eta kanpo-merkataritza	121
97. koadroa	Ibilgailuen ekoizpena eta salmenta Espainian	121
98. koadroa	Sektore elektroniko-informatikokoko eta telekomunikazioen sektoreko enpresen bilakaera EAEn	124

99. koadroa	Sektore elektroniko-informatikoko eta telekomunikazioen sektoreko ekoizpenaren bilakaera EAEn.....	124
100. koadroa	Sektore elektroniko-informatikoko eta telekomunikazioen sektoreko esportazioen bilakaera EAEn	125
101. koadroa	Sektore elektroniko-informatikoko eta telekomunikazioen sektoreko enpleguaren bilakaera EAEn	125
102. koadroa	Eraikuntza-sektorearen adierazle batzuen bilakaera	127
103. koadroa	Eraikuntzaren Indize Koiunturala (EAE).....	127
104. koadroa	Administrazio zentralaren, autonomikoaren eta tokikoaren arteko lizitazio ofizialaren banaketa.....	128
105. koadroa.	Lizitazio ofizialaren urtetik urterako aldakuntza eta administrazioen arteko banaketa (2019)	129
106. koadroa	Lizitazio ofiziala obra motaren arabera (2019).....	130
107. koadroa	Hasitako eta amaitutako etxebizitzak*	132
108. koadroa	Birgaitze babestuaren arloko lanak EAEn*	135
109. koadroa	Eraikuntzan lanean ari den biztanleria	135
110. koadroa	Espainiako Bankuko Balantzeen Zentraleko enpresa laguntzaileen kopurua	148
111. koadroa	Ondare garbiaren errentagarritasuna Euskal Herriko industria-sektoreetan	149
112. koadroa	Aktibo garbiaren errentagarritasuna Euskal Herriko industria-sektoreetan	150
113. koadroa	Leverage finantzarioa Euskal Herriko industria-sektoreetan	151
114. koadroa	Euskal Herriko eta Estatu osoko industria-sektoreen arteko alderaketa, 2018	152
115. koadroa	Funtsen iturrien eta erabileren egoera Euskal Herriko industria-sektoreetan	155
116. koadroa	Euskal Herriko eta Estatu osoko industria-sektoreen arteko alderaketa 2018	156
117. koadroa	Elikagaien, edarien eta tabakoaren industriaren sektoreko ratioen piramidea	160
118. koadroa	Paperaren industriaren sektoreko ratioen piramidea.....	161
119. koadroa	Industria kimikoaren sektoreko ratioen piramidea	162
120. koadroa	Kautxu eta plastikoen fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea	163
121. koadroa	Beste produktu mineral ez-metaliko batzuen fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea	164
122. koadroa	Metalurgia sektoreko ratioen piramidea (burdinazko eta altzairuzko produktuen eta ferroaleazioen fabrikazioa)	165
123. koadroa	Produktu metalikoen fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea (makineria eta ekipoa izan ezik).....	166
124. koadroa	Material eta ekipa elektrikoaren fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea	167
125. koadroa	Beste makineria eta ekipa batzuen fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea	168
126. koadroa	Ibilgailu motordunen, atoen eta erdi-atoien fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea	169
127. koadroa	Beste garraio-material batzuen fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea	170
128. koadroa	Altzarien fabrikazioaren eta beste manufaktura-industria batzuen sektoreko ratioen piramidea.....	171
129. koadroa	Makineria eta ekipoen konponketa eta instalazioaren sektoreko ratioen piramidea	172
130. koadroa	Industria osoaren ratioen piramidea	173
131. koadroa	Elikagaien, edarien eta tabakoaren industriaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera	174
132. koadroa	Paperaren industriaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera	175
133. koadroa	Industria kimikoaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera	176
134. koadroa	Kautxu eta plastikozko produktuen fabrikazioaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera	177
135. koadroa	Beste produktu mineral ez-metaliko batzuen fabrikazioaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera.....	178

136. koadroa	Metalurgia sektoreko (burdinazko eta altzairuzko produktuen eta ferroaleazioen fabrikazioa) iturrien eta erabileren egoera.....	179
137. koadroa	Produktu metalikoen fabrikazioaren sektoreko (makineria eta ekipoa izan ezik) iturrien eta erabileren egoera.....	180
138. koadroa	Material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera.....	181
139. koadroa	Beste makineria eta ekipo batzuen fabrikazioaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera.....	182
140. koadroa	Ibilgailu motordunen, atoiaren eta erdi-atoiaren fabrikazioaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera.....	183
141. koadroa	Beste garraio-material batzuen fabrikazioaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera.....	184
142. koadroa	Altzarien fabrikazioaren eta beste manufaktura-industria batzuen sektoreko iturrien eta erabileren egoera.....	185
143. koadroa	Makineria eta ekipoen konponketa eta instalazioaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera.....	186
144. koadroa	Industria-sektore osoko iturrien eta erabileren egoera.....	187
145. koadroa	Enpresak, atal ekonomikoaren arabera. 2013-2019 konparazioa.....	193
146. koadroa	Enpresak, soldatapekoen estratuen arabera. 2013-2019 konparazioa.....	196
147. koadroa	Espainiako nekazaritza-sektorearen makromagnitudeak.....	199
148. koadroa	EAEko nekazaritza-sektorearen makromagnitudeak*.....	201
149. koadroa	Nekazaritzako elikagaien kanpo-merkataritza. Euskal Herria.....	204
150. koadroa	Enplegua lehen sektorean*.....	205
151. koadroa	Euskal Herriko nekazaritza-ekoizpen adierazgarrienak*.....	209
152. koadroa	Euskal Herriko produktu esanguratsuenekin landatutako azalera*.....	210
153. koadroa	Nekazaritza-produktu esanguratsuenek lortutako errendimenduak*.....	211
154. koadroa	Nekazaritza-produktu esanguratsuenen prezioak(*).....	213
155. koadroa	Abeltzaintza-errolda (urte bakoitzeko azaroaren 30ean).....	215
156. koadroa	Esne-ekoizpena.....	216
157. koadroa	EAEko ekoizitako esnearen erabilera.....	217
158. koadroa	Esnea ekoizten duten eliteko behi-ustiategi batzuek osatutako lagin baten emaitzak.....	218
159. koadroa	ABEREK eta INTIA-ITGk kudeatutako ardi-esne ustiategi bategi bategi emaitza ekonomikoak.....	219
160. koadroa	Abere eta INTIA-ITGren kudeaketa tekniko-ekonomikoaren kontrolpean dauden haragitarako behi- eta ardi-ustiategi emaitzak.....	220
161. koadroa	INTIA-ITGren kudeaketa tekniko-ekonomikoaren kontrolpean dauden txerri-azien ustiategi emaitzak.....	221
162. koadroa	Euskal Herrian hildako azienaren kanaleko pisua.....	222
163. koadroa	EAEko egurra mozteko lizentziak.....	225
164. koadroa	EAEko egurra mozteko lizentziak.....	226
165. koadroa	Euskal Herriko ontzidiaren egitura.....	227
166. koadroa	EAEko baxurako ontzidia, portuen arabera (2019).....	229
167. koadroa	EAEko baxurako ontzidia, modalitatearen arabera, 2019.....	230
168. koadroa	Baxurako ontzidiaren bidez lehorreratutako arrantza, guztira.....	231
169. koadroa	Baxurako ontzidietatik lehorreratutako arrantza osoa, portuen arabera, 2019.....	231
170. koadroa	Baxurako ontzidietatik lehorreratutako arrantzaren balioa, portuen arabera, 2019.....	233
171. koadroa	Antxoaren eta hegaluzearren arrantza-aldien bilakaera.....	234
172. koadroa	Euskal Herriko alturako ontzidiaren egitura, 2019.....	236
173. koadroa	Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera. Haur Hezkuntza.....	239
174. koadroa	Euskalduntze maila Haur Hezkuntza.....	240
175. koadroa	Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera. Lehen Hezkuntza.....	241
176. koadroa	Euskalduntze maila Lehen Hezkuntza.....	242
177. koadroa	Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera. DBH.....	243
178. koadroa	Euskalduntze maila DBH.....	243
179. koadroa	Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera. Oinarrizko Lanbide Heziketa, Erdi Mailakoa eta Goi Mailakoa.....	245

180. koadroa	Euskalduntze maila Oinarrizko Lanbide Heziketa, Erdi Mailakoa eta Goi Mailakoa	246
181. koadroa	Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera. Batxilergoa	247
182. koadroa	Euskalduntze maila Batxilergoa	247
183. koadroa	Ikasleen eta irakasleen bilakaera Euskal Herriko unibertsitateetan	249
184. koadroa	Ikasleen banaketa UPV/EHU	250
185. koadroa	Ikasleen banaketa Nafarroako Unibertsitatean	252
186. koadroa	Ikasleen banaketa Nafarroako Unibertsitate Publikoan (UPNA)	253
187. koadroa	Ikasleen banaketa Deustuko Unibertsitatean	254
188. koadroa	Ikasleen banaketa Mondragon Unibertsitatean	255
189. koadroa	Bidaiarien mugimendua*	257
190. koadroa	Bidaiarien mugimendua konpainien arabera	257
191. koadroa	Bidaiarien garraioagatiko diru-bilketa	258
192. koadroa	Jatorria eta/edo helmuga Euskal Herrian duten merkantzien bolumena ^(*)	258
193. koadroa	Trenbide bidezko garraioan enplegatutako langileak	259
194. koadroa	Bidaiarien mugimendua Bilboko Metroan	260
195. koadroa	Ibilgailuen parkea*	262
196. koadroa	Kamioi, traktore industrial eta autobusen matrikulazio garbia*	263
197. koadroa	Motorizazio-indizeak	263
198. koadroa	Garraiatutako merkantziak, autonomia-erkidegoaren arabera. Eskualde barruko garraioa eta eskualde arteko garraioa, jatorri eta/edo helmugako autonomia-erkidegoaren arabera	264
199. koadroa	Hiri-garraioa. Sektorearen oinarrizko datuak	265
200. koadroa	Hiri-garraioaren bilakaera	265
201. koadroa	Itsaso bidezko munduko merkataritza	266
202. koadroa	Espainiako itsas merkataritza	266
203. koadroa	Euskal Herriko portu nagusietako trafikoa	267
204. koadroa	Merkantzien guztizko trafikoen osaera	268
205. koadroa	Kanpoko trafikoa eta kabotajea	268
206. koadroa	Bilboko Portuaren kanpoko trafikoen osaera. 2019	269
207. koadroa	Pasaiako Portuaren kanpoko trafikoen osaera. 2019	270
208. koadroa	Bilboko Portua. Herrialdeen arabeko trafikoa. 2019	271
209. koadroa	Pasaiako Portua. Herrialdeen arabeko trafikoa. 2019	271
210. koadroa	Bilboko Portua. Magnitude ekonomikoak	272
211. koadroa	Euskal Herriko aire bidezko garraioa*	275
212. koadroa	Aireportuko aireontzien trafikoa*	276
213. koadroa	Merkantzien trafikoa, aireportuen arabera*	276
214. koadroa	Bidaiarien trafikoa, aireportuen arabera*	277
215. koadroa	Aireportuko trafikoen hazkundea (2019/2018)*	277
216. koadroa	Nazioarteko turistak	280
217. koadroa	Espainiara datozen bidaiariak, jatorriaren arabera	282
218. koadroa	Eskari turistikoaren bilakaera Espainian	283
219. koadroa	Espainiako eskaintza turistikoaren bilakaera (urteko batez bestekoa)	284
220. koadroa	Espainiako eskaintza turistikoaren bilakaera (urteko batez bestekoa)	285
221. koadroa	Okupazio mailaren eta prezio-indizeen bilakaera Espainiako turismo-ostatuaren sareetan (urteko batezbestekoa)	286
222. koadroa	Jasotako bidaiari kopurua, gualdiak eta batezbesteko egonaldia (EAE 2019). Jatorriaren arabera	287
223. koadroa	Eskaera turistikoaren bilakaera EAEn	289
224. koadroa	Hotel-establezimenduen eskaintzaren bilakaera EAEn eta lurraldeka 2017-2019	292
225. koadroa	EAEko eskaintza turistikoaren bilakaera. Urteko batezbestekoa	293
226. koadroa	Batez besteko egonaldia eta okupazio maila, establezimendu motaren eta zonalde geografikoaren arabera	294
227. koadroa	Hileko batez besteko tarifa EAEko (ADR) hotel-establezimenduetan, lurralde historiko eta kategorien arabera. Euroak	295
228. koadroa	Koronabirusaren krisiari emandako nazioz gaidiko erantzuna	300
229. koadroa	Covid-19aren krisialdiari aurre egiteko neurri nagusiak; xehetasunak	301
230. koadroa	Burtsa-indize nagusien bilakaera	302

231. koadroa	Kreditu-erakundeak eta EFC	303
232. koadroa	Gordailu-erakundeak. Bulego kopurua.....	303
233. koadroa	Afiliazioa finantza-jardueretan.....	304
234. Koadroa	Kreditu-erakundeen aktiboaren osaera	305
235. koadroa	Kreditu-erakundeak. Kreditua agenteen arabera.....	306
236. koadroa	Kreditu-erakundeak. Kredituak, motaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk.....	307
237. koadroa	Gordailu-erakundeak. Kreditua, jomugaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk.....	308
238. koadroa	Gordailu-erakundeak. Kreditua, agenteen eta lurraldearen arabera	311
239.koadroa	Etxebizitzaren gaineko hipoteka berrien eraketa.....	312
240.koadroa	Aldaketa notarialak erregistratu dituzten etxebizitzaren gaineko hipotekak.....	313
241.koadroa	Ibilgailuen matrikulazioaren bilakaera. Turismoak.....	313
242. koadroa	Gordailu-erakundeak. Zalantzasaren edo berankortasunaren guztizko tasaren bilakaera. Beste sektore egoiliar batzuk.....	314
243. koadroa	Gordailu-erakundeak. Zalantzasaren edo berankortasun-tasaren bilakaera, kredituaren helburuen arabera. Beste sektore egoiliar batzuk.....	315
244. koadroa	Gordailu-erakundeak. Zalantzasaren kredituaren bilakaera, helburuen arabera. Beste sektore egoiliar batzuk	315
245. koadroa	Kreditu-erakundeak. Kreditu-erakundeetako gordailuak, agenteen arabera.....	316
246. koadroa	Kreditu-erakundeak. Gordailuak moten arabera. Beste sektore egoiliar batzuk.....	317
247. koadroa	Gordailu-erakundeak. Beste sektore egoiliar batzuen eta administrazio publikoen gordailuak.	318
248.koadroa	Errenta gordin erabilgarria, balio erantsi gordin eta aurrezki gordin	319
249. koadroa	Kreditu-erakundeak. Familietarako ⁽²⁾ eta sozietate ez-finantzarioetarako eragiketa berriei aplikatutako interes-tasak (TEDR).....	321
250. koadroa	Finantza arloko Inbertsio Kolektiboko Erakundeen ondarea eta kopurua	322
251. koadroa	Higigarrietako inbertsio-sozietateen eta -funtzen ondare-banaketa, balio eraginkorren arabera	324
252. koadroa	Higigarrietako Inbertsio Funtzen (HIF), partaideen eta ondarearen banaketa, zorroaren osaeraren arabera (abenduarien 31).....	325
253. koadroa	Burtsa-indize nagusien bilakaera	327
254. koadroa	Akzioak ez diren baloreak, finantza-tresna deribatutako izan ezik. Inbertsio-funtsetako partaidetzak eta akzioak. Jaulkipen garbiak eta salmenta-eskaintza publikoak.....	329
255. koadroa	Burtsa-merkatua Negoziatutako bolumenen balio efektiboa.....	330
256. koadroa	Errenta finko publikoaren bigarren mailako merkatuan negoziatutako bolumenak: Estatuaren zorra ⁽¹⁾	331
257. koadroa	Geroko Finantzarioen eta Aukera Finantzarioen Espainiako Merkatua	331
258. koadroa	Bilboko Burtsaren Indize Orokorra (2000 indizea). Azken balioa, maximoa eta minimoa.....	332
259. koadroa	Bilboko Burtsako kontratazio-bolumena. Balio efektiboak*	333

Grafiko aurkibidea

1. grafikoa	Interes-tasen aldakuntza.....	23
2. grafikoa	Interes-tasa ofizialen bilakaera: Europako Banku Zentrala eta Erreserba Federala.....	34
3. grafikoa	BPGaren bilakaera.....	37
4. grafikoa	Industria-errentagarritasuna.....	59
5. grafikoa	EAEko azken kontsumoa energia moten arabera (ktep).....	66
6. grafikoa	Altzairuaren mundu mailako ekoizpena.....	72
7. grafikoa	Espainiako siderurgia-sektoreko magnitude nagusiak.....	74
8. grafikoa	Euskal Herriko siderurgia-establezimendu nagusien kokapena.....	76
9. grafikoa	2019ko zenbatekoen banaketa, merkatuen arabera 2019.....	82
10. grafikoa	Ontzigitzako eskaera-zorroaren eta ekoizpen haztatuaren bilakaera (mCGT).....	90
11. grafikoa	Sektoreko fakturazioaren bilakaera.....	102
12. grafikoa	Makina-erreminten sektoreko merkataritza-balantza.....	107
13. grafikoa	Paperaren sektorearen aldagai nagusien bilakaera Espainian.....	114
14. grafikoa	Lizitazio ofiziala.....	131
15. grafikoa	Amaitutako etxebizitza kopurua.....	134
16. grafikoa	Eraikuntzan lanean ari den biztanleria.....	136
17. grafikoa	Ondare garbiaren ohiko errentagarritasuna eta haren osagaiak (aktibo garbiaren errentagarritasuna eta leverage finantzarioa) Euskal Herriko industria-sektoreetan, 2018.....	153
18. grafikoa	Euskal Herriko industria-sektoreetako ondare garbiaren ohiko errentagarritasuna (e1), Estatukoarekin alderatuta, 2018.....	154
19. grafikoa	Funtsen iturrien eta erabileren egoera Euskal Herriko industria-sektoreetan, 2018.....	158
20. grafikoa	Euskal Herriko eta Estatuko industria sektoreen inbertsio-diruzaintzaren (TINV) fluxuaren alderaketa, 2018.....	159
21. grafikoa	Enpresa kopuruaren bilakaera.....	189
22. grafikoa	Enpresa kopuruaren urte arteko aldakuntza.....	190
23. grafikoa	Pisuaren bilakaera Estatuko guztizkoarekiko (Estatua=100).....	190
24. grafikoa	Enpresen bilakaera, sektore ekonomikoaren arabera (indizea 2013=100).....	192
25. grafikoa	Enpresen bilakaera, soldatapekoen tarteen arabera (indizea 2013=100).....	195
26. grafikoa	Balio erantsi gordinaren bilakaera, nekazaritza-sektoreko faktoreen kostura.....	202
27. grafikoa	Enpleguaren bilakaera lehen sektorean*.....	206
28. grafikoa	Euskal Herriko abere-ekoizpena, espezieen arabera bilakaera.....	223
29. grafikoa	Baxurako ontzidietatik lehorreratutako arrantzaren balioa (mila €), espezieen eta portuen arabera, 2019.....	232
30. grafikoa	Antxoaren eta hegaluzearen arrantza-aldiak.....	235
31. grafikoa	Unibertsitatekoak ez diren ikasleen matrikulazioen bilakaera Euskal Herrian.....	244
32. grafikoa	Merkantzien eta itsasontzien trafikoa Bilboko Portuan.....	273
33. grafikoa	Merkantzien eta itsasontzien trafikoa Pasaiaiko Portuan.....	274
34. grafikoa	Bidaiarien eta gaualdien bilakaera, EAEn eta lurralde historikoetan 2016-2019.....	288
35. grafikoa	Bidaiariak eta gaualdiak, lurraldeen eta merkatu-segmentuen arabera (%) 2019.....	290
36. grafikoa	Bidaiari kopuruaren bilakaera eta gaualdiak, hilabeteka (EAE, 2017-2019).....	291
37. grafikoa	Kanbio-tasa: Euroa versus Dolarra*.....	298
38. grafikoa	KPlaren gaineko neurri ekonomikoen alderaketa 2008ko eta 2020ko krisialdian, herrialdeka.....	299
39. grafikoa	Ibex-35aren bilakaera. Hileko itxiera-balioaren gaineko urtetik urterako aldakuntza-tasa.....	302
40. grafikoa	Kreditu-erakundeak. Kreditua, jomugaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk.....	309



41. grafikoa	Gordailu-erakundeak. Beste sektore egoiliar batzuei emandako kredituaren bilakaera.....	310
42. grafikoa	Gordailu-erakundeak. Beste sektore egoiliar batzuen gordailuen bilakaera	317
43.grafikoa	Birfinantzaketako interes-tasaren bilakaera. Europako Banku Zentrala	320
44. grafikoa	Kotizazio Indize Orokorra Bilboko Burtsa (2019).....	332

A decorative graphic on the left side of the page. It features a large, light-colored triangle with a fine dotted pattern. Overlapping the bottom-right corner of this triangle is a square image showing a close-up of wood grain with concentric rings in various shades of brown and tan. A small, solid magenta triangle is positioned at the top-left corner of the wood grain image.

19

1. LABURPEN EXEKUTIBOA



URTEKO LABURPENA

Munduko ekonomia nabarmen moteldu da 2019an; izan ere, 2018ko % 3,6ko hazkunde-tasatik % 2,9ko erregistrora igaro da 2019an. Txinaren eta AEBren arteko gerra komertziala izan da gorabehera-iturri nagusia. Beste faktore berezi batzuek ere izan dute eragina, Brexitak esaterako, Europar Batasunean bakarrik bada ere. Auzi horien bilakaerak eragina izan du nazioarteko merkataritzan eta aurreikuspenetan, eta inbertsioa eta enplegua moteldu ditu. Hala, AEBn % 2,3ra jaitsi da hazkunde-tasa, nahiz eta 2018ko hedapen fiskalari lotutako erritmo biziari eusten dion oraindik ere.

Beste eskualde batzuek, ostera, euroguneak adibidez, % 1,3ko erregistroa eman dute, aipatutako bi gorabeheren eragin negatiboaren ondorioz. Alemania da kaltetu nagusietako bat. Automobil-sektorearen ahuleziagatik, besteak beste, 2019ko hazkunde-tasa aurreko urtekoa baino 9 hamarren txikiagoa izan da, % 0,6koa, hain zuzen.


Gure erreferentziako eremu geografikora etorritz:

- 2019an, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAEko) barne-produktu gordinak (BPGd-ak) % 2,2 egin du gora. Nafarroako Foru Erkidegoan eta Estatuan ere antzeko hazkunde-tasak lortu dira, % 2,6koa eta % 2koa, hurrenez hurren.
- Aurrekoaren ondorioz, lan-merkatuaren bilakaera positiboa izan da 3 eremu geografikoetan: enplegua % 1,4 hazi da EAEn, % 2,4 Nafarroan eta % 2,3 Estatuan.
- Magnituderik eraginkorrena, langabezia-tasa, % 9,2koa izan da EAEn, 2018an baino 8 hamarren txikiagoa; foru-erkidegoan, berriz, % 8,2koa izan da eta Espainian % 14,1ekoa. Azken batean, langabezia-tasa ohiko balioetara hurbiltzen ari da EAEn eta Nafarroako Foru Erkidegoan, Estatuan oraindik handia bada ere, eta finantza-krisiari lotutako ekoizpen-arrakala itxi egin da.
- Eskaintzaren ikuspegitik, sektore guztiek balio erantsi gordinen hazkunde positiboa izan dute aztertutako 3 eremu geografikoetan, Estatuko lehen sektoreak izan ezik.



BPGd-aren bilakaera	2018	2019
		(%-tan)
Estatu Batuak	2,9	2,3
Japonia	0,3	0,7
Alemania	1,5	0,6
Frantzia	1,8	1,5
Italia	0,7	0,3
Erresuma Batua	1,3	1,4
Kanada	2,0	1,7
Eurogunea	1,9	1,3
ELGE guztira	2,3	1,7

Iturria: ELGE. Aurreikuspen ekonomikoak, 2020ko ekaina



Iturria: Eustat, Nafarroako Estatistika Institutua eta EIN

BPGd-aren bilakaera sektoreka	2018	2019
		(%-tan)
EAE		
- Lehen sektorea	7,9	0,6
- Industria	2,5	1,1
- Eraikuntza	4,1	3,1
- Zerbitzuak	2,7	2,5
Guztira	3,0	2,2
NAFARROA		
- Lehen sektorea	1,7	0,7
- Industria	2,0	1,6
- Eraikuntza	2,5	3,2
- Zerbitzuak	4,1	3,4
Guztira	3,2	2,6
ESTATUA		
- Lehen sektorea	5,9	-2,6
- Industria	-0,4	0,6
- Eraikuntza	5,7	3,5
- Zerbitzuak	2,7	2,6
Guztira	2,4	2,0

Iturria: EIN, Eustat eta Nafarroako Estatistika Institutua

Enpleguaren bilakaera sektoreka (mila pertsonakotan)

EAE	Lehen sektorea	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
2018	9,3	200,8	50,3	663,3
2019	10,2	190,7	52,9	682,3
NAFARROA				
2018	11,8	75,2	17,8	177,4
2019	10,2	74,9	16,2	187,6
ESTATUA				
2018	812,6	2.708,3	1.221,8	14.585,1
2019	797,3	2.763,1	1.277,9	14.941,0

Iturria: EIN, Biztanleria Aktiboaren Inkesta (2011ko biztanleria-oinarria)

Nazioarteko hazkundera

2019an, hedapen-erritmoa moteltzen jarraitu du munduko ekonomiak, batez ere Estatu Batuen eta Txinaren arteko gerra komertziala eta nagusitu den ziurgabetasuna direla eta. Hain zuzen, % 2,9 hazi da munduko ekonomia —% 3,6 aurreko ekitaldian—. Beraz, bai ekonomia aurreratuak eta bai garatzeko bidean daudenak aurreko ekitaldian baino dinamikotasun txikiagoz aritu dira: hurrenez hurren, % 1,7ko eta % 3,7ko hazkunderak izan dituzte 2019an; 2018an, berriz, % 2,2 eta % 4,5ekoak.

BPGd-aren bilakaera (Estatua)

Ilido beretik, 2019an Estatuan ere geldotu egin da aurreratze-erritmoa: % 2ko hazkundera izan du (2018an % 2,4koa); hortaz, eutsi egin dio 2016an abiatutako moteltze-bideari.

Lan-merkatuari dagokionez, 2019an % 2,3 hazi da Estatuko landunen kopurua (2018an % 2,7), eta enpleguaren igoera orokorra izan da lehen sektorean ez beste guztietan.

Sektorekako bilakaera (EAE eta Estatuak)

Era berean, EAEko ekonomiaren hedapena ere moteldu egin da: % 2,2ko igoera izan du (aurreko ekitaldian % 3koa). Lau sektore ekonomikorik handienek gorakadak izan dituzte, baina ez aurreko ekitaldiko indar berarekin, bereziki lehen sektoreak eta industriarena.

Estatuko datuekin alderatuta, lehen sektoreak eta industriaren sektoreak askoz ere hazkunde biziagoa izan dute; eraikuntzak eta zerbitzuek, berriz, hazkunde txikiagoa dute EAEn.

Lan-merkatua (EAE eta Estatuak)

EAEko langabezia-tasa jaitsi egin da 2018ko % 10etik 2019ko % 9,2ra, eta landunen kopurua 936,1 mila pertsonakoa da.



sektoreak



2019-2018 urtetik urterako aldakuntza




*Estatuaren koizpena




2020RAKO AURREIKUSPENAK


BPGd




Enplegua



Langabezia-tasa



KPI



COVID-19aren osasun-krisiak eragin handia izan du ekonomiaren bilakaeran. Txinan hasitako osasun-krisia 2020aren hasieran iritsi zen Europara. Birusa azkar hedatzen zela ikusita, biztanleria etxeetan konfinatzea eta ekonomia-jarduera hein handi batean geldiaraztea erabaki zuten herrialdeetako agintariek. Eta horrela gauzatu da, seguruenik, historiako atzeraldi globalik laburrena —2 hilabete iraun du 2 hiruhilekoren artean—. Baina, gainbehera hain izan da handia, pandemiaren aurreko egoerara itzultzeko 2 urte inguru beharko ditugula.

Hau da, 2 hilabetetan 2 urte galdu ditugu.

Dena den, finantza-krisian ez bezala, oraingoan irmotasunez eta azkar jokatu dute ekonomia-arloko agintariek, eta jokabide hori ezinbestekoa izan da krisiaren sakontasunari aurre egiteko. Diru- eta zerga-neurrietan zifra benetan ikusgarriak erabili dituzte, eta, seguruenik, horiei esker mugatu dira eragin negatiboak, oraingoz behintzat. Edonola ere, ekonomiaren itzalaldia nahiko azkar etorri bada ere, berriro martxan jartzea ez da hain erraza izango.

Lehenik, pandemiari lotutako ziurgabetasuna ez delako desagertu oraingoz; gaitza berriro agertzeko arriskua hor egongo da txertoa garatu arte. Urruntze soziala gauzatu da, eta oztopo izaten ari da zerbitzuen sektorean jarduera ekonomikoaren erritmoa leheneratzeko.

Bigarrenik, hornidura-kate luzeak dituzten industrietan eragina izango dute konfinamendua arintzearen inguruan herrialdeen artean dauden aldeek, eta jarduera murriztu egingo da pandemia-aurreko munduarekin alderatuta.

Hirugarrenik, osasun-krisiari aurre egiteko hartutako neurriek, finantzaketa-beharrak arintzen badituzte ere, zorpetzearen zama utziko dute. Hala, Europako herrialdeen artean alde nabarmenak egongo dira, zorpetze-mailaren arabera.

Azkenik, aipagarria da 2018-2019 biurtekoan motelteza ekarri zuten gerra komertzialaren eta Brexitaren auziek areagotu egin dezaketela atzeraldia.

Horrenbestez, txostena ixtean eskura dugun informazio ekonomikoa kontuan hartuta, abian den urterako ditugun aurreikuspenak negatiboak dira, -% 9,4 inguruko hazkunde-tasa aurreikusten baitugu Espainian, -% 8,9koa EAEn eta -% 8,6koa Nafarroako Foru Erkidegoan. Eta, estres-testuingururik ezean, 2021ean % 7 inguruko tasak izango ditugu aztertutako 3 eremu geografikoetan.



19

2. ESPARRU OROKORRA

1. INGURUNE EKONOMIKOA (NAZIOARTEKOA ETA ESTATUKOA)

1.1 NAZIOARTEKO EKONOMIA

Ezaugarri nagusiak: ekoizpen-jarduera

Txosten honi ekin aurretik, argi izan behar da 2019ko ekitaldiari egiten diola erreferentzia. Hortaz, aurreikuspenei dagozkien epigrafeak alde batera utzita, txostenak ez ditu barne hartzen 2020ko munduko ekonomian oso gogor eragin duen SARS-CoV-2 (aurrerantzean, COVID-19) pandemiaren ondorioak.

2018an mundu mailako hazkundeak izandako geldotzeari (% 3,6ko hazkundea, aurreko ekitaldian erregistratutako % 3,9ko hazkundearen aldean) jarraipena emanez, 2019an ere behera egin zuen mundu mailako ekonomiaren hedapenaren erritmoak, % 2,9koa izateraino, batez ere, Estatu Batuen eta Txinaren arteko gerra komertzialaren eta ziurgabetasun maila altuaren ondorioz.

lido horretatik, aipatzekoa da aurreko ekitaldian baino mugimendu gutxiago izan zutela, bai ekonomia aurreratuek, bai sortu berri diren eta garapen-bidean dauden merkatuetan oinarritutako ekonomiek (% 1,7ko eta % 3,7ko igoerak, hurrenez hurren; 2018an, berriz, % 2,2koa eta % 4,5ekoa).

ELGA Ekonomia, Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundearen ekaineko aurreikuspenen arabera, herrialde industrializatuak hedapen-erritmoak ehuneko sei puntu egin zuen behera 2019an: % 1,7, aurreko ekitaldiko % 2,3ren aldean, kontsumo pribatuaren eta inbertsioaren hazkundea txikiagoa izan zelako.

1. koadroa		Barne Produktu Gordinaren bilakaera		
Herrialdea				(% Δ)
	2017	2018	2019	
Estatu Batuak	2,4	2,9	2,3	
Japonia	2,2	0,3	0,7	
Alemania	2,8	1,5	0,6	
Frantzia	2,4	1,8	1,5	
Italia	1,7	0,7	0,3	
Erresuma Batua	1,9	1,3	1,4	
Kanada	3,2	2,0	1,7	
Eurogunea	2,7	1,9	1,3	
ELGA, guztira	2,7	2,3	1,7	

Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2020ko ekaina)

Ipar Amerikako ekonomia % 2 baino gehiago hazi zen 2019an (% 2,3). Hazkunde hori 2018koa (% 2,9) baino ehuneko puntu erdi baxuagoa izan zen ordea, kontsumo

privatuaren eta, bereziki, inbertsioaren dinamikotasunak behera egin baitzuen. Japoniako ekonomiaren hedapen-erritmoak, berriz, gora egin zuen, oraindik ere baxua izan arren (2019an % 0,7, eta urtebete lehenago % 0,3).

Sortu berri diren eta garapen-bidean dauden merkatuen ekonomiei dagokienez ere, hazkundearen erritmoaren apaltzea orokorra izan zen 2019an. Ekonomiaren hazkundera % 6,1ekoa izan zen Txinan (aurreko bi ekitaldietan, berriz, ia % 7koa), Indian % 4,2ra jaitsi zen (2018ko datua baino ia ehuneko bi puntu beherago) eta Errusian eta Brasilen % 1 baino apur bat handiagoa (% 1,3 eta % 1,1, hurrenez hurren; aurreko ekitaldian, berriz, % 2,5 eta % 1,3).

2. koadroa Kontsumo pribatuaren, kontsumo publikoaren eta inbertsioaren bilakaera

(% Δ)

Herraldea	Kontsumo pribatua			Kontsumo publikoa			Inbertsioa		
	2017	2018	2019	2017	2018	2019	2017	2018	2019
Estatu Batuak	2,6	3,0	2,6	0,6	1,7	1,8	3,7	4,1	1,8
Japonia	1,3	0,0	0,1	0,2	0,9	1,9	3,0	0,6	1,3
Alemania	1,6	1,2	1,7	2,4	1,4	2,7	3,1	3,5	2,6
Frantzia	1,7	0,8	1,5	1,4	0,9	1,7	5,0	3,2	4,3
Italia	1,5	0,9	0,4	-0,1	0,1	-0,4	3,4	2,9	1,4
Erresuma Batua	2,2	1,6	1,1	0,3	0,4	3,5	1,6	-0,2	0,6
Kanada	3,6	2,1	1,6	2,3	3,0	2,1	3,6	1,2	-0,4
Eurogunea	1,8	1,4	1,3	1,3	1,1	1,8	3,8	2,4	5,8
ELGA, guztira	2,5	2,1	1,8	1,3	1,9	2,2	3,9	2,4	1,4

Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2020ko ekaina)

Gure ingurune hurbilean, Eurogunearen hedapen-erritmoa % 1,3ra jaitsi zen 2019an (2018an, % 1,9). Jaitsiera horretan eragin handia izan zuen Alemaniako ekonomiaren ahultasunak, 2019an % 0,6 baino ez baitzen igo, aurreko ekitaldian igo zenaren erdia baino gutxiago (2018an, % 1,5).

Kanpo-merkataritza

Ekonomiaren dinamikotasun baxuagoko egoera horretan, ELGAko kide diren herrialdeek kanpora egindako salmentek zein erosketek indarra galdu zuten, aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Esportazioen hazkundera % 1,9koa izan zen 2019an, eta inportazioena % 2,1ekoa (2018an, hurrenez hurren, % 3,5koa eta % 3,3koa).

Hala, Erresuma Batuan izan ezik, kontuan izan ditugun gainerako herrialde guztietan moteldu egin zen kanpoko merkataritza-eragiketen indarra.

3. koadroa Ondasun eta zerbitzuen truke-bolumenaren aldakuntzak

(%Δ)

Herrialdea	Inportazioak			Esportazioak		
	2017	2018	2019	2017	2018	2019
Estatu Batuak	4,7	4,4	1,0	3,5	3,0	0,0
Japonia	3,4	3,7	-0,7	6,8	3,5	-1,6
Alemania	5,7	3,7	2,5	5,5	2,3	1,0
Frantzia	4,7	3,1	2,6	4,6	4,6	1,8
Italia	6,5	2,8	-0,2	6,0	1,7	1,4
Erresuma Batua	3,5	2,0	4,6	6,1	1,2	4,8
Kanada	4,2	2,6	0,6	1,4	3,1	1,3
ELGA, guztira	5,1	3,3	2,1	4,9	3,5	1,9

Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2020ko ekaina)

Prezioak

Petrolioaren prezioak 2019an izandako beherakadak (Brent upelaren prezioa, 2018an upeleko 70,9 dolarrekoa izatetik, 2019an 64,8 dolarrekoa izatera pasatu zen) kontsumoko prezioen hazkunde-erritmoaren moteltze orokorra eragin zuen kontuan hartutako herrialdeetan.

Hala, ELGaren arabera, kontsumoko prezio-indizearen hazkundera 2019an % 1,8ra jaitsi zen Estatu Batuetan, eta % 1,2ra Eurogunean (aurreko ekitaldian, hurrenez hurren, % 2,4koa eta % 1,8koa izan ziren).

4. koadroa Kontsumoaren prezio-indizearen bilakaera

(%Δ)

Herrialdea	2017	2018	2019
Estatu Batuak	2,1	2,4	1,8
Japonia	0,5	1,0	0,5
Alemania	1,7	1,9	1,4
Frantzia	1,2	2,1	1,3
Italia	1,3	1,2	0,6
Erresuma Batua	2,7	2,5	1,8
Kanada	1,6	2,2	2,0
Eurogunea	1,5	1,8	1,2

Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2020ko ekaina)

Egoera horretan, Estatu Batuetako Erreserba Federalak ehuneko puntu laurden bat murriztu zuen bere erreferentzia-tasa, hiru aldiz: uztailan, irailean eta urrian. Hala, 2019aren itxieran, % 1,75ekoa zen Erreserba Federalaren tasa. Europako Banku Zentralak, berriz, ekitaldi osoan zehar ez zuen bere tasa aldatu, eta % 0an mantendu zuen.

Lan-merkatua

2019an ekonomiaren hazkundera apalagoa izan bazen ere, langabezia-tasak behera egin zuen kontuan hartutako herrialde guztietan, Japonian izan ezik, egonkor mantendu

baitzen, % 2,4an. Estatu Batuetan % 3,7ra jaitsi zen langabezia-tasa, Eurogunean % 7,6ra, eta gainerako industrializatutako herrialdeen multzoan % 5,4ra (2018ko tasak, hurrenez hurren, % 3,9, % 8,2 eta % 5,5).

5. koadroa Langabezia-tasa
(biztanleria aktiboaren %)

Herraldea	2017	2018	2019
Estatu Batuak	4,4	3,9	3,7
Japonia	2,8	2,4	2,4
Alemania	3,8	3,4	3,2
Frantzia	9,4	9,0	8,4
Italia	11,3	10,6	9,9
Erresuma Batua	4,4	4,1	3,8
Kanada	6,3	5,8	5,7
Eurogunea	9,1	8,2	7,6
ELGA, guztira	5,9	5,5	5,4

Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2020ko ekaina)

Diru- eta aurrekontu-politika

Defizita orokorra izan zen 2019an eta, testuinguru horretan, aurrekontuaren gauzatzearen bilakaera heterogeneoa izan zen. Italiak, Erresuma Batuak eta Kanadak haien kontu publikoetako desorekak apaldu zituzten (hurrenez hurren, -% 1,6, -% 2,1 eta -% 0,3ko defizitak izan zituzten; aurreko ekitaldian, berriz, -% 2,2, -% 2,2 eta -% 0,4koak). Estatu Batuek, Japoniak eta Frantziak, berriz, areagotu egin zituzten desoreka horiek (hurrenez hurren, -% 7,3, -% 2,6 eta -% 3ko defizitak; aurreko ekitaldian, -% 6,7, -% 2,3 eta -% 2,3koak). Bestalde, Alemaniak bere superabita murriztu zuen; 2018an % 1,9eko superabita izan zuen, eta 2019an % 1,4koa.

Eurogune osoa kontuan izanik, 2019an -% 0,7ra igo zen defizita (aurreko ekitaldian -% 0,5ekoa izan zen). Aldi berean, ELGaren finantzaketa-beharra BPGaren -% 3,3ra igo zen, 2018ko datua (-% 2,9) baino ehuneko lau puntu okerragoa.


6. koadroa Administrazio Publikoen finantzaketa-beharrak
(finantzaketa-ahalmena (+) edo finantzaketa-beharra (-), BPG nominalaren ehunekoaren arabera)

(BPGaren %)

Herraldea	2017	2018	2019
Estatu Batuak	-4,3	-6,7	-7,3
Japonia	-2,9	-2,3	-2,6
Alemania	1,2	1,9	1,4
Frantzia	-2,9	-2,3	-3,0
Italia	-2,4	-2,2	-1,6
Erresuma Batua	-2,4	-2,2	-2,1
Kanada	-0,1	-0,4	-0,3
Eurogunea	-1,0	-0,5	-0,7
ELGA, guztira	-2,3	-2,9	-3,3

Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2020ko ekaina)

Diru-politikari dagokionez, aurrez ere aipatu dugun moduan, Europako Banku Zentralak % 0an mantendu zuen bere interes-tasa 2019an zehar. Estatu Batuetako Erreserba Federalak, berriz, ehuneko puntu laurden bat murriztu zuen hiru alditan: uztailean, irailean eta urrian; ekitaldiaren itxieran % 1,75ekoa zen interes-tasa.



Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2020ko ekaina)

Europar Batasuna

Arreta Europara ekarrita, argi utzi behar da txosten hau egiteko unean, Brexita gorabehera, EBren eta Erresuma Batuaren arteko etorkizuneko harremanak ez daudela batere argi oraindik. Hori dela eta, azterketa hau etorkizuneko harreman komertzialen status quo-aren gaineko hipotesi guztiz teknikoan oinarritzen da; hipotesi hori bat dator Europar Batasunaren udaberriko aurreikuspenekin. (Aurreikuspenerako baino ez; inola ere ez da negoziaketan emaitzaren pronostikoa).

Europar Batasunaren udaberriko aurreikuspenen arabera, 2019an EB-27 multzoaren hazkundera % 1,5era murriztu zen (2017an % 2,7ekoa izan zen, 2018an % 2,1ekoa). Izan ere, ehuneko puntu bat behera egin zuen barne-eskariaren hazkunderak (2019an % 1,9koa izan zen, eta 2018an % 2koa), nabarmen egin zuen behera esportazioen aurrerapen-erritmoak (% 2,7; aurreko ekitaldian, berriz, % 3,5) eta apur bat gora egin zuten inportazioek, baina neurri txikiagoan (% 3,7, eta aurreko ekitaldian, % 3,3).

Barne eskariari dagokionez, apur bat behera egin zuen kontsumo pribatuaren dinamikotasunak (% 1,6ko hazkundera izan zuen 2019an; 2018an, berriz, % 1,7koa). Kontsumo publikoaren eta, bereziki, inbertsioaren hazkundera mailek, berriz, gora egin zuten

(% 1,8ko eta % 5,7ko aurrerapenak, hurrenez hurren; aurreko ekitaldian, aldiz, % 1,2koa eta % 2,9koa).

7. koadroa Adierazle nagusiak (EB-27)

Kontzeptua	(Urte arteko aldakuntza-tasa)		
	2017	2018	2019
Jarduera			
– Kontsumo pribatua	2,0	1,7	1,6
– Kontsumo publikoa	1,3	1,2	1,8
– Kapital Finkoaren Eraketa Gordina	3,7	2,9	5,7
– Barne-eskaria	2,5	2,0	1,9
– Esportazioak	5,6	3,5	2,7
– Inportazioak	5,3	3,3	3,7
– BPG	2,7	2,1	1,5
Prezioak eta soldatak			
– BPGaren deflatorea	1,2	1,4	1,9
– Kontsumo pribatuaren deflatorea	1,4	1,5	1,4
– Banakako lan-kostu errealak	-0,2	0,5	0,1

Iturria: European Economy. Europako Batzordea (2020ko udaberria)

Datuak herrialdeka aztertuta, orokorrean denak hazi ziren, baina aurreko ekitaldian baino hazkunde apalagoa izan zuten gehienek. Irlanda (% 5,5), Hungaria (% 4,9), Malta (% 4,4), Estonia (% 4,3), Polonia eta Errumania (% 4,1 bi kasuetan) hazi ziren gehien, denak % 4tik gora. Bestetik, Frantziak, Suediak, Finlandiak, Alemaniak eta Italiak izan zuten hazkunderik apalena (hurrenez hurren, % 1,3, % 1,2, % 1, % 0,6 eta % 0,3). Puntu honetan, nabarmentzekoa da Batasuneko traktore nagusia den Alemaniako ekonomiaren hazkunde mailak ia ehuneko puntu bat egin zuela behera, aurreko ekitaldiarekin alderatuta.

8. koadroa Barne Produktu Gordinaren (BPG) hazkundea
(Europar Batasuna)

(Urte arteko aldakuntzaren %)

Herrialdea	2017	2018	2019
Irlanda	8,1	8,2	5,5
Hungaria	4,3	5,1	4,9
Malta	6,5	7,3	4,4
Estonia	5,7	4,8	4,3
Polonia	4,9	5,3	4,1
Errumania	7,1	4,4	4,1
Lituania	4,2	3,6	3,9
Bulgaria	3,5	3,1	3,4
Txipre	4,4	4,1	3,2
Kroazia	3,1	2,7	2,9
Txekiar Errepublika	4,4	2,8	2,6
Eslovenia	4,8	4,1	2,4
Danimarka	2,0	2,4	2,4
Eslovakia	3,0	4,0	2,3
Luxenburgo	1,8	3,1	2,3
Letonia	3,8	4,3	2,2
Portugal	3,5	2,6	2,2
Espainia	2,9	2,4	2,0
Grezia	1,5	1,9	1,9
Herbehereak	2,9	2,6	1,8
Austria	2,5	2,4	1,6
EB-27	2,7	2,1	1,5
Erresuma Batua	1,9	1,3	1,4
Belgika	2,0	1,5	1,4
Frantzia	2,3	1,7	1,3
Suedia	2,4	2,2	1,2
Finlandia	3,1	1,6	1,0
Alemania	2,5	1,5	0,6
Italia	1,7	0,8	0,3

Iturria: European Economy. Europako Batzordea (2020ko udaberria)

Per capita BPGari dagokionez, erosketa-ahalmenaren parekotasuna kontuan hartuta, 2019an oraindik ere ezberdintasun handiak zeuden Batasuneko herrialdeen artean. Ildo honetatik jarraituz, lehengo EB-15aren eremuan, Grezia (% 64), Portugal (% 72,5), Espainia (% 84,7), Italia (% 88,7) eta Frantzia (% 97) EB-15aren batezbestekotik (% 100) behera zeuden. Luxenburgok, berriz, batez besteko mailaren bikoitza baino altuagoa izan zuen (% 241,3). EB-27 osoa kontuan izanda, bata bestearen segidan kide berriak gehitu izanak batez besteko per capita BPG komunitarioaren beherakada nabarmena eragin zuen.

9. koadroa Europar Batasuneko per capita BPGa (2019)

Herrialdea	EB-15=100	EB-27=100
Luxenburgo	241,3	259,7
Irlanda	181,8	195,7
Danimarka	120,4	129,6
Herbehereak	120,2	129,4
Austria	118,8	127,9
Alemania	112,8	121,4
Suedia	111,3	119,8
Belgika	108,9	117,2
Finlandia	102,8	110,7
EB-15 guztira	100,0	107,6
Erresuma Batua	97,8	105,3
Frantzia	97,0	104,4
EB-27 guztira	92,9	100,0
Malta	91,0	98,0
Italia	88,7	95,5
Txekiar Errepublika	85,2	91,7
Espainia	84,7	91,2
Txipre	83,9	90,3
Eslovenia	81,4	87,6
Estonia	78,1	84,1
Lituania	77,1	83,0
Portugal	72,5	78,0
Eslovakia	68,8	74,1
Hungaria	68,4	73,6
Polonia	67,7	72,9
Letonia	65,1	70,1
Grezia	64,0	68,9
Errumania	63,1	67,9
Kroazia	60,0	64,6
Bulgaria	48,6	52,3

Iturria: European Economy. Europako Batzordea (2020ko udaberria)

Aurreikuspenak

2020aren hasieran COVID-19aren pandemiak mundu mailako inpaktu gogorra izan du gure gizartean, eta beharrezkoak izan dira isolatzeak, konfinamenduak eta itxiera orokorrak, birusa gehiago ez zabaltzeko. Hala, birusak eragindako osasun-krisiak jardueraren bat-bateko geldialdia eta ekonomiaren atzeraldi sakona ekarri ditu. Atzeraldi horren neurria eta bilakaera ikusteko dago oraindik, baina argi dago gure gertuko historiaren pasarterik okerrenean gaudela.

Lan hau egiteko unean, ez dago birusari aurre egiteko txertorik, ezta tratamendu eraginkorrik ere, hortaz, "bigarren olatu" batek jardueraren erorketa librea eragiteak sortzen du kezkarik handiena.

Egoera honen aurrean, nazioarteko erakunde nagusien aurreikuspen ekonomiko guztiak txarrak dira. NDF (Nazioarteko Diru Funtsak) -% 3ko mundu mailako jardueraren atzerakada aurreikusi du 2020ko apirilean ekitaldi honetarako, nahiz eta % 5,8ko igoera nabarmena aurreikusten duen 2021erako.

Edonola ere, pandemiaren bilakaeraren araberakoa izango da jardueraren bilakaera ere. Hori dela eta, egokia izan daiteke ELGaren ekaineko aurreikuspenak kontuan hartzea, bi egoera ezberdin irudikatzen baitituzte: bata, birusaren bigarren olatuarekin eta, bestea, gabe.

Bi agertokietan, ekonomia-bloke handi guztiek egingo dute atzera 2020an. Euroguneak izango du atzerakada handiena (-% 9,1 eta -% 11,5 artean), eta langabezia-tasa eta defizit publikoa % 10eko mailara hurbilduko dira.

Etorkizunari begira, sektore jakin batzuek shock altuak izango dituztela eta horrek ondorio ekonomikoak izango dituela kontuan izanda, osasun-neurriez gain, ekonomia babesteko neurri garrantzitsuak hartu beharko dituzte agintariek zerga-, diru- eta finantza-eremuetan.

10. koadroa Ekonomia-aurreikuspenak (industrializatutako herrialdeak)

Aurreikusitako egoera	Berragertzerik gabe		Berragertzearekin	
	2020	2021	2020	2021
Kontzeptua				
– BPG erreala (% Δ)				
• Estatu Batuak	-7,3	4,1	-8,5	1,9
• Japonia	-6,0	2,1	-7,3	-0,5
• Eurogunea	-9,1	6,5	-11,5	3,5
• ELGA, guztira	-7,5	4,8	-9,3	2,2
– Inflazioa (kontsumoaren prezio-indizea) (%Δ)				
• Estatu Batuak	1,5	1,5	1,4	1,1
• Japonia	-0,3	-0,1	-0,3	-0,5
• Eurogunea	0,4	0,5	0,4	0,2
– Langabezia-tasa (biztanleria aktiboaren %)				
• Estatu Batuak	11,3	8,5	12,9	11,5
• Japonia	3,2	3,2	3,4	3,9
• Eurogunea	9,8	9,5	10,3	11,0
• ELGA, guztira	9,2	8,1	10,0	9,9
– Defizit publikoa (BPGaren %)				
• Estatu Batuak	-15,0	-10,5	-16,8	-11,8
• Japonia	-11,6	-5,9	-12,9	-7,4
• Eurogunea	-9,2	-5,1	-10,9	-8,3
• ELGA, guztira	-11,1	-7,1	-12,7	-9,2

Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2020ko ekaina)

1.2 ESPAINIAKO EKONOMIA

Ezaugarri nagusiak

Espainiako ekonomiaren hazkunde-erritmoa % 2ra mugatu zen 2019an. Hala, 2016an hasitako geldotze-joerarekin jarraitu zuen (% 3,8ko hazkundea 2015an, % 3koa 2016an, % 2,9koa 2017an eta % 2,4koa 2018an).

Edonola ere, Espainiako ekonomia Europakoa baino gehiago hazi zela kontuan izanda, ekonomia komunitario nagusien benetako bateratze-prozesuan aurrera egin dela esan daiteke.

Eskariari dagokionez, 2019an gora egin zuen BPGak. Izan ere, mundu mailako hazkundeari ekarpen positiboa egin zioten bai barne-eskariak, ehuneko 1,5 puntukoa, bai kanpo-sektoreak, ehuneko 0,5 puntukoa. Aitzitik, 2018an, kanpo-sektorearen -0,3 puntuko ekarpen negatiboak zati batean konpentsatu egin zuen etxeko eskariak egindako 2,6 puntuko ekarpen positiboa.

Lan-merkatuari dagokionez, lehen sektorean izan ezik, gainerako sektoreetan enpleguak gora egin zuen 2019an, eta, ondorioz, biztanleria okupatuaren kopurua % 2,3 hazi zen (aurreko ekitaldian, % 2,7). Bestalde, langabetu kopuruak -% 6,6 egin zuen behera (2018an, -% 11,2). Hala, 2019an 3.247.800 pertsona zeuden langabezian; langabezia-tasa % 14,1ekoa izan zela esan nahi du horrek.

Prezioei dagokienez, 2019aren itxieran (abendutik abendura), KPlaren urte batetik besterako aldakuntza % 0,8ra jaitsi zen (aurreko ekitaldiaren itxieran, % 1,2koa zen). Urteko batezbestekoa, berriz, % 0,7ra jaitsi zen (2018ko batezbestekoa % 1,7koa izan zen).

Azkenik, aurrekontuen gauzatzeari dagokionez, Administrazio Publikoek BPGaren -% 2,82ko defizita izan zuten 2019an, aurreko ekitaldiko emaitza baino ehuneko 0,3 puntu negatibo baxuagoa (2018an, BPGaren -% 2,53ko defizita izan zen).

Agregatu makroekonomiko nagusiak

Espainiako ekonomiaren hazkunde-erritmoa pixkanaka jaisten joan zen 2019ko hiruhileko guztietan. Lehenengo, bigarren, hirugarren eta laugarren hiruhilekoetan urte batetik besterako % 2,2, % 2, % 1,9 eta % 1,8ko hazkundeak erregistratu zituzten, hurrenez hurren.

Aurreko txostenetan egin bezala, jarraian ikuspegi hauen arabera aztertuko dugu jardueraren bilakaera: eskaria (norakoa), eskaintza (jarduera) eta errenta (banaketa).

- 2019an, Estatuko guztizko BPGa 1.245.331 milioi eurokoa¹ izatera iritsi zen. Azkeneko kontsumoari dagozkio 950.525 milioi (704.552 etxebizitzena, 12.735 etxebizitzaren zerbitzura dauden irabazi-asmorik gabeko gizarte-erakundeena eta 233.238 administrazio publikoena), inbertsioari 259.645 (124.305 eraikuntzan, 80.241 ekipo-ondasunetan eta 41.289 jabetza intelektualaren produktuetan) eta

¹ Prezio korranteak.

izakinen aldakuntzari 10.386. Hala, barne-eskaria 1.210.170 milioi eurokoa izan zen. Esportazioak (434.250 milioi euro) eta inportazioak (399.089 milioi euro) ere kontuan izanda, haien arteko aldea kanpo-eskaria izanik, guztizko eskaria kalkulatu da.

- Barne-eskariak mundu mailako hazkundeari egindako ehuneko 1,5 puntuko ekarpen positiboari, kanpo-eskariak egindako ehuneko 0,5 puntuko ekarpen positiboa gehitu behar zaio. Etxeko eskariari dagokionez, kontsumo pribatuaren hazkundera moteldu egin zen (% 1,1 2019an, eta % 1,8 aurreko ekitaldian), eta kontsumo publikoarena indartu (% 2,3 2019an, eta % 1,9 2018an). Bestetik, inbertsioaren hazkundera asko moteldu zen (% 1,8ko hazkundera, eta aurreko ekitaldian % 5,8koa). Moteltze horrek argi uzten du inbertsioak eraikuntzarekin eta ekipo-ondasunekin duen harremana (2019an % 0,8 eta % 2,6ko hazkunderak izan zituzten eraikuntzak eta ekipo-ondasunek, hurrenez hurren; 2018an, berriz, % 6,6koa eta % 5,7koa).
- Sektorearen arabera banaketari erreparatuta, 33.017 milioi euro dagozkie lehen sektoreari, 178.082 milioi euro industriari, 73.470 milioi euro eraikuntzari eta 845.159 milioi euro zerbitzuei. Zifra horiek zerga garbiei (115.603 milioi euro) gehituta, guztizko ekoizpena kalkulatu da.
- Industria, eraikuntzak eta zerbitzuak hazi egin ziren 2019an, baina azken biak aurreko ekitaldian baino erritmo apalagoan (% 0,6, % 3,5 eta % 2,6ko hazkunderak izan zituzten 2019an; 2018an, -% 0,4, % 5,7 eta % 2,7koak, hurrenez hurren). Aitzitik, lehen sektoreak -% 2,6ko atzerakada izan zuen (aurreko ekitaldian % 5,9eko hazkundera izan zuen).

11. koadroa Barne-produktu gordina eta haren osagaiak (Eskaria eta Eskaintza)

		<i>(urte arteko tasaren %, bolumen kateatua)</i>	
Eragiketak		2018	2019
ESKARIA	Azken kontsumoaren gastua	1,9	1,4
	– Etxebizitzena	1,8	1,1
	– EZIAGGE-ena	2,5	1,3
	– Administrazio publikoena	1,9	2,3
	Kapital finkoaren eraketa gordina	5,3	1,8
	– Eraikuntza	6,6	0,8
	– Ekipo-ondasunak eta armamentu-sistemak	5,7	2,6
	Izakinen aldakuntza*	0,2	0,1
	Barne-eskaria*	2,6	1,5
	Ondasunen eta zerbitzuen esportazioa	2,2	2,6
	Ondasunen eta zerbitzuen inportazioa	3,3	1,2
ESKAINITZA	Barne-produktu gordina, merkatu-prezioan	2,4	2,0
	Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	5,9	-2,6
	Industria	-0,4	0,6
	Eraikuntza	5,7	3,5
	Zerbitzuak	2,7	2,6
Produktuen gaineko zerga garbiak		1,2	-0,1

(*): Merkatuko prezioen BPGaren hazkundeari egindako ekarpena.

Iturria: EIN

- Errentari dagokionez, BPGaren % 45,8 hartzen du soldatapekoen ordainketak, % 44 ustiapenaren soberakin gordinak eta, gainerako % 10,2a, ekoizpenaren eta inportazioaren gaineko zerga garbiak.

12. koadroa Barne Produktu Gordinaren banaketa (Errenta)

Eragiketak	2017	2018	2019	(% Δ nominala)
				2019 (M eurotan)
Soldatapekoen ordainketa ⁽¹⁾	3,9	4,0	4,7	570.433
Ustiapenaren soberakin gordina ⁽²⁾	4,6	2,5	3,0	547.942
Ekoizpenaren eta inportazioaren gaineko zerga garbiak ⁽³⁾	4,8	5,0	0,9	126.956
Barne-produktu gordina, merkatu-prezioan ⁽⁴⁾	4,3	3,5	3,6	1.245.331

$(4) = (4) + (1) + (3)$.

Iturria: EIN

Kanpo-merkataritza

2019an bilakaera heterogeneoa izan zuen kanpo-merkataritzak. Esportazioek indarra hartu zuten (% 2,6ko igoera; aurreko ekitaldian, % 2,2koa), eta inportazioek, berriz, galdu (% 1,2ko igoera; 2018an, % 3,3koa).

Hala, esportazioen joera inportazioena baino hobea izan zela kontuan izanda, kanpo-eskariak mundu mailako hazkunderari egindako ekarpena positiboa izatera pasatu zen (ehuneko 0,5 puntu positiboko ekarpena 2019an; aurreko ekitaldian, aldiz, ehuneko 0,3 puntu negatibokoa). Datuak hiruhilekoen arabera aztertuta, kanpo-eskariak mundu mailako hazkunderari egindako ekarpena positiboa izan zen ekitaldiaren hiruhileko guztietan.

Laneko prezioak eta kostuak

Urteko lau hiruhilekoetan petrolio-upelaren prezioak intentsitate maila ugariarekin behera egin bazuen ere, Estatuko prezioek urte batetik besterako aldakuntza positiboa izan zuten 2019ko hilabete guztietan, baina nahiko modu heterogeneoan. KPlaren urte batetik besterako aldakuntza % 1ekoa izan zen urtarrilean, % 1,1ekoa otsailean, % 1,3koa martxoan, % 1,5ekoa apirilean, % 0,8koa maiatzean, % 0,4koa ekainean, % 0,5ekoa uztailean, % 0,3koa abuztuan, % 0,1ekoa irailean eta urrian, % 0,4koa azaroan eta % 0,8koa abenduan.

Hala, 2019aren itxieran (abendutik abendura) inflazioa % 0,8koa zen (2018aren itxieran, % 1,2koa). Ekitaldiko prezioen igoera, berriz, batez beste, % 0,7ra jaitsi zen (2018an % 1,7ko prezioen igoera izan zen). Azpiko inflazioak, bestalde, % 0,9an mantendu zuen hazkunde maila (aurreko ekitaldiko zifra bera).

ELGAREN arabera, 2019an Eurogunearen inflazio-tasa (kontsumoko prezio-indizearen bidez adierazita) % 1,2koa izan zela kontuan izanda (2018an % 1,8koa), euroa duten herrialdeen blokea baino ehuneko 0,5 puntu beherago kokatu zen Espainiako ekonomia (aurreko ekitaldian, ehuneko 0,1 puntu negatibokoa aldea izan zen).

Ondasunen taldeei dagokienez, 2019an hotelen, kafetegien eta jatetxeen taldeak izan zuen inflazio altuena (% 2). Segidan, "bestelakoak" izenarekin sailkatutako taldea (% 1,4), garraioak (% 1,1), elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak eta irakaskuntza (% 1 bi kasuetan), jantziak eta oinetakoak (% 0,9), osasun alorra eta komunikazioak (% 0,8 bi kasuetan), eta alkoholdun edariak eta tabakoa eta etxeko tresneria (% 0,7 bi kasuetan). Bestalde, aisialdian eta kulturen eta etxebizitzetan prezioak jaitsi egin ziren (-% 0,5 eta -% 1,5, hurrenez hurren).

13. koadroa Kontsumoko Prezioen Indizea (KPI) eta Industriako Prezioen Indizea (IPI)

Kontzeptua	<i>(Urte arteko aldakuntza-tasa)</i>		
	2017	2018	2019
KPI			
– Indize Orokorra ⁽¹⁾	1,1	1,2	0,8
– Indize Orokorra ⁽²⁾	2,0	1,7	0,7
Elikagaiak	1,3	1,7	1,0
Elikagaiak ez direnak	2,1	1,7	0,6
• Elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak	1,2	1,6	1,0
• Alkoholdun edariak, tabakoa	1,7	1,9	0,7
• Jantziak eta oinetakoak	0,5	0,9	0,9
• Etxebizitza	3,9	2,4	-1,5
• Etxeko tresneria	-0,4	0,1	0,7
• Osasuna	0,7	0,3	0,8
• Garraioak	4,2	3,6	1,1
• Komunikazioak	1,3	2,2	0,8
• Aisialdia eta Kultura	1,1	-0,2	-0,5
• Irakaskuntza	0,9	0,8	1,0
• Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	1,9	1,9	2,0
• Bestelakoak	0,9	0,9	1,4
Azpikoa	1,1	0,9	0,9
IPI			
– Indize orokorra	4,4	3,0	-0,4
• Kontsumo-ondasunak	1,9	-0,2	0,2
• Ekipo-ondasunak	0,9	0,9	1,0
• Bitarteko ondasunak	3,4	2,6	-0,3
• Energia	10,4	8,0	-1,7

(1): Abendutik abendura.

(2): Urteko batez besteko aldakuntza.

Iturria: EIN

Industriako prezio-indize orokorrak behera egin zuen 2019an (-% 0,4 hain zuzen; eta aurreko ekitaldian, % 3ko igoera). Bitarteko ondasunen eta energiaren prezioek -% 0,3ko eta -% 1,7ko jaitsierak izan zituzten, hurrenez hurren. Kontsumo-ondasunen eta ekipo-ondasunen prezioek, berriz, gora egin zuten (% 0,2 eta % 1).

Laneko kostuei dagokienez, produktibitateak $-0,3\%$ ko jaitsiera izan zuen 2019an (KPIaren 2% ko igoerak eta lanaldi osoko lanpostu kopuruaren $2,3\%$ ko igoerak eraginda), eta soldatapeko bakoitzeko ordainketak 2% ko igoera. Ondorioz, lan-kostu unitarioa $2,3\%$ hazi zen (2018an $1,1\%$).

14. koadroa Errenten eta soldata-kostuen adierazleak

Kontzeptua	(% Δ)		
	2017	2018	2019
BPG erreala	2,9	2,4	2,0
Enplegua guztira*	2,8	2,5	2,3
Produktibitatea	0,1	-0,1	-0,3
Soldatapekoen ordainketa	3,9	4,0	4,7
Soldatapeko enplegua*	3,2	3,0	2,7
Soldatapeko bakoitzeko ordainketa	0,7	1,0	2,0
Lan-kostu unitarioa	0,6	1,1	2,3

(*): Kontabilitate Nazionaleko enpleguaren datuak erabili dira: lanaldi osoko lanpostuak.
Iturria: Guk geuk eginiko balioespena, EINen datuetatik abiatuta.

Lan-merkatua

2019an Espainiako ekonomiaren hazkunde-erritmoa apaldu bazen ere (2% ko hazkundera; aurreko ekitaldian, $2,4\%$ koa), okupazio-tasak igotzen jarraitu zuen, eta langabezia-tasak, berriz, jaisten. Dena den, langabezia-tasak handiegia izaten jarraitzen du oraindik ere.

Hala, Estatistikako Institutu Nazionalaren (EIN) Biztanleria Aktiboa Inkestaren (BAI) arabera, biztanleria okupatuak $2,3\%$ egin zuen gora 2019an (2018an, $2,7\%$). Biztanleria aktiboaren guztizkoak, berriz, 1% egin zuen gora.

Bestalde, jarduera-tasa $58,6\%$ an mantendu zen. Apur bat murriztu zen gizonezkoen artean ($64,3\%$; aurreko ekitaldian, aldiz, $64,6\%$), eta apur bat igo zen emakumezkoen artean ($53,3\%$; aurreko ekitaldian, aldiz, $53,1\%$).

Aipatutako $2,3\%$ ko igoeraren ondorioz, pertsona okupatuaren kopurua 19.779.300 izateraino heldu zen 2019an. Izan ere, sektore guztietan igo zen biztanleria okupatuaren kopurua, lehen sektorean izan ezik, non $-1,9\%$ jaitsi baitzen. Dena den, eraikuntza-, zerbitzu- eta industria-sektoreek aurreko ekitaldian baino igoera apalagoa izan zuten: sektorekako enpleguaren $4,6\%$, $2,4\%$ eta 2% ko igoerak; aldiz, aurreko ekitaldian, $8,3\%$, $2,5\%$ eta $2,3\%$, hurrenez hurren.

15. koadroa Lan-magnitude nagusien bilakaera.
Urteko batezbestekoak

(mila pertsona eta %)

Kontzeptua	2019	2017	% Δ	
			2018	2019
Biztanleria aktiboa	23.027,1	-0,4	0,3	1,0
Biztanleria okupatua	19.779,3	2,6	2,7	2,3
– Nekazaritza, abeltzaintza, arrantza	797,3	5,8	-0,8	-1,9
– Industria	2.763,1	5,0	2,3	2,0
– Eraikuntza	1.277,9	5,1	8,3	4,6
– Zerbitzuak	14.941,0	1,9	2,5	2,4
Biztanleria langabetua	3.247,8	-12,6	-11,2	-6,6
Langabezia-tasa*	14,1	-12,3	-11,4	-7,5

()*: Biztanleria aktiboaren %.

Iturria: EIN (Biztanleria Aktiboaren Inkestako biztanleria-oinarria, 2011. 2020ko apirileko datuak).

Biztanleria okupatuaren barruan, soldatapeko langileen hazkundea % 2,7ra jaitsi zen (aurreko ekitaldian % 3,3koa izan zen). Soldatapekoek ez diren langileen hazkundea, berriz, % 0,5 hazi zen (2018an, -%0,5), batez ere, langile autonomoen gorakadaren (% 0,9) ondorioz. Kontratu motari dagokionez, aurreko bi ekitaldietan ez bezala, kontratu mugagabea zuten soldatapeko langileen kopurua, proportzioan, gehiago hazi zen aldi baterako kontratua zuten langileena baino (% 3,5 eta % 0,6, hurrenez hurren).

Biztanleria langabetuak -% 6,6 egin zuen behera 2019an, 3.247.800 pertsona langabetu izateraino (2018an, -% 11,2). Hortaz, 2014an hasitako beheranzko joerak jarraitu zuen. Hala, langabezia-tasa % 14,1era jaitsi zen (aurreko ekitaldian % 15,3koa zen). Dena den, kontuan izan behar da Europako bigarren daturik txarrena duela Espainiak. Greziak du langabezia-tasarik altuena (% 17,3, Europar Batasunaren arabera).

16. koadroa Enplegua, lan-egoeraren eta kontratu-motaren arabera. Urteko batezbestekoak

(mila pertsona eta %)

Kontzeptua	2019	2017	% Δ	
			2018	2019
Biztanleria okupatua	19.779,3	2,6	2,7	2,3
Soldatapekoak	16.670,5	3,2	3,3	2,7
– Sektore pribatua	13.448,0	3,8	3,1	2,8
– Sektore publikoa	3.222,5	0,9	4,0	2,3
Soldatapekoak ez direnak*	3.108,8	-0,1	-0,5	0,5
– Enplegu-emaileak	954,7	5,7	-0,1	-0,6
– Autonomoak	2.045,5	-2,4	-0,2	0,9
– Kooperatibistak	25,5	-9,5	8,8	-1,5
– Familia-laguntza	75,3	-2,2	-15,2	3,4
Kontratu mugagabedun soldatapekoak	12.293,6	2,3	3,1	3,5
Aldi baterako kontratudun soldatapekoak	4.376,9	5,6	3,8	0,6
Lanaldi osoko okupazioa	16.882,7	2,9	3,1	2,3
Lanaldi partzialeko okupazioa	2.896,6	1,0	0,4	2,3

()*: Batura ez dator bat guztizkoarekin, bertan sailkatu ezin direnak ere sartu baitira.

Iturria: EIN (Biztanleria Aktiboaren Inkestako biztanleria-oinarria, 2011. 2020ko apirileko datuak).

Sektore publikoa eta interes-tasak

Ogasun Ministerioaren 2020ko maiatzaren hasierako datuen arabera, 2019an Administrazio Publikoek BPGaren $-2,82\%$ ko defizita izan zuten, aurreko ekitaldiko emaitza baino ehuneko 0,3 puntu baxuagoa (2018an $-2,53\%$ ko defizita izan zuten).

Tokiko udalbatzek bakarrik izan zuten saldo positiboa haien kontuetan, baina aurreko ekitaldietan baino baxuagoa (2019an, $0,31\%$ eta 2018an, $0,51\%$). Bilakaera kontuan izanda, Administrazio Zentralak eta Gizarte Segurantzak aurreko ekitaldian baino emaitza apur bat hobek izan zituzten.


17. koadroa Defizit publikoa

Kontzeptua	(BPGaren %)	
	2018	2019
Administrazio zentrala	-1,32	-1,30
Autonomia-erkidegoak	-0,28	-0,55
Tokiko udalbatzak	0,51	0,31
Gizarte Segurantza	-1,44	-1,29
Administrazio Publikoak guztira	-2,53	-2,82

Iturria: Ogasun Ministerioa (2020ko maiatzak 1).

Azkenik, berriro ere aipatzekoa da 2019aren itxieran Erreserba Federalaren erreferentzia tasa $1,75\%$ ean finkatuta geratu zela, uztailean, irailean eta urrian ehuneko puntu laurden bateko murrizketak jasan ondoren. Europako Banku Zentralaren erreferentzia-tasa, berriz, 0% an mantendu zen.

2. grafikoa Interes-tasa ofizialen bilakaera: Europako Banku Zentrala eta Erreserba Federala



Iturria: EBZ, Erreserba Federala

Aurreikuspenak

COVID-19aren eraginak gogor kaltetutako egoera honetan, Ekonomia eta Eraldaketa Digitaleko Ministerioak 2020ko apirilaren amaieran argitaratutako agertoki makroekonomikoak Estatuko BPGaren $-9,2\%$ ko beherakada aurreikusten du 2020ko ekitaldian, eta $6,8\%$ ko igoera 2021an. Bestetik, lan egindako mila orduko terminoetan, enplegua $-9,7\%$ jaitsiko da 2020an, eta $5,7\%$ errekueratuko da 2021ean. Gauzak horrela, langabezia-tasa maila ikaragarri altua izatera iritsiko da, 20% tik gertu.

18. koadroa Espainiako ekonomiaren aurreikuspenak (2020)

Kontzeptua	Urte batetik besterako aldaketa-tasa
BPG eta ESKARI-AGREGATUAK	
• Nazio mailako azken kontsumo pribatuaren gastua	-8,8
• Administrazio publikoen azken kontsumoko gastua.	2,5
• Kapital finkoaren eraketa gordina	-25,5
– Barne-eskaria (BPGaren hazkundeari egindako ekarpena)	-9,7
– Ondasunen eta zerbitzuen esportazioa	-27,1
– Ondasunen eta zerbitzuen inportazioa	-31,0
– Kanpo-saldoa (BPGaren hazkundeari egindako ekarpena)	0,5
– BPG	-9,2
LAN MERKATUA	
– Enpleguaren aldakuntza %-tan ^(*)	-9,7
– Langabezia-tasa	19,0

(^{*}): Lan egindako mila orduko terminoetan.

Iturria: Ekonomia eta Eraldaketa Digitaleko Ministerioa (2020ko apirilak 30)

2. IKUSPEGI OROKORRA

2019an, mundu mailan, ekonomiaren hazkunde-erritmoa apaldu egin zen. Testuinguru horretan, EAEko BPGaren hazkundera aurreko ekitaldian baino zortzi hamarren txikiagoa izan zen: % 2,2ko hazkundera 2019an, eta 2018an, aldiz, % 3koa.

Kontzeptua	19. koadroa		Bilakaera orokorra		
	2015	2016	<i>(Urte arteko aldakuntza-tasa)</i>		
	2015	2016	2017	2018	2019
EAE					
– BPG	3,0	3,3	2,8	3,0	2,2
– Enplegua	1,3	2,9	0,3	2,1	1,4
– Langabezia-tasa ⁽¹⁾	14,8	12,6	11,3	10,0	9,2
– KPI ⁽²⁾	0,3	1,5	1,1	1,0	1,2
NAFARROA					
– BPG	2,9	2,9	3,2	3,2	2,6
– Enplegua	0,7	1,2	4,2	1,2	2,4
– Langabezia-tasa ⁽¹⁾	13,8	12,5	10,2	10,0	8,2
– KPI ⁽²⁾	-0,1	1,8	0,6	1,3	1,3
ESPAINIA					
– BPG	3,8	3,0	2,9	2,4	2,0
– Enplegua	3,0	2,7	2,6	2,7	2,3
– Langabezia-tasa ⁽¹⁾	22,1	19,6	17,2	15,3	14,1
– KPI ⁽²⁾	0,0	1,6	1,1	1,2	0,8

(1): Biztanleria aktiboaren %.

(2): Aldakuntza abendutik abendura.


Iturria: Eustat, Nafarroako Estatistika Institutua, EIN (BAI, Biztanleria Oinarria, 2011).

Dena den, EAEren ekonomia gehiago hazi zen Euroguneko multzoarena baino (% 1,3ko hazkundera 2019an, ELGaren arabera). Hori beste aurrerapauso bat izan zen Europako ekonomia nagusiekin bat egiteko prozesuan.

Bestetik, EINen Eskualdekako Kontabilitatearen arabera, Espainiako autonomia-erkidego guztiek hazkunde-tasa positiboak izan zituzten 2019an. Dena den, orokorrean, aurreko ekitaldian baino hazkunde txikiagoa izan zuten, hiru autonomia-erkidegok izan ezik (Nafarroa, Valentziako Erkidegoa eta Errioxa). Zehazki, Nafarroak izan zuen hazkunderik handiena 2019an (% 2,8), eta Gaztela eta Leonek txikiena (% 1,1). EAE tartean geratu zen, % 1,9ko hazkundearekin, EINen arabera.

Lan-merkatuari dagokionez, EINen Biztanleria Aktiboaren gaineko inkestaren arabera, 2019an % 1,6 hazi zen okupazio-tasa Euskal Herrian (% 1,4 EAEn eta % 2,4 Nafarroan). Estatuan, berriz, hazkundera mugatuagoa izan zen: % 2,3koa. Langabezia-tasak, bestalde, jaisten jarraitu zuen 2019an. Hala, % 9,2koa izan zen EAEn, % 8,2koa Nafarroan (% 8,9koa Euskal Herri osoan), eta % 14,1ekoa Estatuan.

3. grafikoa BPGaren bilakaera



Iturria: Eustat, Nafarroako Estatistika Institutua, EIN.

Petrolio-upelaren prezioak behera egin bazuen ere, 2019an urtetik urterako prezioek gora egin zuten apur bat hilabete guztietan, EAEn, Nafarroan eta Estatuan. Hala, 2019ko inflazio-tasa metatua (abendutik abendura) % 1,2koa izan zen EAEn, % 1,3koa Nafarroan eta % 0,8koa Estatuan (% 1ekoa, % 1,3koa eta % 1,2koa 2018aren amaieran, hurrenez hurren).

Azkenik, aipatzekoa da 2020ko lehen hiruhilekoan EAeko ekonomiak -% 3,2 atzera egin zuela, COVID-19aren inpaktuaren eraginez. Hala, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Saileko Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak ekainean egindako aurreikuspenen arabera, 2020an -% 8,7 egingo du behera EAeko ekonomiak.

2.1 PRODUKZIOA

2018an EAEn gora egin zuen hazkunde-erritmoak (2018an % 3, 2017an % 2,8), Nafarroan mantendu egin zen (% 3,2, bai 2017an, bai 2018an), eta Estatuan ehuneko puntu bat egin zuen behera (% 2,4ko hazkundera izan zuen 2018an, eta aurreko ekitaldian % 2,9koa). 2019an, berriz, aztertutako hiru eremuetan hazkundera moteldu egin zen. EAEn % 2,2ra jaitsi zen hazkunde-erritmoa; Nafarroan, % 2,6ra, eta Estatuan, % 2ra (2018an, % 3, % 3,2 eta % 2,4ko hazkundera izan zituzten, hurrenez hurren).

20. koadroa Barne produktu gordinaren (BPG) bilakaera

<i>(Urte arteko aldakuntza-tasa erreala)</i>			
Kontzeptua	2017	2018	2019
EAE ⁽¹⁾			
– Nekazaritza	10,1	7,9	0,6
– Industria	2,5	2,5	1,1
– Eraikuntza	1,6	4,1	3,1
– Zerbitzuak	2,9	2,7	2,5
– Guztira	2,8	3,0	2,2
NAFARROA ⁽¹⁾			
– Nekazaritza	2,1	1,7	0,7
– Industria	2,1	2,0	1,6
– Eraikuntza	1,1	2,5	3,2
– Zerbitzuak	4,1	4,1	3,4
– Guztira	3,2	3,2	2,6
ESPAINIA ⁽¹⁾			
– Nekazaritza	-3,0	5,9	-2,6
– Industria	3,1	-0,4	0,6
– Eraikuntza	4,9	5,7	3,5
– Zerbitzuak	2,9	2,7	2,6
– Guztira	2,9	2,4	2,0

(1): Oinarrizko prezioetarako balio erantsi gordina sektoreen kasuan, merkatu-prezioetarako BPGa guztizkoaren kasuan.

Iturria: Eustat, Nafarroako Estatistika Institutua eta EIN.

Datuak hiruhilekoen arabera aztertuta, EAEn urte arteko hazkundea egonkorra izan zen. Ekitaldiko hiruhileko guztietan % 2,2ko urte arteko hazkundea erregistratu ziren, hirugarrenean izan ezik, non hazkundea % 2,1ekoa izan baitzen. Nafarroaren kasuan, hiruhilekotik hiruhilekora moteltzen joan zen urte arteko hazkunde-erritmoa: % 2,9, % 2,8, % 2,5 eta % 2,4, hurrenez hurren.

Eskaintzari dagokionez, estatuko lehen sektorea izan ezik, lau sektore nagusiak hazi egin ziren 2019an EAEn, Nafarroan eta Estatuan, baina indar gutxiagorekin.

EAEn kasuan, sektore guztiak aurreko ekitaldian baino gutxiago hazi ziren 2019an. Eraikuntzak urte arteko % 3,1eko hazkundea izan zuen (2018an % 4,1ekoa), zerbitzuek % 2,5ekoa (aurreko ekitaldian % 2,7koa), industria-sektoreak % 1,1ekoa (aurreko ekitaldian % 2,5ekoa) eta lehen sektoreak % 0,6koa (aurreko urtean % 7,9koa).

Era berean, Nafarroan ere aurreko ekitaldian baino gutxiago hazi ziren lehen sektorea, industria eta zerbitzuak (hurrenez hurren, % 0,7, % 1,6 eta % 3,4ko hazkundea izan zituzten 2019an, eta % 1,7, % 2 eta % 4,1ekoak 2018an). Eraikuntza-sektorearen hazkunde-erritmoak, berriz, gora egin zuen (% 3,2ko hazkundea 2019an, eta % 2,5ekoa aurreko ekitaldian).

Azterketa industria-sektorerara ekarrita, Industria Produkzioaren Indizea (IPI) jaitsi egin zen EAEn (% 1,6 2019an, eta % 2,2 2018an), eta Nafarroan, berriz, % 9,8 igo zen (aurreko ekitaldian, -% 0,5). Industriako enplegua jaitsi egin zen, bai EAEn (EINen Biztanleria

Aktiboaren Inkestaren arabera, -% 5; Eustaten BJAren arabera, -% 1,5), bai Nafarroan (-% 0,4). Hain zuzen ere, Nafarroan, industria-giroa mantendu egin zen, eskariak apur bat gora egin zuen eta aurreikusitako eskariak behera egin zuen, aurreko ekitaldiarekin alderatuta.

21. koadroa Industria Sektoreko Adierazleak

Kontzeptua	<i>(Urte arteko aldakuntza-tasa)</i>		
	2017	2018	2019
EAE			
– Industria Produkzioaren Indizea (IPI) ⁽¹⁾	5,7	2,2	1,6
– Industria-enplegua ⁽²⁾	3,2	-3,3	-5,0
– Industria-enplegua ⁽³⁾	4,6	4,2	-1,5
NAFARROA			
– Industria Produkzioaren Indizea (IPI) ⁽¹⁾	-2,1	-0,5	9,8
– Industria-giroa ⁽⁴⁾	1	3	3
– Egungo eskaerak ⁽⁴⁾	4	9	10
– Aurreikusitako eskaerak ⁽⁴⁾	12	13	7
– Industria-enplegua ⁽²⁾	11,6	0,3	-0,4

(1): Egutegiaren arabera zuzendutako datuak.

(2): EIN.

(3): BJA (Eustat)

(4): Erantzunen saldoak.

Iturria: Eustat, EIN eta Nafarroako Estatistika Institutua.

Eraikuntza-sektoreari dagokionez, EAEn % 8,7ra jaitsi zen ekoizpen-indize osoaren hazkundera 2019an (2018an % 12,6koa izan zen). Horretan zerikusia izan zuen eraikuntzak indarra galdu izanak (% 9,2ko hazkundera; aurreko ekitaldian, berriz, % 13,4koa). Obra zibila, bestalde, indartu egin zen (% 5,6ko hazkundera, eta aurreko ekitaldian % 5,2koa). Lizitazio ofizialak aldakuntza positiboa izan zuen, % 8,2ko igoerarekin (2018an, -% 26,5), hasitako zein amaitutako etxebizitzaren hazkundera ere jaitsi egin baitzen (% 0,8 eta % 7,5, eta aurreko ekitaldian % 50,7 eta % 18,3, hurrenez hurren). Testuinguru horretan, sektoreko enplegua % 5,2 hazi zen (Eustaten BJAren arabera, % 1,6).

Nafarroan, lizitazio ofizialek -% 3,2 egin zuten behera 2019an (% 82,7ko hazkundera 2018an), hasitako etxebizitzek % 14,4 egin zuten gora (-% 3,2 aurreko ekitaldian), eta amaitutako etxebizitzek % 20,8 (% 14,9 aurreko ekitaldian). Hala, sektoreko enplegua -% 9 murriztu zen Nafarroan (% 19,5eko hazkundera 2018an).

22. koadroa Eraikuntza Sektoreko Adierazleak

Kontzeptua	(Urte arteko aldakuntza-tasa)		
	2017	2018	2019
EAE			
– Ekoizpen-indizea ⁽¹⁾	5,9	12,6	8,7
– Eraikuntza	8,1	13,4	9,2
– Obra zibila	-9,2	5,2	5,6
– Zementuaren itxurazko kontsumoa*	--	9,5	6,0
– Lizitazio ofiziala ⁽²⁾	73,4	-26,5	8,2
– Hasitako etxebizitzak ⁽³⁾	-22,6	50,7	0,8
– Amaitutako etxebizitzak ⁽³⁾	3,9	18,3	7,5
– Enplegua ⁽⁴⁾	-2,6	4,8	5,2
– Enplegua ⁽⁵⁾	0,4	4,4	1,6
NAFARROA			
– Zementuaren itxurazko kontsumoa*	--	9,5	6,0
– Lizitazio ofiziala ⁽²⁾	229,2	82,7	-3,2
– Hasitako etxebizitzak ⁽³⁾	39,5	-3,2	14,4
– Amaitutako etxebizitzak ⁽³⁾	42,0	14,9	20,8
– Enplegua ⁽⁴⁾	21,1	19,5	-9,0

(*): Oficemen-eko bazkideen (Ipar Eremua: Aragoi, Nafarroa, EAE eta Errioxa) zementuaren itxurazko kontsumoari egiten dio erreferentzia.

(1): Eraikuntzaren koiunturazko indizea (EUSTAT). Oinarria 2010=100

(2): SEOPAN.

(3): Eustat eta Etxebizitza Ministerioa.

(4): EIN.

(5): BJA (Eustat)

Iturria: Eustat, EIN, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Salla eta Nafarroako Gobernua.

Zerbitzuei dagokienez, kontuan izan behar da sektorea oso heterogeneoa denez, aztertutako azpisektoreetako adierazleen artean aldeak egon zirela.

EAEren kasuan, hoteletako gaualdien eta aire-trafikoko bidaiarien hazkundearen erritmoa apaldu egin zen aurreko ekitaldiarekin alderatuta (% 3,3 eta % 8,5 2019an, eta % 7,2 eta % 10,5 2018an, hurrenez hurren). Txikizkako merkataritzaren hazkundeak, berriz, gora egin zuen apur bat (% 0,9, eta aurreko ekitaldian % 0,7). Hala, sektoreko enplegua % 2,9 hazi zen (Eustaten BJAREN arabera, % 2,5eko hazkundera).

Nafarroan, aztertutako sektoreko adierazle guztiek gora egin zuten 2019an, baina aire-trafikoko bidaiarien eta autobideetako ibilgailu astunen trafikoaren kasuan, aurreko ekitaldian baino modu apalagoan: % 18 eta % 1,6, eta aldiz, 2018an, % 24,1 eta % 10,6, hurrenez hurren. Bestalde, autobideetako ibilgailu arinen trafikoaren hazkundera % 4,7ra igo zen (aurreko ekitaldian, % 2,4). Hala, sektoreko enplegua % 5,7 hazi zen (2018an, -% 0,2).

23. koadroa Zerbitzuen Sektoreko Adierazleak

Kontzeptua	(Urte arteko aldakuntza-tasa)		
	2017	2018	2019
EAE			
– Hoteletako gaualdiak	2,6	7,2	3,3
– Aire-trafikoko bidaiariak	9,2	10,5	8,5
– Txikizkako merkataritzaren salmenten indizea	1,7	0,7	0,9
– Portuetako salgaiak	12,2	4,2	-0,1
– Enplegua ⁽¹⁾	-0,4	4,2	2,9
– Enplegua ⁽²⁾	0,9	0,7	2,5
NAFARROA			
– Hoteletako gaualdiak	3,4	2,1	3,6
– Aire-trafikoko bidaiariak	7,9	24,1	18,0
– Ibilgailu arinen trafikoa autobideetatik	3,4	2,4	4,7
– Ibilgailu astunen trafikoa autobideetatik	3,0	10,6	1,6
– Enplegua ⁽¹⁾	-0,4	-0,2	5,7

(1): EIN.

(2): BJA (Eustat)

Iturria: AENA, EUSTAT, EIN, Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Estatistika Institutua.

2.2 ESKARIA

Barne-eskaria

2019an aurreko ekitaldian baino zortzi hamarren gutxiago hazi zen ekonomia EAEn: % 2,2 (2018an % 3). Agertoki horretan, barne-eskaria ere aurreko ekitaldian baino gutxiago hazi zen, % 2,1 (aurreko urtean % 3).

Barne-eskariaren osagaietara dagokienez, 2019an kontsumo publikoaren hazkundeak baino ez zuen gora egin (% 2,1eko hazkundeak, eta 2018an % 1,6koa). Kontsumo pribatuaren eta, batez ere, inbertsioaren hazkundeak aurreko ekitaldian baino txikiagoak izan ziren (% 1,9ko eta % 2,8ko hazkundeak 2019an, eta % 2,7ko eta % 4,7koak 2018an, hurrenez hurren).

24. koadroa Barne-eskariaren adierazleak

Kontzeptua	(Urte arteko aldakuntza-tasa)		
	2017	2018	2019
EAE			
– Kontsumo pribatua	3,1	2,7	1,9
– Kontsumo publikoa	2,1	1,6	2,1
– Kapital Eraketa Gordina	3,1	4,7	2,8
– Barne-eskaria	2,9	3,0	2,1

Iturria: Eustat.

Era berean, Nafarroako ekonomiaren hazkunde-erritmoa ere apaldu egin zen 2019an (% 2,6, eta 2018an % 3,2). Barne-eskariak ehuneko bi puntuko ekarpena egin zion

hazkunde globalari (aurreko ekitaldian ehuneko 2,6 puntu positiboko ekarpena). Osagaien arabera, kontsumo pribatuaren hazkundea moteldu egin zen (% 2,1, eta 2018an % 2,9). Kontsumo publikoarena, berriz, indartu egin zen (% 3,5, eta aurreko ekitaldian % 3,1), eta inbertsioek mantendu egin zuten dinamikotasuna (% 2, bai 2018an, bai 2019an).

25. koadroa Kontsumo- eta inbertsio-adierazleak

Kontzeptua	<i>(Urte arteko aldakuntza-tasa)</i>		
	2017	2018	2019
EAE			
– Kontsumo-ondasunen IPIa ⁽¹⁾	5,4	5,5	2,5
– Ibilgailuen matrikulazioa	7,7 ⁽⁴⁾	4,6 ⁽⁴⁾	-2,4
– Ibilgailu industrialen matrikulazioa	4,0 ⁽⁴⁾	21,7 ⁽⁴⁾	-16,6
– KPI ⁽²⁾	1,1	1,0	1,2
– Soldata-igoera ⁽³⁾	1,39	1,79	1,90
– Ekipo-ondasunen IPIa ⁽¹⁾	3,3	4,3	1,8
NAFARROA			
– Turismoen matrikulazioa	10,4 ⁽⁴⁾	2,9 ⁽⁴⁾	-5,2
– KPI ⁽²⁾	0,6	1,3	1,3
– Soldata-igoera ⁽³⁾	1,83	1,59	2,36
– Ibilgailu industrialen matrikulazioa	10,5 ⁽⁴⁾	25,9 ⁽⁴⁾	-8,2

(1): Egutegiaren arabera zuzendutako datuak.

(2): Aldakuntza-tasa abendutik abendura.

(3): Hitzarmenetan itundua.

(4): Behin-behineko datuak.

Iturria: Eustat, Nafarroako Estatistika Institutua, EIN eta Enplegu, Migrazio eta Gizarte Segurantzako Ministerioa.

Kanpo-merkataritza

2019an EAEko kanpo-merkataritza (atzerrira) murriztu egin zen, behera egin baitzuten guztizko esportazioek zein inportazioek (-% 1,5 eta -% 1,8, hurrenez hurren). Energia-esportazioen beherakadak (-% 26,9) eragin zuen guztizko esportazioen -% 1,5eko beherakada, esportazio ez-energetikoek gora egin baitzuten (% 1,5). Inportazioen guztizkoak, berriz, -% 1,8 egin zuen behera. Izan ere, jaitsi egin ziren inportazio energetikoak zein ez-energetikoak (-% 5,6 eta -% 0,3, hurrenez hurren).

Zehazki, 2019an esportazioen guztizkoak 25.396,9 milioi euroko balioa izan zuen (horietatik 2.022,9 milioi euro energia-esportazioei zegozkien), aurreko ekitaldian baino % 1,5 baxuagoa. Inportazioen guztizkoak, berriz, 20.121,5 milioi euroko balioa izan zuen (horietatik 5.408,8 energia-inportazioei zegozkien); hau da, urte arteko jaitsiera -% 1,8koa izan zen.

Gauzak hala, 2019an merkataritza-balantzaren saldo positiboa 5.275,5 milioi eurora murriztu zen (2018an 5.303,1 milioi eurokoa zen). Dena den, inportazioen gaineko esportazioen estaldura-tasa apur bat igo zen (% 126,2 2019an, eta % 125,9 aurreko ekitaldian).

26. koadroa Kanpo-merkataritzaren bilakaera Euskal Herrian

Kontzeptua	<i>(M euro)</i>			
	2017	2018	2019*	% Δ 19/18
EAE				
– ESPORTAZIOAK, guztira	24.109,9	25.788,3	25.396,9	-1,5
– Energia-esportazioak, guztira	2.271,6	2.767,8	2.022,9	-26,9
– Esportazio ez-energetikoak, guztira	21.838,3	23.020,4	23.374,1	1,5
– INPORTAZIOAK, guztira	18.707,9	20.485,1	20.121,5	-1,8
– Energia-inportazioak, guztira	5.009,2	5.729,9	5.408,8	-5,6
– Inportazio ez-energetikoak, guztira	13.698,6	14.755,3	14.712,7	-0,3
– SALDOA, GUZTIRA	5.402,1	5.303,1	5.275,5	-0,5
NAFARROA				
– ESPORTAZIOAK, guztira	8.105,9	9.145,3	10.147,3	11,0
– INPORTAZIOAK, guztira	4.469,2	4.855,8	5.468,4	12,6
– SALDOA, GUZTIRA	3.636,7	4.289,5	4.678,9	9,1

(*): Behin behineko datuak.

Iturria: Eustat (Aduana eta Zerga Berezien Sailaren datuen arabera), eta Nafarroako Estatistika Institutua.

Geografia-eremu handiei dagokienez, 2019an Eurogunea izan zen Euskal Herriko kanpo-sektorearen bezero eta hornitzaile nagusia. Eurogunera egin ziren esportazioen % 51,6, eta handik egin ziren inportazioen % 43,5. Kontuan izan beharrekoa da Alemaniara eta Frantziara saltzen dela guztizkoaren % 30,5, eta handik erosten dela guztizkoaren % 23,8.

2019an trukaturako produktuak aztertuko ditugu orain. 2019an, esportazioen % 49,2 makineria eta garraio-ekipamendua izan zen, eta % 30,4, berriz, manufaktura-artikuluak. Inportazioen kasuan, erregai eta lubrifikatzaile mineralak izan ziren % 26,9; jarraian, makineria eta garraio-ekipamendua % 25,4, eta manufaktura-artikuluak % 22,2.

27. koadroa EAEko esportazioak eta inportazioak, herrialdeen eta sekzioen arabera

(Meuro)

Kontzeptua	ESPORTAZIOAK					INPORTAZIOAK				
	2017	2018	2019*	%	% Δ 19/18	2017	2018	2019*	%	% Δ 19/18
GUZTIRA (guztizkoak)	24.109,9	25.788,3	25.396,9	100,0	-1,5	18.707,9	20.485,1	20.121,5	100,0	-1,8
HERRIALDEEN ARABERA (guztizkoak)										
– Frantzia	3.760,0	3.948,4	3.916,8	15,4	-0,8	1.836,4	1.931,6	1.769,8	8,8	-8,4
– Alemania	3.794,1	3.840,0	3.840,0	15,1	0,0	2.797,8	2.939,3	3.012,6	15,0	2,5
– Italia	1.113,7	1.256,7	1.177,8	4,6	-6,3	937,5	1.009,5	958,1	4,8	-5,1
– Erresuma Batua	1.519,6	1.739,4	2.324,5	9,2	33,6	1.328,4	768,8	633,7	3,1	-17,6
– Eurogunea	12.477,3	13.404,0	13.101,1	51,6	-2,3	8.313,3	8.815,3	8.756,9	43,5	-0,7
– ELGA	19.724,4	21.298,4	20.949,5	82,5	-1,6	12.915,4	13.601,8	13.696,7	68,1	0,7
– Beste helmuga batzuk	4.385,5	4.489,9	4.447,4	17,5	-0,9	5.792,5	6.883,3	6.424,8	31,9	-6,7
SEKZIOEN ARABERA (guztizkoak)										
– Elikagaiak eta animalia biziak	666,4	699,3	747,5	2,9	6,9	870,7	840,2	870,1	4,3	3,6
– Edariak eta tabakoak	243,4	233,0	226,3	0,9	-2,9	13,7	17,2	14,9	0,1	-13,4
– Jateko ez diren erregai gordinak, erregaiak salbu	310,9	354,3	290,2	1,1	-18,1	1.093,4	1.469,9	1.470,8	7,3	0,1
– Erregaiak eta lubrifikatzaile mineralak eta horiei lotutako produktuak	2.271,6	2.767,8	2.022,9	8,0	-26,9	5.009,2	5.729,9	5.408,8	26,9	-5,6
– Olioak, koipeak eta argizariak (animalienak eta landareenak)	16,7	44,5	74,9	0,3	68,3	214,0	167,2	144,8	0,7	-13,4
– Produktu kimikoak eta haiei lotutako produktuak, beste inon zehaztu gabeak	852,8	985,4	922,5	3,6	-6,4	1.541,9	1.679,5	1.580,4	7,9	-5,9
– Artikulu manufakturuak, batez ere materialaren arabera sailkatuak	7.435,8	7.998,6	7.724,8	30,4	-3,4	4.208,8	4.667,4	4.457,1	22,2	-4,5
– Makineria eta garraio-ekipamendua	11.535,4	11.827,5	12.491,3	49,2	5,6	4.692,3	4.877,9	5.107,1	25,4	4,7
– Hainbat artikulu manufakturu	693,4	717,8	789,3	3,1	10,0	1.061,3	1.025,2	1.051,0	5,2	2,5
– NMSUren beste kontzeptu batean sailkatu gabeko salgaiak eta elikagaiak	83,5	160,0	107,2	0,4	-33,0	2,5	10,7	16,4	0,1	53,3

(*): Behin behineko datuak.

Iturria: Eustat (Aduana eta Zerga Berezien Sailaren datuen arabera).

Nafarroako ekonomiaren kasuan, EAEn ez bezala, 2019an gora egin zuten esportazioek zein inportazioek (% 11 eta % 12,6, hurrenez hurren). Hala, 2019an 10.147,3 milioi euroko balioa izan zuten kanpora egindako salmentek, aurreko ekitaldian baino % 11 handiagoa. Kanpotik egindako erosketen balioa, berriz, 5.468,4 milioi eurokoa izan zen, aurreko urtean baino % 12,6 handiagoa. Gauzak hala, 2019an merkataritza-balantzaren saldo positiboa 4.678,9 milioi eurora igo zen (2018an 4.289,5 milioi eurokoa zen). Dena den, inportazioen gaineke esportazioen estaldura-tasa apur bat jaitsi zen (% 185,6 2019an, eta % 188,3 aurreko ekitaldian).

EAEren kasuan bezala, Europa (EB-28) izan zen Nafarroarentzat ere kanpo-merkataritzaren jatorri eta helmuga nagusia. Europara egin zituzten esportazioen % 70,2, eta handik inportatu zuten guztizkoaren % 75,6. Frantziara eta Alemaniara egin ziren kanpo-salmenten % 17,3 eta % 16,6, eta handik egin ziren kanpoko erosketen % 10,9 eta % 25,8, hurrenez hurren.

Muga-zergen partidei dagokienez, 2019an garraiorako materiala izan zen esanguratsuen, esportazioen % 45,9 eta inportazioen % 21,1 hartu baitzuen. Horrek modu nabarmenean baldintzatu zuen Nafarroako kanpo-merkataritzaren etorkizuna.

28. koadroa Nafarroako esportazioak eta inportazioak, herrialdeen eta sektoreen arabera

(Meuro)

Kontzeptua	ESPORTAZIOAK					INPORTAZIOAK				
	2017	2018	2019*	%	% Δ 19/18	2017	2018	2019*	%	% Δ 19/18
GUZTIRA (guztizkoak)	8.105,9	9.145,3	10.147,3	100,0	11,0	4.469,2	4.855,8	5.468,4	100,0	12,6
HERRIALDEEN ARABERA (guztizkoak)										
– Frantzia	1.482,3	1.578,7	1.759,1	17,3	11,4	567,7	642,6	598,1	10,9	-6,9
– Alemania	1.180,0	1.420,8	1.679,9	16,6	18,2	1.148,4	1.294,5	1.412,7	25,8	9,1
– Italia	673,1	884,2	997,3	9,8	12,8	297,1	334,8	324,7	5,9	-3,0
– Erresuma Batua	568,4	446,3	574,9	5,7	28,8	106,6	119,1	112,1	2,0	-5,9
– Portugal	317,9	429,5	423,4	4,2	-1,4	256,2	237,0	233,6	4,3	-1,4
– EB-28 guztira	5.666,3	6.551,2	7.128,2	70,2	8,8	3.421,5	3.717,9	4.132,0	75,6	11,1
– Europako gainerakoak	413,9	465,8	401,6	4,0	-13,8	152,5	186,0	193,2	3,5	3,9
– Estatu Batuak	335,7	381,9	495,5	4,9	29,7	51,0	54,5	172,2	3,1	216,0
– Beste helmuga batzuk	1.690,0	1.746,4	2.122,0	20,9	21,5	844,2	897,4	971,0	17,8	8,2
SEKTOREEN ARABERA (guztizkoak)										
– Lehen sektorea	650,0	656,4	708,6	7,0	8,0	449,1	449,8	439,4	8,0	-2,3
– Nekazaritzako elikagaien industria	567,4	574,6	616,1	6,1	7,2	238,2	238,7	259,6	4,7	8,8
– Industria kimikoa	144,9	188,1	254,8	2,5	35,5	210,4	255,1	373,7	6,8	46,5
– Material plastikoak, kautxua	296,2	316,7	338,9	3,3	7,0	291,9	306,1	293,3	5,4	-4,2
– Metal komunen manufaktura	636,2	696,0	740,8	7,3	6,4	508,2	595,9	539,8	9,9	-9,4
– Makinak, material elektrikoa	1.925,1	2.172,0	2.169,2	21,4	-0,1	1.207,6	1.320,6	1.733,9	31,7	31,3
– Garraiorako materiala	3.291,3	3.871,8	4.658,7	45,9	20,3	933,5	1.060,1	1.155,0	21,1	8,9
– Gainerakoak	594,8	669,7	660,2	6,5	-1,4	630,3	629,5	673,7	12,3	7,0

(*): Behin behineko datuak.

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua.

2.3 PREZIOAK ETA SOLDATAK

2019an zehar Brent petrolio-upelaren prezioa -% 8,6 merkatu den egoera honetan-, ekitaldiko hilabete guztietan zehar prezioek urte arteko aldakuntza-tasa positiboa izan dute, bai EAEn, bai Nafarroan, nahiz eta ekitaldian zehar bilakaera heterogeneoa izan duten. Ildo horretan, EAEn, KPIak urte arteko hazkunde-erritmoa indartu du 2019ko lehen lau hilabeteetan, eutsi egin dio hurrengo sei hilabeteetan eta berriz pixka bat indartu du azken bietan. Era berean, Nafarroan, bilakaera oso antzekoa izan da, baina hazkundeak pixka bat handiagoak izan dira.

Hala, 2019an metatutako inflazio-tasa (abendutik abendura) % 1,2koa izan da EAEn eta % 1,3koa Nafarroan (% 1 eta % 1,3 izan zen aurreko ekitaldiaren amaieran, hurrenez hurren). Ekitaldi osoko urteko batez besteko tasa % 1era arte jaitsi da EAEn (% 1,6 izan zen 2018an) eta % 1,2ra arte Nafarroan (% 1,7 izan zen aurreko ekitaldian).

29. koadroa Prezioen bilakaera EAEn eta Nafarroan

		<i>(Urte arteko aldakuntza-tasa)</i>					
EAE	2017	2018	2019	NAFARROA	2017	2018	2019
KPI				KPI			
Orokorra ⁽¹⁾	2,0	1,6	1,0	Orokorra ⁽¹⁾	1,6	1,7	1,2
Orokorra ⁽²⁾	1,1	1,0	1,2	Orokorra ⁽²⁾	0,6	1,3	1,3
Elik. eta alkoh. gabeko edariak	1,7	0,6	2,1	Elik. eta alkoh. gabeko edariak	0,3	1,1	3,2
Alkoholun edariak, tabakoa	1,8	1,2	-0,2	Alkoholun edariak, tabakoa	1,3	1,2	0,7
Jantziak eta oinetakoak	0,3	0,9	0,9	Jantziak eta oinetakoak	0,7	1,0	0,8
Etxebizitza	1,1	2,8	-5,2	Etxebizitza	1,0	3,2	-4,0
Etxeko tresneria	-0,7	0,5	1,1	Etxeko tresneria	-0,8	0,8	0,4
Osasuna	0,4	0,3	1,3	Osasuna	0,7	2,1	1,5
Garraioak	2,0	0,1	5,7	Garraioak	1,1	0,0	5,8
Komunikazioak	0,3	2,4	0,7	Komunikazioak	-0,1	1,7	0,2
Aisialdia eta Kultura	-0,3	-0,3	0,6	Aisialdia eta Kultura	-1,4	-0,4	0,7
Irakaskuntza	1,6	0,8	1,4	Irakaskuntza	0,6	1,1	0,2
Hotelak eta jatetxeak	1,8	1,6	1,8	Hotelak eta jatetxeak	2,5	2,9	0,5
Bestelakoak	0,5	0,9	1,5	Bestelakoak	-0,4	1,3	1,0
Industria Prezioen Indizea (IPRI)				Nekazariek Jasotako Prezioen Indizea			
Orokorra	2,8	3,2	1,4	Orokorra	3,9	5,6	-1,0
Kontsumoa	1,0	2,1	-0,3	Nekazaritza-produktuak	2,9	9,5	-0,6
Ekipamendua	2,7	1,9	1,6	Baso-produktuak	-0,8	2,9	6,7
Bitartekoak	1,9	2,6	0,0	Animalia-produktuak	5,4	0,6	-1,8

(1): Urteko batez besteko aldakuntza.

(2): Abendutik abendura.

Iturria: Eustat, Nafarroako Estatistika Institutua eta EIN.

Berriz ere 2019ko abenduko urte arteko aldakuntza kontuan hartuta, eta ondasun talde desberdinei erreparatuz gero, EAEn, garraioek izan dute aurrerapen handiena (% 5,7; horrek lotura estua du hilabete horretan Brent upelaren prezioan izandako urte arteko % 22,8ko igoerarekin). Horren atzetik daude, distantzia handira, elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak (% 2,1), hotelak eta jatetxeak (% 1,8) eta bestelakoak multzoan sartutakoak (% 1,5). Bestalde, jantziak eta oinetakoak, komunikazioak eta aisialdia eta kultura izan dira hazkunde txikiena izan dutenak (% 0,9, % 0,7 eta % 0,6, hurrenez hurren),

aldiz, alkoholdun edariak eta tabakoa, eta bereziki, etxebizitza izan dira jaitsiera handiena izan dutenak (-% 0,2 eta -% 5,2, hurrenez hurren). Era berean, Nafarroan ere garraioek izan dute inflazio handiena (% 5,8), eta jarraian, kasu honetan, elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak (% 3,2), osasuna (% 1,5) eta bestelakoak multzoan sartutakoak (% 1) daude. Aldiz, etxeko tresneriak, komunikazioek eta irakaskuntzak izan dituzte hazkunde txikiak (% 0,4 eta % 0,2, hurrenez hurren azken bi kasuetan), eta etxebizitzak izan du atzerakada bakarra (-% 4).

EAEko industria-prezioei dagokienez, 2019an indize orokorrak mugatu egin du hazkunde-erritmoa: % 1,4koa izan da (% 3,2koa izan zen aurreko ekitaldian). Halaber, aurrerapen-erritmoa mugatu dute kontsumo-ondasunek eta bitartekoek ere (% 1,6 eta % 0, aurreko ekitaldian, aldiz, % 1,9 eta % 2,6, hurrenez hurren), eta ekipamendu-ondasunen prezioak pixka bat jaitsi egin dira (2019an, -% 0,3 eta 2018an, % 2,1).

Nafarroako nekazariak jasotako prezioei dagokienez, 2019an -%1 egin dute atzera, besteak beste, nekazaritzako produktuen eta animalia-produktuen prezioak jaitsi direlako (-% 0,6 eta -% 1,8, hurrenez hurren), nahiz eta baso-produktuen prezioek igoera handiagoa izan duten (% 6,7 eta aurreko ekitaldian % 2,9 izan zuten).

30. koadroa		Soldata-adierazleak		
Kontzeptua	2017	2018	2019	
EAE				
Soldata-kostuak (urte arteko aldakuntza-tasa)				
– Soldata-kostua ordu efektibo bakoitzeko	-0,2	2,1	3,4	
– Soldata-kostua langile eta hilabete bakoitzeko	0,1	2,4	1,4	
Hitzarmenak				
– Hitzarmen kopurua	572	508	459	
– Eragina jasandako langileak	204.390	208.410	212.455	
– Adostutako soldata-igoera	1,39	1,79	1,90	
NAFARROA				
Soldata-kostuak (urte arteko aldakuntza-tasa)				
– Soldata-kostua ordu efektibo bakoitzeko	2,8	1,7	2,4	
– Soldata-kostua langile eta hilabete bakoitzeko	4,1	1,8	1,9	
Hitzarmenak				
– Hitzarmen kopurua	227	188	159	
– Eragina jasandako langileak	126.523	88.350	62.040	
– Adostutako soldata-igoera	1,83	1,59	2,36	

Iturria: Lan Kostuaren Hiruhilekoko Inkesta (EIN) eta Lan, Migrazio eta Gizarte Segurantzako Ministerioa.

Azkenik, lan-kostuei dagokienez, EAEn % 3,4 eta Nafarroan % 2,4 hazi da 2019an ordu efektibo bakoitzeko soldata-kostua (2018an, % 2,1 eta % 1,7 izan ziren, hurrenez hurren). Langile eta hilabete bakoitzeko soldata-kostua, berriz, % 1,4 hazi da EAEn eta % 1,9 Nafarroan (igoera horiek, hurrenez hurren, % 2,4 eta % 1,8 izan ziren aurreko ekitaldian).

2.4 LAN-MERKATUA ETA DEMOGRAFIA

Lan-merkatua Euskal Herrian

2019an EAEn eta Nafarroan nahiz estatu-mailan hazkunde ekonomikoaren erritmoa dezeleratu egin denez, okupazioak hazten jarraitu du eta langabezia murriztu da, bai Euskal Herrian, bai estatu-mailan.

Euskal Herriko biztanleria aktiboa 1.345,2 mila pertsonara iritsi da 2019an, hau da, urtetik urterako % 0,4ko hazkunde txikia. Honela sailkatuta daude: 1.225 mila okupatu (aurreko ekitaldian izandakoa baino % 1,6 gehiago) eta 120,2 mila langabe (aurreko ekitaldiarekin alderatuta, % 10,1 gutxiago). Era berean, estatu mailan ere biztanleria aktiboa hazi egin da (% 1); halaber, okupazioa ere hazi egin da (% 2,3) eta langabezia murriztu (-% 6,6).

Sexuari dagokionez, Euskal Herriko biztanleria okupatuaren hazkundea 2019an gizon okupatuaren hazkundeak (% 1,2) nahiz emakume okupatuaren hazkundeak (% 2) markatu dute. Era berean, goranzko joera hori ikus daiteke estatu mailan ere (% 2ko eta % 2,7ko igoera, hurrenez hurren). Biztanleria langabearen jaitsierari dagokionez, bai Euskal Herrian, bai estatuan joera orokorra izan da bi sexuetan: -% 13,5eko eta -% 6,3ko jaitsierak Euskal Herriko gizonen eta emakumeen kasuan, eta -% 8,8 eta -% 4,7, hurrenez hurren, estatu mailan. Horiek horrela, gizon aktiboen kopurua -% 0,2 murriztu da Euskal Herrian; emakume aktiboen kopurua, aldiz, % 1,1 areagotu da. Estatu-mailan, bi kolektiboak igo egin dira: % 0,5 eta % 1,4, hurrenez hurren.

Egoera horretan, jarduera-tasa pixka bat jaitسي da Euskal Herrian (% 56,7 izan da 2019an, eta % 56,9, aldiz, 2018an); EAEn pixka bat apaldu da (% 56,2 izan da 2019an eta % 56,3, aldiz, 2018an) eta Nafarroan, berriz, neurri handiagoan (% 58,6 izan da 2019an, eta aurreko ekitaldian, aldiz, % 59,1). Estatu-mailan, jarduera-tasa ez da aldatu, % 58,6an mantendu da. Beraz, Euskal Herriaren eta estatu osoaren arteko diferentziala ehuneko 1,9 puntukoa izan da.

Sexuaren arabera, Euskal Herrian gizonezkoen jarduera-tasak pixka bat atzera egin du (% 61,2 izan da 2019an, eta aldiz, 2018an, % 61,8 izan zen); emakumezkoena, berriz, hazi egin da (% 52,5 izan da 2019an, eta % 52,3, aldiz, aurreko ekitaldian); hala, bi taseen arteko diferentziala murriztu egin da. Datuak erkatze aldera, 2019an Nafarroako jarduera-tasa EAEn dagokiona baino handiagoa da, bai gizonen kasuan, bai emakumeen kasuan. Estatuak, bestalde, gizonen eta emakumeen jarduera-tasa handiagoak erregistratu ditu (% 64,3 eta % 53,3, hurrenez hurren), Euskal Herrikoekin alderatuta (% 61,2 eta % 52,5, hurrenez hurren).

Euskal Herriko langabeak aintzat hartuta, 2019an zifrak -% 10,1 egin du atzera, 120,2 mila pertsonara arte. EAEn nahiz Nafarroan ere atzerakada izan da (-% 7,8 eta -% 17,5,

hurrenez hurren). Estatu-mailan ere, halaber, langabeen kopurua murriztu egin da 2019an (-% 6,6).

Ondorioz, 2019an, langabezia-tasak aztertutako geografia-eremu guztietan egin du behera, oro har. Euskal Herriaren esparruan, jaitsi egin da, 2018an % 10 izatetik 2019an % 8,9 izatera igaro da. Jaitsi egin da bai EAEn (% 9,2 izan da 2019an, eta % 10, aldiz, 2018an), bai Nafarroan (% 8,2 izan da 2019an, eta % 10, aldiz, aurreko ekitaldian). Estatu-mailan, langabezia-tasa % 14,1era jaitsi da (aurreko ekitaldian % 15,3koa izan zen); hala ere, komeni da nabarmentzea zifra hori Europa mailako altuenetakoa dela oraindik ere.

31. koadroa Biztanleria aktiboa, enplegua eta langabezia

(urteko batezbestekoak, milakotan)

Eremua		2018			2019		
		Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira
EAE	Aktiboak izan daitezkeenak	875,0	948,0	1.822,9	880,4	953,7	1.834,1
	Aktiboak	536,6	489,3	1.025,9	533,1	497,3	1.030,4
	Okupatuak	482,4	441,1	923,6	485,7	450,4	936,1
	Langabeak	54,1	48,2	102,3	47,4	46,9	94,3
	Jarduera-tasa	61,3	51,6	56,3	60,6	52,1	56,2
	Langabezia-tasa	10,1	9,9	10,0	8,9	9,4	9,2
	Erregistratutako langabezia*	53,0	66,7	119,7	51,2	63,0	114,2
Nafarroa	Aktiboak izan daitezkeenak	261,2	269,5	530,8	264,2	272,7	536,9
	Aktiboak	165,7	147,9	313,6	167,7	147,1	314,8
	Okupatuak	150,7	131,5	282,2	155,3	133,6	288,9
	Langabeak	15,0	16,4	31,4	12,4	13,6	25,9
	Jarduera-tasa	63,4	54,9	59,1	63,5	53,9	58,6
	Langabezia-tasa	9,1	11,1	10,0	7,4	9,2	8,2
	Erregistratutako langabezia*	14,0	18,9	32,8	14,2	19,0	33,2
Euskal Herria	Aktiboak izan daitezkeenak	1.136,2	1.217,5	2.353,7	1.144,6	1.226,4	2.371,0
	Aktiboak	702,3	637,2	1.339,5	700,8	644,4	1.345,2
	Okupatuak	633,1	572,6	1.205,8	641,0	584,0	1.225,0
	Langabeak	69,1	64,6	133,7	59,8	60,5	120,2
	Jarduera-tasa	61,8	52,3	56,9	61,2	52,5	56,7
	Langabezia-tasa	9,8	10,1	10,0	8,5	9,4	8,9
	Erregistratutako langabezia*	67,0	85,5	152,5	65,4	82,0	147,4
Espainia	Aktiboak izan daitezkeenak	18.908,8	19.978,0	38.886,8	19.094,5	20.174,8	39.269,3
	Aktiboak	12.206,5	10.600,3	22.806,8	12.273,4	10.753,7	23.027,1
	Okupatuak	10.532,0	8.795,7	19.327,7	10.745,6	9.033,7	19.779,3
	Langabeak	1.674,6	1.804,5	3.479,1	1.527,8	1.720,0	3.247,8
	Jarduera-tasa	64,6	53,1	58,6	64,3	53,3	58,6
	Langabezia-tasa	13,7	17,0	15,3	12,4	16,0	14,1
	Erregistratutako langabezia*	1.337,2	1.865,1	3.202,3	1.328,4	1.835,2	3.163,6

(*): Abendua.

Iturria: EIN (Biztanleria Aktiboaren Inkestako biztanleria-oinarria, 2011. 2020ko martxoko datuak) eta SEPE.

EAEren nahiz Nafarroaren esparruan, 2019an langabezia-tasa murriztu egin da bai gizonen kasuan, bai emakumeenean: gizonetzkoen tasak 2018an % 10,1 izatetik 2019an % 8,9 izatera pasatu dira, eta % 9,1etik % 7,4ra, hurrenez hurren; aldiz, emakumeen tasak % 9,9tik % 9,4ra eta % 11,1etik % 9,2ra, hurrenez hurren. Hala, langabezia-tasa jaitsi egin da bi sexuen kasuan, bai Euskal Herrian, bai Estatuan. Hain zuzen ere, Estatuan, gizonetzkoen langabezia-tasa % 12,4ra jaitsi da (% 13,7koa zen 2018an), eta emakumeena, % 16ra (aurreko ekitaldian % 17koa zen). Edonola ere, aztertutako geografia-eremu guztietan, emakumeek gizonek baino langabezia-tasa handiagoa dute.

Puntu honetara iritsita, txostenaren aurreko edizioetan bezala, jarraian labur aztertuko dugu langabezia, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoan (SEPE) erregistratutako langabeziaren ikuspegitik. Horretarako, aintzat hartu beharko da, kasu zehatz honetan, eskaintako informazioa abenduari dagokiola, eta ez ekitaldi osoari. Hala, iturri horren arabera, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren Euskal Herriko bulegoetan 2019ko abenduan erregistratutako langabezia 147,4 mila pertsonakoa zen; hau da, aurreko ekitaldiarekin alderatuta, -% 3,3ko murrizketa. Horietatik 114,2 mila pertsona EAEkoak ziren, eta 33,2 mila pertsona, berriz, Nafarroakoak. Kopuru horiek urte arteko -% 4,6 murrizketa eta % 1,2ko hazkundea dakartzate, hurrenez hurren. Estatuari dagokionez, 2019ko abenduan erregistratutako langabeziak atzera egin du (-% 1,2), 3.163,6 mila pertsonara iritsi arte.

32. koadroa Langabezia-tasa adin-tarteen arabera. Urteko batezbestekoak

Eremua	Urtea	16-19	20-24	25-54	55 eta gehiago	Guztira (%)
EAE	2017	36,4	26,0	10,8	8,8	11,3
	2018	30,4	24,9	9,2	8,6	10,0
	2019	39,1	25,4	7,9	8,9	9,2
Nafarroa	2017	42,9	28,7	9,2	6,2	10,2
	2018	42,4	22,9	9,2	7,3	10,0
	2019	45,5	20,1	7,9	4,9	8,2
Euskal Herria	2017	38,9	26,7	10,5	8,2	11,1
	2018	34,3	24,4	9,2	8,3	10,0
	2019	40,4	24,1	7,9	8,0	8,9
Espainia	2017	54,5	35,2	15,9	14,8	17,2
	2018	49,7	31,0	14,0	13,3	15,3
	2019	45,2	29,8	12,9	12,2	14,1

Iturria: EIN (Biztanleria Aktiboaren Inkestako biztanleria-oinarria, 2011. 2020ko martxoko datuak).

Biztanleria Aktiboaren Inkesta berriro ere aintzat hartuta (urteko batezbesteko datuak), langabezia-tasan alde handiak daude adinaren arabera; hala, gazteenek dituzte balio altuenak. Zehazki, 2019an 16 eta 19 urte arteko Euskal Herriko biztanleek % 40,4ko langabezia-tasa erregistratu dute. Ondoren, 20 eta 24 urte bitartekoak (% 24,1), 55 edo gehiagokoak (% 8) eta, azkenik, 25-54 urte artekoak (% 7,9) daude.

Aurreko ekitaldiari dagokionez, Euskal Herriaren kasuan, langabezia-tasak gora egin du gazteenen artean (2018an % 34,3 izatetik 2019an % 40,4 izatera), baina, oro har, langabezia-tasari eutsi egin diote beste adin talde guztiek: 20 eta 24 urte artekoetan, 2018an % 24,4 izatetik 2019an % 24,1 izatera; 25 eta 54 urte artekoetan, % 9,2tik % 7,9ra, eta 55 urte baino gehiagokoen artean, % 8,3tik % 8ra.

Bestalde, estatu-mailan, oro har, langabezia-tasa murriztu egin da adin talde guztietan. Kasu honetan ere, gazteenek dute tasa altuena (% 45,2koa izan da 2019an).

33. koadroa Enpleguaren bilakaera, sektore ekonomikoen arabera. Urteko batezbestekoak

Eremua	Urtea	(m.pertsona)			
		Lehen sektorea	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
EAE	2017	12,8	207,6	48,0	636,3
	2018	9,3	200,8	50,3	663,3
	2019	10,2	190,7	52,9	682,3
Nafarroa	2017	11,1	75,0	14,9	177,8
	2018	11,8	75,2	17,8	177,4
	2019	10,2	74,9	16,2	187,6
Euskal Herria	2017	23,9	282,6	62,9	814,1
	2018	21,1	276,0	68,1	840,7
	2019	20,4	265,6	69,1	869,9
Espainia	2017	819,5	2.647,4	1.128,3	14.229,6
	2018	812,6	2.708,3	1.221,8	14.585,1
	2019	797,3	2.763,1	1.277,9	14.941,0

Iturria: EIN (Biztanleria Aktiboaren Inkestako biztanleria-oinarria, 2011. 2020ko martxoko datuak). (EJSN-09).

Enpleguak Euskal Herrian izan duen sektorekako bilakaerari dagokionez, 2019an gora egin dute zerbitzuetako nahiz eraikuntzako okupazio mailek (% 3,5 eta % 1,5, hurrenez hurren); aldiz, industriaren eta lehen sektorearen okupazio mailetan jaitsiera izan da (-% 3,8 eta -% 3,3, hurrenez hurren). Edonola ere, kontuan izan behar da Euskal Herriko enpleguaren zati handiena zerbitzuen sektorekoa dela (guztizkoaren % 71, eta gehiena EAEn kokatuta dago), eta atzetik beste sektore hauek daude: industria (% 21,7), eraikuntza (% 5,6) eta lehen sektorea (% 1,7).

Estatu-mailan, lehen sektorean izan ezik (-% 1,9), gainerako guztietan gora egin du okupazio mailak 2019an: eraikuntzan % 4,6, zerbitzuetan % 2,4 eta industrian % 2.

Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoan erregistratutako kontratuak aintzat hartuta, 2019an hazi egin dira, oro har, aztertu ditugun geografia-eremu guztietan. Zehazki, ekitaldi horretan 1.406.992 kontratu jakinarazi dira Euskal Herrian; alegia, % 1,5eko igoera izan da (% 0,7 EAEn eta % 3,6 Nafarroan). Estatuan, berriz, 22.512.221 kontratu jakinarazi dira, hots, % 1eko igoera.

Kontratu motaren arabera, bai Euskal Herrian, bai Estatu osoan, kontratazioen igoera aldi baterako kontratuen igoerak ekarri du (% 2 eta % 1,7, hurrenez hurren). Izan ere, kontratu mugagabeak murriztu egin dira (-% 4,3 eta -% 5,5, hurrenez hurren). Gainera, kontuan hartu behar da erregistratutako kontratuen % 90 baino gehiago aldi baterakoak direla.

34. koadroa SEPEren bulegoetan erregistratutako kontratuak

Eremua	Urtea	Mugagabeak			Aldi baterakoak				KONTRATUAK, GUZTIRA
		Mugagabea	Konbertsioak	Guztira	Obra eta Zerbitzua	Behin-behinekoak	Gainerakoak	Guztira	
EAE	2017	48.217	25.111	73.328	268.594	418.855	197.323	884.772	958.100
	2018	56.782	31.843	88.625	276.898	444.299	191.359	912.556	1.001.181
	2019	51.433	32.498	83.931	272.401	471.146	180.697	924.244	1.008.175
Nafarroa	2017	13.023	8.649	21.672	89.166	171.908	88.685	349.759	371.431
	2018	14.430	11.454	25.884	90.283	180.078	88.736	359.097	384.981
	2019	14.009	11.593	25.602	91.337	193.380	88.498	373.215	398.817
Euskal Herria	2017	61.240	33.760	95.000	357.760	590.763	286.008	1.234.531	1.329.531
	2018	71.212	43.297	114.509	367.181	624.377	280.095	1.271.653	1.386.162
	2019	65.442	44.091	109.533	363.738	664.526	269.195	1.297.459	1.406.992
Espainia	2017	1.242.805	686.445	1.929.250	8.278.306	9.412.876	1.880.871	19.572.053	21.501.303
	2018	1.446.936	837.988	2.284.924	8.274.521	9.830.653	1.901.583	20.006.757	22.291.681
	2019	1.323.913	835.521	2.159.434	8.193.202	10.341.952	1.817.633	20.352.787	22.512.221

Iturria: SEPE.

Gizarte- eta lan-giroa dela eta, EAEko langileen kasuan izan ezik, 2019an negoziazio kolektiboak garapen txikiagoa izan du aurreko ekitaldian baino; hala, aztertutako geografia-eremuetan hitzarmen gutxiago negoziatu dira, eta pertsona gutxiagori eragin diete horiek. Ildo horretan, 2019an negoziatutako hitzarmen kolektiboetan jaitsiera hauek izan dira: EAEn -% 9,6, Nafarroan -% 15,4 eta estatu mailan -% 15,7. Bestalde, hitzarmen kolektibo horien eraginpean dauden langileak -% 29,8 murriztu dira Nafarroan, eta -% 8,5 estatu-mailan. Aldiz, EAEn, % 1,9 ugartu dira.

35. koadroa Hitzarmen kolektiboak eta grebak

Eremua	Urtea	Hitzarmen kolektiboak			Grebak*			
		Kopurua	Eragindako langileak	Adostutako soldata-igoera	Kopurua	Langile parte-hartzaileak	Greba bakoitzeko langileak	Lan egin gabeko lanaldiak
EAE	2017	572	204.390	1,39	180	59.389	330	100.636
	2018	508	208.410	1,79	224	46.630	208	129.709
	2019	459	212.455	1,90	247	75.803	307	378.601
Nafarroa	2017	227	126.523	1,83	43	1.956	45	4.750
	2018	188	88.350	1,59	47	2.481	53	3.407
	2019	159	62.040	2,36	101	5.387	53	18.604
Espainia	2017	5.741	10.855.280	1,46	730	225.723	309	594.253
	2018	4.778	11.054.416	1,76	726	338.671	466	907.631
	2019	4.028	10.118.233	2,27	856	261.934	306	840.834

* Ez ditu jasotzen greba orokorretako datuak. 2019ko datuak urtarrila-abendua bitarteko aurrerapenari dagozkio.

Iturria: Lan, Migrazio eta Gizarte Segurantzako Ministerioa. 2020ko apirilko datuak.

Laneko gatazkei dagokienez, 2019an greba kopurua ugartu egin da, oro har: % 10,3 EAEn, % 17,9 estatu-mailan eta % 114,9 Nafarroan. Bestetik, greben eragina jasandako langileak eta lan egin gabeko lanaldiak ugartu egin dira bai EAEn (% 62,6 eta % 191,9, hurrenez hurren), bai Nafarroan (% 117,1 eta % 446,1, hurrenez hurren). Estatu osoa aintzat hartuta, aldiz, jaitsi egin dira (-% 22,7 eta -% 7,4ko atzerakada, hurrenez hurren).

Biztanleria

Euskal Herriko biztanleria pixka bat hazi da 2018an (% 0,3); zehazki, % 0,2ko gorakada egon da EAEn eta % 0,7koa Nafarroako Foru Komunitatean. Hala, Euskal Herria 2.846.642 biztanle izatera iritsi da. Horietatik 2.199.088 EAEkoak dira, eta 647.554, berriz, Nafarroakoak. Estatuari dagokionez, 46.722.980 biztanle izatera iritsi da 2018an, hortaz, % 0,3ko igoera txikia izan da.

2018an 21.498 jaiotza egon dira Euskal Herrian (aurreko ekitaldiarekiko -% 5,8ko jaitsiera izan da) eta 27.582 heriotza (aurreko ekitaldian baino % 0,4 gehiago). Horrenbestez, saldo begetatibo negatiboa -6.084 pertsonakoa izan da, jarraipena emanez 2014an hasitako hazkunde begetatibo negatiboan joerari.

36. koadroa Biztanleriaren mugimendu naturala. Jaiotza- eta heriotza-tasak, 2018

Eremua	Jaiotzak	Heriotzak	Hazkunde begetatiboa	Jaiotza-tasa (%)	Heriotza-tasa (%)
Araba	2.683	2.765	-82	8,2	8,4
Bizkaia	7.945	11.963	-4.018	6,9	10,4
Gipuzkoa	5.472	7.035	-1.563	7,6	9,8
EAE	16.100	21.763	-5.663	7,3	9,9
Nafarroa	5.398	5.819	-421	8,3	9,0
Euskal Herria	21.498	27.582	-6.084	7,6	9,7
Espania	372.777	427.721	-54.944	8,0	9,2

Iturria: Biztanleriaren mugimendu naturala (EIN). 2019ko abenduko datuak.

Testuinguru horretan, Euskal Herriko jaiotza-tasak behera egin du (2018an % 7,6 eta 2017an % 8) eta heriotza-tasa, berriz, berdina mantendu da (2017an nahiz 2018an % 9,7). Estatuan, jaiotza-tasa handiagoa izan da (% 8) eta heriotza-tasa txikiagoa (% 9,2).

Ezkontzei dagokienez, EAEn eta Nafarroan 9.187 izan dira 2018an; hots, aurreko ekitaldian baino -% 5,6 gutxiago. Estatuan 162.743 ezkontza egon dira, aurreko urtean baino -% 3,7 gutxiago.

37. koadroa Euskal Herriko biztanleriaren mugimenduaren bilakaera

Urtea	Biztanleria	Ezkontzak	Jaiotzak	Jaiotza-tasa (%)	Heriotzak	Heriotza-tasa (%)	Hazkunde begetatiboa	Migrazio-saldoa* (autonomia artekoa)
2008	2.777.489	11.720	28.339	10,2	24.725	8,9	3.614	999
2009	2.802.753	10.985	27.749	9,9	24.761	8,8	2.988	2.554
2010	2.815.263	10.665	27.948	9,9	24.344	8,6	3.064	2.904
2011	2.826.657	10.304	27.902	9,9	24.990	8,8	2.912	4.362
2012	2.837.659	10.171	27.264	9,6	25.657	9,0	1.607	3.875
2013	2.836.159	9.286	25.191	8,9	25.043	8,8	148	2.920
2014	2.829.775	9.595	25.562	9,0	25.677	9,1	-115	4.078
2015	2.829.733	9.861	24.856	8,8	27.191	9,6	-2.335	3.138
2016	2.830.181	9.763	24.141	8,5	26.951	9,5	-2.810	3.305
2017	2.837.392	9.733	22.823	8,0	27.478	9,7	-4.655	1.052
2018	2.846.642	9.187	21.498	7,6	27.582	9,7	-6.084	682

* 2017tik aurrera, 0 adinari eragiten zion barne-migrazioaren akatsa zuzentzen da.

Iturria: Biztanleriaren mugimendu naturala (EIN). Migrazio-mugimenduak (EIN) 2019ko abenduko datuak.

Azkenik, nabarmendu behar da 2018an Euskal Herriak migrazio-saldo (autonomia artekoa) positiboa izan duela, 682 pertsonakoa, immigrazio-kopuru handiagoa egon delako emigrazio-kopurua baino. Zehazki, EAEk -9 pertsonako migrazio-saldo negatiboa izan du, eta Nafarroak, berriz, 691 pertsonako migrazio-saldo positiboa.



19



3. INDUSTRIA

1. IKUSPEGI OROKORRA

Aurreko ekitaldian baino apalago izan arren, Euskal Herriko industria-sektorearen jarduerak hobera egin zuen 2019an. Ondorioz, aurreko urteetako joera positiboari jarraipena eman zion.

Geografia-eremu ezberdinei dagokienez, EAEn balio erantsi gordina % 1,1 hazi zen 2019an; aurreko urtean, berriz, % 2,5. Nafarroaren kasuan, % 1,6 hazi zen 2019an, eta % 2,0 urtebete lehenago. Hala ere, nabarmentzekoa da ekitaldian zehar sektoreak izandako goranzko joera, bai EAEn (% 0,4, % 1,0, % 0,8 eta % 2,3ko hazkundeak, 2019ko lauhileko bakoitzean), bai Nafarroan (% 1,6, % 1,3, % 1,5 eta % 2,0). Era berean, 2019an EAEn eta Nafarroan industria-jarduerak izandako hazkundera apur bat altuagoa izan zen Estatukoa baino (% 0,6).

BAIren arabera, industria-enplegua % 5,0 murriztu zen EAEn 2019an (BJAren arabera, -% 1,5). Nafarroaren kasuan, % 0,4 murriztu zen (2018an, aldiz, % 0,3 handitu zen). Bi kasuetan, datuak Estatukoak baino baxuagoak dira (% 2,0ko hazkundera 2019an, eta % 2,3koa 2018an).

Ekoizpen-indizeak

Industria Produkzioaren Indizeak (IPI) bilakaera positiboa izan zuen. IPIk gora egin zuen EAEn, Estatuan, eta, batez ere Nafarroan. Hain zuzen ere, Nafarroan produkzio-indizea nabarmen igo zen, % 9,8 hazi baitzen (aurreko ekitaldian, aldiz, -% 0,5). EAEn % 1,6 hazi zen indizea (2018an % 2,2). Estatuan, berriz, hazkunde apala izan zuen, % 0,7koa (2018an % 0,2koa).

38. koadroa Industria Produkzioaren Indizearen
(IPI) bilakaera

Urtea	EAE		
	EAE	Nafarroa	Estatua
	IPI(*)	IPI(*)	IPI(*)
2012	-5,3	-8,0	-6,7
2013	-3,6	-1,6	-1,6
2014	1,5	3,9	1,3
2015	3,3	2,2	3,4
2016	3,1	0,7	1,8
2017	5,7	-2,1	3,2
2018	2,2	-0,5	0,2
2019	1,6	9,8	0,7

(*): Egutegiaren arabera zuzendutako datuak.

Iturria: Geuk egina, Eustaten, Nafarroako Estatistika Institutuaren (NEI), EINen eta Iberdrolaren datuetatik abiatuta.

39. koadroa Euskal Herriko Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera, ondasunen jomuga ekonomikoaren arabera

Urtea	Bitarteko ondasunak		Ekipo-ondasunak		Kontsumo-ondasunak		Energia	
	EAE*	Nafarroa	EAE*	Nafarroa	EAE*	Nafarroa	EAE*	Nafarroa
2012	-6,7	-6,7	-5,3	-10,3	-2,8	-4,9	-2	-7,1
2013	-3	-4,6	-3,9	3,3	-5	-0,2	-3	-6,8
2014	2,5	10,0	1,8	3,4	0	3,2	0,1	-6,0
2015	1,1	-0,8	7,1	4,9	3,1	2,4	1,4	6,9
2016	2,3	0,9	8,6	-0,3	1,4	0,8	-3,6	12,8
2017	7,8	7,4	3,3	-4,5	5,4	-0,5	3	2,7
2018	0,6	7,3	4,3	-2,8	5,5	0,9	1,4	-12,1
2019	0,1	-2,1	1,8	18,4	2,5	0,0	5,6	45,5

(*): Egutegiaren arabera zuzendutako datuak.

Iturria: Geuk egin Eustaten eta Nafarroako Estatistika Institutuaren (NEI) datuetatik abiatuta.

EAEko Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera ondasunen helmuga ekonomikoaren arabera aztertuz gero, 2019an helmuga ekonomiko guztiak moteldu egin zirela ikus daiteke, energia izan ezik. Zehazki, bitarteko ondasunek % 0,1eko hazkundera izan zuten, ekipamendu-ondasunek % 1,8koa, kontsumo-ondasunek % 2,5ekoa eta energiak % 5,6koa. Nafarroaren kasuan, bilakaera ezberdinagoak izan zituzten. Bitarteko ondasunek behera egin zuten (-% 2,1), kontsumo-ondasunak mantendu egin ziren (% 0,0), eta nabarmen hazi ziren ekipamendu-ondasunak (% 18,4), eta, bereziki, energia (% 45,5).

EAEko Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera jarduera-adarren arabera aztertuz gero, 2019an Farmaziako produktuek izandako gorakada nabarmentzen da (% 27,5), baita Energia elektrikoa, gasa eta lurrunaren jarduerak izandakoa ere (% 14,6). Aitzitik, nabarmentzekoa da Koke-fabrikek eta petrolio-finketak izandako beherakada (-% 15,3). Beherakada txikiagoa izan zuten Produktu informatikoen eta elektronikoen (-% 3,4), Industria kimikoen (-% 2,7) eta Erauzketa-industriek (-% 2,5).

Era berean, honako jarduera hauek ere gora egin zuten: Material eta ekipo elektrikoa (% 5,6), Altzariak eta beste manufaktura batzuk (% 3,9), Zura, papera eta arte grafikoak (% 3,0), Jantzigintza, larrugintza eta oinetakogintza (% 2,2), Kautxua eta plastikoak (% 1,8), Makineria eta ekipoa (% 1,0), Garraiorako materiala (% 0,8), Metalurgia (% 0,1) eta Elikagaien, edarien eta tabakoaren industriak (% 0,1).

40. koadroa EAEko Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera, jarduera-adarraren arabera*

Kontzeptua	2017	2018	2019 (%)
Erauzketa-industriak	-2,7	13,6	-2,5
Elikagai, edari eta tabakoaren industriak	5,9	7,2	0,1
Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta oinetakogintza	2,7	-7,7	2,2
Zura, papera eta arte grafikoak	1,4	0,6	3,0
Koke-fabrikak eta petrolio-finketa	2,3	9,7	-15,3
Industria kimikoa	7,2	0,6	-2,7
Farmaziako produktuak	-2,4	2,5	27,5
Kautxua eta plastikoak	8,5	0,2	1,8
Metalurgia	7,9	0,1	0,1
Informatika- eta elektronika-produktuak	17,3	8,4	-3,4
Material eta ekipo elektrikoa	2,0	6,4	5,6
Makineria eta ekipoa	0,1	4,7	1,0
Garraiorako materiala	6,5	3,9	0,8
Altzariak eta beste manufaktura batzuk	2,9	3,4	3,9
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	3,9	-1,5	14,6

(*): Egutegiaren arabera zuzendutako datuak.

Iturria: Eustat.

41. koadroa Nafarroako Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera, jarduera-adarraren arabera

Kontzeptua	2017	2018	2019 (%)
Nekazaritzako elikagaien industria	-2,3	-1,6	3,6
Metalurgia eta produktu metalikoak	8,7	2,7	6,1
Papera, zura eta altzariak	7,1	8,8	0,0
Garraiorako materiala	-14,6	0,1	13,3
Beste manufaktura-industria batzuk	6,4	3,5	-1,2

Iturria: Nafarroako Estadistika Institutua (NEI).

Nafarroaren kasuan, nabarmentzekoa da 2019an Garraio-materialak izandako gorakada, % 13,3 hazi baitzen jarduera horren IPIa. Nekazaritzako elikagaien industriaren (% 3,6) eta Metalurgia eta produktu metalikoen (% 6,1) ekoizpena ere handitu egin zen, Papera, zura eta altzariak mantendu egin ziren (% 0,0), eta Beste manufaktura-industria batzuek (-% 1,2) behera egin zuten.

Enpresen emaitzak

2019an erregistratutako industria-jardueraren gorakada apalak izan zuen eragina Euskal Herriko industria-enpresen emaitzetan ere. Jarraian ikusiko dugu moduan, emaitza positiboak izaten jarraitu zuten, baina aurreko ekitaldian baino errentagarritasun txikiagoarekin.


42. koadroa Ratio batzuen bilakaera, euskal industria-enpresen lagin baterako

Ratioak	2015	2016	2017	2018	2019
Bitarteko kontsumoak/salmentak	56,7	56,8	55,6	53,8	58,8
Langileen kostuak/salmentak	20,8	20,2	22,0	22,3	19,9
Finantza-karga garbia/salmentak	1,6	1,3	1,3	1,2	1,0
Mozkinak/salmentak	7,7	9,0	5,9	8,6	6,0
Mozkinak/berezko funtsak	14,6	16,3	8,7	16,7	11,0
Cash flow/salmentak	10,2	11,0	9,9	12,7	10,1
Salmentak/langileak (m euro)	196,8	204,4	196,3	174,5	230,9

Iturria: CNMV eta geuk egina.

Zehazki, urtez urte aztertutako euskal industria-enpresa nagusien laginari dagokionez, irabaziaz/salmentak ratioa % 6,0koa izan zen 2019an, eta irabaziaz/funtsak ratioa % 11,0koa (zergen aurretik kalkulatuta). Bi kasuetan, 2019ko tasak aurreko ekitaldikoak baino apur bat baxuagoak izan ziren (% 8,6 eta % 16,7, hurrenez hurren).

4. grafikoa Industria-errentagarritasuna



Iturria: Geuk egina.

Aurrez aipatutako euskal industria-enpresa nagusien laginaren emaitzetan ikusten den bilakaera bat dator Espainiako Bankuaren Hiruhilekoko Balantzeen Zentralak emandako emaitzekin. Emaitza horiek Espainiako 960 enpresa ez-finantzariok osatutako lagin batetik ateratakoak dira, 2019ko lau hiruhilekoetan bildutako datuen arabera. Enpresa horiek enpresa ez-finantzarioen sektorearen balio erantsi gordinaren % 12,4 ordezkatzen dute.

Hiruhilekoko Balantzeen Zentralak jasotako datuen arabera, 2019an enpresa-jarduera moteldu egin zen. Hala, balio erantsi gordinak (BEG) hazten jarraitu bazuen ere (% 1,8, termino nominaletan), igoera hori aurreko urtekoa baino hiru hamarren txikiagoa izan zen (% 2,1).

43. koadroa Emaizten kontua. Urte arteko bilakaera (enpresa berei dagozkien hazkunde-tasak, aurreko urteko aldi berarekiko)

OINARRIAK	Hiruhilekoko Balantzeen Zentrala ^(*)		
	2017 I-IV / 2016 I-IV	2018 I-IV / 2017 I-IV	2019 I-IV / 2018 I-IV
Enpresa kopurua/Nazioko guztizko estaldura	993/% 14,0	1.030/% 13,9	960/% 12,4
1. Produkzioaren balioa (diru-laguntzak barne)	5,7	4,7	0,0
Negozio-zifraren zenbateko garbia eta ustiapenaren bestelako diru-sarrerak	7,3	6,4	-1,5
2. Bitarteko kontsumoak (tributuak barne)	8,4	5,9	-0,8
Erosketa garbiak	10,8	5,8	-2,2
Beste ustiapen-gastu batzuk	4,0	5,1	0,1
S.1. BALIO ERANTSI GORDINA FAKTOREEN KOSTUAREKIKO (1-2)	0,4	2,1	1,8
3. Langile-gastuak	2,7	3,0	2,9
S.2. USTIAPENAREN EMAITZA EKONOMIKO GORDINA (S.1.-3)	-1,9	1,3	0,8
4. Diru-sarrera finantzarioak	14,0	16,0	21,2
5. Gastu finantzarioak	-9,6	-4,8	-4,9
6. Amortizazioak eta ustiapen-hornidurak	0,7	1,2	1,6
S.3. OHIKO EMAITZA GARBIA (S.2 + 4 -5 -6)	5,2	9,2	10,9
7. Besterentzeen eta narriaduraren ondoriozko emaitzak	--	--	-69,5
8. Arrazoizko balioaren aldakuntzak eta gainerako emaitzak	60,6	-68,5	-26,3
9. Mozkinen gaineko zergak	-49,8	-11,5	10,8
S.4. EKITALDIAREN EMAITZA (S.3 + 7 + 8 -9)	-16,4	89,6	-20,5
EKITALDIAREN EMAITZA / BEG (S.4 / S.1)	24,5	44,0	38,6
ERRENTAGARRITASUNAK	--	--	--
R.1. Aktibo garbiaren ohiko errentagarritasuna (zergen aurretik)	5,9	6,5	7,2
R.2. Jasotako finantzaketa interesak/kostua duten besteren baliabideak	2,3	2,2	2,0
R.3. Baliabide propioen ohiko errentagarritasuna (zergen aurretik)	8,8	9,8	11,0
R.4. Aldea: errentagarritasuna – kostu finantzarioa (R.1. - R.2.)	3,6	4,3	5,1

(*): Zutabe horietako datu guztiak hiruhilekoko datuen batezbesteko haztatu moduan kalkulatu dira.

Iturria: Espainiako Bankua.

Enpleguaren hazkunde-tasak ere behera egin zuen % 0,8koa izateraino, urtebete lehenago baino ehuneko 0,6 puntu baxuagoa. Langile finkoen kontratazioak % 1,4 egin zuen gora, eta horrek langile kopuruaren gorakada eragin zuen.

Jardueraren dinamismoa apalagoa izan arren, emaitza ekonomiko gordinak gora egin zuen apur bat, % 0,8. Dibidendu gehiago jaso izanak diru-sarrera finantzarioen igoera eragin zuen. Aldi berean, finantzaketa-kostuen jaitsierak gastu finantzarioek behera egitea eragin zuen. Bi faktore horien ondorioz, ohiko emaitza garbiak % 10,9 egin zuen gora 2019an, aurreko urtean erregistratutako igoera baino ehuneko puntu bat gehiago; izan ere, % 9,2ko igoera izan zuen 2018an.

Bestalde, ezohiko diru-sarrera eta gastuek eragin negatiboa izan zuten ekitaldiaren emaitzan. 2018ko emaitzarekin alderatuta, % 20,5 behera egin zuen 2019koak, batez ere, urte horretan ezohiko diru-sarrera gutxiago izan zirelako. BEGaren gaineko ehunekotan adierazita, amaierako soberakina % 38,6koa izan zen. 2018an, berriz, % 44koa.

Azkenik, ohiko irabazien igoerak, enpresen errentagarritasunak ere gora egitea eragin zuen. Bestetik, finantzaketa-kostuek beheranzko joerarekin jarraitu zuten. Ondorioz, aktiboaren errentagarritasunaren eta finantzaketaren batez besteko kostuaren arteko diferentziala hazi egin zen berriro.

2. ENERGIA

Nazio Batuen Erakundeak Aldaketa Klimatikoaren Inguruko 25. Biltzarra (COP25) egin zuen 2019ko abenduaren 2tik 15era Madril, Txile presidente zela. Aldi berean, Kiotoko Protokoloaren aldean arteko 15. bilera (CMP15) egin zuten, eta Pariseko Akordioaren aldean arteko bigarren bilera (CMA2). AEBk, Brasilek eta Australiak ez zuten COP25aren lehendakaritzak aurkeztutako zirriborroa onartu nahi izan, beste batzuetan bezala. Ondorioz, goi-bilera egun batzuez luzatu behar izan zuten.

Azkenean, gogor negoziatu ondoren, "Txile-Madril. Ekiteko garaia" akordioa lortu zuten NBERen klimaren konbentzioa osatzen duten ia 200 herrialdeek. Akordio horretan oinarri batzuk ezarri zituzten, klima-larrialdiaren aurrean herrialdeek anbizio handiagoa izan dezaten. Hala, akordio berriak:

- Pariseko Akordioan ezarritako egutegia jarraitu eta 2020an klima-aldaketaren aurkako borrokarako hartutako konpromisoak anbizio handiagokoak izatea eskatzen du
- konpromiso berri horiek Pariseko Akordioaren helburuarekin bat etortzeko "premia larria" dagoela adierazten du, hau da, 1,5 gradutik gorako tenperatura-igoera saihestea
- anbizioaren igoera horrek zientziak dioenarekin eta jendeak kalean eskatzen duenarekin bat etorri behar duela aldarrikatzen du
- aintzat hartzen du gobernuz kanpoko eragileek klima-aldaketaren aurka egiten duten lana, eta egiten dituzten ekintzak areagotu ditzaten eta klimarekin bateragarriak diren estrategiak orokortu ditzaten eskatzen die
- herrialderik zaugarrienetan klima-aldaketak eragiten dituen kalte konponezinei eman beharreko erantzunak lantzeko eta sakontzeko konpromisoa hartzen du, Galeren eta Kalteen Mekanismoaren baitan
- Genero Plan berri bat adosten du, klima-aldaketak emakumeengan eta neskeengan duen eragin ezberdinari erantzuteko
- hurrengo COP goi-bilerarako merkatu-mekanismoak diseinatzeko ardura hartzen dute herrialdeek. Mekanismo horiek kontabilitate bikoitza saihestuko dute, Pariseko Akordioaren helbururako balioko dute eta ingurumen-gaiak sisteman integratuta egotea bermatuko dute

Hala ere, adituen arabera, akordio honek COP26ra arte atzeratu du karbono-emisioak murrizteko asmo handiko plana aurkeztea. Dena den, hainbat ingurumen-erakunderen kontrako mugimenduek markatu zuten COP25, baita Greta Thunberg ekintzailearen iritsierak eragindako zalaparta mediatikoak ere; izan ere, Atlantikoa katamaran batean zeharkatuta iritsi zen.

Hortaz, argi-ilunak izan zituen goi-bilerak. Herrialde guztiak ez ziren bat etorri negutegi-efektuko gasak murrizteko konpromisoak areagotzeko beharrarekin, eta karbonoaren merkatuen erregulazioaren gaineko iritzi ezberdinak izan zituzten.

EBren energia-politikari dagokionez, hiru helburu nagusi izaten jarraitzen du: hornikuntza-segurtasuna, lehiakortasuna eta jasangarritasuna. Horretarako, 2030era bitarteko klima-eta energia-gaietako ekintza-esparruaren baitan, landu beharreko etorkizuneko politiken inguruko eztabaidak hastea proposatzen du EBk, honako kontu hauek aintzat hartuta:

- 2050rako negutegi-efektuko gasen emisioak % 80-95 murriztea, 1990eko mailarekin alderatuta
- energiaren prezio altuak eta etorkizuneko prezio-igoeren aurrean EBren zaugarritasun ekonomikoa, bereziki gasaren eta petrolioaren prezio-igoeren aurrean
- energiaren inportazioari dagokionez EBren mendekotasuna; askotan politikoki ezegonkorak diren lekuetatik inportatzen da energia
- energia-azpiegiturak ordezkatzeko eta hobetzeko beharra, eta inbertitzaile posibleei esparru erregulatzailerik egonkor bat eskaintzeko beharra
- 2030erako negutegi-efektuko gasen emisioak murrizteko helburuaren gainean EBk akordio bat lortzearen beharra, klima-aldaketaren gaineko nazioarteko akordio berrirako hurrengo negoziaketetako ekarpenaren baitan

Bestetik, indarrean jarraitzen du EBk 2008an martxan jarritako klima-aldaketaren eta energiaren gaineko politika integratuak. Politika horrek anbizio handiko helburuak ditu 2020rako, baita 2030erako eta 2050erako helburu berriak ere.

Honako hiru helburuak ditu 2020rako neurri multzoak:

- negutegi-efektuko gasen emisioak % 20 murriztea (1990ko mailarekin alderatuta)
- energiaren % 20 berriztagarria izatea EBn
- energia-efizientzia % 20 hobetzea

2030erako helburu nagusiak ere hiru dira:

- negutegi-efektuko gasen emisioak, gutxienez, % 40 murriztea (1990ko mailarekin alderatuta)
- energia berriztagarrien kuota, gutxienez, % 27koa izatea
- energia-efizientzia, gutxienez, % 27 hobetzea

2050ari dagokionez, ekonomia hipokarbonikorako bide-orriak honako hauek ezartzen ditu:

- 2050erako EBk % 80-% 95 murriztu beharko ditu emisioak (1990ko mailarekin alderatuta)

- hori lortzeko, aurrez, emisioak % 40 murriztea lortu beharko du 2030erako, eta % 60 murriztea 2040rako

Helburu horiek lortzeko beharrezkoa da sektore guztiek laguntzea. Adituen arabera, trantsizioa bideragarria da, eta ekonomikoki posible da.

2.1 EAEKO BALANTZE ENERGETIKOA

EAEko balantze energetikoari dagokionez, aipatu beharrezkoa da 2019ko datuak ez daudela eskuragarri. Hori dela eta, jarraian landuko dugun informazioa 2018ko datuei dagokie. Energiaren Euskal Erakundea (EEE) arduratzen da jarraian aurkeztuko dugun balantze energetikoa egiteaz. Eurostaten metodologia erabiltzen du EAEko balantze energetikoa kalkulatzeko. Balantze horretan, energia mota ezberdinen jarraipen xehea azaltzen da: jatorria (erauzketa edo inportazioa), eraldaketa eta kontsumoa. Hala, balantzea bi ataletan bereizten da. Lehenengo atalean (1-5 puntuak) lehen mailako iturrien energia-hornikuntza jasotzen da, erauzketak (1. Lehen mailako energiaren ekoizpena) eta inportazioak (2. Sarrera guztiak) kontuan izanda. Kopuru horien guztizkoa stocken mugimenduarekin (3), esportazioekin (4) eta itsas-garraioarekin (5) doitzen du, eta emaitza barne-kontsumorako eskuragarri dagoen energia da (6. $\text{puntua} = 1 + 2 + 3 - 4 - 5$). Balantzearen bigarren atalak energiaren eraldaketa-prozesuak eta kontsumorako erabilgarri dagoen energia hartzen ditu kontuan ($12 = 6 - 7 + 8 + 9 - 10 - 11$), konbertsio-prozesuen (7 eta 8), trukeen (9), energia-sektorearen kontsumoaren (10) eta galeren (11) ostean. Kontsumorako eskuragarri dagoen energiari (12) azken kontsumo ez-energetikoa (13) kendu ondoren, azken kontsumo energetikoa geratzen zaigu (14).

44. koadroa EAEko balantze energetikoa (2018)

Sektorea	Ikatza eta deribatuak	Petrolio eta deribatuak	Gas naturala	Energia deribatuak	Energia berriztagarriak	Energia elektrikoa	Guztira
1. Lehen mailako energiaren ekoizpena	0	0	0	26	619	0	645
2. Sarrera guztiak	24	9.835	2.500	0	6	919	13.284
3. Stocken mugimendua	0	-56	12	0	0	0	-43
4. Irteera guztiak	0	6.883	532	0	21	0	7.436
5. Bunkerrak (itsas-garraioa)	0	0	0	0	0	0	0
*6. Barne-kontsumo gordin erabilgarria	24	2.897	1.980	26	604	919	6.450
7. Eraldaketa sarrerak	0	9.819	705	10	132	0	10.666
7.1. Zentral termoelektrokoak	0	15	323	0	29	0	367
7.2. Kogenerazioa	0	24	287	10	103	0	424
7.3. Koke-fabrikak	0	0	0	0	0	0	0
7.4. Findegiak	0	9.780	95	0	0	0	9.875
8. Eraldaketa irteerak	0	9.670	0	1	0	393	10.063
8.1. Zentral termoelektrokoak	0	0	0	0	0	169	169
8.2. Kogenerazioa	0	0	0	0	0	224	224
8.3. Koke-fabrikak	0	0	0	0	0	0	0
8.4. Findegiak	0	9.670	0	0	0	0	9.670
9. Trukeak	0	0	0	0	-77	77	0
10. Sektore energetikoaren kontsumoa	0	304	215	0	0	93	611
11. Garraio eta banaketako galerak	0	0	0	0	0	45	45
**12. Azken kontsumorako erabilgarri dagoena	24	2.444	1.061	16	395	1.251	5.190
13. Azken kontsumo ez-energetikoa	0	139	0	0	0	0	139
***14. Azken kontsumo energetikoa	24	2.306	1.061	16	395	1.251	5.051

* 6=1+2+3-4-5

** 12=6-7+8+9-10-11

***14=12-13

Iturria: Energiaren Euskal Erakundea (EEE)

EEEk argitaratutako informazioaren arabera, 2018ko ekitaldian azken kontsumo energetikoa 5.051 mila tepekoa izan zen EAEn, aurreko ekitaldian baino % 4,4 baxuagoa. Barne-kontsumo gordina, berriz, 6.450 mila tepekoa izan zen. 2018ko balioekin alderatuta, apur bat baino ez zen igo, % 0,1.

45. koadroa EAEko azken kontsumoa energia moten arabera


Sektorea	2016	2017	2018	% Δ 18/17
Ikatza eta deribatuak	31	37	24	-35,1
Petrolio eta deribatuak	2.214	2.323	2.306	-0,7
Gas naturala	1.233	1.326	1.061	-20,0
Energia deribatuak	18	16	16	0,0
Energia berriztagarriak	293	342	395	15,5
Energia elektrikoa	1.220	1.240	1.251	0,9
Guztira	5.008	5.284	5.051	-4,4

Iturria: EEE. Geuk egina.

2018ko datuetan sakonduta, eta energia-iturrien araberako EAEko kontsumoari dagokionez, aldaketa oso desberdinak gertatu ziren. Ikatzak eta deribatuek balio negatiboekin amaitu zuten urtea (-% 35,1), baita gas naturalak ere (-% 20). Bi energia-iturri

horiek pisu espezifiko oso ezberdinak dituzte; ikatzak eta deribatuak % 0,5ekoa (2017an % 0,7koa) eta gas naturalak % 21ekoa (2017an % 25,1ekoa). Petrolioa eta deribatuak (% 45,7ko partaidetza), energia deribatuak (% 0,3) eta energia elektrikoa (% 24,8) aurreko ekitaldiko maila ia berean mantendu ziren; aldakuntza hautemanezinak izan zituzten: - % 0,7, % 0,0 eta % 0,9, hurrenez hurren. Testuinguru horretan, energia berriztagarriek baino ez zuten gora egin (% 15,5); % 7,8ko partaidetza dute.

5. grafikoa EAEko azken kontsumoa energia moten arabera (ktep)



Iturria: Energiaren Euskal Erakundea (EEE)

Energia-kontsumoaren sektorekako banaketari erreparatuz gero, 2018an bilakaera ezberdinak izan ziren. Lehen sektoreak du pisu espezifikorik txikiena (% 0,8), eta, bertan, energia-kontsumoa nabarmen jaitsi zen, ia erdira (-% 44,4). Industriaren energia-kontsumoak ere behera egin zuen, baina apalago. Industria-sektoreak % 14,3 murriztu zuen eskaria, eta partaidetza ehuneko 4 puntu jaitsi zen, % 38,9tik % 34,9ra. Garraioak, partaidetza handiena izanik (% 43,1), apur bat handitu zuen kontsumoa (% 2,2). Etxebizitzaren sektorearen kontsumoa, berriz, nabarmenago igo zen (% 8,4), eta % 12,5eko kuotara iritsi zen. Zerbitzuen sektoreak, % 8,7ko partaidetza izanik, aurreko ekitaldiko balio ia berak mantendu zituen (-% 0,2).

46. koadroa EAEko azken kontsumoa sektoreen arabera

Sektorea	2016	2017	2018	% Δ 18/17
Lehen sektorea	70	72	40	-44,4
Industria	1.960	2.058	1.763	-14,3
Garraioa	2.013	2.130	2.177	2,2
Zerbitzuak	432	442	441	-0,2
Etxebizitzetakoak	534	581	630	8,4
Guztira	5.008	5.284	5.051	-4,4

Iturria: EEE. Geuk egina.

Hala, eta aurreko txostenetan azaldu bezala, 2030erako Euskadiko Energia Estrategiak zehaztuko du datozen urteetarako euskal politika energetikoa (2016-2030). EEEK argitaratutako informazioaren arabera, estrategia horren epe luzerako helburua geroz eta jasangarriagoa izango den sistema energetikoa lortzea da: lehiakorragoa, hornidura bermatzen duena eta karbono maila baxukoa.

2020. urteko lehen zatirako 70 ekintza zehaztu dituzte proposatutako 9 xedeak betetzeko, eta, hala, 2050erako ezarritako helburuak lortze aldera aurrerapausoak emateko. Honakoak dira helburuak:

- Euskadiren negutegi-efektuko emisioak, gutxienez, % 40 murriztea 2030erako, eta % 80 2050erako, 2005eko mailarekin alderatuta.
- 2050erako, amaierako kontsumoaren % 40 energia berriztagarria izatea.
- Euskal Herriaren klima-aldaketarekiko erresilientzia bermatzea.

Klima-aldaketaren arintzea eta negutegi-efektuko gasen emisioen murrizketa hain zuzen ere aurreztearekin, energia-eraginkortasunarekin eta energia berriztagarriekin oso lotuta dagoenez, 2050erako Klima Aldaketaren Euskadiko Estrategiak hurrengo jarraibideak ezartzen ditu Estrategia Energetikoaren helburuak lortzeko:

- Energia-eraginkortasuna hobetzea eta eskari energetikoa kudeatzea.
- Energia berriztagarriak sustatzea.
- Hirietan energia-eraginkortasun eta energia berriztagarriekin lotutako irizpideak sustatzea, "emisiorik gabeko eraikuntzara" hurbiltzeko.
- Intermodalitatea eta negutegi-efektuko gas gutxien isurtzen dituzten garraiobideak sustatzea.
- Petrolioaren deribatuen kontsumoa ordezkatzea.
- Karbono baxuko eredu energetiko baten alde egitea.
- Emisiorik gabeko garraiorako aurrerapausoak ematea.
- Lehen sektorearen emisioak murriztea.
- Berrikuntza sustatzea, eta ezagutza zientifikoa hobetzea eta transferitzea.

2.2 ENERGIA ELEKTRIKOA

Kapituluekin jarraituz, eta energia elektrikoari dagokionez¹, 2019an (atal honetan eskuragarri ditugu datu eguneratuak, behin-behinekoak izan arren) Estatuan apur bat behera egin zuten energia elektrikoaren kontsumoak eta ekoizpenak. Hala, 2019an energia elektrikoaren eskaria 264.635 milioi kWh-koa izan zen (-% 1,6), eta Estatuko ekoizpena 260.798 milioi kWh-koa (-% 0,1).

Euskal Herrian, bestalde, erreferentziazko bi adierazleek aurkako bilakaera izan zuten. Energia elektrikoaren kontsumoa 7.189,7 milioi kWh-koa izan zen Euskal Herrian, aurreko ekitaldian baino % 9,3 baxuagoa. Ekoizpena, berriz, % 7,2 hazi zen, eta 1.229,5 milioi kWh-koa izan zen.

Estatuko energia elektrikoaren balantzean sakonduz, 2019an energia berriztagarrien ekoizpena 97.888 milioi kWh-koa izan zen (guztizkoaren % 37,5 eta % 2,4ko jaitsiera), eta energia ez-berriztagarriena 162.910 milioi kWh-koa (guztizkoaren % 62,5 eta % 1,4ko igoera).

Energia berriztagarrien kasuan, eolikoa da pisurik handiena duena (guztizkoaren % 20,8), eta 2019an % 9,4ko hazkundea izan zuen. Bestetik, energia hidraulikoaren bilakaera nabarmena izan zen, asko jaitsi baitzen haren ekoizpen maila (% 27,6); % 9,5eko pisu espezifiko du. Bestalde, eguzki-energia fotovoltaikoak eta eguzki-energia termikoak, presentzia txikiagoa izan arren (% 3,5 eta % 2), igoera nabarmenak izan zituzten (% 19 eta % 16,8, hurrenez hurren). Gainerako energia motak, hidroeolikoa, hondakin berriztagarriak eta beste energia berriztagarri batzuk (% 0,01eko, % 0,3ko eta % 1,4ko partaidetzekin, hurrenez hurren), aurreko urteko maila ia berean mantendu ziren.

Energia ez-berriztagarrien ekoizpenari dagokionez, ziklo konbinatuek (guztizkoaren % 21,2) izan zuten aldakuntzarik nabarmenena 2018arekin alderatuta. % 83,9 hazi zen ekoizpena, eta bigarren energia mota izatera pasatu zen (2018an bosgarrena). Ikatzak eta fuel-olioak eta gasak izan zituzten jaitsierarik nabarmenenak (-% 66 eta -% 14,8, hurrenez hurren), nahiz eta partaidetza oso txikiak izan (% 4,9 eta % 2,2). Energia nuklearrak, pisu espezifiko handiena izanik (% 21,4), ikatzarenetik eta energia eolikoarenetik oso gertu, gora egin zuen apur bat (% 4,9). Kogenerazioaren jarduerak ere, % 11,4ko partaidetzarekin, % 2,1 egin zuen gora. Azkenik, hondakin ez-berriztagarriek eta turbina-ponpaketak (guztizkoaren % 0,9 eta % 0,6) osatzen dute energia ez-berriztagarrien mapa. Behera egin zuten biek (-% 8,7 eta -% 17,6, hurrenez hurren).

¹ 2019ko urteko txostena. Red Eléctrica de España.

47. koadroa Energia elektrikoaren ekoizpena eta eskaria Euskal Herrian

(M kWh)

Urtea	Ekoizpena guztira					Guztira: (1+2+3+4+5) 6	Kontsumo guztia 7	Auto- sorkuntza- ren % (6/7) x 100
	Hidraulikoa 1	Termikoa 2	Eolikoa 3	Mini hidraulikoa 4	Kogenerazioa 5			
2013	477,5	745,6	336,6	13,1	435,9	2.008,7	8.409,8	23,89
2014	321,0	0	328,5	12,4	350,7	1.012,5	7.583,7	13,35
2015	351,3	0	326,2	10,5	438,0	1.126,2	7.707,5	14,61
2016	306,3	0	319,1	11,8	422,8	1.060,0	7.742,7	13,69
2017	225,5	141,1	311,9	9,0	402,7	1.090,3	7.578,5	14,39
2018	360,9	0	315,7	12,5	457,7	1.146,8	7.930,7	14,46
2019	340,1	106,3	312,8	10,5	459,8	1.229,5	7.189,7	17,10

Iturria: Iberdrola. Geuk egina.

Azterketa Euskal Herrira mugatuta, eta Iberdrolak emandako informazioaren arabera, 2019an ekoizpenak gora egin zuen (% 7,2), baina energia-iturri guztiek ez zuten bilakaera bera izan. Nabarmentzekoa da energia termikoaren ekoizpenak presentzia eskuratu zuela berriz, % 8,6ko partaidetzarekin. Hala, ekoizpenaren gorakadaren eragile nagusia izan zen. Pisu espezifikoko handiena kogenerazioak du (% 37,4), eta haren ekoizpenak igoera apala izan zuen (% 0,5). Gainerako energia moten balioek, berriz, behera egin zuten. Hortaz, murriztu egin zen energia minihidraulikoaren (-% 16), hidraulikoaren (-% 5,8) eta eolikoaren (-% 0,9) ekoizpena. Hiru horiek, dena den, partaidetza oso ezberdinak dituzte (% 0,9, % 27,7 eta % 25,4, hurrenez hurren). Kontsumoa % 9,3 murriztu zen 2019an. Ondorioz, auto-sorkuntzaren tasa % 17,10era igo zen (2018an % 14,46koa zen).

48. koadroa Energia elektrikoaren kontsumo garbia lurraldearen arabera

(M kWh)

Lurraldea	2016	2017	2018	2019	% Δ 19/18
Araba	1.090,0	1.090,9	1.295,2	1.166,3	-10,0
Bizkaia	2.917,3	2.692,9	2.753,2	2.410,1	-12,5
Gipuzkoa	1.949,7	1.851,6	1.912,2	1.710,8	-10,5
EAE	5.957,0	5.635,3	5.960,5	5.287,3	-11,3
Nafarroa	1.785,7	1.943,2	1.970,2	1.902,4	-3,4
Euskal Herria ⁽¹⁾	7.742,8	7.578,5	7.930,7	7.189,7	-9,3

(*): Behin-behineko datuak.

(1): Fakturatutako energia elektrikoa. Ez da kontuan hartzen Iberdrola ez den beste hornitzaileerik, ezta Iberdrolaren kontsumoa ere.

Iturria: Iberdrola.

Energia elektrikoaren kontsumoa lurraldeen arabera aztertuz gero, kontuan hartutako lurralde guztietan kontsumoak behera egin zuela ikus daiteke. EAEko hiru lurralde historikoetan antzeko jaitsierak izan zituzten. Bizkaian kontsumo garbiak % 12,5 egin zuen behera; Araban eta Gipuzkoan, berriz, % 10 inguru. Nafarroan ere behera egin zuen kontsumoak, baina neurri apalagoan, % 3,4. Hala, kontsumorik altuena Bizkaia (% 33,5) izan zuen, ondoren Nafarroak (% 26,5) eta Gipuzkoak (% 23,8), eta, azkenik, Arabak (%16,2).

Kapitulua amaitzeko, Iberdrola taldearen 2019ko bilakaeraren gertaerarik aipagarrienen balantzea egingo dugu jarraian –enpresak argitaratutako informazioan oinarrituta–.

2019ko ekitaldian Iberdrolak 3.406,3 milioi euroko irabazi garbiak izan zituen, zifra historikoak, eta aurreko ekitaldian baino % 13 altuagoak. Gainera, inbertsioek ere inoizko zifrarik altuena lortu zuten: 8.158 milioi euro, aurreko ekitaldian baino % 32 gehiago. Ustiapenaren irabazi gordina (Ebitda) ere erakundearen historiako mugarri bat izan zen, lehen aldiz 10.000 milioi eurotik gorakoa izan baitzen (10.104 milioi euro), aurreko ekitaldian baino % 8,1 altuagoa.

Inbertsioen guztizkoaren % 44 sareetara bideratu zuten, eta % 41, berriz, energia berriztagarrietara. Alor hauetako inbertsioek % 19 eta % 85 egin zuten gora, eta 3.589,5 eta 3.344,7 milioi eurokoak izan ziren, hurrenez hurren. Ondorioz, 2019an erakundeak 5.500 megawatt (MW) berri instalatu zituen bere merkatu guztietan; aurreko urteetan, berriz, batez beste 1.000 MW. Egungo gaitasunari 9.000 MW gehituko dizkio Iberdrolak 2021ean eta 2022an Espainian, Portugalen, Erresuma Batuan, Estatu Batuetan, Mexikon, Brasilen eta beste merkatu berri batzuetan, hala nola Australian; dagoeneko ari da sare horiek eraikitzen. Gainera, mundu osoan 40.000 MW baino gehiago gehituko dituen garapen-proiektuen zerrenda bat ere badu konpainiak.

Covid-19aren krisiak salbuespen-egoera eragin du, eta koronabirusaren krisi bete-betean Europako fabrika fotovoltaiko handiena martxan jarri du Iberdrolak, Nuñez de Balboa, 500 MW-eko potentziarekin. Hala ere, 2020an 10.000 milioi euroko inbertsioa egiteko konpromisoari eutsiko diotela baieztatu du Ignacio Galanek, Iberdrolako presidentek, suspertzea azkarra eta jasangarria izan dadin jarraitu beharrekoa bidea ekonomia berdea dela frogatze aldera.

3. SIDERURGIA

3.1 IKUSPEGI OROKORRA

Siderurgia-sektoreak 2019an izandako bilakaeraren azterketa, beste sektoreen kasuan bezalaxe, txostena egiteko momentuak baldintzatu du. Izan ere, covid-19ak eragindako alarma-egoeran egin dugu txosten hau, eta osasun-krisiak eragin ekonomikoak zein sozialak izan ditu aztertutako lurraldeetan, Estatuan eta munduan. Dena den, siderurgia-industria ezinbestekoa da gizarte jasangarri bat izateko, eta funtsezkoa izango da ekonomia suspertzeko.

2019an handia izan zen ziurgabetasun ekonomikoa, hainbat faktoreen ondorioz: merkataritza-gerrak (Estatu Batuak eta Txina), Munduko Merkataritza Antolakundearen krisia, Brexitaren krisia eta horri lotutako ondorio posibleak, baita ingurumenaren gaineko arau berrien eraginez ere.

Testuinguru horretan, World Steel Association erakundeak argitaratutako azken datuen arabera, 2019an 1.868,8 milioi tonakoa izan zen altzairuaren ekoizpena, aurreko urtean baino % 3 altuagoa. Kontsumoa, berriz, 1.767,5 milioi tonakoa izan zen, aurreko urtekoa baino % 3,5 altuagoa.

Altzairuaren ekoizpenaren bilakaera herrialdeka aztertuz gero, altzairua ekoizten duten herrialde gehienek jaitsiera nabarmenak izan zituzten, baina ekoizle nagusiaren gorakadak orekatu egin zituen jaitsiera horiek. Hala, Txinak –mundu mailako altzairu-ekoizle nagusia– goranzko joerarekin jarraitu zuen eta 1.000 milioi tona inguru ekoizti zituen 2019an (+% 8,3). Indiak (+% 1,7) eta AEBk eta Kanadak (+% 0,7) ere gora egin zuten 2019an. Bestalde, Frantziak (14 milioi tona), Alemaniak (40 milioi tona), Italiak (23 milioi tona), Espainiak (14 milioi tona) eta Japoniak (99 milioi tona) % 5-% 7 inguruko jaitsierekin itxi zuten urtea. Azkenik, EB-28 multzoaren (154 milioi tona) altzairuaren ekoizpenak % 5,2 egin zuen behera.


49. koadroa Altzairu gordinaren ekoizpena

Herrialdea	M Tm	2018		2019		
		% Δ	%	M Tm	% Δ	%
AEB eta Kanada	100,0	5,0	5,5	100,7	0,7	5,4
Japonia	104,3	-0,4	5,8	99,3	-4,8	5,3
Txina	920,0	5,6	50,7	996,3	8,3	53,3
India	109,3	7,7	6,0	111,2	1,7	6,0
Alemania	42,4	-2,1	2,3	39,7	-6,4	2,1
Italia	24,5	1,7	1,4	23,2	-5,3	1,2
Frantzia	15,4	-0,6	0,8	14,4	-6,5	0,8
Erresuma Batua	7,3	-2,7	0,4	7,2	-1,4	0,4
Espainia	14,3	-0,7	0,8	13,6	-4,9	0,7
EB-28	162,4	0,1	9,0	154,0	-5,2	8,2
Mundu osoa	1.813,6	4,8	100,0	1.868,8	3,0	100,0

Iturria: World Steel Association (lehen IISI).

Altzairuaren ekoizpen gordinaren mundu mailako banaketa aurreko ekitaldietako antzekoa izan zen. Hala, ekonomia garatua duten herrialdeen multzoek ekoitzi zuten altzairu gehien. Mundu mailako altzairuaren % 14 Europak ekoitzi zuen 2019an, % 9 Amerikak eta zatirik handiena, % 72 inguru, Asiak.

6. grafikoa Altzairuaren mundu mailako ekoizpena



Iturria: World Steel Association.

Siderurgia-produktuen mundu mailako kontsumoak gora egin zuen 2019an, ekoizpenak baino are gehiago (+% 3,5). Datuak herrialdeka aztertuta, siderurgia-produktuen kontsumoaren bilakaera ezberdina izan zen herrialdearen arabera, altzairuaren ekoizpenarekin gertatu zen bezala. Hala, siderurgia-produktuen kontsumoak gora egin zuen Txinan (+% 8,5) eta Indian (+% 5), baina gainerako herrialdeetan behera egin zuen.

Zehazki, 2018ko zifrekin alderatuta, altzairuaren kontsumoa Alemanian (-% 11,9), Erresuma Batuan (-% 5,6), Espainian (-% 4,3), AEBn eta Kanadan (-% 3,7), Japonian (-% 3,4) eta EB-28 multzoan (-% 5,5) jaitsi zen gehien.

50. koadroa Siderurgia-produktuen kontsumoa

	2018			2019		
	M Tm	% Δ	%	M Tm	% Δ	%
AEB eta Kanada	115,0	3,0	6,7	110,8	-3,7	6,3
Japonia	65,4	1,6	3,8	63,2	-3,4	3,6
Txina	836,1	8,1	48,9	907,5	8,5	51,3
India	96,7	9,0	5,7	101,5	5,0	5,7
Alemania	39,6	-3,4	2,3	34,9	-11,9	2,0
Italia	25,8	2,8	1,5	25,5	-1,2	1,4
Frantzia	14,1	0,0	0,8	13,8	-2,1	0,8
Erresuma Batua	10,8	-1,8	0,6	10,2	-5,6	0,6
Espainia	13,8	3,8	0,8	13,2	-4,3	0,7
EB-28	168,0	2,4	9,8	158,7	-5,5	9,0
Mundu osoa	1.708,4	4,6	100,0	1.767,5	3,5	100,0

Iturria: World Steel Association.

3.2 ESPAINIAKO SIDERURGIA

Covid-19ak ezustean eragindako osasun-krisiak eta horren ondorioz etorri den mundu mailako krisi ekonomikoak lausotu egin dituzte 2019ko emaitzak. Dena den, krisi honek siderurgia-sektorean 2020an eta datozen urteetan izango dituen eraginak kontuan izan gabe ere, 2019ko datuak ez dira pozgarriak. Zehazki, Espainiako siderurgia-sektoreko magnitude nagusiek behera egin zuten aurreko urtearekin alderatuta: altzairuaren ekoizpena (-% 5,1), esportazioak (-% 1,6), inportazioak (-% 4,4) eta, bereziki, ageriko kontsumoa (-% 8,5).

51. koadroa Espainiako siderurgia-sektoreko magnitude nagusiak*

Urtea	(mila Tm)			
	Produkzioa	Esportazioak	Inportazioa	Ageriko kontsumoa
2012	13.649	9.935	7.833	11.060
2013	14.294	9.978	7.634	11.183
2014	14.280	9.969	8.307	11.840
2015	14.888	9.628	8.989	13.043
2016	13.658	9.415	9.447	12.933
2017	14.441	9.710	9.972	12.892
2018	14.320	9.649	10.830	14.457
2019	13.588	9.494	10.286	13.236


(*): Ekoizpena eta ageriko kontsumoa altzairu gordinari dagozkio, eta kanpo-merkataritzea, berriz, siderurgia-produktu guztiei.

Iturria: Unesid.

Balio absolutuei dagokienez, 2019an 13.588 mila tona altzairu ekoitzi zituzten Espainian, 2018an baino apur bat gutxiago (732 mila tona), eta 2007ko zifretatik oso urrun (5.411 mila tona gutxiago), urte hartan erregistratu baitzuten altzairuaren inoizko ekoizpen mailarik

altuena. Era berean, inportazioak (10.286 mila tona; 2018an baino 544 mila tona gutxiago) ere oso urrun daude 2007ko zifratik (15.038 mila tona; 4.752 mila tona gutxiago). Bestetik, 9.494 mila tona esportatu zituzten (2018an baino 155 mila tona gutxiago). Kasu honetan, ordea, zifrak krisiaren aurrekoak baino nabarmen altuagoak izan ziren (+1.690 mila tona). Azkenik, ageriko kontsumoa 13.236 mila tonakoa izan zen, krisiaren aurreko urteetan baino 10.000 mila tona baxuagoa; urte haietan erregistratu zituzten ageriko kontsumoaren mailarik altuenak.

7. grafikoa Espainiako siderurgia-sektoreko magnitude nagusiak



Iturria: Unesid.

Inportatutako lehengai nagusien bilakaerari dagozkion datuei erreparatuta, aztertutako hiru lehengai moten kontsumoak behera egin zuela ikus daiteke. Horrek agerian uzten ditu 2019an siderurgia-sektoreak izan zituen zailtasunak. Zehazki, koke bihur daitekeen harriatzak izan zuen jaitsierarik handiena (-% 51,9), ondoren burdin-meak eta pelletak (-% 15,2), eta, azkenik, askoz jaitsiera apalagoa izan zuen txatarrak (-% 0,4). Prezioen bilakaera, berriz, ezberdina izan zen. Koke bihur daitekeen harriatzaren eta txatarraren prezioek behera egin zuten (-% 1,8 eta -% 11,8, hurrenez hurren); burdinazko materialaren eta pelletaren prezioa, berriz, nabarmen igo zen (+% 23,0).

52. koadroa Inportatutako lehengaiak

Urtea	Koke bihur daitekeen harrikatza		Burdin-mea eta pelleta		Txatarra	
	Kontsumoa (m Tm)	Prezioa (euro/Tm)	Kontsumoa (m Tm)	Prezioa (euro/Tm)	Kontsumoa (m Tm)	Prezioa (euro/Tm)
2010	2.777	165,7	5.874	95,0	5.781	312,8
2011	2.505	218,3	5.144	127,4	4.930	384,0
2012	2.260	174,0	4.506	99,9	4.346	372,9
2013	2.528	128,9	6.259	102,9	4.925	318,1
2014	1.632	105,2	5.699	73,7	4.960	331,7
2015	1.720	102,0	6.288	50,7	5.144	292,2
2016	1.768	107,5	6.010	52,0	4.004	263,5
2017	1.767	207,3	6.572	76,3	4.242	321,0
2018	1.621	191,7	6.556	74,5	4.040	345,1
2019	780	188,2	5.557	91,6	4.024	304,4
Hazkundera % 18-19	-51,9	-1,8	-15,2	23,0	-0,4	-11,8

Iturria: Unesid.

2019an siderurgia-sektoreari lotutako enpleguak beheranzko joera mantendu zuen. UNESIDeko enpresek 22.034 zuzeneko langile izan zituzten, aurreko urtean baino % 1,1 gutxiago, hau da, 2018an baino 250 langile gutxiago. Petrolioaren krisiaren ondorioak eta elektrizitate- zein ingurumen-kostuen gorakadek eragin zuten, batez ere, enplegua murriztea. Izan ere, faktore horiek zuzenean eragiten diete siderurgiarekin lotutako sektoreei, eta, ondorioz, siderurgia-sektoreari berari eta haren enplegua sortzeko gaitasunari.

Siderurgia-sektoreak datozen urteetarako dituen erronken artean, sektorearen deskarbonizazio-konpromiso sendoa dago, 2050erako neutraltasun klimatikoa lortu ahal izateko, «*Gobernuak eta gainerako botere publikoek energia berriztagarria gure industriaren lehiakortasuna murriztuko ez duen prezio batean izatea berma dezaten zain*».

Horretarako, UNISEDen ustez ezinbestekoak dira PLATEA plataforma teknologikoak eskaintzen dituen aukerak, trantsizio teknologikoa errazte aldera. Trantsizio teknologikorako, beharrezkoa izango da teknologia asko garatzea eta inbertsio esanguratsuak egitea.

Era berean, UNISEDek pausoak eman nahi ditu industria jasangarria izan dadin eta ekonomia zirkularrarekin konprometituta egon dadin. Horretarako, prozesuak digitalizatzeko lanean jarraituko duela baieztatu du, berrikuntza teknologikoa errazte aldera.

Azkenik, sektorearen segurtasuna hobetzeko lanean jarraitu nahi du UNISEDek, eta, horretarako, sindikatuetako ordezkariekin «*eraginkorra, bermeduna eta burokrazia antzuetatik urrun egongo den prebentziorako prestakuntza-eskema bat*» adosteko helburua ezarri du 2020rako.

3.3 EUSKAL SIDERURGIA

Munduko ziurgabetasun ekonomikoak eta geopolitikoak eta nazioarteko ingurumen-arauen aldaketek eragina izan dute munduko eta Estatuako siderurgia-merkatuan, baita Euskal Herrikoan ere. Hala, euskal merkatua eta enpresak ere, batez ere nazioarteko taldeen baitakoak, testinguru kaltegarri horretan kokatzen dira.

Hori dela eta, euskal siderurgia-sektoreak oso argi du 2020a erabakigarria izango dela, covid-19ak jarduera ekonomikoan izan duen eraginaren ondorioz. Tokiko administrazioek, Estatuak eta EBk martxan jarriko dituzten neurri ekonomikoen, neurri finantzarioen eta laguntzen eraginkortasuna erabakigarria izango da ekonomian eta enpleguan izandako kalteak arintzeko.

8. grafikoa Euskal Herriko siderurgia-establezimendu nagusien kokapena



Iturria: Geuk egina.

Siderurgiaren kanpo-merkataritzan arreta jarrita, 2019an 2.188 mila tona esportatu zituzten, aurreko urtean baino % 2,2 gutxiago. Hortaz, Estatuan (-% 1,6) baino bilakaera okerragoa izan zuten esportazioek. Diruari dagokionez, beherakada nabarmenagoa izan zen, 2018an baino % 9,1 gutxiagorekin itxi baitzuten urtea.

Bestalde, inportazioen bolumena % 1,8 igo zen 2019an; 3.493 mila tona inportatu zituzten. Dirutan, ordea, behera egin zuten inportazioek (-% 3,9): 1.934 mila euro.

53. koadroa EAEko siderurgia-industriaren kanpo-merkataritza

Urtea	Inportazioak		Esportazioak	
	m Tm	M euro	m Tm	M euro
2010	5.394,5	2.057,1	2.990,0	1.964,9
2011	4.154,7	2.292,8	2.813,2	2.219,8
2012	3.371,8	1.829,7	2.348,5	1.843,6
2013	4.085,3	1.856,8	2.340,8	1.690,9
2014	4.330,5	1.951,4	2.791,9	1.852,9
2015	4.595,9	1.879,8	2.810,3	1.745,3
2016	3.375,0	1.467,3	2.436,7	1.406,0
2017	3.540,5	1.831,4	2.114,2	1.497,4
2018	3.430,9	2.012,2	2.237,3	1.829,6
2019	3.493,3	1.933,6	2.187,7	1.663,0

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Ogasun eta Ekonomia Saila eta Eustat.

Siderurgia-jarduerak duen garrantzi ekonomikoa Euskal Estatistika Erakundeak (Eustat) Industria Kontuetan emandako informazioarekin osatu dugu. Aurreko txostenetan bezala, garrantzitsua da kontuan izatea estatistika-sailkapena ezin dela zuzenean alderatu kapitulu honetan jasotakoarekin; izan ere, hau Eustatek merkataritza eta/edo produktuen sailkapen baten aurrean egiten duen A-86 sailkapena da, eta siderurgia integralari, ez-integralari, altzairu bereziei eta soldadurarik gabeko hodieiei dagokie.

Hala, 2018ko ekitaldiko emaitzak aurreko ekitaldietako emaitzak baino hobeak izan zirela erakusten dute eskura ditugun azken datuek. Hori horrela, siderurgia-jarduerak, galdaketak eta forjaketak eta estanzazioak sortutako BEGa (Balio Erantsi Gordina) 1.739 milioi eurokoa izan zen, aurreko aldirian baino % 6 handiagoa (1.640 milioi euro), eta metalezko eraikuntzaren, ingeniariaren metalikoaren eta metalezko artikuluen jarduerak 2.548 milioi euroko ekarpena egin zuten, 2017an baino % 2,6 handiagoa (2.482 milioi euro). Modu horretan, euskal industriak sortutako BEGaren % 28,4 jarduera siderometalurgikoen multzoaren ekarpena izan zen, eta 69.535 pertsonari eman zien enplegua.

54. koadroa Siderurgia-jarduerak EAEko industriari egindako ekarpena

Kontzeptua	BEG (M euro)			Enplegua (pertsona kopurua)		
	2016	2017	2018	2016	2017	2018
Siderurgia eta burdinarekin egiten ez den metalurgia	668	752	860	9.648	9.803	9.799
Galdaketa	419	418	408	6.775	7.003	6.963
Metalezko eraikuntzak	417	429	451	9.823	9.949	9.951
Forjaketa eta estanpazioa	455	471	471	6.790	7.187	7.185
Ingeniaritza mekanikoa	1.059	1.122	1.163	19.089	19.792	20.229
Metalezko artikulua	920	932	934	15.054	15.203	15.408
Multzo siderometalurgikoa, guztira	3.939	4.123	4.286	67.179	68.937	69.535
Industria	14.155	14.443	15.084	198.141	203.497	206.349
Partaidetza (%)						
– Siderurgia/Industria	4,7	5,2	5,7	4,9	4,8	4,7
– Siderometalurgia/Industria	27,8	28,5	28,4	33,9	33,9	33,7

Iturria: Industria Kontuak (Eustat).

Altzairu arrunta eta altzairu bereziak

2019an 13.236 mila tonakoa izan zen altzairuaren ageriko kontsumoa, aurreko urtean baino % 8,5 baxuagoa. Ia produktu mota guztiek izan zuten beheranzko bilakaera, eta horrek eragin zuen ageriko kontsumoaren jaitsiera. Produktu luze amaituak izan ziren salbuespena, 2018arekin alderatuta igoera izan zuen produktu mota bakarra izan baitzen (+% 3,3). Zehazki, produktu lau hotzen eta estalien kontsumoak % 2,5 egin zuen behera, produktu lau beroen kontsumoa % 13,4 jaitsi zen eta lingoteena eta amaitugabeena % 29,9 murriztu zen.

55. koadroa Altzairuaren ageriko kontsumoa, produktuen arabera

Produktuak	Ageriko kontsumoa (m Tm)			
	2017	2018	2019	% Δ 19/18
Amaitutako produktu motaren arabera*				
– Lingoteak eta amaitugabeak	381	419	293	-29,9
– Produktu luze amaituak	4.491	4.590	4.739	3,3
– Produktu lau beroak	3.258	3.693	3.196	-13,4
– Produktu lau hotzak eta estaliak	5.210	5.134	5.007	-2,5

(*): Altzairu arruntak eta bereziak barne.

Iturria: Unesid.

Bestetik, beroan ijeztutako produktuen ekoizpenari dagokionez, bilakaera ezberdina izan zen produktuen arabera. Hormigoirako biribilen (+% 7,5) eta trenbideetako materialaren (+% 8,5) ekoizpena igo egin zen aurreko urtearekin alderatuta. Egiturazko profilen (-% 2,3), alanbre-burdira biribilduaren (-% 0,7) eta beste merkataritza-profil batzuen (-% 3,4) ekoizpenak, berriz, behera egin zuen.

56. koadroa Beroan ijeztutako produktuen ekoizpena*

(m Tm)

Produktuak	Produkzioa			
	2017	2018	2019	% Δ 19/18
Beroan ijeztutako produktu luzeak	8.789	8.904	8.906	0,0
– Trenbideetako materiala	228	252	273	8,5
– Egiturazko profilak	2.753	2.725	2.662	-2,3
– Alanbre-burdin biribildua	2.835	2.951	2.929	-0,7
– Hormigoirako biribilak	1.425	1.405	1.510	7,5
– Beste merkataritza-profil batzuk	1.548	1.585	1.532	-3,4
Beroan ijeztutako produktu lauak	4.800	4.873	4.391	-9,9

(*): Bi altzairu-kalitateak barne: altzairu arrunta eta altzairu berezia.
Iturria: Unesid.

CIE Automotive

Euskal Herriko siderurgia-sektoreko enpresarik esanguratsuenetako bat CIE Automotive da. Produktu lauak dira bere jardueraren ardatz nagusia. 2002an sortu zen CIE Automotive, Afora (Acerías y Forjas de Azkoitia) eta Egaña enpresek bat egin zutenean, eta bere jardueraren xede nagusia automobilgintzako osagaien eta azpimultzoen fabrikazioan erreferentziatzeko talde bilakatzea da. Konpainiak adierazten duenaren arabera, egungo testuinguru globalizatuan eskaintza multiteknologikoa egitea du helburu, eta honako herrialdeetan presentzia eraginkorra du: Amerika (Brasil, Mexiko eta AEB), Europa (Espainia, Frantzia, Portugal, Alemania, Italia, Txekiar Errepublika, Errumania, Lituania, Errusia, Eslovakia), Asia (India eta Txina) eta Afrika (Maroko). Fabrika horietan banatuta, 28.124 langile ditu.

CIE Automotivek 287,5 milioi euroko mozkin garbiarekin itxi zuen 2019a, aurreko urtean baino % 18 gehiagorekin. Gainera, salmentek gora egin zuten berriz (+% 14), eta 3.461,1 milioi euro jaso zituzten salmentetatik. Ondorioz, 594,4 milioi euroko EBITDArekin itxi zituen urteko kontuak (% 12ko hazkundea).

Enpresaren arabera, urteko erronka nagusien artean honako hau dute: « *Beti emaitzari eta irabazi operatiboan sorrerari lehentasuna emango dien hazkunde organikorako estrategia baten aldeko apustua egitea. Bolumen baxuagoko aldi hau aprobetxatu dugu gure eraginkortasun operatiboa hobetzeko. Horretarako, 136,8 milioi euro inbertitu ditugu gure fabriken mantentze-lanetan eta modernizatzeko-prozesuan* ».

Era berean, 2019ko ekitaldian zehar CIE Automotive enpresak bi aitorten jaso zituen. Batetik, "Best Investor Relations Program 2019 – All Europe/ Consumer Autos & Auto Parts" aitortza, "Institutional Investor" argitalpenagatik, Small and Mid Cap kategorian eta kategorian orokorrean. Bestetik, "Best Investor Relations Program 2019 – All Europe/Executive Team Small & Midcap/Consumer Autos & Auto Parts" kategoriako ranking berean munduko hirugarren postua eskuratu zuen.

Ingurumenaren alorrari dagokionez, Pariseko Akordioak ezarritako deskarbonizazio-helburuak lortzeko konpromisoa du CiE Automotivek. Ildo horretatik, ingurumen-aztarna kalkulatzeko prototipo bat egin zuen 2019an IHOBerekin elkarlanean, RECIPE tresnan oinarrituta, ekoizpen-fabrika bakoitzak ingurumenean duen inpaktua ebaluatu ahal izateko.

Azkenik, enpresaren gizarte-ekimenari dagokionez, lan egiten duen komunitateetako zailtasunei eta beharrei soluzioak ematen dizkie, hiru ekintza motaren bidez: donazioak, babesletza eta komunitateetan inbertsioak. Testuinguru honetan, nabarmentzekoa da Save the Children Méxicoren “Caminando hacia el futuro” egitasmoa. 2019ko apirilean hasi zuten proiektu hori, eta gazteak trebatzea da helburua, kalitatezko enplegua lortzeko dituzten aukerak handitzeko eta pobrezia belaunaldiarteko zikloak apurtzeko.

Soldadurarik gabeko hodiak

Unesidek 2019ko ekitaldiaren gainean emandako datuen arabera, behera egin zuten soldadurarik gabeko hodian esportazioak eta inportazioak. Zehazki, aurreko urtearekin alderatuta, esportazioak % 18,6 jaitsi ziren, eta inportazioak, % 6,5.

57. koadroa Soldadurarik gabeko hodian kanpo-merkataritza

Urtea	Esportazioak	Inportazioa
2010	215	137
2011	283	159
2012	260	149
2013	223	106
2014	275	120
2015	226	113
2016	196	117
2017	271	130
2018	280	170
2019	228	159

(m Tm)

Iturria: Unesid.

Hainbat urtez Estatu Batuak izan dira soldadurarik gabeko hodian esportazioan nagusi, baina 2019an jaitsiera handia izan zuten, eta bigarren postura pasatu ziren (% 33). Hala, Europar Batasunak berreskuratu zuen lidergoa (% 35,4). Europako herrialdeetara egindako esportazioen bilakaerari dagokionez, behera egin zuten Italiako eta Alemaniako merkatuetara egindako esportazioek (-% 7 eta -% 5,7, hurrenez hurren), eta gora egin zuten Frantziara (+% 7,8), Erresuma Batura (+% 11), Herbehereetara (+% 66,9) eta Portugalera (+% 19,8) egindakoak.

Bestalde, Asiako herrialdeen bilakaerari dagokionez, nabarmenak izan ziren Indiara (+% 171) eta Singapurrera (+% 339,2) egindako esportazioen gorakadak. Neurri txikiagoan

bada ere, igo egin ziren Txinara (+% 13,4), Saudi Arabiara (+% 11,5) eta Qatarra (+% 21,4) egindako salmentak ere.

58. koadroa Soldadurarik gabeko hodian esportazioak, helmugako herrialdeen arabera

<i>(m Tm)</i>					
Eremua	2017	2018	2019	%	% Δ 19/ 18
Estatu Batuak	106,8	118,2	66,1	33,0	-44,1
Alemania	21,3	18,1	17,1	8,5	-5,7
Italia	17,7	17,0	15,8	7,9	-7,0
Frantzia	18,8	13,8	14,9	7,4	7,8
Txina	8,1	7,2	8,1	4,1	13,4
India	2,8	2,9	7,8	3,9	171,0
Arabiar Emirerri Batuak	2,0	4,1	6,9	3,4	66,6
Hego Korea	5,5	3,5	6,8	3,4	93,7
Erresuma Batua	5,1	6,0	6,6	3,3	11,0
Herbehereak	2,5	3,9	6,6	3,3	66,9
Saudi Arabia	8,0	4,1	4,6	2,3	11,5
Qatar	0,3	3,7	4,5	2,2	21,4
Portugal	2,4	2,9	3,5	1,8	19,8
Singapur	1,4	0,7	3,0	1,5	339,2
Australia	2,4	2,7	2,5	1,3	-5,8
Bahrain	0,3	0,3	2,3	1,2	788,8
EB-28 guztira	75,5	73,4	70,8	35,4	-3,5
Mundua guztira	240,7	250,9	200,2	100,0	-20,2

Iturria: Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren kanpo-merkataritzako estatistikak.


Tubacex

Altzairu herdoilgaitzarentzako soluzio integralen merkatuan bere posizionamendua hobetzeko helburuz, 2019ko ekitaldian zehar hazkunde organikoaren eta inorganikoaren aldeko apustua mantendu zuen Tubacexek. Eskariaren gorakadak indartu egin zuen enpresaren apustua, baita merkatu gakoetan bere presentzia hobetu izanak ere, hala nola Joint Venturen, SENAATEkin –Abu Dabiko Emirerriaren jabetzako industriako inbertsio-taldea–.

Tubacex taldearen emaitzen arabera, 2019an 613,5 milioi euroko salmentak izan zituzten, hau da, 2018an baino % 1,4 gutxiago (622,1 milioi euro). Era berean, mozkin garbia 11,1 milioi eurokoa izan zen (aurreko ekitaldian baino 6,3 milioi euro baxuagoa). Jarduera aurrera eraman ahal izateko, taldeak 2.553 pertsonari eman zien enplegua mundu osoan, aurreko ekitaldian baino % 7,1 gehiagori (170 pertsona gehiago).

TUBACEX taldearen kanpo-salmenten banaketa geografikoari dagokionez, 2018an salmenten banaketa ezohikoa izan zen Ekialde Ertainak egindako ohiz kanpoko eskaera baten ondorioz, baina 2019an salmentek ohiko dinamika berreskuratu zuten. Hala, taldearen salmenten lehen postua berreskuratu zuen Europak, hara egin baitziren salmenten % 59,8. Guztizkoaren % 25,1 AEBra eta Kanadara saldu zuten, eta, azkenik, % 15,1 Asiarra.

9. grafikoa 2019ko zenbatekoen banaketa, merkatuen arabera 2019



Iturria: Tubacex taldea.

Tubos Reunidos

2019 ekitaldia zaila izan zen Tubos Reunidos Taldearentzat, baina, aldi berean, aldaketa ugari izan zen, urrian honako hau sinatu baitzuten: *«birfinantzaketarako egitura berria, gure finantza-pasiboaren hartzekodun guztiekin; hori funtsezkoa da etorkizunerako, zorra arrazionalizatzea eta finantzaketa-konpromisoetan malgutasun handiagoa izatea ahalbidetzen baitu, merkatuaren errealitatera egokitu ahal izateko».*

Gainera, Balioa Sortzeko Transforma|360° Plana eraldatzeko lanean jarraitzen du taldeak, sektoreko praktikarik onenak martxan jartzeko; dagoeneko % 58 bete dute. Hala eta guztiz ere, lehiakortasuna hobetzeko eta desberdintze teknologikoa lortzeko apustuari eusten dio Tubos Reunidos-ek, eta erakundearen bideragarritasuna ziurtatzeko beharrezko aldaketarako funtsezko faktoreak giza kapitala eta balio erantsia direla sinesten du.

Urteko zifra gakoei dagokienez, 284,4 milioi euroko negozio-zifrarekin itxi zuen ekitaldia Tubos Reunidos taldeak (-% 17, 2018arekin alderatuta), eta ustiapenaren emaitza -24 milioi eurokoa izan zen (2018an -31 milioi eurokoa).

Tubos Reunidos-ek, bere jarduera aurrera eramateko, 5 ekoizpen-fabrika eta 1.431 langile zituen 2019an, aurreko ekitaldian baino % 6 gehiago (80 langile gehiago). Horrek 2018an galdutako enpleguaren zati bat berreskuratzea ahalbidetu zuen. Izan ere, aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak jarri zituen martxan 2018an, eskariaren jaitsiera puntual batera egokitzeko.

Tubos Reunidos Taldearen presentzia geografikoari dagokionez, 80 herrialdetan baino gehiagotan ditu merkataritza-delegazioak (bereak, eta merkataritza-ordezkaritza dutenak). Hala, guztizkoaren % 89 nazioarteko merkatuetara saldu zuen 2019an (2018an %91). Datuak eremu geografikoka emanda, salmenten % 39 Europar Batasunera egin zituzten (2018an % 31), Ipar Amerikara egindako salmentak % 35era murriztu ziren (2018an % 49), eta gainerako salmentak Ekialde Urrunera (% 19), Ekialde Ertainera (% 6) eta beste merkatu batzuetara (% 1) egin zituzten.

59. koadroa Negozio arloak eta enpresa-unitateak. Tubos Reunidos taldea. 2019

Negozio arloak	Unitateak/establezimenduak
Soldadurarik gabeko altzairuzko hodiak	Tubos Reunidos Industrial (Amurrio, Araba) Productos Tubulares (Trapagaran, Bizkaia) Acecsa (Iruñea, Nafarroa)
Hariztaketa	Tubos Reunidos Premium Threads (Iruña Oka, Araba)
Akabera eta harizketa	RDT, Inc (Beasley, Texas)
Banaketa	Madrid (Madril, Espainia) Bilbao (Bilbo, Espainia) TR América (Houston, Ameriketako Estatu Batuak) TR Beijing Office (Pekin, Txina) TR Francia (Metz, Frantzia) TR Italia (Milan, Italia) TR Jakarta (Cilandak-Jakarta, Indonesia) TR Dubái Office (Dubai) TR Services Prefabricados (Cádiz, Espainia) TR Services Projects (Bartzelona, Espainia) TR Cuba (Habana Vieja, Kuba) TR México (Mexico) TR Colombia (Kolonbia)

Iturria: Urteko Txostena-Jardueren Memoria. Tubos Reunidos taldea

4. ONTZIGINTZA

4.1 NAZIOARTEKO EGOERA

Munduko ekonomiaren hazkunde-erritmoaren ahultzearen aurrean, 2019an apaldu egin zen itsas-merkataritzaren hazkundera, % 0,6koa izateraino. Hala ere, garraiatutako tona kopuruari dagokionez, marka historiko berria lortu zen (11.887 miloi tona).

Itsasontzi berrien mundu mailako kontratazioari dagokionez, 2019an 67,8 miloi tona pisu hil zenbatu ziren, aurreko urtean baino -% 28,8 gutxiago. Entregak, berriz, % 22,6 hazi ziren, 99,3 milioi tona pisu hil izateraino.

60. koadroa Munduko merkataritza-flota

Urtea	Tonak	(MGT)*
		% Δ
2005	601,7	16,7
2010	840,6	39,7
2011	910,1	8,3
2012	991,2	8,9
2013	1.027,0	3,6
2014	1.067,1	3,9
2015	1.107,8	3,8
2016	1.148,0	3,6
2017	1.182,8	3,0
2018	1.221,3	3,3
2019	1.263,0	3,4

(*): 1995ra arte, EGT (Erregistro Gordineko Tona); 2000tik aurrera, GT (Erregistroko Tonaje Gordina).

Iturria: ANAVE.

Mundu mailako merkataritzako ontzidiari dagokionez, 1.263 milioi tona gordineko bolumena izan zuen 2019an, aurreko urtean baino % 3,4 handiagoa; 2018an ere antzekoa izan zen hazkundera, % 3,3koa.

Arreta ontzidiaren jatorrizko herrialdeetan jarrita, ohiko moduan, Panama izan zen protagonista nagusia, munduko ontzidiaren % 16,6rekin. Liberia eta Marshall Uharteak izan ziren hurrengoak, % 12ko eta % 11,5eko partaidetzekin, hurrenez hurren. Europan, Malta gailendu zen guztizkoaren gaineko % 5,9ko kuotarekin, Greziarekiko (% 3,1), Erresuma Batuekiko (% 2,5) eta Ziprerekiko (% 1,7) alde handiarekin.

61. koadroa Munduko merkataritza-flota, jatorrizko herrialdearen arabera

Herrialdea	2017		2018		2019		% Δ 19/18
	MGT	%	MGT	%	MGT	%	
Panama	215,8	18,2	210,9	17,3	210,0	16,6	-0,4
Liberia	135,7	11,5	140,2	11,5	151,9	12,0	8,4
Marshall Uharteak	127,6	10,8	139,6	11,4	145,1	11,5	4,0
Hong Kong	106,8	9,0	113,1	9,3	124,2	9,8	9,8
Singapur	80,0	6,8	82,0	6,7	82,5	6,5	0,6
Malta	66,3	5,6	71,8	5,9	74,3	5,9	3,4
Bahamak	53,4	4,5	52,9	4,3	54,9	4,3	3,7
Txina	42,3	3,6	44,9	3,7	50,7	4,0	12,9
Grezia	40,8	3,4	40,9	3,3	39,7	3,1	-2,9
Erresuma Batua	30,9	2,6	32,6	2,7	31,7	2,5	-2,9
Japonia	23,7	2,0	25,6	2,1	27,2	2,2	6,3
Zipre	21,0	1,8	21,7	1,8	22,0	1,7	1,5
Danimarka	15,1	1,3	17,0	1,4	20,2	1,6	18,7
Indonesia	12,9	1,1	14,1	1,2	15,4	1,2	9,3
Norvegia	14,6	1,2	15,0	1,2	14,9	1,2	-0,9
Portugal	12,0	1,0	15,3	1,3	14,7	1,2	-3,8
Italia	15,5	1,3	15,1	1,2	14,1	1,1	-6,9
Bermuda	10,4	0,9	10,2	0,8	10,2	0,8	-0,3
India	9,7	0,8	9,9	0,8	9,5	0,7	-4,5
Hego Korea	10,4	0,9	9,7	0,8	9,4	0,7	-3,5
Estatu Batuak	8,3	0,7	8,6	0,7	8,6	0,7	-0,2
Alemania	9,3	0,8	9,0	0,7	7,7	0,6	-14,7
Holanda	7,2	0,6	6,8	0,6	6,8	0,5	0,0
Belgika	4,8	0,4	4,8	0,4	5,9	0,5	22,2
Frantzia	5,7	0,5	5,5	0,5	5,8	0,5	4,8
Espainia	2,3	0,2	2,3	0,2	2,2	0,2	-5,5
Suedia	2,2	0,2	2,1	0,2	2,1	0,2	0,0
Finlandia	5,7	0,5	1,5	0,1	1,6	0,1	3,6
Kroazia	1,3	0,1	1,3	0,1	1,3	0,1	0,1
Beste herrialde batzuk	91,0	7,7	96,7	7,9	98,8	7,8	2,2
EB-15 guztira	148,8	12,6	154,0	12,6	153,0	12,1	-0,6
EB-28 guztira	238,4	20,2	249,9	20,5	251,6	19,9	0,7
Mundu osoa	1.182,8	100,0	1.221,3	100,0	1.263,0	100,0	3,4

Iturria: ANAVE.

Itsasontzi motaren arabera, 2019an ere solteko salgaien itsasontziek hartu zuten mundu mailako merkataritzaren zatirik handiena, % 35,8. Petrolioak garraiatzeko itsasontziak, edukiontzia garraiatzekoak eta merkataritzako beste ontzi batzuk izan ziren hurrengoak, % 21,5eko, % 18,8ko eta % 12,8ko partaidetzekin, hurrenez hurren.

Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, gasa garraiatzeko itsasontziek izan zuten hazkunderik handiena, baina nabarmentzekoa da munduko merkataritzako ontzidiaren % 6 baino ez dutela osatzen.

62. koadroa Munduko merkataritza-flota, itsasontzi motaren arabera

Itsasontzi mota	<i>(MGT)</i>			
	2016	2017	2018	2019
Petrolioia garraiatzekoak	244,6	256,8	267,2	271,2
Gasa garraiatzekoak	61,3	67,1	71,2	77,5
Solteko salgaienak	415,0	425,8	438,6	451,9
Kargaontziak	63,0	62,7	62,3	63,5
Edukiontzia garraiatzekoak	215,5	216,4	224,7	237,1
Beste merkataritzako ontzi batzuk	148,7	154,1	157,2	161,8
Merkataritzako ontziak guztira	1.148,0	1.182,8	1.221,3	1.263,0

Iturria: ANAVE.

Azkenik, aipatzekoa da 2019an itsasontzi gutxi desegin zituztela, eta, ondorioz, munduko merkataritzako ontzidiaren batez besteko adina 18,7 urtera igo zela (2018an 18,3 urteko batez besteko adina). Metanoa garraiatzeko itsasontziak izan ziren ontzidiko gazteenak (10,3 urte) eta hozkailuak zaharrenak (30,3 urte).

4.2 ONTZIGINTZA ESPAINIAN

Nazioartean itsasontzi berrien kontratazioak behera egin zuenez, 2019an -% 20,4 jaitsi zen itsasontzi horien produkzioa Estatuan; 160 mila tona konpentsatu¹ ekoitzi zituzten, eta aurreko ekitaldietan erregistratutako hazkundeak eten ziren (% 26,2ko hazkundea 2017an eta % 54,6koa 2018an). Ekoizpen faseei dagokienez, hasitako tonajea eta entregatutakoa hazi egin ziren (% 38,2 eta % 16,3, hurrenez hurren). Uretaratutako tonajea, berriz, jaitsi egin zen (-% 50).

¹ Atal honetako informazioa tona konpentsatuetan jasotzen da, kontrakoa adierazi ezean.

63. koadroa Espainiako itsasontzien ekoizpena

Urtea	Tonaje haztatua ⁽²⁾	Hasitako tonajea	Uretaratutako tonajea	Entregatutako tonajea	(mCGT) ⁽¹⁾
					Konpentsazio-koefizientea ⁽³⁾
2010	237	74	258	358	0,71
2011	175	121	132	318	0,63
2012	107	86	124	93	0,55
2013	161	153	161	169	0,48
2014	154	181	137	159	0,43
2015	179	280	169	99	0,92
2016	103	84	103	124	0,48
2017	130	142	122	133	0,75
2018	201	136	246	178	0,98
2019	160	188	123	207	0,87

(1): CGT: tona gordin konpentsatuak. Erregistroko tonaje gordin konpentsatuaren neurria, tona gordinekin erlazionatuta, itsasontzi mota eta neurri bakoitzerako koefiziente baten bidez. Koefiziente horrek eraikitze koefizientea hartzen du aintzat, itsasontzia egiteko erabilitako lanorduak oinarri hartuta.

(2): Tonaje haztatua = (Hasitako tonajea + 2 Uretaratutako tonajea + Entregatutako tonajea)/4.

(3): Ratioa (tona gordinak/tona gordin konpentsatuak).

Iturria: Industria eta ETE-en Idazkaritza Nagusia. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa. Geuk egina.

Espainiako ontziolen eskaera-zorria -% 15,8 murriztu zen 2019an, eta 377 mila tonakoa izan zen. Estatuko eskarien zorroak -% 78,6 egin zuen behera, eta esportazioak % 8,7 igo ziren. Hala, eskaera-zorroarekiko Estatuko merkatuak jaitziera gogorra izan zuen (guztizkoaren % 7, eta aurreko ekitaldian % 28).

64. koadroa Eskarien zorria urtearen amaieran

Urtea	Barne-merkatua		Esportazioak		Guztira mCGT
	mCGT	%	mCGT	%	
2010	109	20	441	80	550
2011	13	6	222	94	235
2012	15	5	298	95	313
2013	21	8	238	92	259
2014	19	7	271	93	290
2015	171	37	288	63	459
2016	209	45	259	55	468
2017	233	46	273	54	506
2018	126	28	322	72	448
2019	27	7	350	93	377

Iturria: Geuk egina, Industria eta ETE-en Idazkaritza Nagusiaren datuak oinarri hartuta. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa.

2019ko Estatuko eskaera-zorria osatzen zuten 45 itsasontzietatik lau baino ez ziren merkatu nazionalera bideratutakoak; gainerako 41ak kanpora bideratutako itsasontziak ziren.

65. koadroa Eskarien zorroa itsasontzi motaren arabera, urtearen amaieran. 2019

Itsasontzi mota	Barne-merkatua		Esportazioak		Guztira	
	Itsasontzi kopurua	CGT	Itsasontzi kopurua	CGT	Itsasontzi kopurua	CGT
Petrolio gordina garraiatzekoak	0	0	0	0	0	0
Petrolio- eta kimika-produktuak	0	0	1	14.236	1	14.236
Kargaontziak	0	0	4	9.922	4	9.922
Hozkailuak	0	0	0	0	0	0
Ferryak	1	16.482	2	44.395	3	60.877
Bidaiariak	0	0	4	119.227	4	119.227
Arrantza-ontziak	2	8.156	17	97.677	19	105.833
Beste itsasontzi batzuk	1	1.881	13	64.604	14	66.485
Guztira	4	26.519	41	350.061	45	376.580

Iturria: Industria eta ETE-en Idazkaritza Nagusia. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa.

Espainiako eskarien zorroa itsasontzi motaren arabera aztertuta, barneko merkatua bi arrantza-ontzik, ferry batek eta beste mota bateko ontzi batek baino ez dute osatzen. Kanpoko merkatua, berriz, 17 arrantza-ontzik, beste mota batzuetako 13 ontzik, karga orokorreko lau ontzik, bidaiarientzako lau ontzik, bi ferryk eta petrolio- eta kimika-produktuentzako ontzi batek osatzen dute.

Azkenik, aipatzekoa da 2019an Navantiak arrakastaz txertatu zituela Espainiako lehen itsasontzi autonomoaren sistemak; "USV Vendaval" izena jarri zioten itsasontzi horri. Hala, gaur egungo teknologia berri batzuetan garapen berritzaileak aplikatzen hasi da Navantia, adibidez, datu baseen kudeaketa, adimen artifiziala edo zibersegurtasuna. Horiek guztiak funtsezkoak dira itsasontziak ongi funtziona dezan.

4.3 ONTZIGINTZA EUSKAL HERRIAN

Estatuan bezala, Euskal Herrian ere behera egin zuen ontzigintzaren jarduerak 2019an. 18 mila tona gordin ekoitzi zituzten, aurreko urtean baino -% 21,7 gutxiago; ekoizpen fase guztiek izan zuten beherakada. Zehazki, entregatutako tonajea -% 42,9 murriztu zen 2019an; uretaratutakoa, -% 15, eta hasitakoa, -% 5,9.

66. koadroa Ontzigtza Euskal Herrian

Urtea	(mGT)			
	Tonaje haztatua	Hasitako tonajea	Uretaratutako tonajea	Entregatutako tonajea
2010	59	5	64	103
2011	37	51	21	57
2012	35	16	49	23
2013	28	17	19	55
2014	27	36	24	23
2015	42	77	35	19
2016	23	13	26	28
2017	25	15	30	26
2018	23	17	20	35
2019	18	16	17	20

Iturria: Industria eta ETE-en Idazkaritza Nagusia. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa. Geuk egina.

Tonaje konpentsatuari dagokionez ere, Euskal Herriko ekoizpenak behera egin zuen 2019an (-% 7,3). Dena den, Euskal Herriko ekoizpenak beherakada txikiagoa izan zuen Estatukoak baino, eta, ondorioz, Euskal Herriko ontzigtza-sektorearen partaidetza hazi egin zen (2019an % 24ko partaidetza, eta aurreko ekitaldian % 21ekoa).

67. koadroa Ontzigtza Euskal Herrian. Estatuko partaidetza. Tonaje konpentsatua



Kontzeptua	2018		2019	
	mCGT	Espainiako %	mCGT	Espainiako %
Tonaje haztatua	41	21	38	24
Hasitako tonajea	39	29	32	17
Uretaratutako tonajea	39	16	39	32
Entregatutako tonajea	49	27	43	10

Iturria: Industria eta ETE-en Idazkaritza Nagusia. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa.

Tonaje konpentsatuaren araberrako azterketarekin jarraituz, 2019an behera egin zuten hasitako tonajeak zein entregatutakoak (-% 17,9 eta -% 12,2, hurrenez hurren). Uretaratutako tonajeak, berriz, ez zuen aldaketarik izan 2018arekin alderatuta.

Hala, EA Eren eta Estatuaren dinamikaren ondorioz, Estatuko ekoizpenaren gaineko Euskal Herriaren partaidetza igo egin zen uretaratutako tonajeari dagokionez (2019an % 32 eta aurreko ekitaldian % 16). Aldiz, entregatutako tonajearen partaidetza (2019an % 10 eta 2018an % 27) eta hasitako tonajearen partaidetza (2019an % 17 eta urtebete lehenago % 29) murriztu egin ziren.

10. grafikoa Ontzigtzako eskaera-zorroaren eta ekoizpen haztatuaren bilakaera (mCGT)



Iturria: Industria eta ETE-en Idazkaritza Nagusia. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa. Geuk egina.

Euskal ontziolen eskarien zorroari dagokionez, 2019aren itxieran 65 mila tona konpentsatukoa zen, aurreko urtean baino -% 11 txikiagoa.

68. koadroa Eskarien zorroa Euskal Herrian

Urtea	mCGT
2010	173
2011	89
2012	114
2013	100
2014	119
2015	148
2016	161
2017	171
2018	73
2019	65

Iturria: Industria eta ETE-en Idazkaritza Nagusia. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa. Geuk egina.

Azterketa euskal ontzigintza-enpresen egoerara ekarrita, eta Sestaoko La Naval ontziolari dagokionez, aipatzekoa da ekitaldi honetako uztailen bere konkurtso-prozesua kudeatzen duen merkataritza arloko epaitegiak berriro atzeratu duela La Navalen likidazio-plana (datorren irailaren 30era arte); hirugarren aldiz atzeratu dute, eta azken atzeratzea izango dela ohartarazi diete.

69. koadroa Eskarien zorroa, amaitutako ontziak eta hasitako ontziak, enpresen arabera

(CGT unitateak)

Enpresa	Eskarien zorroa		Amaitutako itsasontziak		Hasitako itsasontziak	
	2018	2019	2018	2019	2018	2019
Astilleros Murueta	35.017	30.537	0	22.275	12.742	17.795
Astilleros Balenciaga	5.987	17.868	10.008	0	5.987	6.448
Astilleros Zamakona	32.022	17.429	16.366	20.634	20.364	7.342
CNN Sestao	0	0	22.500	0	0	0

Iturria: Industria eta ETE-en Idazkaritza Nagusia. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa.

Euskal ontziola txikiagoei dagokienez, aipatu beharrekoa da Astilleros Muruetak 2019ko maiatzean "LNG Ibaizabal Quince" ontzia uretaratu zuela, Espainian eraikitako propulsiio dualeko lehen portuko atoiontzia.

Astilleros Balenciagaren kasuan, 2019ko martxoan kontratu berri bat lortu zuten Groenlandiako Natur Zientzien Institutuarentzako arrantza-ikerketarako ontzi bat eraikitzeko, zaratak eta bibrazioak murrizteko diseinatu, ikerketa akustikoak egin ahal izateko.

Astilleros Zamakonak arraste-arrantza pelagikorako munduko ontzirik handiena eraikitzeko enkargua jaso zuen 2019aren amaieran. Gainera, energia-kontsumo murriztua izango du hainbat berrikuntzari esker. Adibidez, propulsiio-helize bakarra izan beharrean, bi propulsiotzaile maniobragarri izango ditu (iman iraunkordun motor elektrikoek bidez egiten da propulsiioa; motor horiek diesel- eta bateria-sorgailuekin elikatzen dira, eta kontsumo baxuagoa dute). Bestetik, kroskoak diseinu berria izango du, bi korastatakoa.



Azkenik, Euskal Herriko Itsas Foroaren zuzendariak euskal ontziolen garrantzia nabarmendu du berriki, ontzigitza-sektorearen industria osagarriaren benetako eragileak baitira, bakoitza ia 500 langilerekin.

5. AUTOMOBILGINTZA

Nazioarteko ekonomiaren sektore garrantzitsuenetako bat da automobilgintza, zalantzarik gabe. Mundu mailan, sektore oso lehiakorra da, eta enpresa-sare handiak mugitzen dira lehia horretan. Etengabe, enpresa batzuek bat egin dute, edo batak bestea erosten dute; ondorioz, sektoreko protagonistak aldatuz joan dira. Agertokia hain aldakorra izateak eragin handia du enpleguan, bai zuzenekoan, bai zeharkakoan. Gainera, COVID-19aren krisiak estutu egin du egoera, aldaketa industrial eta teknologiko handiko une batean iritsi baita.

Zortzi urtez ibilgailuen mundu mailako ekoizpenak eta matrikulazioak gora egin ondoren, 2018an nolabaiteko jaitsiera izaten hasi zen (-% 1,1), eta 2019an indartu egin zen jardueraren beheranzko joera (-% 5). Faktore askok eragin zuten 2018an industriak okerrera egitea. Lehenbiziko faktore multzoa exogenoa zen: AEBren eta Txinaren arteko nazioarteko harremanak okertzea –Trumpen Gobernuak atzerriko produktuei % 25eko muga-zerga ezartzeko mehatxua egin zuen–, Brexitak eragindako ziurgabetasuna eta hainbat ekonomia garatzen ahultzea. Bigarren faktore multzoak, ordea, automobilgintza-industrian zuen jatorria. Volkswagen taldean hasi zen “dieselgate” eskandaluak –ibilgailuetako poluzioaren aurkako sistemak desaktibatzen dituen software baten instalazioa–, azkenean, egile askori eragin zien, eta, ondorioz, kontsumoa eta emisioak neurtzeko arau askoz zorrotzagoak ezarri zituzten. Egoera horrek ekoizpen-prozesuak azkar batean egokitzera behartu zuen sektorea, eta ekoizpen-erritmoa jaitsi behar izan zuen. Hori guztia une erabakigarri batean gertatu zen, joera berriek eta eragile berriek (4.0 Industria, gidatze autonomoa, elektrifikazioa, etab.) bat egin zuten eraldaketa une batean. Horrez gain, eskaerak ere moteltzen ari dira, eta, ondorioz, historian zehar hain dinamikoa izan den industriaren hedapena gelditu egin da.

Hala, 2019an sektorearen erronkak mantendu eta indartu egin ziren. EBk anbizio handiko helburuak ezarri zituen CO2 emisioen inguruan, eta ibilgailuen % 40 inguru hibridoak edo elektrikoak izan zitezkeen behartu zituen fabrikatzaileak. Erronka garrantzitsua da Europako auto-egileentzat; izan ere, AEB eta, batez ere, Txina –bateriak garatzeko baldintza hobekin– aurretik doaz alor horretan. Era berean, ibilgailu elektrikoak ezartzeko hasierako baldintzak ez dira berberak herrialde guztietan. Elektrifikazioaren bidean, faktore hauek abiapuntu oso ezberdinetan kokatzen dituzte herrialdeak: lehenik eta behin, bateriak fabrikatzeko lehengaiak eta bitarteko produktuak lortzeko erraztasuna izatea edo ez izatea; bigarrenik, tokiko erosleen jarrera, kontzientzia maila handiagoarekin edo baxuagoarekin; eta hirugarrenik, kargatzeko azpiegituren garapen maila. Agertoki korapilatsu honetan, harreman berriak sortu ziren. Batetik, IKT sektoreko bazkide berriak sartu ziren. Bestetik, egileen arteko aliantza berri posible bat egon liteke; 2019an Renault-Nissan eta Fiat Chrysler izan ziren protagonistak.

5.1 NAZIOARTEKO EGOERA

Ekoizpen mailak atzera egin zuen 2019an mundu mailan, datuek adierazten dutenez. Gainera, herrialde ekoizle gehienetan murriztu zen jarduera, eta denen artean 91.786.861 ibilgailu ekoitzi zituzten, 2018an baino % 5,2 gutxiago.

EBk 21.312.082 ibilgailu ekoitzi zituen urte osoan –mundu mailako ekoizpenaren ia laurdena–, aurreko ekitaldian baino % 4,3 gutxiago. Herrialde ekoizle nagusien artean, ekoizpenaren murrizketa Erresuma Batuan eta Italian nabarmendu zen, batez ere. Bi herrialde horietan % 14 inguru murriztu zen ekoitzitako bolumena. Erresuma batuan 1.381.405 ibilgailu ekoitzi zituzten, eta Italian milioi bat unitate baino gutxiago (915.305). Europako ekoizle nagusia Alemania da, eta 2019an 4,7 milioi ibilgailu ekoitzi zituen, aurreko urtean baino % 9 gutxiago. Frantziak jaitsiera apalagoa izan zuen (-% 2,9), eta 2,2 milioi ibilgailuko ekoizpenarekin amaitu zuen urtea. Espainiak bigarren postua du Europako sailkapenean, eta 2018ko maila berean mantentzea lortu zuen (% 0,1); 2,8 milioi ibilgailu baino apur bat gehiago ekoitzi zituen.

Amerikari dagokionez, erreferentziazko sei herrialdeetatik bostetan jaitsi egin zen ekoizpen maila. Hala, 20,1 ibilgailu ekoitzi zituzten kontinentean, aurreko ekitaldian baino -% 3,6 gutxiago. Hain zuzen ere 2019an Brasilen baino ez zen igo ekoizpen maila (% 2,2), eta 2,9 milioi ibilgailu ekoitzi zituzten han. AEBren jarduerak % 3,7 egin zuen behera eta 10,9 milioi ibilgailu ekoitzi zituen. Mexikok, berriz, ia 4 milioi ekoitzi zituen, aurreko urtean baino % 2,8 gutxiago. Kanadak ia 2 milioi ibilgailu ekoitzi zituen 2019an, eta % 5,4 murriztu zuen ekoizpen-erritmoa. Era berean, ekoizpen maila askoz baxuagoak izan arren, Argentinak eta Kolonbiak ere nabarmen murriztu zuten ekoizpena (-% 32,5 eta -% 21,1).

Azterketa Asiara eta Ozeaniara mugatuta, han ere ekoizle nagusien artean ekoizpenaren jaitsiera izan da joera nagusia: 49,3 milioi ibilgailu ekoitzi zituzten (-% 6,4). Txina munduko lehen ekoizlea da 2010az geroztik, eta 2019an 25,7 milioi ibilgailu ekoitzi zituen, aurreko ekitaldian baino nabarmen gutxiago (-% 7,5). Ekoizpena murriztu egin zen Tailandian (-% 7,1 eta 2 milioi unitate) ere, eta are gehiago Indian (-% 12,2 eta 4,5 milioi unitate). Behera egin zuten honako hauek ere, baina neurri txikiagoan: Indonesia (-% 4,2 eta 1,3 milioi unitate), Hego Korea (-% 1,9 eta 3,9 milioi unitate) eta Japonia (-% 0,5 eta 9,7 milioi unitate), ibilgailu gehien ekoizten dituen Asiako bigarren herrialdea.

Azkenik, Afrikan 1.105.147 ibilgailu ekoitzi zituzten, 2018ko kopuru ia bera (% 0,3). Ekoizle nagusiak, Hegoafrikak, gora egin zuen (% 3,5 eta 631.983 unitate), eta bigarrenak, Marokok, 394.652 unitate ekoitzi zituen, aurreko ekitaldian baino apur bat gutxiago (-% 1,8).

70. koadroa Ibilgailuen ekoizpena. Herrialde nagusiak

Herrialde nagusiak	(unitateak)		
	2018	2019	% Δ 19/18
Alemania	5.120.409	4.661.328	-9,0
Espania	2.819.565	2.822.632	0,1
Frantzia	2.267.764	2.202.460	-2,9
Erresuma Batua	1.604.328	1.381.405	-13,9
Italia	1.062.332	915.305	-13,8
Belgika	308.493	285.797	-7,4
EB-15	14.259.181	13.363.652	-6,3
Txekiar Errepublika	1.442.884	1.433.963	-0,6
Eslovakia	1.093.215	1.100.000	0,6
Polonia	659.652	649.864	-1,5
EB-27	18.604.079	17.735.151	-4,7
Europa	22.262.540	21.312.082	-4,3
AEB	11.297.911	10.880.019	-3,7
Mexiko	4.100.770	3.986.794	-2,8
Brasil	2.881.018	2.944.988	2,2
Kanada	2.025.794	1.916.585	-5,4
Amerika	20.847.618	20.102.759	-3,6
Txina	27.809.196	25.720.665	-7,5
Japonia	9.729.594	9.684.298	-0,5
India	5.142.809	4.516.017	-12,2
Hego Korea	4.028.834	3.950.617	-1,9
Asia-Ozeania	52.656.826	49.266.873	-6,4
Errusia	1.768.546	1.719.784	-2,8
Mundua guztira	96.869.020	91.786.861	-5,2

Iturria: OICA.

Matrikulazioei dagokienez, 2019an mundu mailan 91,3 milioi ibilgailu saldu zituztela kalkulatzen dute, aurreko ekitaldian baino % 4,5 gutxiago. Asiarekin hasita, Txinak bere balioak % 8,2 murriztu arren, 25,8 milioi ibilgailu matrikulatu zituen (mundu osoan saldutako ibilgailu guztien % 28,2). Distantzia handira, Japonia izan zen bigarren ekoizlerik handiena; 5,2 milioi ibilgailu matrikulatu zituen, eta urte batetik besterako jaitsiera apalagoa izan zuen (-% 1,5). Indian, berriz, 3,8 milioi ibilgailu matrikulatu zituzten; aurreko urteko goranzko joerari buelta eman, eta % 13,3ko beherakada izan zuen. Hego Korean ia 1,8 milioi ibilgailu matrikulatu zituzten, eta Tailandian 1 milioi; jaitsiera izan zuten biek (-% 1,8 eta -% 3,3, hurrenez hurren).

Amerikan 25,3 milioi ibilgailu matrikulatu zituzten, aurreko urtean baino -% 2,5 gutxiago, izan ere, salmentek behera egin zuten hiru herrialde nagusietan. AEBn % 1,3 murriztu ziren salmentak eta 17,5 milioi ibilgailu matrikulatu zituzten. Kanadan ia 2 milioi matrikulatu zituzten, eta Mexikon, berriz, 1,4 milioi. % 3,2ko eta % 7,2ko jaitsierak izan zituzten, hurrenez hurren. Latinoamerikako gainerako herrialdeei dagokienez, Brasil nabarmendu zen, merkatuaren hedaturagatik eta bilakaeragatik (2,8 milioi eta % 8,6ko hazkundera). Merkatu garrantzitsuagoak dituzten beste herrialde batzuetan, ordea, jaitsiera handiak izan zituzten, hala nola Argentinan (-% 49,1 eta 408.674 unitate) edo Txilen (-% 17,2 eta 345.512 unitate salduta).

Ekialdeko Europako herrialdeei dagokienez, Errusiak baino ez zuen gainditu milioi bat matrikulazioen langa. Aurreko bi urteetan bi digitutako hazkundeak izan bazituen ere, batez ere, gobernuak sustatutako laguntzen ondorioz, 2018an 1,8 milioi ibilgailu matrikulatu zituen, aurreko urtean baino % 2,3 gutxiago.

71. koadroa Ibilgailuen matrikulazioa herrialdeen arabera. Europa.

Herrialde nagusiak	<i>(unitateak)</i>		
	2018	2019	% Δ 19/18
Alemania	3.822.060	4.017.059	5,1
Frantzia	2.692.748	2.755.696	2,3
Erresuma Batua	2.742.472	2.676.918	-2,4
Italia	2.122.365	2.131.916	0,5
Espainia	1.563.450	1.501.239	-4,0
Polonia	633.284	656.265	3,6
Belgika	639.434	644.041	0,7
Herbehereak	539.203	538.742	-0,1
Suedia	418.090	418.478	0,1
Austria	393.738	382.333	-2,9
Suitza (+ Liechtenstein)	341.355	356.039	4,3
Txekiar Errepublika	292.759	281.243	-3,9
Portugal	267.405	271.817	1,6
Danimarka	257.890	264.256	2,5
EB 28 + EFTA	18.144.052	18.372.164	1,3
EB, guztira	20.813.423	20.868.884	0,3

Iturria: OICA

Europara itzulita, matrikulazio kopuruaren bilakaerari dagokionez, aldeak ikus daitezke herrialdearen arabera. 2019an Europako merkatuak ez zuen ia aldaketarik izan 2018arekin alderatuta (% 0,3). Zehazki 20,9 milioi ibilgailu matrikulatu zituzten. Alemaniak lehenengo postuan jarraitu zuen; hark izan zuen baliorik altuena (4 milioi inguru), baita bilakaerarik onena ere (% 5,1). Distantzia apur batera Frantzia kokatu zen, 2,7 milioi matrikulazio eta bilakaera positiboarekin (% 2,3). Italia bere egonkortasunagatik nabarmendu zen (2,1 milioi matrikulazio). Erresuma Batuan eta Espainian, berriz, 2,7 milioi eta 1,5 milioi ibilgailu matrikulatu zituzten; % 2,4ko eta % 4ko jaitsierak izan zituzten, hurrenez hurren. Matrikulazio kopuruak behera egin zuen Austrian eta Txekiar Errepublikan ere, hurrenez hurren, % 2,9 eta % 3,9. Gainerako herrialdeetan hazkundeak izan zituzten, ia antzemanezina den Suediaren % 0,1eko hazkundetik hasi eta Suitzaren % 4,3ko hazkundera.

5.2 SEKTOREA ESPAINIAN

2019an ekoizpenak behera egin zuen herrialde gehienetan, baina Espainiako automobilgintza-industriak bere jarduera apur bat handitzea lortu zuen, eta ia 3 milioi ibilgailu ekoitzi zituzten. Aurrez aipatu dugun moduan, faktore askok eragin zituzten zailtasunak 2019an. Urtearen lehen zatian eskariak behera egin zuen –2018ko irailean

WLTP araudia indarrean sartu zenetik-, eta urtearen bigarren zatia apur bat hobea izan zen, Estatuko hainbat lantegitan modelo berriak egiten hasi baitziren.

Europako beste herrialde batzuetan bezala, Espainian ere automobilgintza-industriak garrantzi ekonomiko handia du, eta trakzio-efektua du gainerako sektoreengan. Ibilgailuak fabrikatzen dituzten 17 lantegik (2019ko abenduan) osatzen dute Espainiako industria-sarea. Horrez gain, ekipoak eta osagaiak fabrikatzen dituzten 1.000 enpresatik gora daude. Denen artean, BPGren % 10 inguru sortzen dute. Datu horiek agerian uzten dute sektoreak duen garrantzi estrategikoa, baina aurrekaririk gabeko haustura bizi du sektoreak. Joera berriek (mugikortasuna, arau-eskakizunak, digitalizazioa, eragile eta harreman berriak) erronka garrantzitsuak ekarri dituzte, eta horri COVID-19aren krisiak ekarriko dituen ondorioak gehitu behar zaizkio, oraindik zehazteko daudenak.

Gauzak hala, 2019an ibilgailuen ekoizpena % 0,1 hazi zen, eta 2.822.632 unitate ekoitzi zituzten. Hala, mundu mailako ekoizleen artean bederatzigarren postua mantendu zuen Espainiako industriak, eta European bigarren postua berreskuratu zuen, Frantziari aurre hartuta. Turismoen ekoizpenak hartzen du fabrikazio-jardueraren zatirik handiena (% 78,2). Hain zuzen ere, 2019an 2.209.769 turismo ekoitzi zituzten, aurreko ekitaldian baino apur bat gutxiago (-% 0,3). Merkataritza-ibilgailu arinak daude bigarren tokian, ekoizpenaren % 18,6 hartzen dutenak; horien ekoizpenak % 5,6 egin zuen gora. Lur orotako ibilgailuek eta ibilgailu industrialek, berriz, garrantzi txikiagoa izanik, balio negatiboekin amaitu zuten ekitaldia (-% 25,6 eta -% 10,2, hurrenez hurren).

72. koadroa Espainiako automobil-industriaren ekoizpena, matrikulazioa eta kanpoko merkataritza

(unitateak)

Azpisektorea	Produkzioa			Esportazioak			Matrikulazioak (*)		
	2018	2019	%Δ	2018	2019	%Δ	2018	2019	%Δ
Turismoak	2.215.599	2.209.769	-0,3	1.873.085	1.867.477	-0,3	1.321.436	1.258.246	-4,8
Lur orotakoak	51.797	38.522	-25,6	49.763	36.834	-26,0	--	--	--
Merkataritza-ibilgailu arinak	496.671	524.504	5,6	359.564	387.279	7,7	214.144	214.922	0,4
Industria-ibilgailuak	55.499	49.837	-10,2	22.006	18.480	-16,0	24.284	24.573	1,2
Autobusak	-	-	-	-	-	-	3.676	3.498	-4,8
Guztira	2.819.565	2.822.632	0,1	2.304.418	2.310.070	0,2	1.563.450	1.501.239	-4,0

(*): Turismoen matrikulazioak barne hartzen ditu lur orotako matrikulazioak ere.

Iturria: Anfac.

Kanpo-merkataritzak ekoizpenaren joera oso antzekoa izan zuen. Izan ere, Espainiako industriak ekoizpenaren zati handia mugaz gaindi esportatzen du, hain zuzen ere, % 85. Esportatutako bolumena nahiko egonkor mantendu zen (% 0,2). Turismoen esportazioak pixka bat behera egin zuen (-% 0,3), 1.867.477 turismo esportatuta. Merkataritzako ibilgailu arinen kasuan, berriz, 387.279 unitate esportatu zituzten, aurreko urtean baino % 7,7 gehiago. Lur orotako ibilgailuek eta ibilgailu industrialek garrantzi txikiagoa dute, eta 2019an nabarmen jaitsi zen haien esportazioa (-% 26 eta -% 16).

Azkenik, aztertutako hiru adierazleen artean, matrikulazio kopuruak izan zuen bilakaerarik okerrrena. 1,5 milioi unitate baino apur bat gehiago matrikulatu zituzten, aurreko ekitaldian baino % 4 gutxiago. Nabarmentzekoa da, 2012az geroztik lehen aldiz, 2019an turismoen matrikulazioak behera egin zuela Espainian (-% 4,8); 1.258.246 turismo matrikulatu zituzten (matrikulatutako ibilgailuen ia % 85). Merkataritzarako ibilgailu arinek eta ibilgailu industrialek, berriz, gora egin zuten apur bat, baina autobusek, garrantzi txikiagoa izanik, bilakaera negatiboa izan zuten, turismoen antzera.

Aipatzekoa da ibilgailu elektrikoaren matrikulazioa hasiberria dela oraindik ere Espainian. Ondorioz, Europako sailkapeneko azken postuan dago Espainia mugikortasun elektrikoari dagokionez. Aurrez aipatu dugun moduan, kargatzeko azpiegituren gabezia izan liteke arrazoietakoa bat (7.600 karga-puntu ditu Espainiak, eta mugikortasun elektrikoaren barometroaren azken postuan dago). Gobernuaren helburua 2030erako hiru milioi ibilgailu elektriko izatea bada, alderdi hori hobetu beharra dago.

73. koadroa Turismoen matrikulazioa marken arabera

Marka nagusiak	(unitateak)		
	2018	2019	%Δ
Seat	107.328	111.982	4,3
Volkswagen	102.954	94.328	-8,4
Audi	55.216	51.114	-7,4
Škoda	29.460	29.288	-0,6
<i>Volkswagen taldea</i>	<i>294.958</i>	<i>286.712</i>	<i>-2,8</i>
Peugeot	98.914	97.939	-1,0
Opel	79.755	69.103	-13,4
Citroën	68.917	67.151	-2,6
<i>PSA taldea</i>	<i>247.586</i>	<i>234.193</i>	<i>-5,4</i>
Renault	96.198	86.419	-10,2
Toyota	71.267	71.697	0,6
Hyundai	64.573	62.766	-2,8
KIA	67.786	59.523	-12,2
Ford	63.301	57.169	-9,7
Dacia	51.928	55.689	7,2
Mercedes	52.334	53.719	2,6
Nissan	62.327	51.557	-17,3
Fiat	58.607	47.115	-19,6
BMW	49.418	46.887	-5,1
Gainerako markak	141.063	144.800	2,6
Guztira	1.321.346	1.258.246	-4,8

Iturria: Anfac.

Jarraian, automobilgintza-marka nagusien bilakaera aztertuko dugu. Seat izan zen bigarren urtez Estatuan gehien saldu zen marka. Guztira 111.982 unitate saldu zituen, Estatuan saldutako ibilgailu guztien % 8,9, hain zuten ere. Hala, % 4,3ko hazkundea izan zuen, eta, ondorioz, lehiakideengandik urundu zen; lehiakideek murriztu egin zituzten salmentak. Peugeotek (97.939) eta, batez ere, Volkswagenek (94.328) behera egin zuten, -% 1 eta -% 8,4. Dena den, Opelek eta Renaultek izan zuten bilakaerarik okerrrena, bi digituko beherakadekin. Seatez gain, Daciak (% 7,2ko hazkundea), Mercedesek (% 2,6) eta Toyotak (% 0,6) bakarrik lortu zuten 2019an salmentak areagotzea.

74. koadroa Ibilgailuen esportazio nazionalen jomugako herrialde nagusiak

Herrialdea	(unitateak)		
	2018	2019	%Δ
Alemania	421.496	480.687	14,0
Frantzia	437.095	437.550	0,1
Erresuma Batua	287.422	327.186	13,8
Italia	241.333	250.455	3,8
Belgika	92.016	87.695	-4,7
Polonia	55.645	55.702	0,1
Herbehereak	65.578	53.573	-18,3
Austria	56.071	49.516	-11,7
Portugal	48.794	47.194	-3,3
Turkia	71.226	35.560	-50,1
10 herrialde nagusiak, guztira	1.776.676	1.825.118	2,7
Gainerakoak	527.742	484.952	-8,1
Esportazioak, guztira	2.304.418	2.310.070	0,2

Iturria: Anfac.

Esportazioei dagokienez, Europako helmuga nagusietako bik gora egin zuten, eta urrunagoko merkatuak ere hazten ari dira. Ondorioz, esportazioek balio positiboekin amaitu zuten urtea (% 0,2). Europarekin hasiko gara, hara esportatzen baitira 10 ibilgailutatik 9. Alemania eta Erresuma Batua nabarmendu ziren (Brexitarekin lotutako ziurgabetasun-egoera izan arren), bi digituko hazkundeak izan baitzituzten (% 14 ingurukoak). Hazkunde horri esker, Alemaniak rankingeko lehen postua berreskuratu zuen, % 20,8ko pisuarekin, eta Frantzia aurreratu zuen. Frantziak 2018ko antzeko balioak izan zituen eta, % 18,9ko pisuarekin, bigarren postuan geratu zen. Rankingaren goialdean daude Erresuma Batua eta Italia ere, herrialde horietara esportatzen baita Espainiako ibilgailuen % 14,2 eta % 10,8. Hala, lau merkatu horiek jasotzen dute esportazio osoaren % 64,8. Amerikara % 3,4 esportatzen da, eta Mexiko eta AEB dira herrialde nagusiak. Afrikan, berriz, (salmenten % 2,4), Maroko, Aljeria eta Hegoafrika daude goiko postuetan.

Bestalde, partaidetza txikiagoa izan arren, herrialde ugari handitu dute Espainiako produktuaren erosketa. Nabarmentzekoa da Japoniaren kasua, 2019an % 121,0 hazi baitzen herrialde horretara esportatutako bolumena.

75. koadroa Automobilgintza-sektoreko esportazioak eta inportazioak (ibilgailuak gehi osagarriak)

Kontzeptua	(Meuro)								
	Esportazioak			Inportazioak			Saldoa: Esportazioak - Inportazioak		
	2018	2019	%Δ	2018	2019	%Δ	2018	2019	%Δ
Turismoak eta lur orotakoak	29.141	29.355	0,7	18.601	18.468	-0,7	10.540	10.888	3,3
Merkataritza, industria eta autobusak	6.600	6.601	0,0	3.411	3.412	0,0	3.188	3.189	0,0
Zatiak, piezak eta osagarriak	9.798	9.304	-5,0	13.357	13.339	-0,1	-3.559	-4.034	13,4
Motorrak eta abiadura-kaxak	2.695	2.505	-7,1	5.114	4.666	-8,8	-2.419	-2.161	-10,7
Guztira	48.234	47.765	-1,0	40.483	39.885	-1,5	7.750	7.882	1,7

Iturria: Anfac.

Sektoreko esportazioen balioa 47.765 milioikoa izan zen, 2018an baino % 1 baxuagoa. Turismoen eta lur orotako esportazioen balioa 29.355 milioi eurokoa izan zen, eta merkataritza- eta industria-ibilgailuen esportazioen balioa, berriz, baxuagoa, 6.601 milioi eurokoa. Egonkor mantendu ziren biak (% 0,7 eta % 0,0). Gainerako segmentuek behera egin zuten, eta denen artean 11.809 milioi euroko ekarpena egin zuten. Inportazioek % 1,5 egin zuten behera, eta haien balioa 39.885 eurokoa izan zen ekitaldiaren amaieran. Kasu honetan, turismoen eta lur orotako inportazioek izan zuten baliorik handiena, batetik, eta zatien, piezen eta osagarrien inportazioak, bestetik. Beheranzko bilakaera izan zuten arren, motorrek eta abiadura-kaxek baino beherakada txikiagoa izan zuten. Hala, merkataritza-saldoa 7.882 milioi eurokoa izan zen, 2018an baino % 1,7 handiagoa.

Azkenik, Covid-19aren pandemiaren iraunkortasuna eta magnitudea oraindik ezagutzen ez ditugun arren, ANFACek mantendu egin du datozen urteetarako bide-orria, AUTO 2020-40 Plana. Espainiako automobilgintza-industria etorkizuneko mugikortasun-eredura eta ekosistema berrira egokitzea da planaren helburua. Ildo honetatik, mugikortasun berriaren erronkak, deskarbonizazio-konpromisoa eta digitalizazioa oraindik ere indarrean daudela adierazi du patronalak, baina krisiak marken eta herrialdeen estrategia industrialak berraztertu beharra eragin du. Europako suspertze-planak eta industria-politika berriek martxan jarriko dituzten laguntzak aprobetxatu beharra dago mugikortasun-eredu berrirako eraldaketa bizkortu eta krisialditik ateratzeko.

Azterketa automobilgintza-sektorearen hornitzaileen industriara mugatuta, Estatuan 1.000 enpresatik gorako multzoa dago, eta 365.000 pertsonari ematen diete enplegua, zuzenean edo zeharka. Mundu mailan erreferentziazko industria izateaz gain, balio-katean duen garrantzia haziz doa etengabe. Egun, ibilgailuaren bukaerako balioaren % 75 dagokio industria horri.

Egileen industriarentzat bezala, 2019a zaila izan zen osagaien sektorearentzat ere. Faktore askok zaildu zuten ekitaldia, horietako asko automobilgintza-industria zaildu zuten berak: ekonomia batzuen ahultzea, herrialdeen arteko merkataritza-tentsioak, sektorearen eraldaketa industrialak eta teknologikoa, eta, industria osagarriaren kasuan, bezero nagusien ekoizpenaren murrizketa. Horrek guztiak automobilgintzako hornitzaileen fakturazioa jaitsi du pixka bat: 35.822 milioi euro fakturatu zituzten, 2018an baino % 3,6 gutxiago.

Egoera horren ondorioz, 4.700 enplegu galdu ziren. Hala, 2019an 225.400 langile izan zituen hornitzaileen sektoreak (-% 2). Era berean, murriztu egin zen I+G+b inbertsioa 2018arekin alderatuta (-% 5,6); 1.458 milioi eurokoa izan zen inbertsioa. Merkatuen jarduerari dagokionez, kanpo-salmentena izan zen fakturazioaren % 58, zehazki, 20.754 milioi euro, 2018an baino % 3,1 gutxiago. Alemaniak, Frantziak, Portugalek, Erresuma Batuak eta Italiak jarraitu zuten Europako merkataritza-bazkide nagusiak izaten, eta EBtik kanpoko

herrialde batzuk ere batu ziren, hala nola AEB, Maroko eta Txina. Barne-merkatuaren fakturazioa 15.068 milioi eurokoa izan zen, eta salmentak % 4,4 murriztu ziren. Ekipo originalaren segmentuak salmenten zatirik handiena hartzen jarraitu zuen (9.798 milioi euro), eta % 4,6ko jaitsiera izan zuen. Ordezko piezen merkatuak (5.270 milioi euro), berriz, % 3,9ko jaitsiera izan zuen.

76. koadroa Automobilgintzako ekipoen eta osagaien Espainiako industriaren zifra nagusiak

<i>(M euro)</i>			
Kontzeptua	2018	2019	% Δ19/18
Fakturazioa	37.170	35.822	-3,6
Merkatu nazionalako salmentak	15.755	15.068	-4,4
- Ekipo originala	10.270	9.798	-4,6
- Ordezkoak	5.485	5.270	-3,9
Esportazioak	21.415	20.754	-3,1
I+G+b inbertsioa	1.545	1.458	-5,6
Enplegua (langile kopurua)	230.100	225.400	-2,0

Iturria: Sernauto.

Hala, 2019an jada sektorearen jardueraren beheranzko joera ikusten bazen ere, pandemiak askoz gehiago zaildu du egoera: ekoizpena jaitsi egin da, merkataritza-trukeetarako muga gehiago daude eta mundu osoko ekoizpen-kateak eten egin dira. Sernautoren arabera, 2020an sektorearen fakturazioa asko jaitea aurreikusten da, % 20 eta % 30 bitarte. Aurreikuspen horiek betez gero, zuzeneko enplegua % 6 eta % 10 artean jaitsiko litzateke.

5.3 AUTOMOBILGINTZAKO HORNIDURA-INDUSTRIA EAEN

EAEko automobilgintzako industria osagarria 300 enpresa inguruk osatzen dute, eta 2019an inoizko fakturaziorik altuena izan zuten; 20.000 milioi euroren langa gainditu zuten. Sektorea estrategikoa da euskal ekonomiarentzat, eta nazioartean oso lehiakorak diren ospe handiko enpresek osatzen dute. 85.000 pertsonari baino gehiagori ematen diete enplegua, eta horietatik 40.000 Euskal Herrian kokatzen dira. Atzerriko jarduerari dagokionez, sektoreko 320 ekoizpen-lantegi daude 32 herrialdetan, garapen-bidean dauden merkatuetan zein merkatu tradizionaletan. Zifra hauei Mercedes (Daimler) Vitoria enpresaren garrantzia gehitu behar zaie, sektorearen ikurra baita. Urtean 135.000 ibilgailu ekoizten ditu, eta 3.000 langile inguru ditu.

Sektorearen egoera, berez, nahiko zaila da izandako aldaketa ugarien ondorioz, eta etorkizun hurbila ere konplexua da, dieselaren ospe txarra dela eta. Covid-19aren krisiak, gainera, sektorearen etorkizuna zaildu du, kapituluan zehar aipatu dugun moduan. Egoera hain da zaila, ezen EAEk eta bestek zazpik autonomia-erkidegok estrategia komun bat adosteko eskatu baitiote Gobernuari lehiakorak izaten jarraitu ahal izateko, eta, batez ere, industriaren I+G+b apustua mantendu ahal izateko. Era berean, eskaria berriro

aktibatzeneko planak martxan jartzeko iradoki dute, hala nola Renove plana, baina inolako teknologiarik bazterrean utzi gabe. Hala, 2020rako aurreikuspenak ez dira onak. Bartzelonan Nissanen balizko itxiera, Frantziak eta beste herrialde batzuek haien ekoizpena aberriratzearen mehatxuak, auto-egileen ekoizpenaren mundu mailako jaitsierak –Mercedes Vitoriak dagoeneko % 18 murriztu du bere ekoizpenaren aurreikuspena– eta eskari apalak egoera oso zailean jarri dute sektorea.

77. koadroa Automobilgintzako euskal hornidura-sektorearen bilakaera


Kontzeptua	2015	2016	2017	2018	2019(*)
Fakturazioa (M euro)	15.004	16.454	18.390	19.311	20.375
Enplegua (pertsona kopurua)	36.583	38.019	40.859	40.924	40.488

(*): Behin behineko datuak.

Iturria: ACICAE.

Aurrez aipatu moduan, 2019an automobilgintzaren euskal sektoreak 20.375 milioi euro fakturatu zituen, aurreko ekitaldian baino % 5,5 gehiago. Emaitzak onak izan arren, enpleguak behera egin zuten apur bat (-% 1,1). 40.488 langilek egin zuten lan sektorean, 2018an baino 436 gutxiagok Bestalde, automobilgintzako enpresa hornitzaileek haien fakturazioaren % 3,4 bideratu zuten I+G+b inbertsiora 2019an.

11. grafikoa Sektoreko fakturazioaren bilakaera



Iturria: ACICAE.

Aurreko ekitaldietan bezala, agerian geratu zen osagaien industriaren esportatzaile izaera. Izan ere, nazioarteko merkatuetara saldu zituen 10 produktutatik 9. Horietatik, erdiak baino gehiago Europatik kanpora saldu zituen. Salmentak segmentuka aztertuta, ibilgailuen ekoizleei saldu zieten zatirik handiena (% 72,5), lehen mailako hornitzaileei % 20,1, eta gainerako % 7,4a ordezko piezen merkatuari. Ibilgailu motei dagokienez, % 87,1 bidaiarientzako ibilgailuak ziren, % 8,9 merkataritza- edo industria- ibilgailuak, % 3,2 autobusak eta % 0,9 motozikletak.

Kapitularekin amaitzeko, eta industriaren etorkizunari dagokionez, zaila da 2020ko fakturazioaren gaineko aurreikuspenak egitea. Dena den, urtearen bigarren seihilekoa lehenengoa baino askoz hobea izango dela uste du sektoreak, eta, gutxienez, urtearen lehen zatiko emaitza txarrak orekatu direla. Eusko Jaurlaritzak bikoiztu egin du "Renove plana-Eusko Renove" planera bideratutako diru kopurua, hamar milioi eurora arte, hiru helbururekin: kontsumitzaileei, automobilgintza-industriari eta ingurumenari laguntzea.

6. MAKINA-ERREMINTAK ETA FABRIKAZIO-TEKNOLOGIAK

6.1 MUNDUKO EGOERA

CECIMOK¹ ezohiko Batzorde Orokorra egin zuen 2020ko ekainean telematikoki, eta horren ostean argitaratutako informazioaren arabera, COVID-19aren krisia gogor eragiten ari zaio makina-erreminten sektoreari mundu osoan. Pandemiari lotutako ezohiko egoera honek are gehiago okertu du dagoeneko dezelerazio-sintomak ageri zituen agertokia. Izan ere, CECIMO osatzen duten herrialdeen ekoizpen osoa 2018an baino % 4,1 baxuagoa izan zen 2019an. Gainera, 2020ko lehen hiruhilekoan jasotako eskaeren behin behineko emaitzek ere joera hori baieztatzen dute, 2019ko lehen hiruhilekoan baino % 30 eskaera gutxiago jaso baitira. 2020ak ildo horri jarraituko diola aurreikusten dute, baldin eta COVID-19aren krisiarekin lotutako neurri murriztaileak malgutzen joaten badira eta urtearen bigarren hiruhilekoan salmentak berriro aktibatzea lortzen badute. 2022rako sektoreak % 5eko hazkundera izango duela eta guztiz suspertuko dela aurreikusten dute.

Europako makina-erreminten ekoizpen-bolumena 27 milioi eurokoa (-% 4,1) izan zen 2019an, munduko jardueraren herena, gutxi gorabehera. Esportatutako bolumena 20,3 bilioi eurokoa izan zen (11,7 bilioi euro CECIMOKoak ez ziren herrialdeetatik etorri ziren), aurreko ekitaldian baino % 6,6 baxuagoa.

Datuak zehatzago emanda, Europak nahiko egonkor mantendu zituen CECIMOKo kideei egindako erosketak (-% 0,2), Amerikak eta Asiak murriztu egin zituzten (-% 1,5 biek), eta Afrikak baino ez zuen erosketaren bolumena handitu (% 6,3). Bestetik, inportatutako bolumena 11,3 bilioi eurokoa izan zen (4,4 bilioi euro CECIMOKoak ez diren herrialdeetatik), aurreko ekitaldian baino % 6,1 txikiagoa.

Geografiari dagokionez, europar merkatuan % 5,2 murriztu zen inportazio-jarduera aurreko urtearekin alderatuta. Amerikak ere antzeko atzerakada izan zuen (-% 4,5), eta Asia izan zen bilakaera okerrean izan zuen kontinentea (-% 8,1).

6.2 MAKINA-ERREMINTAK ETA FABRIKAZIO-TEKNOLOGIAK

Jarduerak Estatuan izan duen bilakaeran zentratuta, eta AFMk² 2020ko ekainean argitaratutako informazioaren arabera, urteko lehen bost hilabeteetan % 35 egin dute behera eskariak. Deformazioaren azpisektoreak jaitsiera handiagoa izan du abioarenak baino. Esportazioen alorrean, Europako (Alemania, Espainia, Italia eta Frantzia) eta Amerikako (AEB, Mexiko eta Brasil) merkatu nagusietan murrizketak izan dira. Asia da

¹ CECIMO: Makina Erreminten Europako Batzordea

² Makina-erreminta, Osagai, Erreminta eta Osagarrien Fabrikatzaileen Espainiako Elkarte.

salbuespen bakarra; badirudi Txinak bere dinamikotasuna berreskuratu duela apirilaz geroztik, eta 2019an baino urte hasiera hobeia izan duela. Barne-merkatuak ere behera egin du, baina apalago. Izan ere, 2019an ere barne-merkatuaren bilakaera ez zen oso aldekoa izan.

Hala, 2019an sektoreko magnitude nagusien bilakaera aldatu egin zen, eta ia denak negatibo bilakatu ziren. Bost urtez hazi ondoren, sektorearen ekoizpena % 9,5 jaitsi zen. 2018an 1.796 milioi euro fakturatu zituzten, eta 2019an, aldiz, 1.626,1 milioi euro.

78. koadroa Makina-erreminten eta fabrikazio-teknologiaren sektorearen ekoizpena

	<i>(M euro)</i>		
Produkzioa	2018	2019	% Δ19/18
Makina-erremintak	1.192,3	1.049,8	-11,9
· Abioa	741,4	676,3	-8,8
· Deformazioa	450,9	373,5	-17,2
Osagaiak	210,0	194,7	-7,3
Erremintak	135,1	127,6	-5,5
Osagarriak	71,1	65,9	-7,4
Beste makina batzuk	123,5	130,5	5,6
Mekanizazioa eta beste zerbitzu batzuk	81,0	73,25	-9,5
Ekoizpenaren guztizkoa^(*)	1.796,1	1.626,1	-9,5

() Makina-erreminta nazionalen txertatutako osagaiak eta osagarriak salbu.
Iturria: AFM.*

Azterketan gehiago sakontzeko, makina-erreminten jarduerarekin hasiko gara. Haiek hartzen dute ekoizpen-jardueraren zatirik handiena (% 64,6). 2019an % 11,9 jaitsi ziren makina-erreminten balioak. Deformazioaren eta abioen azpisektoreek, biek izan zituzten balio negatiboak. Dena den, deformazioaren azpisektoreak jaitsiera handiagoa izan zuen (-% 17,2) –automobilgintzaren egoerak gehiago eragin baitzion– abioenak baino (-% 8,8). Azken honek pisu espezifiko handiagoa du (% 64,4). Osagaien azpisektoreak ere, % 12,0ko partaidetza izanik, ekoizpen-bolumenaren jaitsiera nabarmena izan zuen, % 7,3koa. Joera bera izan zuten osagarriek ere (-% 7,4), nahiz eta partaidetza txikiagoa duten (% 4,1). Mekanizazioak eta beste zerbitzu batzuek ere balio negatiboekin itxi zuten urtea, % 9,5eko jaitsierarekin eta % 4,5eko pisu espezifikoarekin. Beste makina batzuen kategoriak baino ez zuen igoera izan (% 5,6); ekoizpen osoaren % 8 dagokio kategoria honi.

79. koadroa Makina-erreminten eta fabrikazio-teknologiaren sektorearen esportazioak

Esportazioak	<i>(Meuro)</i>		
	2018	2019	% Δ19/18
Makina-erremintak	1.004,4	922,5	-8,2
· Abioa	672,6	618,6	-8,0
· Deformazioa	331,8	303,9	-8,4
Osagaiak	121,9	125,5	2,9
Erremintak	72,8	69,7	-4,3
Osagarriak	48,7	47,7	-2,0
Beste makina batzuk	65,0	79,5	22,4
Mekanizazioa eta beste zerbitzu batzuk	50,4	49,0	-2,8
Esportazioaren guztizkoa	1.363,2	1.293,9	-5,1

Iturria: AFM.

Esportazioei dagokienez, eta sektorearen esportatzeko joera handia medio, ekoizpenari buruzko atalarekiko antzekotasun handiak ageri dira. Hala, esportazio bolumena 1.293,9 milioi eurokoa izan zen, aurreko ekitaldian baino % 5,1 txikiagoa. Izan ere, sektoreko agregatu ia guztiek izan zuten beherakada. Esportazioen % 71,3 makina-erremintena da, eta 2019an % 8,2 murriztu ziren sektore horren merkataritza-fluxuak; kasu honetan, maila berean egin zuten behera bi azpisektoreek. Hala, abioen makineriak, % 61,7eko partaidetza izanik, eta deformazioaren makineriak, % 32,9ko pisu espezifikoa izanik, % 8ko eta % 8,4ko jaitsierak izan zituzten, hurrenez hurren. Era berean, erreminten sektoreak, % 5,4ko partaidetzarekin, eta osagarrienak ere, % 3,7ko partaidetzarekin, % 4,3 eta % 2,0 murriztu zituzten esportazio mailak. Behera egin zuen mekanizazioaren eta beste zerbitzu batzuen sektoreak ere (-% 2,8), % 3,8ko partaidetzarekin. Bestalde, osagaiak (% 9,7ko pisu espezifikoa) eta beste makina batzuek (% 6,1eko partaidetza) urtea balio positiboekin amaitzea lortu zuten (% 2,9ko eta % 22,4ko hazkundeak, hurrenez hurren).

6.3 MAKINA-ERREMINTA EUSKAL HERRIAN

Azterketa makina-erreminten industriara mugatuta, eta orain arte esandakoen haritik, sektoreko adierazle nagusien bilakaera beheranzkoa izan zela ikusten da. Hala, 2019an nabarmen jaitsi zen ekoizpena (-% 12,0), eta 1.049,8 milioi euroko fakturazioarekin amaitu zuten urtea. Datuak merkatu-segmentuen arabera aztertuta, barne-eskariaren jaitsiera askoz handiagoa izan zen esportazioena baino. Hala, 2019an salmenta nazionalak (251,8 milioi euro) urte arteko -% 23,3ko jaitsiera izan zuten. Bestetik, esportazioek % 8,2ko jaitsiera izan zuten, eta 922,5 milioi euroko bolumenarekin itxi zuten urtea. Aipatu beharrekoa da aurreko bi ekitaldietan esportazioek inoizko baliorik onenak lortu zituztela, eta 2019ko jaitsiera balio altu horien ondotik etorri zela. Antzekoa gertatu zen barne-merkatuarekin, 2018an hamarkadako zifrarik altuena izan baitzuen. Inportazioen bolumenak ere behera egin zuen, baina apalago (-% 3,9), eta 500 milioi euroko langatik gora

mantendu zen. Ondorioz, ageriko kontsumoa 662 milioi eurokoa izan zen, 2018an baino % 11,2 baxuagoa.


80. koadroa Espainiar Estatuko makina-erreminten sektorearen aldagai nagusien bilakaera

Kontzeptua	2017	2018	2019	(M euro) % Δ19/18
1. Produkzioa	1.127,6	1.192,3	1.049,8	-12,0
2. Barne-salmentak	225,5	328,2	251,8	-23,3
3. Esportazioak	902,2	1.004,4	922,5	-8,2
4. Inportazioak	500,9	542,2	520,9	-3,9
5. Ageriko kontsumoa ^(*)	739,9	745,2	662,0	-11,2
6. Esportazio-proportzioa = 3/1	% 80,0	% 84,2	% 87,9	4,3
7. Inportazio-proportzioa = 4/5	% 67,7	% 72,8	% 78,7	8,1

(*): Ekoizpena - esportazioak (erabilitako makineria salbu, 13,83M€)+ inportazioak.
Iturria: AFM.

Gauzak hala, sektoreko aldagai nagusien bilakaeraren ondorioz, esportazio-proportzioa (esportazioak/ekoizpena) % 87,9koa izan zen (2018an % 84,2koa) eta inportazio-proportzioa (inportazioak/barne-kontsumoa) % 78,7koa (2018an % 72,8koa); beraz, gora egin zuten biek.

12. grafikoa Makina-erreminten sektoreko merkataritza-balantza



Iturria: AFM.

Esportazioekin jarraituz, eta herrialdeen araberako salmentei dagokienez, aurreko ekitaldiaren antzeko mapa ezarri zen, baina ñabardura batzuekin. 2018ko herrialde nagusi gehienak 2019an mantendu egin baziren ere, sailkapenean zuten lekua aldatu egin zen. Hala, Alemaniak jarraitu zuen makina-erreminten industria nazionalaren lehen bazkidea izaten, % 12,9ko ordezkartzarekin. AEBk, berriz, postu bat gora egin zuen eta bigarren lekuan kokatu zen, % 10,1eko partaidetzarekin. Hurrengo herrialdea Italia izan zen; lau postu aurreratuz, hirugarren lekuan geratu zen, esportatuko bolumenaren % 8,1ekin. Frantzia, Portugal eta Txina izan ziren hurrengoak, % 7,5 inguruko partaidetzarekin, eta

hurrengoa Mexiko, % 6,2ko partaidetzarekin. Hala, Mexiko eta Txina sailkapeneko lehen postuetatik urrundu ziren. Esportazioen mapa % 2ko partaidetza baino baxuagoarekin Erresuma Batuak osatu zuen.

81. koadroa Espainiako makina-erreminten esportazioen jomugako herrialde nagusiak*

Herrialdea	2018	2019	(Meuro) % Δ 19/18
Alemania	137,2	119,0	-13,3
Estatu Batuak	86,7	93,5	7,8
Italia	67,6	74,6	10,4
Frantzia	69,6	70,0	0,6
Portugal	71,1	69,7	-2,0
Txina	92,7	68,7	-25,9
Mexiko	97,8	57,6	-41,1
Erresuma Batua	38,3	17,0	-55,6
Gainerako herrialdeak	343,4	352,4	2,6
Esportazioen guztizkoa	1.004,4	922,5	-8,2

(*): Behin behineko datuak.

Iturria: AFM.

Esportazio-jardueraren bilakaerari dagokionez, esportazioen urte batetik besterako aldakuntza ezberdina izan zen herrialdearen arabera. Hala, Alemaniara esportatutako produktuen bolumenak -% 13,3 egin zuen behera. Jaitsiera are nabarmenagoa izan zen Txina (-% 25,9), Mexiko (-% 41,1) edo Erresuma Batuaren (-% 55,6) kasuan. Alboko bi herrialdeen kasuan, Frantzia (% 0,6) eta Portugal (-% 2,0) nahiko egonkor mantendu ziren, batak gora eta besteak behera egin arren. Bestalde, AEBk (% 7,8) eta Italiak (% 10,4) izan zuten bilakaerarik onena.

82. koadroa Espainiak inportatutako makina-erreminten jatorrizko herrialde nagusiak*

Herrialdea	2018	2019	(Meuro) % Δ 19/18
Alemania	137,9	146,9	6,5
Italia	100,4	100,1	-0,3
Japonia	47,5	45,8	-3,6
Txina	31,5	36,1	14,6
Taiwan	24,1	24,7	2,5
Frantzia	23,5	24,3	3,4
Suitza	35,7	17,5	-51,0
Turkia	19,3	16,4	-15,0
Erresuma Batua	14,1	16,4	16,3
Gainerako herrialdeak	108,2	92,7	-14,3
Inportazioen guztizkoa	542,2	520,9	-3,9

(*): Behin behineko datuak.

Iturria: AFM.

Inportazioei dagokienez, aurrez aipatu dugun moduan, 2019an % 3,9 murriztu ziren, 2018ko balioekin alderatuta. Inportazioen mapak, orokorrean, ez zuen aldaketa handirik izan aurreko urtearekin alderatuta. Esportazioen atalean bezala, inportatzaile nagusia ere

Alemania izan zen (inportazioen % 28,2). Italia, % 19,2ko partaidetzarekin, bigarren lekuan kokatu zen, eta Japonia, % 8,8ko partaidetzarekin, hirugarren lekuan. Garrantzitsua da aipatzea hiru herrialde horien artean inportatu zutela bolumen osoaren erdia baino gehiago (% 56,2). Proporzio txikiagoak izan zituzten Txinak, Taiwanek, Frantziak, Suitzak, Turkiak eta Erresuma Batuak, % 2 eta % 4 arteko partaidetzekin. Era berean, datuak herrialdeka aztertuta, nabarmentzekoa da 10 herrialderen artean inportatzen dutela bolumen osoaren % 84,8, esportazioen kasuan ez bezala.

Herrialde bakoitzaren bilakaera aztertuta, Erresuma Batuak (% 16,3) eta Txinak (% 14,6) bi digituko igoerekin itxi zuten ekitaldia. Alemaniak eta Taiwanek ere gora egin zuten, baina eritmo apalagoan (% 6,5 eta % 2,5, hurrenez hurren).

Beste muturrean, Suitza (-% 51,0), Turkia (-% 15,0), Japonia (-% 3,6) eta Italia (-% 0,3) kokatu ziren; haien jarduera murriztu egin zen.

2020rako aurreikuspenei dagokienez, ekoizpen-jarduerari dagokion eskarien zorroa ahalik eta gehien luzatzen saiatuko direla adierazi du AFMk. Fakturazioa % 20 inguru jaitsiko dela aurreikusten dute, eta eskariak, berriz, % 40 inguru. Hortaz, urte zaila izango dela espero dute. Bezero-segmentuen bilakaeraren arabera izango da, eta baliteke urteko azken hiru hilabeteetako pixkanaka suspertzen hastea. Dena den, suspertzea indartu egin beharko da 2021eko lehen sei hilabeteetan.

6.4 ESKU-ERREMINTA

Makina-erreminten sektorean ez bezala, esku-erreminten eta industria-hornikuntzaren sektoreen magnitude nagusiek urte batetik besterako aldakuntza positiboa izan zuten, baina hazkunde-eritmoa aurreko ekitaldian baino baxuagoa izan zen.

Hala, 2019an 380,5 milioi euro fakturatu zituzten, aurreko urtean baino % 3,1 gehiago. Dena den, azken hiru hilabeteetan salmentak moteldu egin ziren. Esportazioek ere gora egin zuten (% 3,0), eta 183 milioi euroko balioa izan zuten, hau da, fakturazio osoaren % 48. Salmenten banaketa geografikoari dagokionez, EBk jarraitu zuen buruan, esportazioen % 71,1eko partaidetzarekin. Bigarren lekuan, distantzia handira, Amerika % 11,6ko pisuarekin eta, jarraian, Ekialde Ertaina % 7,5eko kuotarekin. Azkenik, % 3 inguruko partaidetzekin, Afrika (% 3,7), Errusia eta Ekialdeko Europa (% 3,2) eta Asia eta Ozeania (% 2,9) kokatu ziren.

Barne merkatuari dagokionez, adierazleek joera bera izan zuten. Barne-salmentek % 3,0ko urte arteko hazkundea izan zuten, aurreko ekitaldiko hazkundea (% 4,8) baino apur bat baxuagoa. Pisu handiena duten merkatuek eragin dute hazkunde hori, hala nola industria-sektoreak (% 2,2), salmenta nazionalen ia erdia izanik, eta eraikuntzak (% 4,6), berriro ere

bilakaerarik onena izan zuen sektorea izanik, % 44,3ko partaidetzarekin. Aitzitik, nekazaritzak, askoz pisu txikiagoa izanik (% 6,5), % 1,5ko beherakada izan zuen.

83. koadroa Sektorearen magnitude nagusien bilakaera.

Kontzeptua	<i>(M euro)</i>		
	2018	2019 ^(*)	% 19/18
Produkzioa	369,0	380,5	3,1
Barne-salmentak	191,8	197,5	3,0
-Industria	95,1	97,2	2,2
-Eraikuntza	83,6	87,4	4,6
-Nekazaritza	13,1	12,9	-1,5
Esportazioak	177,7	183,0	3,0

()*: Behin behineko datuak.

Iturria: Eskuin -Burdindegia eta industria-hornikuntzaren klusterra-.

Atal honekin amaitzeko, eta etorkizuneko aurreikuspenei dagokienez, Eskuinek argitaratutako informazioaren arabera, 2020ko lehen 5 hilabeteetan % 30 murriztu dira salmentak merkatu nazionalean eta % 19, berriz, kanpo-merkatuan. Dena den, eta pandemiaren ondorioz sortu den ziurgabetasun-egoera izugarria izan arren, urtea salmenten % 20 inguruko beherakadarekin amaituko dela eta 2021ean jarduera suspertu egingo dela espero da.

7. PAPERERA

7.1 NAZIOARTEKO EGOERA

Confederation of European Paper Industries-ek (CEPI) emandako datuetatik abiatuta, Paper eta Ore Fabrikatzaileen Elkarte Nazionalak (ASPAPPEL) emandako informazioaren arabera, 2019an 89.581 mila tona paper eta kartoi ekoitzi ziren nazioartean, aurreko ekitaldian baino -% 2,8 gutxiago.

84. koadroa Paperaren eta kartoiaren ekoizpena (CEPIko kideak)

Urtea	m Tm	% Δ
2014	90.949	-0,2
2015	90.872	-0,1
2016	90.982	0,1
2017	92.173	1,3
2018	92.200	0,0
2019*	89.581	-2,8

(*): Behin-behineko datuak.

Iturria: Paper eta Ore Fabrikatzaileen Elkarte Nazionala, CEPIren (Confederation of European Paper Industries) datuetan oinarrituta.

Paperaren ekoizpena herrialdeen arabera aztertuta, eta datuak 2018ari dagozkiola kontuan izanda, Txina eta Estatu Batuak izan ziren ekoizle nagusiak, bien artean ekoitzi baitzuten bolumenaren erdia baino gehiago (% 52,7). Europari dagokionez, Alemania eta Finlandia gailendu ziren, baina haien partaidetzak askoz txikiagoak izan ziren (% 6,6 eta % 3,1, hurrenez hurren).

85. koadroa Paperaren eta kartoiaren ekoizpena, herrialdeka

Herrialdea	(m tona)	
	2018*	% Δ
Alemania	22.678	-1,0
Austria	5.055	4,0
Belgika	1.946	-3,8
Bulgaria	234	-4,9
Danimarka	66	3,1
Espainia	6.157	-1,0
Finlandia	10.544	2,6
Frantzia	7.864	-2,0
Grezia	258	2,4
Hungaria	761	-0,8
Italia	9.142	0,1
Holanda	2.980	-0,1
Polonia	4.857	1,6
Portugal	2.275	-2,3
Erresuma Batua	3.894	0,9
Txekiar Errepublika	843	-7,2
Eslovakia	751	0,3
Suedia	10.141	-1,2
Norvegia	1.136	3,6
Suitza	1.094	-12,0
Brasil	10.557	-0,3
Kanada	10.180	1,5
Txina	109.962	-5,0
Estatu Batuak	72.062	-0,3
India	15.214	12,9
Japonia	26.070	-1,7
Errusia	8.953	2,7

(*): Herrialdeen araberako banaketaren kasuan, 2018ko informazioa baino ez dago eskuragarri.

Iturria: Paper eta Ore Fabrikatzaileen Elkarte Nazionala.

Arreta orearen ekoizpenean jarrita, 2018an Estatu Batuak, Brasil eta Kanada izan ziren protagonistak; hiruren artean osatu zuten ekoizpenaren erdia baino gehiago (% 55,1). Analisia Europara mugatuta, Suediak eta Finlandiak ia % 7ko partaidetza izan zuten.

86. koadroa Ore-ekoizpena, herrialdeen arabera

Herrialdea	(m tona)	
	2018*	% Δ
Alemania	2.460	1,1
Austria	1.628	1,9
Belgika	501	0,2
Bulgaria	205	-1,0
Danimarka	0	--
Espainia	1.713	0,8
Finlandia	11.405	7,4
Frantzia	1.613	-5,8
Grezia	0	--
Hungaria	0	--
Italia	369	-4,9
Holanda	30	-18,9
Polonia	1.157	2,3
Portugal	2.668	1,6
Erresuma Batua	225	-2,2
Txekiar Errepublika	414	-8,4
Eslovakia	693	1,9
Suedia	11.527	-1,9
Norvegia	887	-2,0
Suitza	101	-9,0
Brasil	21.085	8,0
Kanada	16.313	-0,4
Txina	12.049	7,1
Estatu Batuak	47.135	-1,0
India	2.050	12,0
Japonia	8.620	-1,3
Errusia	8.480	1,5

(*): Herrialdeen araberako banaketaren kasuan, 2018ko informazioa baino ez dago eskuragarri.

Iturria: Paper eta Ore Fabrikatzaileen Elkarte Nazionala.

7.2 SEKTOREA ESPAINIAN

ASPAPEn arabera, 2019an 6.436,6 mila tona paper eta kartoi ekoitzi ziren Espainian, aurreko urtean baino % 4,5 gehiago. CEPIren eremuan, ordea, behera egin zuen ekoizpenak (-% 2,8).

Era berean, Espainian % 2,6 egin zuen gora paperaren esportazioak 2019an (2.651,1 mila tona); inportazioek (3.088,4 milioi euro), ordea, behera egin zuten (-% 6,1). Ageriko kontsumoa (6.873,9 mila tona), berriz, apur bat igo zen (% 0,2). Hala, 2019an Estatuko paperaren merkataritza-balantzaren saldo negatiboa -437,3 mila tonara murriztu zen (aurreko ekitaldian -703,5 mila tonakoa izan zen saldo negatiboa).


87. koadroa Paperaren eta kartoiaren ekoizpena eta kontsumoa. Espainia, guztira.

Urtea	(m Tm)			
	Produkzioa	Inportazioa	Esportazioak	Ageriko kontsumoa
2010	6.193,4	3.316,9	3.062,4	6.447,9
2011	6.202,6	3.180,4	2.955,3	6.427,7
2012	6.176,7	2.938,2	2.957,0	6.157,9
2013	6.181,5	2.950,8	3.047,4	6.084,9
2014	6.035,7	3.136,7	2.915,1	6.257,4
2015	6.195,2	3.208,3	2.796,2	6.607,3
2016	6.218,6	3.256,0	2.830,1	6.644,5
2017	6.217,8	3.266,6	2.681,4	6.802,9
2018	6.156,6	3.288,4	2.584,9	6.860,1
2019	6.436,6	3.088,4	2.651,1	6.873,9

Iturria: Paper eta Ore Fabrikatzaileen Elkarte Nazionala.

13. grafikoa Paperaren sektorearen aldagai nagusien bilakaera Espainian

(Indizea: 1985= 100)



Iturria: Paper eta Ore Fabrikatzaileen Elkarte Nazionala.

Eremu geografiko handien arabera, aurreko urteetan bezala, 2019an ere EB izan zen Estatuaren merkataritza-bazkide nagusia. EBtik egin ziren ziren kanpo-erosketen % 88, eta EBra egin ziren kanpo-salmenten % 62. Zehatzago, Finlandiari eta Frantziari dagozkie inportazioen % 17 eta % 16, hurrenez hurren, eta Portugalari eta Frantziari dagozkie esportazioen % 22 eta % 21, hurrenez hurren.

Paper moten arabera, 2019an behera egin zuen honakoen ekoizpenak: prentsa eta inprimatzea eta idazketa; beste ontzi eta enbalaje batzuk; eta beste paper batzuk (-% 7,2, -% 0,1 eta -% 4,9, hurrenez hurren). Honakoenak, berriz, gora egin zuen: higienikoak eta sanitarioak, uhin-kartoiak eta kartoi iztukatua (% 8,2, % 10,6 eta % 0,3, hurrenez hurren).

88. koadroa Ekoizpena eta kontsumoa, paper motaren arabera

Mota	(m Tm)							
	Produkzioa		Inportazioa		Esportazioak		Ageriko kontsumoa	
	2019	% Δ 19/18	2019	% Δ 19/18	2019	% Δ 19/18	2019	% Δ 19/18
Prentsa eta inprimatzea eta idazketa	956,2	-7,2	1.036,8	-10,0	931,5	-4,8	1.061,5	-11,8
Higienikoak eta sanitarioak	777,4	8,2	154,0	-5,0	189,1	13,2	742,3	4,0
Uhin-kartoirako	3.346,8	10,6	937,3	-5,0	895,9	18,2	3.388,2	4,1
– Uhinetarako	1.511,4	12,5	313,4	-9,8	325,9	17,2	1.498,9	6,1
– Test Liner eta Kraft Liner	1.382,7	12,0	602,8	-2,2	490,4	18,2	1.495,1	4,1
– Bikoak eta larruak	452,8	0,9	21,1	-5,6	79,7	22,5	394,2	-2,9
Kartoi iztukatua	321,6	0,3	534,6	-4,1	171,5	-3,1	684,6	-2,3
Beste ontzi eta enbalaje batzuk	525,7	-0,1	366,8	-2,4	402,6	-0,1	489,9	-1,8
Beste paper batzuk	508,9	-4,9	58,9	6,8	60,5	-40,2	507,4	3,8
Papera eta kartoia, guztira	6.436,6	4,5	3.088,4	-6,1	2.651,1	2,6	6.873,9	0,2

Iturria: Paper eta Ore Fabrikatzaileen Elkarte Nazionala.

Paper-orearen azpisektoreari dagokionez, 2019an 1.656,7 mila tona ekoitzi ziren, aurreko urtean baino gutxiago (-% 3,3). Era berean, jaitsi egin ziren orearen inportazioa (1.102,2 mila tona, -% 3,8ko jaitsiera) eta esportazioa (936,8 mila tona, -% 2ko jaitsiera); baita ageriko kontsumoa ere (1.822,1 mila tona, aurreko ekitaldian baino % 4,2 gutxiago).

Gauzak horrela, orearen Estatuko merkataritza-balantzaren saldo negatiboa -165,4 mila tonara murriztu zen 2019an (-189,7 mila tonako saldo negatiboa zuen 2018an), eta estaldura-tasa % 85ekoa izan zen (aurreko ekitaldian % 83,4koa).

Ore motaren arabera, ore mekanikoa eta kimikoa gailendu zen, eta esportazioen zein inportazioen zatirik handiena hari egokitu zitzaion (2019ko kopuru osoaren % 98 eta % 96,5, hurrenez hurren). Ore mota horren kanpo-salmentek eta kanpo-erosketek, ordea, behera egin zuten (918,2 eta 1.063,8 mila tona, hurrenez hurren; -% 2ko eta -% 3,4ko jaitsierak).

Bestalde, 2019an % 5,3 hazi zen berreskuratutako paperaren ageriko kontsumoa, eta 5.152,1 mila tonara iritsi zen.

89. koadroa Ekoizpena eta kontsumoa, ore motaren arabera

Mota	(m Tm)							
	Produkzioa		Inportazioa		Esportazioak		Ageriko kontsumoa	
	2019	% Δ 19/18	2019	% Δ 19/18	2019	% Δ 19/18	2019	% Δ 19/18
Ore mekanikoa eta kimikoa	--	--	1.063,8	-3,4	918,2	-2,0	--	--
Erdikimikoa eta beste batzuk	--	--	38,4	-13,3	18,6	0,5	--	--
Ore birjinak, guztira	1.656,7	-3,3	1.102,2	-3,8	936,8	-2,0	1.822,1	-4,2
Paper zaharra (ageriko bilketa)	4.417,5	-0,8	1.418,3	5,9	683,6	-23,8	5.152,1	5,3

Iturria: Paper eta Ore Fabrikatzaileen Elkarte Nazionala.

Txosten honen aurreko edizioetan bezala, berreskuratutako paperaren erabilera aztertuko dugu jarraian, adierazle hauen arabera: ageriko bilketa-tasa, erabilera-tasa eta birziklapen-tasa. Ageriko bilketa-tasa (paper zaharraren ekoizpena/paperaren eta kartoiaren kontsumoa): 2019an % 64,3, eta 2018an % 64,2. Erabilera-tasa (paper zaharraren kontsumoa/paperaren eta kartoiaren ekoizpena): 2019an % 80 eta 2018an % 79,5. Birziklapen-tasa (paper zaharraren kontsumoa/paperaren eta kartoiaren kontsumoa): 2019an % 75 eta 2018an % 70,6.

7.3 SEKTOREA EUSKAL HERRIAN

CEPIren eremuan ez bezala, non ekoizpenak behera egin zuen (-% 2,8), eta Estatuko hazkundearen ildo beretik (% 4,5), Euskal Herriko paperaren eta kartoiaren ekoizpena % 1,6 hazi zen 2019an; 1.453,5 mila tona ekoitzi zituzten. Hala, Euskal Herriko hazkundera txikiagoa izan zen Estatukoa baino, eta, ondorioz, Euskal Herriko paperaren sektorearen partaidetza-kuota jaitsi egin zen (2019an Espainiako ekoizpenaren % 22,6, eta 2018an, % 23,2).

90. koadroa Paperaren eta orearen ekoizpena Euskal Herrian

Kontzeptua	2017	2018	2019	(m Tm) % Δ 19/18
Papera eta kartoia, guztira	1.434,1	1.431,0	1.453,5	1,6
Orea, guztira	489,3	485,0	490,9	1,2

Iturria: Paper eta Ore Fabrikatzaileen Elkarte Nazionala.

Oreari dagokionez, Estatuan ekoizpena jaitsi egin bazen ere (-% 3,3), Euskal Herrian 490,9 mila tona ekoitzi zituzten 2019an, aurreko urtean baino % 1,2 gehiago, eta, ondorioz, Estatuko ekoizpenaren gaineko kuota hazi egin zen: 2019an % 29,6, eta aurreko ekitaldian % 28,3.

Arreta kanpo-merkataritzara ekarrita, eta kasu zehatz honetan aurkeztutako zifrak monetarioak baino ez direla kontuan izanda, 2019an Euskal Herriko paperaren eta orearen esportazioak -% 1,5 egin zuen behera, eta 914.654 mila eurora jaitsi zen. Inportazioak, berriz, % 0,7 egin zuen gora, 583.402 mila euro izateraino. Hala, merkataritza-superabita 331.252 mila eurora murriztu zen (2018an 348.813 mila eurokoa izan zen).

Azkenik, paperaren sektoreko Euskal Herriko enpresa nagusiak azaltzen dira jarraian, modu sintetikoan, eta bakoitza non dagoen eta zein paper mota ekoizten duten adierazten da.

91. koadroa Euskal Herriko paperaren sektoreko enpresa nagusiak

Enpresak	Kokapena	Produkzioa
Sarriopapel y Celulosa, S.A.	Leitza, Uranga	Inprimatzeko eta idazteko papera eta orea
Indarkia S.L.- Ezten FCR.	Aranguren, Artziniega	Tisu papera
Papresa	Errenteria	Prentsarako papera
Smurfit Kappa Nervión	Iurreta	Orea, kraft papera
Smurfit Kappa Navarra	Zangoza, Cordovilla	Orea, kraft papera, uhin-kartoia eta zakuak
Sca Hygiene Spain	Allo	Tisu papera
Papelera Guipuzcoana de Zikuñaga (Iberpapel)	Hernani	Inprimatzeko eta idazteko orea eta papera
Munksjö Paper DECOR, S.A.	Tolosa	Laminatuetarako oinarri-papera
Papelera del Oria	Zizurkil	Inprimatzeko eta idazteko papera
Papelera del Ebro	Viana	Uhin-papera eta -kartoia
Bertako	Uharte	Uhin-papera eta -kartoia
Newark San Andrés, S.L.	Atarrabia	Uhin-kartoia
Papelera de Amaroz	Legorreta	Inprimatzeko eta idazteko papera

Iturria: Fomento de la Producción. "Las 2.500 mayores empresas españolas", eta enpresen memoriak.

8. KAUTXUA

8.1 NAZIOARTEKO EGOERA

2019an ekonomiaren dinamikotasuna txikiagoa izan zen nazioartean, eta, agertoki horretan, kautxuaren mundu mailako kontsumoa $-0,5\%$ murriztu zen. Rubber Study Groupen arabera, 29.001 mila tonakoa izan zen kontsumoa.

Kautxu motaren arabera, jaitsiera orokorra izan zen, eta kautxu naturalaren zein kautxu sintetikoaren kontsumoek egin zuten behera. Kautxu naturalaren kontsumoa 13.721 mila tonakoa izan zen, aurreko urtean baino $0,3\%$ baxuagoa. Kautxu sintetikoarena, berriz, 15.280 mila tonakoa, aurreko urtekoa baino $0,8\%$ baxuagoa.

92. koadroa Kautxu naturalaren eta sintetikoaren munduko kontsumoa

(m Tm)

Eremua	Kautxu naturala			Kautxu sintetikoa			Guztira		
	2018	2019	% Δ 19/18	2018	2019	% Δ 19/18	2018	2019	% Δ 19/18
Guztira	13.763	13.721	-0,3	15.397	15.280	-0,8	29.160	29.001	-0,5

(*): EMEA: Europa, Ekialde Ertaina eta Afrika.

Iturria: International Rubber Study Group.

8.2 KAUTXUAREN ERALDAKETA-SEKTOREA ESPAINIAN ETA EAEN

2019an kautxuaren eraldatuen Estatuko ekoizpena jaitsi egin zen, baita ageriko kontsumoa ere.

Zentzu horretan, Kautxuaren Industrialen Partzuergo Nazionalak emandako informazioaren arabera, 2019an 869.672 tona ekoitzi zituzten Estatuan, aurreko urtean baino -3% gutxiago. Ageriko kontsumoa, berriz, 668.778 tonakoa izan zen, aurreko ekitaldian baino $-3,5\%$ baxuagoa.

Aitzitik, sektorearen fakturazioak $1,1\%$ egin zuen gora, eta 5.062,3 milioi eurokoa izan zen. Izan ere, pieza teknikoaren salmentak igo egin ziren ($4,7\%$), eta pneumatikoen eta birkautxutatuaren azpisektorearen salmenten jaitsiera apala izan zen ($-0,6\%$).

Hala, sektorearen ekoizpen maila -3% murriztu zenez, eta sektoreko enplegua $-2,2\%$ jaitsi zenez, 2019an Estatuko kautxuaren sektorearen produktibitatea $-0,8\%$ jaitsi zen: 40 tona langileko.

Automobilgintza-sektoreak kautxuaren eraldaketa-industrian duen garrantzi nabarmena kontuan izanik, aipatzekoa da kapitulu honen amaieran (pneumatikoen eta birkautxutatuaren azpisektorearen gaineko epigrafean) sektore horren azterketa labur bat egingo dugula.

93. koadroa Kautxuaren eraldaketa-sektorearen oinarritzko datuak ⁽¹⁾ Espainian

Kontzeptua	(Tm)		
	2018	2019	% Δ 19/18
1. Produktzioa	896.341	869.672	-3,0
2. Ageriko kontsumoa	693.251	668.778	-3,5
3. Esportazioak	850.278	837.347	-1,5
4. Inportazioak	647.188	636.453	-1,7
5. Saldo komertziala	203.090	200.894	-1,1
6. Esportazioaren batez besteko prezioa ⁽²⁾	3,88	3,90	0,7
7. Inportazioaren batez besteko prezioa ⁽²⁾	4,18	4,20	0,4
8. Esportazioa/Ekoizpena (%)	94,9	96,3	1,5
9. Inportazioa/Ageriko kontsumoa (%)	93,4	95,2	1,9
10. Enplegua	22.235	21.737	-2,2
11. Produktibitatea (1/10) ⁽³⁾	40,3	40,0	-0,8

(1): Honako hauek barne: EJSN 22.11 (pneumatikoak eta birkautxutatuak) eta EJSN 22.19 (kautxuzko beste produktu batzuk: kautxuzko eta latexezko pieza teknikoak).

(2): Euro/kg.

(3): Tm/Enplegatu/urte.

Iturria: Kautxuaren Industrialen Partzuergo Nazionala.

Kanpo-merkataritzari dagokionez, kautxuaren eraldatuen esportazioen zein inportazioen bolumenek behera egin zuten 2019an (837.347 eta 636.453 tona, hurrenez hurren; bolumenaren -% 1,5eko eta -% 1,7ko jaitsierak, hurrenez hurrenez). Hala, merkataritzaz superabita 200.894 tonakoa izan zen, -% 1,1 baxuagoa.

Datuak azpisektoreen arabera aztertuta, pneumatikoen eta birkautxutatuaren esportazioek behera egin zuten (-% 2,7), baina pieza teknikoen esportazioak hazi egin ziren (% 3,6). Inportazioei dagokienez, pneumatikoenak eta birkautxutatuarenak igo egin ziren (% 2,1), eta pieza teknikoenak, aldiz, jaitsi (-% 11,3).

94. koadroa Kautxuaren eraldatuen kanpo-merkataritza, azpisektore handien arabera

Produktua	Esportazioak			Inportazioak			Saldoa		
	2018	2019	% Δ 19/18	2018	2019	% Δ 19/18	2018	2019	% Δ 19/18
Pneumatikoak eta birkautxutatuak	689.932	671.182	-2,7	464.042	473.953	2,1	225.890	197.229	-12,7
Pieza teknikoa	160.346	166.165	3,6	183.146	162.500	-11,3	-22.800	3.665	116,1
Guztira	850.278	837.347	-1,5	647.188	636.453	-1,7	203.090	200.894	-1,1

Iturria: Kautxuaren Industrialen Partzuergo Nazionala.

Ikuspegi monetariotik, kanpora egindako salmentak eta kanpotik egindako erosketak ere jaitsi egin ziren (-% 0,8 eta -% 1,3, hurrenez hurren), baina, kasu honetan, merkataritzaz superabita % 1,1 hazi zen.

95. koadroa Kautxuaren eraldatuen kanpo-merkataritza, azpisektore handien arabera

(M euro)

Produktua	Esportazioak			Inportazioa			Saldoa		
	2018	2019	% Δ 19/18	2018	2019	% Δ 19/18	2018	2019	% Δ 19/18
Pneumatikoak eta birkautxutatuak	2.247,3	2.220,8	-1,2	1.634,4	1.597,6	-2,3	612,9	623,2	1,7
Pieza teknikoa	1.049,8	1.048,5	-0,1	1.070,3	1.073,2	0,3	-20,5	-24,7	-20,2
Guztira	3.297,1	3.269,3	-0,8	2.704,7	2.670,8	-1,3	592,3	598,6	1,1

Iturria: Kautxuaren Industrialen Partzuergo Nazionala.

EAEko kautxuaren eraldaketa-sektoreari dagokionez, kautxuari eta plastikoari dagokien Eustaten Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) hazkunde-erritmoa % 2ra igo zen 2019an (aurreko ekitaldian % 0,7koa izan zen).

Kanpo-merkataritzari dagokionez, kautxuaren eta manufakturen esportazioak (1.250.442 mila euro) -% 0,9 jaitsi ziren 2019an EAEn. Inportazioak (482.228 mila euro), berriz, % 2,5 hazi ziren. Hala, kautxuaren eta manufakturen merkataritza-balantzaren saldo positiboa -% 2,9 murriztu zen (768.214 mila eurokoa izan zen 2019an).

Datu horiek Estatuko datuekin alderatuta, ikuspegi monetariotik, Estatuko guztizkoaren gaineko Euskal Herriko kanpo-merkataritzaren kuota ia mantendu egin zen kanpora egindako salmenten kasuan (% 38,2 2019an, eta % 38,3 aurreko ekitaldian), eta hazi egin zen kanpotik egindako erosketen kasuan (% 18,1 2019an, eta guztizkoaren % 17,4 2018an).

8.3 PNEUMATIKOEN ETA BIRKAUTXUTATUAREN AZPISEKTOREA

Azterketa pneumatikoen eta birkautxutatuaren azpisektorera mugatuta, Kautxuaren Industrialen Partzuergo Nazionalaren arabera, 2019an sektorearen ekoizpen-bolumena 655.511 tonakoa (-% 3,8ko jaitsiera) izan zen, eta ageriko kontsumoaren bolumena 458.282 tonakoa (% 0,6ko igoera).

Kanpo-merkataritzari dagokionez, pneumatikoen eta birkautxutatuaren esportazioak -% 2,7 murriztu ziren 2019an; 671.182 tona esportatu zituzten. Inportazioak, berriz, % 2,1 hazi ziren; 473.953 tona inportatu zituzten. Hala, joera esportatzailea % 102,4koa izan zen, eta joera inportatzailea % 103,4koa.

96. koadroa Pneumatikoen eta birkautxutatuaren ekoizpena, kontsumoa eta kanpo-merkataritza

Kontzeptua	(Tm)		
	2018	2019	% Δ 19/18
1. Produkzioa	681.431	655.511	-3,8
2. Esportazioak	689.932	671.182	-2,7
3. Inportazioa	464.042	473.953	2,1
4. Ageriko kontsumoa	455.541	458.282	0,6
5. 2/1 x 100	101,2	102,4	1,1
6. 3/4 x 100	101,9	103,4	1,5

Iturria: Kautxuaren Industrialen Partzuergo Nazionala.

Kautxuaren sektorearen eta automobilgintza-sektorearen arteko lotura estua kontuan izanda, azken horren bilakaera aztertuko dugu jarraian, labur. Automobilen eta Kamioien Fabrikatzaileen Espainiako Elkartearen (ANFAC) arabera, 2019an 1.501.239 ibilgailu matrikulatu zituzten, aurreko urtean baino -% 4 gutxiago. Ibilgailuen ekoizpenak eta esportazioek, berriz, gora egin zuten apur bat. 2.822.632 unitate ekoitzi zituzten (% 0,1eko igoera), eta 2.310.070 unitate esportatu (% 0,2ko igoera).

97. koadroa Ibilgailuen ekoizpena eta salmenta Espainian

Kontzeptua	Produkzioa			Esportazioak			Matrikulazioak ⁽¹⁾		
	2018	2019	% Δ 19/18	2018	2019	% Δ 19/18	2018	2019	% Δ 19/18
Turismoak	2.215.599	2.209.769	-% 0,3	1.873.085	1.867.477	-% 0,3	1.321.346	1.258.246	-% 4,8
Industria-ibilgailuak ⁽²⁾	603.966	612.863	% 1,5	431.333	442.593	% 2,6	238.428	239.495	% 0,4
Autobusak eta autokarrak	0	0	-	0	0	-	3.676	3.498	-% 4,8
Guztira	2.819.565	2.822.632	% 0,1	2.304.418	2.310.070	% 0,2	1.563.450	1.501.239	-% 4,0

(1): Matrikulazioen kontzeptua barne-salmentena baino zabalagoa da: saldu gabe edo stockean dauden ibilgailuak ere barne hartzen ditu. Turismoen matrikulazioen zifrak lur orotako ibilgailuen matrikulazioak ere aintzat hartzen ditu.

(2): Honako hauek barne hartzen ditu: pick-upa, traktokamioiak, industria-ibilgailu arinak eta astunak, furgonetak eta merkataritza-ibilgailu arinak.

Iturria: ANFAC.

Azkenik, txosten honen aurreko edizioetan egindako lanari jarraipena emateko, Euskal Herrian kokatzen diren pneumatikoen fabrikatzaile nagusien inguruko aipamen labur bat egingo dugu: Michelin eta Bridgestone.

Michelinen Euskal Herriko fabrikak Gasteizen, Araian (Araban; izatez, logistika-zentro bat da), eta Lasarten (Gipuzkoan) daude. Enpresa multzoak 1.730 milioi euroko irabazi garbia izan zuen 2019an, aurreko ekitaldian baino % 4,2 altuagoa. Prezioen politikak eta aktiboen erosketak haien kontuetan izandako eragin positiboak konpentsatu egin zuten ohiko merkatuetako salmenta-bolumenaren jaitsiera, eta horren ondorioz igo zen enpresa-multzoaren irabazi garbia. Euskal Herriari dagokionez, aipatzekoa da Gasteizko fabrikaren bost egunez bertan behera utzi zutela pneumatiko handien ekoizpena 2019aren amaieran. Izan ere, nekazaritzarako, kamioietarako eta obra zibiletako pneumatikoen salmentak murriztu egin ziren Europako merkatuetan. Dena den, turismoentzako pneumatikoen jarduera-lerroa mantendu egin zuen.

Bridgestonek Basaurin eta Usansolon ditu Euskal Herriko fabrikak. 2019an, enpresaren Espainiako fabrikek (Kantabria, Burgos eta Bizkaia) "*Bridgestone in Harmony with Nature - Promoting Biodiversity Program*" sari korporatiboa jaso zuten, ingurumenarekin duten konpromisoagatik. Zehazki, fabrikak dauden inguruetan garapen jasagarria eta biodibertsitatearen zaintza bultzatzeko martxan jarritako ekintza ekologikoetan oinarritutako egitasmoengatik eman zieten saria.

9. SEKTORE ELETRONIKO-INFORMATIKOA¹

9.1 SEKTOREA ESPAINIAN ETA NAZIOARTEKO JOERAK²

2019aren amaieran Telekomunikazioen eta Informazioaren Gizartearen Behatoki Nazionalak argitaratutako "Espainiako IKT Sektorearen eta Edukien Txostena, 2019"-ren arabera, 2018an nabarmen hazi zen sektorea Estatuan. Enpresa kopurua % 3,2 hazi zen, eta 35.100 izatera heldu ziren. Negozio-zifrak % 5 egin zuen gora, 115.154 milioi eurokoa izateraino, eta sektoreko enplegua % 7,3 hazi zen, 532.822 pertsona okupatu izateraino.

Nazioartean, txosten horrek aurreikusten duenez, BRIC taldeko eta Latinoamerikako herrialdeek izango dute hazkunderik handiena sektore honetan 2023ari begira (argitalpenak urte hori jartzen du bere aurreikuspenetarako muga gisa, 2018an oinarrituta). Espainiak, bestalde, Europak baino bilakaera motelagoa izango du.

9.2 SEKTOREA EAEN³

Atalarekin hasi aurretik, aipatu beharra dago Euskal Herriko Ezagutzaren eta Teknologia Aplikatuaren Industrien Elkarte (GAIA) berrantolatu egin zutela 2019an. Jarduera-sektoreetara bideratutako ikuspegi tradizionala alde batera utzi, eta lehentasunezko teknologia bideratzaileetan jarri zuten fokua. Hala, ikuspegi berri horretan hainbat azpisektore bereizten dira, eta azpisektore horietako lidergoa honako teknologietan espezialistak diren enpresei dagokie: Adimen Bisuala, Zibersegurtasuna, Gauzen Internet (IoT) eta Adimen Artifiziala.

Zehazki, Adimen Bisualak BasqueGame esperientzia hartzen du bere barne, baita haren baitako 20 enpresatik gora eta 12 proiektu ere. Zibersegurtasunaren alorrean, 60 enpresa baino gehiagok osatzen dute Cybasque, eta 7 proiektu dituzte garapen-prozesuan. Gauzen Interneten (sentsoreak eta komunikazio-sistemak) 40 enpresak baino gehiagok parte hartzen dute, eta 8 proiektu baino gehiago ari dira garatzen elkarren artean. Azkenik, Adimen Artifizialaren alorrean 50 enpresa eta ikerketa-talde baino gehiago daude identifikatuta, eta, ziurrenik, ekitaldiaren bigarren seihilekoan hasiko dute jarduera.

¹ Sektorea modu orokorrean aipatzen dugunean, horrek barne hartzen ditu sektorean sartzen diren jarduera elektronikoinformatiko guztiak eta telekomunikazioetakoak, baina ez telekomunikazio-zerbitzuen operadore/hornitzaile handiak

² Atal honetan IKTen sektorea aztertuko dugu: fabrikazioa eta zerbitzuak (merkataritza, informatika-jarduerak eta telekomunikazioak) eta eduki digitalak (lineako publizitatea, bideojokoak, ikus-entzunezkoak, argitalpenak eta beste informazio-zerbitzu batzuk).

³ Euskal Herriko Ezagutzaren eta Teknologia Aplikatuaren Industrien Elkarteak (GAIA) emandako informazioarekin osatu dugu atal hau. Elkarteko kide diren eta EAeko sektorearen egoera orokorra azaltzen duten enpresei dagokie atal honetako informazioa.

2019an 267 enpresak osatu zuten GAIA, 2018an baino 13 gehiagok. Hala, aurreko bi ekitaldietako beheranzko joera eten zen.

98. koadroa Sektore elektroniko-informatikokoko eta telekomunikazioen sektoreko enpresen bilakaera EAEn

Urtea	Enpresak
2010	265
2011	267
2012	260
2013	265
2014	245
2015	243
2016	254
2016*	279
2017*	258
2018*	254
2019*	267

(*): GAIA+AVIC.

Iturria: GAIA. Geuk egina.

Sektorearen ekoizpena 5.352 milioi eurokoa izan zen 2019an, aurreko urtean baino % 3,5 handiagoa. Hala, jarraipena eman zitzaion azken urteetako goranzko bilakaerari.

99. koadroa Sektore elektroniko-informatikoko eta telekomunikazioen sektoreko ekoizpenaren bilakaera EAEn

Urtea	Produktzioa M eurotan	% Δ
2010	2.994,9	-2,1
2011	2.911,0	-2,8
2012	2.742,0	-5,8
2013	2.702,1	-1,5
2014	2.768,0	2,4
2015	2.909,0	5,1
2016	3.530,0	21,3
2016*	4.742,0	--
2017*	4.958,0	4,6
2018*	5.171,0	4,3
2019*	5.352,0	3,5

(*): GAIA+AVIC.

Iturria: GAIA. Geuk egina.

Sektorearen esportazioek 2.350 milioi euroko bolumena izan zuten 2019an, aurreko ekitaldian baino % 8,6 handiagoa, eta ekoizpen osoarekiko kanpo-salmenten partaidetza hazi egin zen: % 43,9, eta 2018an % 41,8.

100. koadroa Sektore elektroniko-informatikoko eta telekomunikazioen sektoreko esportazioen bilakaera EAEn

Urtea	Esportazioak (M euro)	% Δ	Esportazioak/ Ekoizpena
2010	850,0	11,1	28,4
2011	943,0	10,9	32,4
2012	1.053,0	11,7	38,4
2013	1.076,8	2,3	39,8
2014	1.084,2	0,7	39,2
2015	1.117,0	3,0	38,4
2016	1.179,6	5,6	33,4
2016*	1.966,0	--	41,5
2017*	2.045,4	4,0	41,3
2018*	2.164,0	5,8	41,8
2019*	2.350,0	8,6	43,9

(*) GAIA+AVIC.

Iturria: GAIA. Geuk egina.

Hala, sektoreko enplegua % 2,5 hazi zen 2019an, eta 20.528 pertsona okupatura iritsi ziren. Gorakada horrek argi utzi zuen sektorearen hazkunde-dinamika, eraldaketa digitalak markatutako testuinguruaren baitan.

101. koadroa Sektore elektroniko-informatikoko eta telekomunikazioen sektoreko enpleguaren bilakaera EAEn

Urtea	Langileak	% Δ
2010	11.400	-5,0
2011	11.410	0,1
2012	10.807	-5,3
2013	10.797	-0,1
2014	10.564	-2,2
2015	11.007	4,2
2016	11.447	4,0
2016*	18.517	--
2017*	19.276	4,1
2018*	20.030	3,9
2019*	20.528	2,5

(*) GAIA+AVIC.

Iturria: GAIA. Geuk egina.

GAIA taldeko enpresek 135 milioi euroko inbertsioa egin zuten 2019an I+G alorrean, haien fakturazio orokorraren % 2,5 eta aurreko ekitaldian baino % 3 gehiago.

Etorkizunari begira, 2020aren hasierako COVID-19aren agerpenak ziurgabetasun handia eragin du, baina ekonomia suspertzeko beharrezkoa izango da alor guztietan teknologian inbertitzea, eta horrek sektorearen jarduera indartuko du.

10. ERAIKUNTZA

Aurreko krisialdian gehien kaltetu zen sektoreetako bat izan zen eraikuntza-sektorea, baina atzerakada ekonomikoaren aldia gaindituta, jarduerak dinamikotasuna berreskuratu zuela zirudien. Dena den, pandemiaren eraginez azken hiru urteetan sortutako enpleguaren zati handi bat suntsitu egin dela erakusten dute azken datuek (2020ko ekainekoak).

Hala, 2019ko datuen arabera, sektoreko adierazle nagusiek, orokorrean, gora egin zuten Estatuan eta EAEn –apur bat gutxiago Nafarroan–, eta horrek aurreko ekitaldiko goranzko joera indartu zuen.

Estatuko datuekin hasiz, amaitutako etxebizitzek izan zuten gorakadarik handiena (libreak eta babestuak). Hain zuzen ere urtetik urterako hazkundea % 20koa izan da. Hirugarren urtez egin zuen gora jarduerak, sektorearen suspertzearen adierazle. Hasitako etxebizitzek ere bilakaera positiboa izan zuten, baina, proportzioan, txikiagoa (% 5,2). Oficemenek¹ emandako datuen arabera, eta zementuaren ageriko kontsumoari dagokionez, barne-eskariak hazten jarraitu zuen (% 5,9) –2018ko hazkundea (% 8) baino txikiagoa izan arren–, eta 14,2 milioi tonara iritsi zen. Bestalde, Seopanek² argitaratutako informazioaren arabera, Estatuko lizitazio ofizialak % 9,1 hazi ziren, administrazio autonomikoen eta administrazio orokorraren eskaria hazi egin zelako. Tokiko administrazioaren kasuan, ordea, behera egin zuten lizitazio ofizialek. Enpleguari dagokionez, gora egin zuen hirugarren urtez (% 4,6), eta 1.277.900 pertsona okupatura iritsi ziren, oraindik ere oso urruti krisiaren aurreko mailatik.

Seopanen ustez, datozen hamar urteetan 157.000 milioi euroko inbertsioa egin beharko litzateke azpiegiturretan, Garapen Jasangarrirako Helburuak betetzeko, eta, horrez gain, egungo osasun-krisiaren ondorengo ekonomia berriro aktibatzeke.

¹ Espainiako zementu-fabrikatzaileen elkarteak.

² Enpresa eraikitzaileen eta azpiegituren lizitatzaileen elkarteak.

102. koadroa Eraikuntza-sektorearen adierazle batzuen bilakaera

Kontzeptua	Euskal Herria		Espainia	
	2018	2019	2018	2019
Enplegua	8,4	1,5	8,3	4,6
Zementuaren ageriko kontsumoa (*)	9,5	6,0	8,0	5,9
Amaitutako etxebizitzak	17,4	10,8	18,9	20,0
Hasitako etxebizitzak	2,1	3,9	63,1	5,2
Lizitazio ofiziala	-12,0	5,1	29,4	9,1

(*): Oficemen-eko Ipar Eremuko (Aragoi, Nafarroa, EAE eta Errioxa) bazkideen zementuaren itxurazko kontsumoari egiten dio erreferentzia.

Iturria: Guk geuk egina, EIN, Seopan eta Oficemen datuetatik abiatuta.

Era berean, zementuaren kontsumoaren hazkundera moteldu egin zen Euskal Herrian (% 9,5 2018an, eta % 6,0 2019an). Enpleguaren bilakaera ere, urte arteko aldakuntza positiboa izan arren (% 1,5), 2018koa (% 8,4ko hazkundera) baino baxuagoa izan zen. Agertoki horretan, aipatzekoa da lizitazio ofizialen joeraren aldaketa, 2019an gora egin baitzuten (% 5,1, eta 2018an -% 12).

103. koadroa Eraikuntzaren Indize Koiunturala (EAE).

Kontzeptua	2017	2018	2019(*)
Okupatutako langileen indizea	1,3	4,5	3,1
Ekoizpen-indizea	5,9	12,6	8,7
Eraikuntza	8,1	13,4	9,2
Obra zibila	-9,2	5,2	5,6

(*): Behin behineko datuak.

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Indize Koiunturala (EIK)(2010eko oinarria).

EAEko Eraikuntzaren Indize Koiunturalaren gaineko informazioari dagokionez, aztertutako adierazle guztiek goranzko joera erakusten dute, aurreko ekitaldian bezala, baina neurri apalagoan. Hala, ekoizpen-indizea % 8,7 hazi zen, eta antzeko joerarekin, eraikuntza-indizea, berriz, % 9,2. Obra Zibilaren bilakaera ere positiboa izan zen, eta aurreko ekitaldiko hazkunde-eritmoaren antzekoa mantendu zuen (% 5,6). Okupatutako langileen indizeak, berriz, gora egin zuen hirugarren urtez; 2019an % 3,1ekoa izan zen.

104. koadroa Administrazio zentralaren, autonomikoaren eta tokikoaren arteko lizitazio ofizialaren banaketa

(M euro)

Eremua	2018				2019			
	Zentrala	Autonomikoa	Tokikoa	Guztira	Zentrala	Autonomikoa	Tokikoa	Guztira
Araba	14,7	70,2	117,7	202,6	106,0	43,5	70,6	220,1
Bizkaia	10,8	91,8	463,4	566,0	213,9	191,8	232,4	638,1
Gipuzkoa	101,0	68,2	260,0	429,2	19,9	167,1	250,6	437,6
EAE	126,5	230,1	841,1	1.197,7	339,8	402,5	553,6	1.295,8
Nafarroa	130,5	135,6	188,1	454,1	5,4	337,7	96,3	439,5
Euskal Herria	256,9	365,7	1.029,2	1.651,8	345,2	740,2	649,9	1.735,3
Espania	5.413,71	4.199,0	7.053,6	16.666,3	6.334,5	5.990,2	5.863,8	18.188,5

Iturria: Seopan.

Azterketarekin jarraituz, eta lizitazio ofizialaren bilakaerari arreta jarrita, 2019an lizitazio ofizialaren bilakaera positiboa izan zen kontuan hartutako eremu geografiko guztietan, Nafarroan izan ezik. Estatuko lizitazio ofizialen bolumena 18.188,5 milioi eurokoa izan zen, aurreko ekitaldian baino % 9,1 handiagoa, baina krisiaren aurreko garaiko balioetatik urrun oraindik ere (2007an, 40.354,8 milioi euroko bolumena). Euskal Herrian 1.735,3 milioi eurokoa izan zen lizitazioen bolumena, aurreko urtean baino % 5,1 handiagoa. Euskal Herriko goranzko joeran Bizkaiak izan zuen eraginik handiena, hark baitu pisurik handiena (638,1 milioi euro, guztizkoaren % 36,8), eta han hazi baitzen gehien inbertsio-jarduera (% 12,7). Arabak izan zuen bigarren hazkunde handiena (% 8,7), eta 220,1 milioi euroko baliora iritsi zen (% 12,7ko partaidetza). Gipuzkoaren hazkundera, berriz, moteldu egin zen (% 2,0), eta 437,6 milioi euroko bolumena eskuratu zuen (% 25,2). Nafarroan baino ez zen jaitsi lizitazio ofizialen bolumena (-% 3,2), eta inbertsioa 439,5 milioi eurokoa izan zen.

Estatuko lizitazio ofiziala sakonago aztertuta, datuek argi erakusten dute hiru administrazio mailetatik bik egindako jauzi kualitatiboa. Tokiko administrazioak baino ez zuen ekitaldia balio negatiboekin itxi (-% 16,9). Hortaz, administrazio zentralaren eta, batez ere, administrazio autonomikoaren inbertsioek gora egin zuten (% 17 eta % 42,7, hurrenez hurren). Hala, lizitazio-erakundeen inbertsioak orekatu egin ziren: administrazio zentralak izan zuen handiena: % 34,8; baina ez zuten alde handirik izan administrazio autonomikoek (% 32,9) eta tokiko administrazioek (% 32,2).

105. koadroa. Lizitazio ofizialaren urtetik urterako aldakuntza eta administrazioen arteko banaketa (2019)

Eremua	%				% Δ 19/18			
	Zentrala	Autonomikoa	Tokikoa	Guztira	Zentrala	Autonomikoa	Tokikoa	Guztira
Araba	48,2	19,8	32,1	100,0	622,6	-38,0	-40,0	8,7
Bizkaia	33,5	30,1	36,4	100,0	1.882,5	109,0	-49,9	12,7
Gipuzkoa	4,5	38,2	57,3	100,0	-80,4	145,2	-3,6	2,0
EAE	26,2	31,1	42,7	100,0	168,6	74,9	-34,2	8,2
Nafarroa	1,2	76,9	21,9	100,0	-95,8	149,1	-48,8	-3,2
Euskal Herria	19,9	42,7	37,5	100,0	34,4	102,4	-36,9	5,1
Espania	34,8	32,9	32,2	100,0	17,0	42,7	-16,9	9,1

Iturria: Seopan.

Euskal Herriaren kasuan, administrazio autonomikoak egin zuen inbertsiorik handiena, aurreko urtean baino % 102,4 handiagoa. Hala, 2018ko ordezkartzaren bikoitza eskuratu zuen (2018an % 22,1eko pisua zuen, eta 2019an % 42,7koa). Era berean, administrazio zentralaren partaidetzak ere gora egin zuen apur bat (% 15,6tik % 19,9ra), haren inbertsioa % 34,4 hazi baitzen. Tokiko administrazioaren inbertsioak, berriz, % 36,9 egin zuen behera, eta haren partaidetza % 37,5era murriztu zen. Datuak lurraldeka aztertuta, tokiko administrazioaren ekarpena murriztu egin zen lurralde guztietan, neurri handiagoan edo txikiagoan. Administrazio autonomikoaren ekarpena, berriz, hazi egin zen lau lurraldeetatik hirutan; Araban baino ez zen murriztu. Bestetik, administrazio zentralaren joera ezberdina izan zen lurraldearen arabera. Araban eta Bizkaian jauzi nabarmena eman zuen kuantitatiboki; Gipuzkoan eta Nafarroan, berriz, murriztu egin zuen ekarpena.

Hala, Gipuzkoan tokiko administrazioak egin zuen inbertsiorik handiena (% 57,3), ondoren administrazio autonomikoak (% 38,2), eta, azkenik, administrazio zentralak (% 4,5). Araban administrazio zentrala kokatu zen lizitatzailen maparen lehen postuan (% 48,2), ondoren tokiko administrazioa (% 32,1), eta, azkenik, administrazio autonomikoa (% 19,8). Bizkaian erakunde lizitatzaille bakoitzak antzeko ekarpena egin zuen, eta bakoitzak heren bat jarri zuen, gutxi gorabehera. Azkenik, Nafarroan administrazio autonomikoa izan zen ekarpena handitu zuen erakunde bakarra eta lizitazioen % 76,9 harenak izan ziren, % 21,9 tokiko administrazioarenak, eta, azkenik, % 1,2 administrazio zentralarenak.

106. koadroa Lizitazio ofiziala obra motaren arabera (2019)

Obra mota	Euskal Herria			Espainia		
	M euro	% Δ 19/18	%	M euro	% Δ 19/18	%
Etxebizitzak	137,0	123,0	7,9	515,5	45,1	2,8
Gizarte-ekipamendua	235,8	9,3	13,6	3.310,0	1,8	18,2
Gainerako etxegintza	286,4	137,9	16,5	3.065,6	57,6	16,9
Etxegintza guztira	659,1	65,8	38,0	6.891,1	24,1	37,9
Garraioak	590,1	-23,8	34,0	6.613,3	0,8	36,4
Urbanizazioak	260,4	6,0	15,0	2.066,2	-21,4	11,4
Hidraulikoak	197,4	2,0	11,4	2.269,2	56,9	12,5
Ingurumena	28,2	-30,5	1,6	348,6	-27,3	1,9
Obra zibila guztira	1.076,1	-14,2	62,0	11.297,3	1,7	62,1
GUZTIRA	1.735,3	5,0	100,0	18.188,5	9,1	100,0


Iturria: Seopan.

Inbertsioen banaketa obra motaren arabera aztertuz gero, Estatuan gora egin zuen obra mota guztietara bideratutako inbertsioak, Urbanizazioekin eta Ingurumenarekin lotutako obren kasuan izan ezik. Obra zibilen azpisektorearekin hasita, lizitazioen % 62,1 obra zibilerara bideratu ziren 2019an, aurreko ekitaldian baino apur bat gehiago (% 1,7). Garraioen partida izan zen ekarpen handiena jaso zuena (% 36,4), aurreko urtean baino hamarren batzuk gehiago (% 0,8). Obra hidraulikoetan egindako inbertsioak gorakada nabarmenagoa izan zuen. Inbertsioaren % 12,5 bideratu zen hidraulikoetara, aurreko ekitaldian baino % 56,9 gehiago. Bestetik, etxegintza-azpisektoreak inbertsioaren zati txikiagoa jaso arren (% 37,9), obra zibilak (% 1,7) baino hazkunde handiagoa izan zuen (% 24,1). Etxegintza-azpisektorea osatzen duten hiru partidak hazi ziren, eta horregatik egin zuen gora. Etxebizitzen eta Gainerako etxegintza-jardueren partidetak inbertsioak igo ziren gehien, % 45,1 eta % 57,6, hurrenez hurren. Gizarte-ekipamenduaren inbertsioaren hazkundera apalagoa izan zen (% 1,8). Aurrekontuen banaketari dagokionez, Gizarte-ekipamenduak jaso zuen zati handiena (% 18,2), apur bat gutxiago Gainerako etxegintzak (% 16,9), eta, azkenik, dezente gutxiago Etxebizitzek (% 2,8).

Euskal Herriko egoera aztertuta, agertokia Estatukoaren oso ezberdina dela ikus daiteke. Inbertsioak, orokorrean, gora egin bazuen ere, Ingurumenarekin eta Garraioarekin lotutako azpiegituren inbertsioek behera egin zuten 2019ko ekitaldian. Ingurumen-azpiegiturarekin lotutako inbertsioak du partaidetzarik txikiena (% 1,6), eta hark izan zuen jaitsierarik handiena (-% 30,5). Garraioen azpiegituren inbertsioak, berriz, partaidetzarik handiena du (% 34), eta antzeko bilakaera izan zuen (-% 23,8). Obra zibilaren azpisektorearekin amaitzeko, Urbanizazioen partidak, % 15eko partaidetzarekin, eta Obra hidraulikoen partidak, % 11,4ko partaidetzarekin, gora egin zuten (% 6 eta % 2, hurrenez hurren). Hala, Obra zibilen azpisektoreak 1.076,1 milioi euroko inbertsioa jaso zuen, 2018ko ekitaldian baino bolumen txikiagoa (-% 14,2). Bestetik, Etxegintza-azpisektoreak 659,1 milioi euroko inbertsioa jaso zuen 2019an, aurreko ekitaldian baino % 65,8 gehiago, azpisektorea osatzen duten hiru partidek egin baitzuten gora. Zehazki, Gizarte-ekipamenduak, % 13,6ko pisuarekin, Etxebizitzek, % 7,9ko partaidetzarekin, eta Gainerako etxegintzak,

guztizko inbertsioaren % 16,5ekin, % 9,3ko, % 123ko eta % 137,9ko hazkundeak izan zituzten, hurrenez hurren.

14. grafikoa Lizitazio ofiziala



Iturria: Seopan

107. koadroa Hasitako eta amaitutako etxebizitzak*

(etxebizitza kopurua)

Eremua	Kontzeptua	Hasitako etxebizitzak			Amaitutako etxebizitzak		
		2017	2018	2019	2017	2018	2019
Araba	Babestuak	290	307	462	1	40	121
	Libreak	466	508	352	204	396	444
Bizkaia	Babestuak	829	1.011	980	236	665	1.106
	Libreak	1.033	2.567	2.772	1.089	1.621	1.373
Gipuzkoa	Babestuak	225	489	710	120	154	117
	Libreak	1.421	1.542	1.202	2.087	1.545	1.592
EAE	Babestuak	1.344	1.807	2.152	357	859	1.344
	Libreak	2.920	4.617	4.326	3.380	3.562	3.409
Nafarroa	Babestuak	854	366	219	227	490	327
	Libreak	1.766	2.170	2.683	1.065	994	1.465
Euskal Herria	Babestuak	2.198	2.173	2.371	584	1.349	1.671
	Libreak	4.686	6.787	7.009	4.445	4.556	4.874
Espainia	Babestuak	7.271	11.903	12.312	4.938	5.191	6.615
	Libreak	74.004	91.303	96.251	49.336	59.931	71.562

(*): Behin behineko datuak.

Iturria: Sustapen Ministerioa. Espainiako Gobernuak. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritzak. Sustapen eta Etxebizitza Saila. Nafarroako Gobernuak. EIN.

Etxebizitzen eraikuntza-jarduera aztertuz gero, datuek agerian uzten dute egoera ezberdina dela eremu geografikoaren arabera. Dena den, Euskal Herrian zein Estatuan balio positiboekin amaitu zuten ekitaldia hasitako etxebizitzen zein amaitutako etxebizitzen jarduerak. Zehazki, hasitako etxebizitzetara dagokienez, 2019an 108.563 etxebizitza eraikitzen hasi ziren Estatuan (% 88,7 libreak eta % 11,3 babestuak), hau da, aurreko urtean baino % 5,2 gehiago. Euskal Herrian 9.380 etxebizitza eraikitzen hasi ziren (% 74,7 libreak eta % 25,3 babestuak), 2018an baino % 4,7 gehiago. Euskal Herriko informazioa lurraldeen arabera banatuz gero, joera ezberdinak ikus daitezke. Gipuzkoan izan zituzten daturik okerrenak. Hasitako etxebizitzen parkea % 5,9 murriztu zen, etxebizitza libreen beherakadak eraginda (-% 22,2); hasitako etxebizitzen % 62,9 dira libreak. Araban kontrakoa gertatu zen. Etxebizitza babestuek dute partaidetzarik handiena (% 56,8), eta haiek izan zuten bilakaerarik onena (% 50,5, eta libreak -% 30,7). Ondorioz, guztizkoaren bilakaera gelditu egin zen (-% 0,1). Bizkaian, bestalde, hasitako etxebizitzen bolumena hazi egin zen (% 4,9). Izan ere, pisu handieneko kategoriak, etxebizitza libreenak (% 73,9), gora egin zuen (% 8). Bestalde, nabarmentzekoa da Nafarroaren dinamikotasuna (% 14,4). Etxebizitza libreen bilakaerak (% 23,6, eta % 92,5eko partaidetza) eragin zuen gorakada hori, babes ofizialeko etxebizitzen beherakada (-% 40,2) konpentsatu baitzuen.

Amaitutako etxebizitzetara dagokienez, hazkundeak nagusitu ziren. Estatuan, 6.615 babestutako etxebizitza eta 71.562 etxebizitza libre amaitu zituzten, aurreko urtean baino % 27,4 eta % 19,4 gehiago, hurrenez hurren. Euskal Herrian ere goranzko joera nagusitu zen, baina modu apalagoan. Batetik, etxebizitza babestuek, % 25,5eko pisuarekin, % 23,9ko hazkundera izan zuten. Bestetik, etxebizitza libreak, partaidetza askoz

handiagoarekin (% 74,5), % 7 hazi ziren. Datuak lurraldeka aztertuta, Bizkaian etxebizitza mota bakoitzaren pisua nahiko uniforme da. 2019an amaitutako etxebizitzek % 8,4 egin zuten gora, babestutako etxebizitzaren bilakaera onaren ondorioz, % 44,6ko partaidetza izanik % 66,3 hazi baitzen haien bolumena (etxebizitza libreek -% 15,3 egin zuten behera). Gipuzkoan, amaitutako 10 etxebizitzatatik 9 pribatuak dira. Amaitutako etxebizitzaren parkea ez zen asko aldatu aurreko ekitalditik (% 0,6). Izan ere, pisu handieneko kategoriak, etxebizitza libreenak, igoera apal bat izan zuen (% 3), eta babes ofizialeko etxeek, partaidetza txikiena dutenek, behera egin zuten (-% 24). Arabak izan zuen bilakaerarik onena (% 29,6). Amaitutako etxebizitza libreek, % 78,6ko partaidetzarekin, % 12,1eko hazkundea izan zuten. Babes ofizialeko etxebizitzek, berriz, igoera esponentziala izan zuten, % 202,5ekoa. Azkenik, Nafarroaren kasuan, etxebizitza libreek gora egin zuten (% 47,4, eta % 81,8ko pisu espezifikoa). Babes ofizialeko etxebizitzek, berriz, behera egin zuten (-% 33,3). Bi kategoriak kontuan hartuta, amaitutako etxebizitzek % 20,8ko hazkundearekin amaitu zuten ekitaldia.

15. grafikoa Amaitutako etxebizitza kopurua



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Antolamendu eta Etxebizitza Departamendua. Nafarroako Gobernua. EIN.

108. koadroa Birgaitze babestuaren arloko lanak EAEn*

Urtea	Birgaitutako etxebizitza kopurua	Emandako diru-laguntzak (eurotan)
2018	8.131	18.004.471
2019	8.920	19.733.330
% Δ 19/18	9,7	9,6

(*): Diru-laguntza jaso duten etxebizitzaren eta birgaitutako lokalen kopurua. Behin behineko datuak.

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritzaren.

Azterketarekin jarraituz, eta EAEn birgaitze-jardueraren bilakaerari dagokionez, kontuan izandako bi adierazle balioket % 9,7 inguruko hazkundea izan zuten. Hala, 2019an 8.920 etxebizitza birgaitu zituzten, eta ia 20 milioi euroko inbertsioa egin zuten emandako diru-laguntzetan.

109. koadroa Eraikuntzan lanean ari den biztanleria

Eremua	(m pertsona)			
	2017	2018	2019	% Δ 19/18
Araba	5,2	6,9	6,7	-2,9
Bizkaia	27,1	25,0	30,6	22,4
Gipuzkoa	15,7	18,4	15,6	-15,2
EAE	48,0	50,3	52,9	5,2
Nafarroa	14,9	17,8	16,2	-9,0
Euskal Herria	62,9	68,1	69,1	1,5
Espainia	1.128,3	1.221,8	1.277,9	4,6

Iturria: EIN Biztanleria Aktiboaren Inkesta (2011ko oinarria).

Azkenik, atala honekin amaitzeko, eta biztanleria okupatuari dagokionez, bilakaera ezberdinak antzeman daitezke lurraldearen arabera. Bizkaiarekin hasita, 2019an nabarmen hazi zen eraikuntza-sektoreko okupazioa (% 22,4), eta 30,6 mila langile izatera iritsi ziren. Gipuzkoan 15,6 mila pertsonak osatu zuten biztanleria okupatua, aurreko urtean baino % 15,2 gutxiagok. Nafarroan ere beherakada izan zuten (-% 9), eta 16,2 mila langile izan zituzten eraikuntza-sektorean. Araban ere behera egin zuen eraikuntza-sektoreko langile kopuruak, baina modu apalagoan (-% 2,9), eta 6,7 mila langile izan zituzten. Gauzak hala, Euskal Herrian 69,1 mila langile zeuden, 2018an baino % 1,5 gehiago. Estatuan, berriz, sektoreko okupazio-tasa % 4,6 hazi zen, eta 1.277,9 mila langile izatera iritsi ziren. Dena den, guztizko biztanleria okupatuaren gainean sektoreko enpleguak duen pisua oso urrun dago krisiaren aurreko balioetatik.

Hau esanda, eta eskura ditugun azken datuak ikusita (2020ko ekainekoak), urte zaila datorkio sektoreari, Covid-19ak jardura geldiarazi baitu. Ondorioz, urteko ekoizpena % 15 inguru jaitsiko dela espero dute. Dena den, eta pandemiak gehien kaltetutako sektoreetako bat izan arren, ekainerako antzeman zitekeen sektoreko enpleguaren suspertzea, eta ABEEan zeuden langileak ere murriztu egin ziren. Hala, 2020 egin gabeko obrak 2021ean egitea espero da, eta jarduerak hazten jarraitzea.

16. grafikoa Eraikuntzan lanean ari den biztanleria



Iturria: EIN Biztanleria Aktiboaren Inkesta (2011ko oinarria).

11. SEKTOREEN ANALISI EKONOMIKOA ETA FINANTZARIOA

11.1 SARRERA

Kapitulu honetan Euskal Herriko industria-sektoreak aztertuko ditugu, analisi finantzariorako erabili ohi diren bi tresnaren bidez: ratio bidezko analisia eta funtsen iturrien eta erabileren egoera. Horretarako, sektore bakoitzeko kontabilitate-egoerari buruzko informazioa –balantzeak eta emaitzen kontuak– bildu dugu.

Sarreraz gain, kapitulu honek hiru atal nagusi ditu. Lehenengo atala metodologikoa da. Oinarri gisa erabilitako informazioa zehazten du, eta analisirako bi tresnak aplikatzeko erabilitako irizpideak azaltzen ditu. Bigarren atalean, ratioen piramidearen aplikazioa azaltzen da, eta, hirugarrenean, funtsen iturrien eta erabileren egoera. Hala, Euskal Herriko industria-sektoreen azterketa ekonomiko-finantzariora egingo dugu; sektoreen arteko alderaketa egingo dugu, baita Estatuko egoerarekiko alderaketa ere. Horretarako, piramideko ratio nagusiak eta batez besteko inbertsio-diruzaintzak (cash-flow libreak) hartuko ditugu kontuan. Dena den, sektore bakoitzaren ratioen piramideak eta funtsen iturrien eta erabileren egoerak ere gehituko ditugu, bai Euskal Herrikoak, bai Estatu osokoak.

11.2 METODOLOGIA

Datu-bankua

Piramidea egiteko, kontabilitate-egoerari buruzko oinarrizko datuak behar dira: aztertu beharreko sektore bakoitzaren balantzeak eta emaitzen kontuak. Horretarako, Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentralak galdetegi bidez jasotako informazioa hartu dugu oinarritzat, tratatu beharreko informazioa homogenea izan zedin. Galdetegi horiek enpresa kolaboratzaileek erantzun dituzte, bai Euskal Herrikoek (eskaera zehatza egin zaie egoitza soziala EAEn edo Nafarroan duten enpresei), bai Estatu osokoek (Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentralak egindako urteroko txostenetako informazioa erabili dugu).

Kontuan izan behar da Balantzeen Zentralaren azken informazio-basea t-2 urtekoa dela (gainera, datu-base bakoitzak dagokion urteko eta aurreko urteko informazioa izaten du). Ondorioz, oinarritzat hartu dugun informazioak urtebeteko atzerapena du txosten honi dagokion urtearekiko. Zehazki, txosten hau egiteko erabilgarri dagoen azken basea 2018koa da, eta 2017ari eta 2018ari dagokien informazioa eskaintzen du.

Industria-jardueraren sektorekako banaketari dagokionez, Balantzeen Zentralaren CB-52 sailkapen berria erabili dugu industria-sektoreen informazio-eskaera egiteko. Sailkapen

hori, bestalde, 2009ko Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionala (EJSN-2009) kontuan hartuta eguneratu dute. Sailkapen horrek honako sektore hauek bereizten ditu (19 sektore):

- Elikagaien, edarien eta tabakoaren industriak
- Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza
- Zuraren eta kortxoaren industria, altzariak, saskigintza eta espartzugintza izan ezik
- Papergintza
- Arte grafikoak eta euskarri grabatuen erreprodukzioa
- Koke-fabrikak eta petrolio-finketa
- Industria kimikoa
- Farmazia-produktuen fabrikazioa
- Kautxuzko produktuen eta plastikoen fabrikazioa
- Produktu mineral ez-metalikoen fabrikazioa
- Metalurgia; burdinazko eta altzairuzko produktuen eta ferroaleazioen fabrikazioa
- Produktu metalikoen fabrikazioa, makineriarena eta ekipoena izan ezik
- Produktu informatikoen, elektronikoen eta optikoen fabrikazioa
- Material eta ekipo elektrikoen fabrikazioa
- Beste ezein lekutan sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa
- Ibilgailu motordunen, atoiaren eta erdi-atoiaren fabrikazioa
- Bestelako garraio-materialen fabrikazioa
- Altzarien fabrikazioa eta beste manufaktura-industria batzuk
- Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa

Euskal Herriari dagokionez, 2018ko datu-basean aipatutako 19 sektore horietatik 13 sektoreen inguruko informazioa dago eskuragarri. Honako sektoreen inguruko informazioa ez dago eskuragarri: ehungintza, jantzigintza eta larrugintza; zuraren eta kortxoaren industria, altzariak, saskigintza eta espartzugintza izan ezik; arte grafikoak eta euskarri grabatuen erreprodukzioa; koke-fabrikak eta petrolio-finketa; farmazia-produktuen fabrikazioa; eta produktu informatikoen, elektronikoen eta optikoen fabrikazioa. Sektore horietan 5 enpresa kolaboratzaile baino gutxiago daudenez, datuak ez daude eskuragarri estatistika-sekretua dela-eta. 2017ko datu-baseak 14 sektoretako informazioa eskaintzen zuen (produktu informatikoen, elektronikoen eta optikoen fabrikazioa ere bai). Hala, dagokion urtean eskuragarri dauden sektoreak batuta kalkulatu da industria-sektore osoaren guztizkoa (bai Euskal Herrian, bai Estatuan).

Azkenik, kontuan izan behar da enpresek beren borondatez ematen dituztela sektore bakoitzaren azterketa egiteko erabiltzen diren datuak. Hori dela eta, ezerk ez du

bermatzen datu-baseak denboran zehar irautea, ezta egindako azterketak sektorean inferentziaren bat egiteko balio estatistikoa duenik ere.

Ratioen piramidea¹

Abiapuntuko datuak: balantzeta eta emaitzen kontua

Piramidea egiteko abiapuntuko informazio gisa, oinarrizko kontabilitate-egoerak erabili ditugu: emaitzen kontua eta balantzeta. Informazio hori oso modu sinplean azaldu dugu. Izan ere, aztertutako sektoreen inguruko ikuspegi orokorra eskaintzea da helburua. Azterketa sakonagoa egin ahal izateko eta ondorio sakonagoa ateratzeko, gehiago xehatutako informazioa behar da, eta edukietan aberatsagoa.

Emaitzen kontuari dagokionez, honako taula honetan ageri den egitura erabiliko dugu:

+ Ustiapeneko ohiko diru-sarrerak	V
- Kostu aldakor operatiboak, ordainketarekin	CV
- Kostu finko operatiboak, ordainketarekin	CF
- Amortizazioak (eta, oro har, ordainketarik gabeko kostu operatiboak)	AM
- Interesak	I
± Ezohiko emaitzak	RE
- Sozietateen gaineko zerga	IS
= Mozkin garbia	BN

Balantzearen pasiboari dagokionez, kostu esplizitua duten kanpoko funtsak eta ondare garbia bereiziko ditugu (2007 KPO kontabilitate-plan berriaren arabera). Aktiboari dagokionez, berriz, aktibo finkoa (aktibo ez-korrontea) eta aktibo zirkulatzaille garbia (aktibo korronte garbia) hartuko ditugu kontuan. Aktibo zirkulatzaille garbia kalkulatzeko, aktibo zirkulatzailleari kentzen zaizkio berezko pasiboak (negozioaren jardunak berak sortutako pasiboak, hala nola administrazioarekin amortizatzeko geratzen diren saldoak) eta kostu inplizitua duten pasiboak (hala nola hornitzaileekin amortizatzeko geratzen diren saldoak; saldo horien kostua ordainketa bizkorragatik deskontu gisa kalkula liteke finantzaketari uko eginez gero). Honako taula honetan ikus daiteke hori guztia:

AKTIBO ZIRKULATZAILE GARBIA	EPE LABURREKO KANPOKO FUNTSAK KOSTU ESPLIZITUAREKIN
	EPE LUZEKO KANPOKO FUNTSAK
AKTIBO FINKOA	ONDARE GARBIA

¹ Gómez-Bezares, F., J. A. Madariaga eta Javier Santibáñez (1999): "Algunas reflexiones y novedades acerca de la pirámide de ratios", *Boletín de Estudios Económicos*, 167.zenbakia, 1999ko abuztua; 329-359 orrialdeak.

Proposatutako ratioen piramidea aurkeztu aurretik, kontzeptu interesgarri batzuk azalduko ditugu.

Leverage operatiboa

Mozkin operatiboaren (finantza-kostuak eta zergak kontuan hartu gabe) eta "saldutako euro bakoitzeko marjina gordinaren" arteko erlazioa jasotzen du. Erabiliko den formulaziora iristeko, nomenklatura gehigarri batzuk behar dira:

MB = Marjina gordina. Ohiko diru-sarreraren eta kostu aldakorren arteko diferentzia (amortizazioa kostu finkotzat hartuko dugu):

$$MB = V - CV$$

MBP = Saldutako euro bakoitzeko marjina gordina. Marjina gordinaren eta salmenten zifraren arteko zatidura. Saldutako euro bakoitzak uzten duen marjina adierazten du, kostu aldakorrak soilik ordaindu ondoren:

$$MBP = \frac{MB}{V}$$

BAll = Interesen eta zergen aurreko mozkinak. Ohiko diru-sarreraren eta kostu operatiboaren (aldakorrak eta finkoak, ordainketarekin eta ordainketarik gabe) diferentzia konparatzearen emaitza da:

$$BAll = V - CV - CF - AM = MB - (CF + AM)$$

VPM = Itopuntuko salmentak. Kostu operatiboak (aldakorrak eta finkoak, ordainketarekin eta ordainketarik gabe) estaltzeko beharrezkoa den salmenta-zifra da, eta bat dator BAll = 0 egiten duen salmenta kantitatearekin. Kostu aldakorrak salmentetikiko linealak direla pentsatuz gero (MBP salmenta-mailarekiko independentea izanik), honako hau dugu:

$$BAll = 0 = MB - (CF + AM)$$

$$MB = (CF + AM)$$

$$\frac{MB}{V} \cdot V = MBP \cdot V = (CF + AM)$$

$$V = VPM = \frac{CF + AM}{MBP}$$

Eta, era horretan, leverage operatiboaren formulaziora iritsiko ginateke:

$$BAll = MB - (CF + AM) = \frac{MB}{V} \cdot V - MBP \cdot VPM = MBP \cdot V - MBP \cdot VPM$$

$$BAll = MBP \cdot (V - VPM)$$

Hortaz, saldutako euro bakoitzeko marjina gordina handitzea lortzen bada (kostu finkoak konstante mantenduz), interesen eta zergen aurreko mozkina handitzea lortzen da (apalankamendu-efektua).

Leverage finantzarioa

Funts Propioetan inbertitutako euro bakoitzeko errentagarritasunaren, aktiboaren errendimenduaren, kanpoko funtsen kostuaren eta zorpetzearen arteko erlazioa neurtzen du. Formulazio matematikoa lortzeko, kontzeptu batzuk definitu behar dira:

$t =$ Zerga-tasa

$BAIdI =$ Interesen aurreko eta zergen ondorengo mozkina.

$$BAIdI = BAII \cdot (1 - t) = (V - CV - CF - AM) \cdot (1 - t)$$

Bestalde, ekitaldian ezohiko emaitzarik ez dagoela aintzat hartuta¹, $BAIdI$ -i zergen interes garbiak kenduz lortzen da mozkin garbia:

$$BN = BAIdI - I \cdot (1 - t)$$

Jarraian, leverage finantzarioaren formulazioan agertuko diren hiru ratio definituko ditugu:

$r =$ Errendimendu operatiboa. Aktiboan inbertitutako euro bakoitzeko lortutako errentagarritasun garbia da, berau nola finantzatzen den kontuan hartu gabe. Kontuan hartu behar da aktiboaren zenbatekoa bat datorrela aktibo zirkulatzaileraren eta aktibo finkoaren baturarekin:

$$r = \frac{BAIdI}{ACN + AF}$$

$i =$ Kanpoko finantzaketaren kostu garbia, kostu esplizituarekin. Kanpoko funtsen hornitzaileek eskatutako errendimendua da, dagozkion interesen ordainketak sozietateen gaineko zergan eragiten duen zerga-aurrezkoa kenduta:

$$i = \frac{I(1-t)}{FACP + FALP} = \frac{I(1-t)}{FA} \quad ^2$$

¹ Aurrerago jorratuko dugu ezohiko emaitzek sorrarazten duten arazoa.

² FA izena erabiliko dugu FACP eta FALPen batura laburtzeko. Nolanahi ere, gogoratu FACPk kostu esplizitudun epe laburreko kanpoko funtsei egiten diela erreferentzia, eta ez epe laburreko kanpoko funts guztiei.

$e =$ Ondare garbian inbertitutako euro bakoitzeko lortutako errendimendu ekonomikoa.


$$e = \frac{BN}{PN}$$

Aurrekoa abiapuntutzat hartuta, leverage finantzarioaren formulazioa osa daiteke. Hona hemen adierazpena:

$$e = r + (r - i) \frac{FACP + FALP}{PN} = r + (r - i) \frac{FA}{PN}$$

$e =$ Errendimendu operatiboa + Leverage finantzarioa

Ondorengo taulan, sektore bakoitzerako aplikazio praktikoan erabiliko dugun ratioen oinarritzko piramidea ikus daiteke.



Goi-erpinen, ondare garbian inbertitutako euro bakoitzeko errentagarritasuna ageri da, eta aktiboaren errendimenduaren eta leverage finantzarioaren batura gisa deskonposatuta dago. Ondoren, batugai horiek nola osatzen diren azaltzen du adar bakoitzak. Ikus daitekeenez, aktiboa eta pasiboa, hots, inbertsioa eta finantzaketa bereizten ditu piramideak. Azken batean, "r" ratioak aktiboaren errendimendua neurtzen du, finantzatzeko modua edo finantza-egitura kontuan hartu gabe. Eskuineko adarrak, berriz, leverage finantzarioaren bidez finantzaketak ondare garbian inbertitutako euro bakoitzeko errendimenduari egiten dion ekarpena kalkulatu du.


Beste kontu bat ere aipatu beharra dago: piramidearen analisis ezohiko emaitzak nola tratatuko ditugun. Normalean, emaitza horiek errepikatzen diren ala ez aztertzen da enpresetan aplikatutako analisis. Emaitzak errepikakorrek eta, beraz, aurreikusteko

modukoak badira, piramidearen “r” mailan txerta daitezke, aktiboaren errendimendu bakarra kalkulatuta edo bi kalkulatuta: ohiko errendimendua eta ezohiko errendimendua.

Dena den, emaitzak errepikakorrak diren ala ez zehazteko ezintasunaren aurrean, sektorekako azterketa egiteko garaian, atal honen amaieran jasotako irudian agertzen den soluzioa erabiliko dugu sektore bakoitzerako. Hau da, “e” mailan txertatuko ditugu, eta ondare garbian inbertitutako euro bakoitzeko hiru errentagarritasun mota bereiziko ditugu: ohikoa –e1–, berezko ezohikoa –e2– eta zerga-eraginari lotutako ezohikoa –e3–. Arrazoi sendo bat dugu azken adar hori erabiltzeko: zerga sektorialen (T) zifren agregatuak e1 ratioa distortsiona dezake. Sektorearen berezko negozioari lotutako errentagarritasuna jasotzen du e1 ratioak. Horregatik, % 28,5eko batez besteko zerga-tasa komuna ezarri diegu sektore guztiei, eta tasa horrekiko diferentziak e3 adarrera eraman ditugu.

Kapituluaeren amaieran, aztertutako industria-sektore guztietako ratioen piramideak erantsi ditugu, Euskal Herrikoak zein Estatu osokoak, 2017. eta 2018. urteei dagozkienak. Dena den, eraginkortasun-arrazoiak direla-eta, piramideko ratioerik garrantzitsuenak baino ez ditugu aukeratu hurrengo atalean azalduko dugun ekonomia- eta finantza-azterketa sektoriala egiteko.

Zehazki, ondare garbiaren errentagarritasun-ratioak (e) hautatu ditugu Euskal Herriko industria-sektoreen analisirako, ohikoak (e1) zein ezohikoak (e2 eta e3). Ondoren, ondare garbiaren ohiko errentagarritasunaren osagaien azterketa xehea egin dugu, hau da, aktibo garbiaren errentagarritasunarena (r, eta haren osagaiak: $BAIdI/V$ eta $V/(AF+ACN)$) eta leverage finantzarioarena $((r-i) \times (FA/PN))$ eta haren osagaiena: (r-i) eta FA/PN). Azkenik, Euskal Herriko eta Estatuako industria-sektoreen arteko alderaketa egiteko, ondare garbiaren ohiko errentagarritasuna (e1) eta horren osagaiak hartu ditugu kontuan: aktibo garbiaren errentagarritasuna (r) eta leverage finantzarioa $((r-i) \times (FA/PN))$.



Funtsen iturrien era erabileren egoera¹

Analisirako bigarren tresna alderdi finantzarioan oinarritzen da. Hau da, funtsen kutxa edo fluxuak hartzen ditu kontuan, ratioen piramideak ez bezala. Ratioen piramideak mozkiean oinarritutako azterketa ekonomikoa egiten du. Ondorengo taulan, funtsen iturri eta erabileren egoeraren aurkezpen orokorra ageri da. Ikus daitekeenez, funtsen iturri eta erabileren egoera hiru kontzepturen kalkuluan oinarrituta dago:

- TINV: t urteko Inbertsio Diruzaintza, sektoreko aktiboak liberatzen duen euro kopuruarekin bat datorrena –haren premiei erantzun ondoren, eta nola finantzatzen den kontuan hartu gabe-. “Free cash-flow” izen anglosaxoiaz ezagunagoa da. Erraz kalkulatu da: ohiko eragiketetan (GFO) sortutako euroei ezohiko eragiketetan (GFE) sortutakoak gehitu behar zaizkie, eta, ondoren, aktibo zirkulatzale garbian eta ibilgetuan egindako inbertsioak kendu.
- TFA: t urteko Kanpoko Funtsen Diruzaintza, sektorearen eta kanpoko funtsen hornitzaileen arteko erlazioaren ondorioz sortzen diren funtsen sarrera eta irteeren arteko diferentzia adierazten duena.
- TPN: t urteko Ondare Garbiaren Diruzaintza; aurrekoaren kontzeptu berdina da, baina ondare garbiari aplikatua.

Hiru kontzeptuen baturak –urte jakin baterako– zero izan behar du. Azken batean, aktiboak euroak liberatzen baditu (TINV>0), kanpoko funtsen eta/edo ondare garbiaren hornitzaileek eraman dutelako da. Aktiboak bere kabuz bere premiei erantzuterik izan ez badu, kanpoko funtsen eta/edo ondare garbiaren hornitzaileek dagokien diru kopurua jarri beharko dute. Laburtuz, balioa zero izateak finantza-egoera orekatua dela esan nahi du, baina inola ere ez du esan nahi sektorea osasuntsu dagoenik.

Jarduera-sektoreetarako proposatutako eskema orokorra aplikatzeko garaian, kontuan hartu behar da ratioen piramidean zerga agregatuen zifrak nola tratatu diren. Hala, % 28,5eko tasa orokorra ezarriko dugu, eta jasandakoarekiko diferentziak aldi horretan izandako funtsen ezohiko sorkuntzara (GFE) eramango ditugu. Aipatzekoa da, halaber, TPNa diferentziaren bidez kalkulatu dela, abiapuntuko informazioak ez baitu aukerarik ematen beste era batera egiteko.

¹ Gómez-Bezares, F., J. A. Madariaga eta Javier Santibáñez (2002): “El estado de fuentes y empleos de fondos: una herramienta imprescindible en el análisis financiero”, *Harvard – Deusto Finanzas & Contabilidad*, 49. zk., iraila-urria, 2002: 18-28 or.

	+ V _t	Ohiko salmentak
	- C _t	Kostu operatiboak, ordainketarekin
	- AM _t	Amortizazioa
	= BAII _t	Interesen eta zergen aurreko mozkina
	* (1-t)	Zerga-eragina (t = zerga-tasa = 0,285)
	= BAIdI _t	Interesen aurreko eta zergen ondorengo mozkina
	+ AM _t	Amortizazioa
	- IF _t	Alegiazko diru-sarrerak (ustiapenen + ibilget. lanen dirulaguntzak)
	+ GFO _t	Funts operatiboak sortzea
	+ RE _t	Ezohiko emaitzak
	* (1-t)	Zerga-eragina (t = 0,285)
	= REdI _t	Ezohiko emaitzak, zergen ondoren
	+ EF _t	Zerga-ondorioa: (0,285 - t efektiboa) * Zergen aurreko mozkina
	+ GFE _t	Ezohiko funtsak sortzea
	+ ACN _{t-1}	Hasierako aktibo zirkulatzaile garbia
	- ACN _t	Amaierako aktibo zirkulatzaile garbia
	- ΔACN _t	Aktibo zirkulatzaile garbia areagotzea
	- INV _t	Aktibo finkoan inbertitzea (ΔAF garbia +AM - Ibilget. lanak)
+ TINV _t		Diruzaintzaren fluxua, inbertsio-erabakiak
	+ EFA _t - AFA _t	Jaulkipena den kanpoko funtsen amortizazioa, kostuarekin
	+ I _t	Kanpoko funtsen interesak
	* (1-t)	Zerga-eragina (t = 0,285)
	- (1-t) * I _t	Funtsak kentzea, interesengatik
+ TFA _t		Diruzaintzaren fluxua, finantzaketa-erabakiak kanpoko funtsekin
+ TPN _t		Diruzaintzaren fluxua, finantzaketa-erabakiak ondare garbiarekin (ΔPN -BN + ustiap. dirulaguntzak)
= 0		= 0

Bestalde, aurrez aipatu dugun moduan, sektore baten inguruko informazioa ematen duen enpresen laginak ez du zertan denboran zehar berbera izan. Hortaz, urte ezberdinetarako multzo homogeen bat eratze aldera, sektore bakoitzeko funtsen iturrien era erabileren batez besteko egoera azalduko dugu. Batezbestekoa kalkulatzeko, kontzeptu bakoitzaren eta lagina osatzen duten enpresa kopuruaren arteko zatiketa egin dugu.

Kasu honetan ere, kapituluaren amaieran, aztertutako industria-sektore guztietako funtsen iturrien era erabileren egoerak erantsi ditugu, Euskal Herrikoak zein Estatu osokoak, 2017. eta 2018. urteei dagozkienak. Dena den, funtsen iturrien eta erabileren egoeraren analisi sektorialari eskainitako azken atalean, eraginkortasun-arrazoiengatik, baliorik esanguratsuenak baino ez ditugu kontuan hartu: TINV, TFA eta TPN.

110. koadroa Espainiako Bankuko Balantzeen Zentraleko enpresa laguntzaileen kopurua

SEKTOREA	Euskal Herria	Estatua
	2018	2018
Nekazaritzako elikagaiak	27	473
Papera	6	66
Kimika	10	157
Kautxua eta plastikoa	15	119
Mineral ez-metalikoak	8	109
Metalurgia	25	93
Produktu metalikoak	34	243
Material eta ekipa elektrikoa	11	57
Makineria eta ekipoa	28	176
Ibilgailu motordunak	14	105
Beste garraio-material batzuk	6	34
Altzariak eta beste manufaktura batzuk	6	97
Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa	6	72
Industria, guztira	196	1.801

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentralea Geuk egina.

11.3 RATIOEN PIRAMIDEA

2018ko ekitaldiaren inguruan eskuragarri dauden datuen arabera, eta ondare garbiaren errentagarritasunari (e) dagokionez, Euskal Herriko industria-sektoreen artean ezberdintasun esanguratsuak daude:

- 2018an honako sektore hauek izan zuten ondare garbiaren errentagarritasunik handiena: Kautxua eta plastikoa (% 15,1), Kimika (% 12,2) eta Papera (% 12,0).
- Industria-sektore osoaren batez besteko ondare garbiaren errentagarritasuna % 5,4koa izan zen. Honako sektoreak batezbestekoaren gaineratik kokatu ziren, baina, modu apalagoan: Makineria eta ekipamendua (% 9,7), Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (% 7,4), Produktu metalikoak (% 7,1), Metalurgia (% 6,9) eta Ibilgailu motordunak (% 6,8).
- Gainerako sektoreen ondare garbiaren errentagarritasuna batezbestekoa baino baxuagoa izan zen: Beste garraio-material batzuk (% 4,3), Nekazaritzako elikagaiak (% 3,4), Altzariak eta beste manufaktura batzuk (-% 0,7), eta, bereziki, Mineral ez-metalikoak (-% 2,4) eta Material eta ekipa elektrikoa (-% 4,3).

Ondare garbiaren errentagarritasun horren analisia eginez gero, ohikoa (e1), berezko ezohikoa (e2) eta zerga-eraginari lotutako ezohikoa (e3) berezita, 2018 ekitaldiko honako alderdi hauek azpimarra daitezke:

- Orokorrean, eta esperotako moduan, ondare garbiaren errentagarritasuna, batez ere, ohiko errentagarritasunean (e1) oinarritzen da. Ezohikoek (e2 eta e3), berriz, osagarri gisa jokatzeko dute.

- Honako sektore hauek balio negatiboak izan dituzte ondare garbiaren berezko ezohiko errentagarritasunean (e2): Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (-% 13,8), Mineral ez-metalikoak (-% 6,2), Material eta ekipo elektrikoa (-% 4,0), Beste garraio-material batzuk (-% 2,3), Nekazaritzako elikagaiak (-% 1,7), Produktu metalikoak (-% 1,5), Ibilgailu motordunak (-% 1,4), Makineria eta ekipamendua (-% 1,3) eta Kautxua eta plastikoa (-% 0,6). Beste sektore batzuek, ordea, balio positiboak izan dituzte, eta industria-sektorearen batezbestekoaren (-% 1,8) gainetik kokatu dira: Metalurgia (% 0,3), Kimika (% 0,2), Papera (% 0,0) eta Altzariak eta beste manufaktura batzuk (% 0,0).
- Bestalde, zerga-eraginari lotutako ezohiko ondare garbiaren errentagarritasunari dagokionez (e3), sektore batzuek batez besteko balioa (% 0,5) baino altuagoak lortu dituzte: Kautxua eta plastikoa (% 4,0), Makineria eta ekipamendua (% 2,1) eta Papera (% 1,5).

111. koadroa Ondare garbiaren errentagarritasuna Euskal Herriko industria-sektoreetan

SEKTOREA	e (%)		e1 (%)		e2 (%)		e3 (%)	
	2017	2018	2017	2018	2017	2018	2017	2018
Nekazaritzako elikagaiak	2,8	3,4	6,8	4,9	-1,2	-1,7	-2,7	0,2
Papera	11,0	12,0	9,7	10,5	0,1	0,0	1,2	1,5
Kimika	13,3	12,2	9,8	11,4	0,0	0,2	3,5	0,5
Kautxua eta plastikoa	13,9	15,1	10,3	11,6	-0,4	-0,6	4,0	4,0
Mineral ez-metalikoak	-5,1	-2,4	3,8	4,7	-7,5	-6,2	-1,5	-0,8
Metalurgia	8,8	6,9	7,2	7,1	0,7	0,3	1,0	-0,5
Produktu metalikoak	11,1	7,1	10,6	6,2	-0,4	-1,5	0,9	2,4
Material eta ekipo elektrikoa	2,4	-4,3	2,4	1,1	-2,5	-4,0	2,5	-1,4
Makineria eta ekipamendua	9,4	9,7	8,6	8,9	-1,5	-1,3	2,3	2,1
Ibilgailu motordunak	13,3	6,8	12,4	8,3	-0,7	-1,4	1,5	-0,1
Beste garraio-material batzuk	5,6	4,3	3,5	6,3	0,4	-2,3	1,6	0,3
Altzariak eta beste manufaktura batzuk	9,0	-0,7	5,9	-0,2	1,0	0,0	2,2	-0,5
Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa	16,1	7,4	17,3	21,1	-3,0	-13,8	1,9	0,2
Industria, guztira	7,3	5,4	7,2	6,7	-1,0	-1,8	1,1	0,5

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala Geuk egina.

Ondare garbiaren errentagarritasuna (e) aztertu ondoren (ohikoa $-e1-$ zein ezohikoa $-e2$ eta $e3-$), ondare garbiaren ohiko errentagarritasuna (e1) finkatzen duten osagaien (hots, aktibo garbiaren errentagarritasunaren (r) eta leverage finantzarioaren $((r-i) \times (FA/PN))$) analisi zehatzagoa egingo dugu.

112. koadroa Aktibo garbiaren errentagarritasuna Euskal Herriko industria-sektoreetan

SEKTOREA	r (%)		BAIdl / V (%)		V / (AF + ACN)	
	2017	2018	2017	2018	2017	2018
Nekazaritzako elikagaiak	5,7	4,1	4,0	3,6	1,421	1,159
Papera	6,6	8,4	7,0	7,2	0,941	1,154
Kimika	9,0	10,6	7,0	8,2	1,285	1,291
Kautxua eta plastikoa	8,2	8,5	6,1	6,8	1,344	1,248
Mineral ez-metalikoak	2,8	3,1	7,4	7,1	0,378	0,433
Metalurgia	5,2	4,5	2,5	2,3	2,087	1,900
Produktu metalikoak	7,3	4,1	4,4	3,9	1,650	1,041
Material eta ekipo elektrikoa	2,3	1,2	2,9	1,4	0,787	0,871
Makinaria eta ekipamendua	7,1	7,5	5,4	5,7	1,317	1,312
Ibilgailu motordunak	10,6	7,0	3,6	2,3	2,935	3,073
Beste garraio-material batzuk	3,3	4,3	4,5	5,9	0,730	0,733
Altzariak eta beste manufaktura batzuk	5,1	-0,1	3,7	0,0	1,380	1,538
Makinariaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa	9,2	11,5	3,1	4,7	2,957	2,437
Industria, guztira	5,6	4,7	4,2	3,7	1,336	1,250

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala Geuk egina.

Aktibo garbiaren errentagarritasunari (r) dagokionez, honako alderdi hauek aipa daitezke 2018. urtean aztertutako Euskal Herriko industria-sektoreen gainean:

- Orokorrean, funts propioen errentagarritasunaren osagai nagusia aktibo garbiaren errentagarritasuna da oraindik ere. Izan ere, leverage finantzarioaren garrantzia txikiagoa da (aurrerago sakonago aztertuko dugu alderdi hori, osagai horri dagokion atalean).
- 2018an honako sektore hauek izan zuten aktibo garbiaren errentagarritasun handiena: Makinariaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (% 11,5), Kimika (% 10,6), Kautxua eta plastikoa (% 8,5), Papera (% 8,4), Makinaria eta ekipamendua (% 7,5) eta Ibilgailu motordunak (% 7). Honako sektore hauek, berriz, batez besteko errentagarritasunaren (% 4,7) azpitik kokatu ziren: Metalurgia (% 4,5), Beste garraio-material batzuk (% 4,3), Produktu metalikoak eta Elikagaiak (biek % 4,1), Mineral ez-metalikoak (% 3,1) eta Material eta ekipo elektrikoa (% 1,2). Batezbestekotik oso urrun, Altzariak eta beste manufaktura batzuk (-% 0,1).
- Aktibo garbiaren errentagarritasuna definitzen duten osagaiak kontuan izanda, eta BAIdl/V ratioa aztertuta (ustiapeneko ohiko diru-sarrereri dagokien interesen aurreko eta zergen ondorengo mozkina), nabarmentzekoa da honako sektore hauek batez besteko errentagarritasunaren (% 3,7) gainetik kokatu zirela: Kimika (% 8,2), Papera (% 7,2), Mineral ez-metalikoak (% 7,1) eta Kautxua eta plastikoa (% 6,8). Bestalde, batezbestekoaren azpitik kokatu ziren Nekazaritzako elikagaiak (% 3,6), Metalurgia eta Ibilgailu motordunak (biek % 2,3) eta Material eta ekipo elektrikoa (% 1,4).
- Ustiapeneko ohiko diru-sarrereren eta aktibo garbiaren arteko erlazioa neurtzen duen V/(AF+ACN) ratioari dagokionez, nabarmentzekoak dira honako sektore hauek lortu zuten maila altua: Ibilgailu motordunak (3,073), Makinariaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (2,437) eta Metalurgia (1,900). Batezbestekoaren (1,250) gainetik kokatu

ziren hirurak. Gainerako sektore gehienak beste muturrean kokatu ziren. Horien artean, batezbestekoaren azpitik, Mineral ez-metalikoak (0,433), Beste garraio-material batzuk (0,733) eta Material eta ekipo elektrikoa (0,871).

113. koadroa Leverage finantzarioa Euskal Herriko industria-sektoreetan

SEKTOREA	(r - i) x (FA / PN) (%)		(r - i)		FA / PN (%)	
	2017	2018	2017	2018	2017	2018
Nekazaritzako elikagaiak	1,1	0,8	0,042	0,021	25,8	36,0
Papera	3,1	2,1	0,057	0,078	53,7	27,3
Kimika	0,8	0,8	0,074	0,098	10,2	8,5
Kautxua eta plastikoa	2,1	3,1	0,072	0,078	29,6	39,6
Mineral ez-metalikoak	1,0	1,6	0,009	0,014	109,2	114,9
Metalurgia	2,0	2,6	0,029	0,021	68,0	124,2
Produktu metalikoak	3,2	2,1	0,056	0,028	57,8	74,7
Material eta ekipo elektrikoa	0,1	-0,1	0,004	-0,001	27,6	167,4
Makinaria eta ekipamendua	1,4	1,3	0,054	0,061	26,8	21,6
Ibilgailu motordunak	1,9	1,3	0,089	0,054	21,0	23,1
Beste garraio-material batzuk	0,2	2,0	0,002	0,021	84,4	94,2
Altzariak eta beste manufaktura batzuk	0,7	-0,2	0,028	-0,029	25,7	6,2
Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa	8,1	9,5	0,070	0,101	114,4	94,2
Industria, guztira	1,6	2,0	0,034	0,029	49,2	70,4

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala Geuk egina.

Leverage finantzarioaren analisiari dagokionez ((r - i) x (FA / PN)), 2018. urtean honako alderdi hauek azpimarra daitezke Euskal Herriko industria-sektoreetan:

- Arestian aipatu dugunez, leverage finantzarioak, oro har, aktibo garbiaren errentagarritasunak baino eragin txikiagoa du ondare garbiaren errentagarritasunean. Hori kontuan izanik, nabarmentzekoa da honako sektore hauek lortutako maila altua, industria-sektoreko batez besteko mailatik (% 2,0) gora: Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (% 9,5), Kautxua eta plastikoa (% 3,1), Metalurgia (% 2,6), eta Papera eta Produktu metalikoak (biek % 2,1). Batezbesteko mailatik behera kokatu ziren eta balio negatiboa izan zuten sektore bakarrak Altzariak eta beste manufaktura batzuk (-% 0,2) eta Material eta ekipo elektrikoa (-% 0,1) izan ziren.
- Leverage finantzarioaren osagaiak kontuan izanda, eta aktiboaren errentagarritasunaren eta kostu esplizitua duen kanpoko finantzaketaren kostu garbiaren (r-i) arteko ezberdintasuna aztertuta, azpimarratzekoa da sektore hauek lortutako maila: Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (0,101), Kimika (0,098), Papera, Kautxua eta plastikoa (0,078) eta Makineria eta ekipamendua (0,061). Guztiak, industria-sektoreko batez besteko mailatik (0,029) gora kokatu ziren. Sektore hauek, berriz, batezbestekoaren azpitik kokatu ziren, eta balio negatiboa izan zuten: Altzariak eta beste manufaktura batzuk (-0,029) eta Material eta ekipo elektrikoa (-0,001).
- Azkenik, zorpetze-maila neurtzen duen FA/PN ratioari dagokionez (kanpoko funtsek ondare garbian duten eragina), batez besteko maila (% 70,4) baino altuagoa lortu zuten

sektore hauek: Material eta ekipo elektrikoa (% 167,4), Metalurgia (% 124,2), Mineral ez-metalikoak (% 114,9) eta Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa eta Beste garraio-material batzuk, biak % 94,2ko mailarekin. Beste muturrean kokatu ziren Altzariak eta beste manufaktura batzuk (% 6,2) eta Kimika (% 8,5), zorpetze-mailarik baxuenarekin. Sektoreen erdia baino gehiago (zehazki, 7) batez besteko zorpetze-mailatik behera kokatu ziren.

114. koadroa Euskal Herriko eta Estatu osoko industria-sektoreen arteko alderaketa, 2018


SEKTOREA	e1 (%)		r (%)		(r - i) x (FA / PN) (%)	
	Euskal Herria	Estatua	Euskal Herria	Estatua	Euskal Herria	Estatua
Nekazaritzako elikagaiak	4,9	10,4	4,1	6,8	0,8	3,5
Papera	10,5	12,7	8,4	8,9	2,1	3,8
Kimika	11,4	9,6	10,6	8,3	0,8	1,3
Kautxua eta plastikoa	11,6	19,8	8,5	11,9	3,1	7,9
Mineral ez-metalikoak	4,7	6,3	3,1	4,7	1,6	1,6
Metalurgia	7,1	8,3	4,5	6,1	2,6	2,2
Produktu metalikoak	6,2	11,1	4,1	7,3	2,1	3,7
Material eta ekipo elektrikoa	1,1	4,6	1,2	3,4	-0,1	1,2
Makinaria eta ekipamendua	8,9	15,7	7,5	12,1	1,3	3,7
Ibilgailu motordunak	8,3	11,6	7,0	7,8	1,3	3,8
Beste garraio-material batzuk	6,3	5,7	4,3	3,0	2,0	2,7
Altzariak eta beste manufaktura batzuk	-0,2	10,6	-0,1	8,2	-0,2	2,4
Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa	21,1	9,9	11,5	6,0	9,5	3,9
Industria, guztira	6,7	10,1	4,7	6,9	2,0	3,3

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala Geuk egina.

Laburtuz, Euskal Herriko eta Estatu osoko industria-sektoreen egoera ekonomiko-finantzarioa alderatuta, honako hauek nabarmen daitezke:


- Kimika, Beste garraio-material batzuk eta Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa sektoreen kasuan, 2018an izan zuten funts propioen berezko errentagarritasuna (e1) altuagoa izan zen Euskal Herrian, Estatuan baino. Gainerako sektoreetan, ordea, kontrakoa pasa zen.
- Aktibo garbiaren errentagarritasunari dagokionez ere, Estatuan baino maila altuagoa izan zuten Euskal Herrian sektore hauek: Kimika, Beste garraio-material batzuk eta Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa. Leverage finantzarioa ere altuagoa da Euskal Herrian, ondorengo sektore hauetan: Metalurgia eta Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa.

17. grafikoa Ondare garbiaren ohiko errentagarritasuna eta haren osagaiak (aktibo garbiaren errentagarritasuna eta leverage finantzarioa) Euskal Herriko industria-sektoreetan, 2018



Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala Geuk egina.

18. grafikoa Euskal Herriko industria-sektoreetako ondare garbiaren ohiko errentagarritasuna (e1), Estatukoarekin alderatuta, 2018



Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala Geuk egina.

11.4 FUNTSEN ITURRIEN ERA ERABILEREN EGOERA

Azterketa egiteko, eskuragarri dauden 2018 ekitaldiko azken datuak izan ditugu kontuan, baita inbertsio-diruzaintza (TINV) ere. Inbertsio diruzaintza bat dator aktiboak liberatzen duen euro kopuruarekin, haren premiei erantzun ondoren eta nola finantzatzen den kontuan hartu gabe (free cash-flow). Hala, desberdintasun esanguratsuak topatu ditugu Euskal Herriko industria-sektoreen artean. Zehazki, aipatzekoak dira alderdi hauek:

- 2018an inbertsio-diruzaintza handiena izan zuen sektorea Kautxua eta plastikoa izan zen (11,13 milioi euro enpresako, 2017ko datuaren ia seikoitza). Hurrengo sektoreak Ibilgailu motordunak (6,27) eta Mineral ez-metalikoak (5,35) izan ziren, denak ere industria-sektorearen batezbestekotik gora. 2018ko batez besteko inbertsio-diruzaintzak balio negatiboa izan zuen: -2,33 milioi euro enpresako. 2017an, berriz, batez besteko zifra askoz altuagoa izan zen: 5,35 milioi euro enpresako.

- Honako sektore hauek industria-sektorearen batezbestekoaren gainetik kokatzen dira, baina balio positiboekin: Metalurgia (3,27), Makineria eta ekipamendua (3,26), Kimika (1,30), Papera (0,73) eta Altzariak eta beste manufaktura batzuk (0,02). Honako sektore hauek, berriz, balio negatiboak izan zituzten: Material eta ekipo elektrikoa (-31,51), Beste garraio-material batzuk (-21,08), Nekazaritzako elikagaiak (-8,57), Produktu metalikoak (-7,01) eta Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (-0,18). Nabarmentzekoa da, bestalde, sektore batzuek urte batetik bestera inbertsio-diruzaintzan izandako galera izugarria. Material eta ekipo elektrikoen sektorean, esaterako, 2017an 25,72 milioi izatetik, 2018an -31,51 milioi izatera pasatu ziren. Beste garraio-material batzuen sektorean, berriz, 2017an 45,90 milioi izatetik, 2018an -21,08 izatera.

115. koadroa Funtsen iturrien eta erabileren egoera Euskal Herriko industria-sektoreetan

(M euro)*

SEKTOREA	TINV		TFA		TPN	
	2017	2018	2017	2018	2017	2018
Nekazaritzako elikagaiak	1,62	-8,57	-0,90	5,24	-0,72	3,33
Papera	-2,03	0,73	4,57	1,92	-2,54	-2,65
Kimika	1,22	1,30	-0,09	0,73	-1,14	-2,03
Kautxua eta plastikoa	2,07	11,13	2,10	2,11	-4,17	-13,24
Mineral ez-metalikoak	10,50	5,35	-68,01	-2,33	57,51	-3,02
Metalurgia	2,50	3,27	-1,92	1,09	-0,58	-4,36
Produktu metalikoak	-0,05	-7,01	0,26	7,36	-0,21	-0,34
Material eta ekipo elektrikoa	25,72	-31,51	-20,65	31,70	-5,07	-0,20
Makineria eta ekipamendua	4,28	3,26	-2,25	0,06	-2,02	-3,32
Ibilgailu motordunak	11,84	6,27	-7,51	0,76	-4,33	-7,03
Beste garraio-material batzuk	45,90	-21,08	-26,08	25,46	-19,82	-4,38
Altzariak eta beste manufaktura batzuk	2,02	0,02	-0,81	-0,07	-1,21	0,06
Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa	0,51	-0,18	-0,50	0,21	0,00	-0,03
Industria, guztira	5,25	-2,33	-4,98	4,93	-0,27	-2,60

(*): Sektoreko batezbestekoak.

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala Geuk egina.

Sektorearen eta kanpoko funtsen hornitzaileen arteko erlazioaren ondorioz sortzen diren funtsen sarrera eta irteeren arteko diferentzia adierazten duen kanpoko funtsen diruzaintzari (TFA) erreparatuz gero, ondorengo hauek aipa daitezke 2018ari dagokionez:

- Material eta ekipo elektrikoa (31,70) eta Beste garraio-material batzuk (25,46) sektoreek izan zuten saldo handiena, biak ere industriaren batez besteko saldotik (4,93 milioi euro, enpresako) oso gora. Produktu metalikoen eta Nekazaritzako elikagaien sektoreek ere saldo positiboa izan zuten, batez besteko baliotik gora.
- Honako sektore hauek saldo positiboa izan zuten, baina batez besteko baliotik behera: Kautxua eta plastikoa (2,11), Papera (1,92), Metalurgia (1,09), Ibilgailu motordunak (0,76), Kimika (0,73), Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (0,21) eta Makineria eta ekipamendua (0,06). Honako hauen saldoa, berriz, batezbestekoa baino baxuagoa

izan zen, eta balio negatiboarekin: Mineral ez-metalikoak (-2,33) eta Altzariak eta beste manufaktura batzuk (-0,07).

Azkenik, sektorearen eta ondare garbiaren hornitzaileen arteko erlazioaren ondoriozko funtsen sarrera eta irteeren arteko diferentzia adierazten duen ondare garbiaren diruzaintzari (TPN) dagokionez, honakoak nabarmentzen dira 2018an:

- Industria-sektorearen batezbestekoa enpresako -2,60 milioi eurokoa izan zen, eta bi sektorek baino ez zuten saldo positiboa izan: Nekazaritzako elikagaiak (3,33) eta Altzariak eta beste manufaktura batzuk (0,06).
- Gainerakoek saldo negatiboa izan zuten, eta nabarmentzekoak dira batez besteko zifratik oso behera kokatu ziren sektore hauek: Kautxua eta plastikoa (-13,24), Ibilgailu motordunak (-7,03), Beste garraio-material batzuk (-4,38) eta Metalurgia (-4,36).

116. koadroa Euskal Herriko eta Estatu osoko industria-sektoreen arteko alderaketa2018

*(Meuro)**

SEKTOREA	TINV		TFA		TPN	
	Euskal Herria	Estatua	Euskal Herria	Estatua	Euskal Herria	Estatua
Nekazaritzako elikagaiak	-8,57	3,32	5,24	-1,41	3,33	-1,91
Papera	0,73	4,94	1,92	0,20	-2,65	-5,13
Kimika	1,30	-6,88	0,73	-2,81	-2,03	9,69
Kautxua eta plastikoa	11,13	5,01	2,11	-0,10	-13,24	-4,91
Mineral ez-metalikoak	5,35	9,21	-2,33	-2,12	-3,02	-7,09
Metalurgia	3,27	10,00	1,09	-2,18	-4,36	-7,82
Produktu metalikoak	-7,01	-0,43	7,36	1,04	-0,34	-0,61
Material eta ekipo elektrikoa	-31,51	-8,32	31,70	0,03	-0,20	8,29
Makinaria eta ekipamendua	3,26	5,95	0,06	0,14	-3,32	-6,08
Ibilgailu motordunak	6,27	2,56	0,76	3,54	-7,03	-6,10
Beste garraio-material batzuk	-21,08	29,36	25,46	-24,48	-4,38	-4,89
Altzariak eta beste manufaktura batzuk	0,02	0,04	-0,07	0,42	0,06	-0,46
Makinariaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa	-0,18	0,31	0,21	-0,20	-0,03	-0,11
Industria, guztira	-2,33	2,84	4,93	-0,94	-2,60	-1,89

()*: Sektoreko batezbestekoak.

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala Geuk egina.

Azkenik, Euskal Herriko industria-sektoreetako funtsen iturri eta erabileren egoeraren eta Estatukoaren arteko alderaketari dagokionez, honako alderdi hauek azpimarratu behar dira 2018. urtean:

- 2018an bi sektorek baino ez zuten inbertsio-diruzaintza (TINV) handiagoa Euskal Herrian, Estatuan baino: Kautxua eta plastikoa (11,13) eta Ibilgailu motordunak (6,27).
- Kanpoko funtsen diruzaintzari dagokionez (TFA), sektore gehienek Estatuan baino diruzaintza handiagoa izan zuten Euskal Herrian, sektore hauek izan ezik: Mineral ez-metalikoak, Makinaria eta ekipamendua, Ibilgailu motordunak eta Altzariak eta beste manufaktura batzuk.

- Azkenik, ondare garbiaren diruzaintzari (TPN) dagokionez, antzeko zerbait pasatu zen, eta sektoreen erdiak baino gehiagok Estatuan baino ondare garbiaren diruzaintza handiagoa izan zuten Euskal Herrian. Nabarmentzekoa da Nekazaritzako elikagaien sektorea, 3,33 milioi euroko ondarearen diruzaintzarekin, industria-sektorearen batez besteko balioaren (-2,60 milioi) oso gaintetik, eta, aldi berean, Estatuan sektore horrek izan zuen batez bestekoaren oso gaintetik (-1,91 milioi). Era berean, aipatzekoa da ondarearen diruzaintzak saldo negatiboa izan zuela ia sektore guztietan, honako hauetan izan ezik: Nekazaritzako elikagaiak eta Altzariak eta beste manufaktura batzuk, Euskal Herriari dagokionez; eta Kimika eta Material eta ekipo elektrikoa, Estatuari dagokionez.

19. grafikoa Funtzen iturrien eta erabileren egoera Euskal Herriko industria-sektoreetan, 2018

(Meuro)*




(*): Sektoreko batezbestekoak.

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala Geuk egina.

20. grafikoa Euskal Herriko eta Estatuko industria sektoreen inbertsio-diruzaintzaren (TINV) fluxuaren alderaketa, 2018


(Meuro)*



(*): Sektoreko batezbestekoak.


Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala Geuk egina.

117. koadroa Elikagaien, edarien eta tabakoaren industriaren sektoreko ratioen piramidea



Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala Geuk egina.


118. koadroa Paperaren industriaren sektoreko ratioen piramidea



Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala Geuk egina.




119. koadroa Industria kimikoaren sektoreko ratioen piramidea




Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala Geuk egina.

120. koadroa Kautxu eta plastikoen fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea




Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala Geuk egina.

121. koadroa Beste produktu mineral ez-metaliko batzuen fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea




Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala Geuk egina.

122. koadroa Metalurgia sektoreko ratioen piramidea (burdinazko eta altzairuzko produktuen eta ferroaleazioen fabrikazioa)




Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala Geuk egina.

123. koadroa Produktu metalikoen fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea (makineria eta ekipoa izan ezik)




Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala Geuk egina.

124. koadroa Material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea




Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala Geuk egina.

125. koadroa Beste makineria eta ekipo batzuen fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea




Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala Geuk egina.

126. koadroa Ibilgailu motordunen, atoi eta erdi-atoi fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea




Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala Geuk egina.

127. koadroa Beste garraio-material batzuen fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea




Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala Geuk egina.

128. koadroa Altzarien fabrikazioaren eta beste manufaktura-industria batzuen sektoreko ratioen piramidea




Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala Geuk egina.

129. koadroa Makineria eta ekipoen konponketa eta instalazioaren sektoreko ratioen piramidea



Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala Geuk egina.

130. koadroa Industria osoaren ratioen piramidea



Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala Geuk egina.

131. koadroa Elikagaien, edarien eta tabakoaren industriaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera

(M euro - Batez besteko balioak)

Kontzeptua	Euskal Herria		Estatua	
	2017	2018	2017	2018
+ V _t	101,10	104,38	94,40	91,18
- C _t	92,28	95,77	85,07	82,17
- AM _t	3,19	3,42	2,48	2,53
= BA _{It}	5,64	5,18	6,85	6,48
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
= BA _{Id} _t	4,03	3,71	4,90	4,64
+ AM _t	3,19	3,42	2,48	2,53
- IF _t	0,17	0,22	0,16	0,19
+ GF _{0t}	7,05	6,90	7,21	6,97
+ RE _t	-0,95	-1,54	-0,56	-0,21
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
= RE _d _t	-0,68	-1,10	-0,40	-0,15
+ EF _t	-1,54	0,16	0,16	0,56
+ GF _E _t	-2,22	-0,94	-0,24	0,42
+ AC _{Nt} -1	22,35	27,61	16,69	18,80
- AC _{Nt}	26,08	29,22	19,71	17,99
- ΔAC _{Nt}	3,73	1,61	3,02	-0,81
- IN _{Vt}	-0,51	12,93	1,35	4,88
+ TIN _{Vt}	1,62	-8,57	2,60	3,32
+ EF _{At} - AF _{At}	-0,69	5,73	0,62	-1,00
+ I _t	0,30	0,67	0,68	0,57
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
- (1-t) * I _t	0,21	0,48	0,49	0,41
+ TF _{At}	-0,90	5,24	0,13	-1,41
+ TP _{Nt}	-0,72	3,33	-2,73	-1,91
= 0	0,00	0,00	0,00	0,00

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala Geuk egina.

132. koadroa Paperaren industriaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera

(M euro - Batez besteko balioak)

Kontzeptua	Euskal Herria		Estatua	
	2017	2018	2017	2018
+ V _t	88,05	84,30	87,32	97,50
- C _t	75,99	72,44	73,50	79,72
- AM _t	3,44	3,31	3,51	3,89
= BAII _t	8,63	8,54	10,31	13,89
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
= BAIdI _t	6,17	6,11	7,37	9,93
+ AM _t	3,44	3,31	3,51	3,89
- IF _t	0,08	0,24	0,13	0,31
+ GFO _t	9,52	9,18	10,75	13,51
+ RE _t	0,09	0,02	0,14	-0,92
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
= REIdI _t	0,07	0,01	0,10	-0,66
+ EF _t	0,76	0,83	0,63	0,93
+ GF _t	0,82	0,84	0,73	0,27
+ ACN _{t-1}	27,77	36,78	26,10	30,53
- ACN _t	38,87	40,42	29,28	30,14
- ΔACN _t	11,11	3,64	3,18	-0,39
- INV _t	1,27	5,65	4,77	9,24
+ TINV _t	-2,03	0,73	3,53	4,94
+ EF _t - AF _t	4,85	2,01	0,63	1,34
+ I _t	0,40	0,11	1,27	1,60
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
- (1-t) * I _t	0,28	0,08	0,91	1,14
+ TF _t	4,57	1,92	-0,27	0,20
+ TPN _t	-2,54	-2,65	-3,26	-5,13
= 0	0,00	0,00	0,00	0,00

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala Geuk egina.

133. koadroa Industria kimikoaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera

(M euro - Batez besteko balioak)

Kontzeptua	Euskal Herria		Estatua	
	2017	2018	2017	2018
+ V _t	33,23	39,59	129,72	140,51
- C _t	28,87	33,94	113,97	122,60
- AM _t	1,09	1,12	3,19	3,62
= BAII _t	3,27	4,53	12,56	14,30
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
= BAIdI _t	2,34	3,24	8,98	10,22
+ AM _t	1,09	1,12	3,19	3,62
- IF _t	0,12	0,21	0,20	0,45
+ GFOT	3,31	4,15	11,97	13,39
+ RE _t	-0,01	0,10	6,04	2,24
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
= REdI _t	0,00	0,07	4,32	1,60
+ EF _t	0,83	0,15	2,39	2,25
+ GFET	0,83	0,22	6,71	3,85
+ ACN _{t-1}	12,01	16,07	27,52	34,97
- ACN _t	13,40	16,91	32,75	32,18
- ΔACN _t	1,40	0,84	5,23	-2,79
- INV _t	1,51	2,24	1,40	26,92
+ TINV _t	1,22	1,30	12,05	-6,88
+ EFAT - AFAT	-0,05	0,75	-4,17	-2,32
+ I _t	0,05	0,03	0,56	0,69
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
- (1-t) * I _t	0,04	0,02	0,40	0,49
+ TFAT	-0,09	0,73	-4,57	-2,81
+ TPNT	-1,14	-2,03	-7,48	9,69
= 0	0,00	0,00	0,00	0,00

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala Geuk egina.

134. koadroa Kautxu eta plastikozko produktuen fabrikazioaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera

(M euro - Batez besteko balioak)

Kontzeptua	Euskal Herria		Estatua	
	2017	2018	2017	2018
+ V _t	83,07	81,03	72,98	80,42
- C _t	72,17	69,04	64,75	71,01
- AM _t	3,83	4,26	2,74	3,12
= BA _{It}	7,07	7,73	5,49	6,30
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
= BA _I d _t	5,06	5,52	3,92	4,51
+ AM _t	3,83	4,26	2,74	3,12
- IF _t	0,19	0,24	0,45	0,55
+ GF _{0t}	8,69	9,55	6,22	7,07
+ RE _t	-0,26	-0,36	-0,29	-0,15
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
= RE _d l _t	-0,19	-0,26	-0,21	-0,11
+ EF _t	1,90	1,87	0,49	0,49
+ GF _{Et}	1,71	1,61	0,29	0,39
+ ACN _{t-1}	9,30	12,62	12,50	13,54
- ACN _t	10,61	10,24	12,71	13,23
- ΔACN _t	1,31	-2,38	0,21	-0,32
- INV _t	7,02	2,41	3,93	2,77
+ TINV _t	2,07	11,13	2,36	5,01
+ EF _{At} - AF _{At}	2,24	2,23	0,68	0,09
+ I _t	0,20	0,17	0,25	0,26
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
- (1-t) * I _t	0,14	0,12	0,18	0,18
+ TF _{At}	2,10	2,11	0,50	-0,10
+ TP _{Nt}	-4,17	-13,24	-2,86	-4,91
= 0	0,00	0,00	0,00	0,00

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala Geuk egina.

135. koadroa Beste produktu mineral ez-metaliko batzuen fabrikazioaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera

(M euro - Batez besteko balioak)

Kontzeptua	Euskal Herria		Estatua	
	2017	2018	2017	2018
+ V _t	73,37	72,33	47,69	60,67
- C _t	59,78	63,35	39,94	51,43
- AM _t	5,98	1,76	2,64	2,94
= BA _{It}	7,61	7,21	5,11	6,30
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
= BA _{Idt}	5,44	5,16	3,65	4,50
+ AM _t	5,98	1,76	2,64	2,94
- IF _t	0,05	0,19	0,30	0,31
+ GFO _t	11,37	6,73	6,00	7,13
+ RE _t	-9,68	-6,78	0,07	4,19
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
= RE _{Idt}	-6,92	-4,85	0,05	3,00
+ EF _t	-1,35	-0,62	0,52	2,09
+ GFET	-8,26	-5,47	0,57	5,08
+ ACN _{t-1}	15,87	15,19	19,06	19,78
- ACN _t	15,49	17,15	18,42	20,70
- ΔACN _t	-0,38	1,96	-0,64	0,92
- INV _t	-7,01	-6,05	0,13	2,08
+ TINV _t	10,50	5,35	7,08	9,21
+ EFAT - AFAT	-66,09	-0,81	-4,34	-1,60
+ I _t	2,69	2,13	0,65	0,74
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
- (1-t) * I _t	1,92	1,52	0,47	0,53
+ TFA _t	-68,01	-2,33	-4,80	-2,12
+ TPNT	57,51	-3,02	-2,28	-7,09
= 0	0,00	0,00	0,00	0,00

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala Geuk egina.

136. koadroa Metalurgia sektoreko (burdinazko eta altzairuzko produktuen eta ferroaleazioen fabrikazioa) iturrien eta erabileren egoera

(M euro - Batez besteko balioak)

Kontzeptua	Euskal Herria		Estatua	
	2017	2017	2017	2017
+ V _t	172,34	193,98	198,50	248,14
- C _t	161,43	181,76	186,33	231,98
- AM _t	4,90	5,86	4,39	5,50
= BA _{It}	6,02	6,37	7,78	10,67
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
= BA _{Idt}	4,30	4,55	5,56	7,63
+ AM _t	4,90	5,86	4,39	5,50
- IF _t	0,32	0,61	1,23	1,33
+ GF _{Ot}	8,88	9,81	8,72	11,80
+ RE _t	0,48	0,20	0,81	-2,11
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
= RE _{Idt}	0,35	0,14	0,58	-1,51
+ EF _t	0,47	-0,21	0,40	0,00
+ GF _{Et}	0,82	-0,07	0,98	-1,51
+ AC _{Nt-1}	32,73	36,29	41,44	54,37
- AC _{Nt}	32,12	37,23	42,69	50,00
- ΔAC _{Nt}	-0,61	0,94	1,25	-4,37
- INV _t	7,81	5,52	-0,82	4,66
+ TIN _{Vt}	2,50	3,27	9,27	10,00
+ EF _{At} - AF _{At}	-1,15	2,43	-5,55	-0,58
+ I _t	1,08	1,87	1,97	2,25
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
- (1-t) * I _t	0,78	1,34	1,41	1,61
+ TF _{At}	-1,92	1,09	-6,96	-2,18
+ TP _{Nt}	-0,58	-4,36	-2,31	-7,82
= 0	0,00	0,00	0,00	0,00

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala Geuk egina.

137. koadroa Produktu metalikoen fabrikazioaren sektoreko (makineria eta ekipoa izan ezik) iturrien eta erabileren egoera

(M euro - Batez besteko balioak)

Kontzeptua	Euskal Herria		Estatua	
	2017	2018	2017	2018
+ V _t	19,99	36,05	22,06	26,95
- C _t	18,08	32,99	19,85	24,12
- AM _t	0,67	1,08	0,72	0,79
= BA _{It}	1,24	1,98	1,49	2,04
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
= BA _{Idt}	0,89	1,42	1,06	1,46
+ AM _t	0,67	1,08	0,72	0,79
- IF _t	0,06	0,22	0,08	0,14
+ GFO _t	1,50	2,28	1,70	2,11
+ RE _t	-0,04	-0,41	-0,27	-0,27
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
= RE _{Idt}	-0,03	-0,29	-0,20	-0,19
+ EF _t	0,07	0,48	0,00	0,14
+ GFET	0,04	0,19	-0,20	-0,06
+ ACN _{t-1}	4,54	12,24	5,41	8,01
- ACN _t	4,82	20,12	6,11	9,47
- ΔACN _t	0,27	7,87	0,69	1,45
- INV _t	1,31	1,60	0,97	1,03
+ TINV _t	-0,05	-7,01	-0,16	-0,43
+ EFAT - AFAT	0,33	7,55	0,47	1,23
+ I _t	0,11	0,27	0,25	0,27
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
- (1-t) * I _t	0,08	0,20	0,18	0,20
+ TFA _t	0,26	7,36	0,28	1,04
+ TPNT	-0,21	-0,34	-0,12	-0,61
= 0	0,00	0,00	0,00	0,00

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala Geuk egina.

138. koadroa Material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera

(M euro - Batez besteko balioak)

Kontzeptua	Euskal Herria		Estatua	
	2017	2018	2017	2018
+ V _t	77,87	209,52	123,34	151,74
- C _t	65,28	191,27	115,07	141,80
- AM _t	9,46	14,09	3,68	5,39
= BA _{It}	3,14	4,16	4,59	4,55
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
= BA _{Idt}	2,25	2,98	3,28	3,26
+ AM _t	9,46	14,09	3,68	5,39
- IF _t	6,01	4,71	1,05	1,06
+ GFO _t	5,69	12,36	5,90	7,59
+ RE _t	-2,69	-4,99	-1,33	-2,58
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
= RE _{Idt}	-1,93	-3,57	-0,95	-1,84
+ EF _t	1,95	-1,30	-0,01	-0,62
+ GF _{Et}	0,02	-4,87	-0,95	-2,46
+ AC _{Nt} -1	55,00	56,07	27,02	32,64
- AC _{Nt}	31,93	89,79	26,26	42,22
- ΔAC _{Nt}	-23,07	33,72	-0,76	9,58
- INV _t	3,06	5,27	1,40	3,87
+ TIN _{Vt}	25,72	-31,51	4,31	-8,32
+ EF _{At} - AF _{At}	-20,25	33,69	-2,99	0,85
+ I _t	0,57	2,78	0,68	1,15
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
- (1-t) * I _t	0,41	1,99	0,49	0,82
+ TF _{At}	-20,65	31,70	-3,47	0,03
+ TP _{Nt}	-5,07	-0,20	-0,84	8,29
= 0	0,00	0,00	0,00	0,00

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala Geuk egina.

139. koadroa Beste makineria eta ekipo batzuen fabrikazioaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera

(M euro - Batez besteko balioak)

Kontzeptua	Euskal Herria		Estatua	
	2017	2017	2017	2017
+ V _t	57,35	69,85	42,74	40,15
- C _t	51,53	62,61	37,36	35,08
- AM _t	1,48	1,63	0,88	0,78
= BA _{It}	4,34	5,61	4,50	4,29
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
= BA _{Idt}	3,10	4,01	3,22	3,07
+ AM _t	1,48	1,63	0,88	0,78
- IF _t	0,16	0,23	0,13	0,13
+ GF _{Ot}	4,42	5,41	3,97	3,72
+ RE _t	-0,71	-0,82	-0,33	-0,28
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
= RE _{Idt}	-0,51	-0,59	-0,24	-0,20
+ EF _t	0,80	0,94	0,51	0,39
+ GF _{Et}	0,29	0,35	0,27	0,19
+ AC _{Nt-1}	25,29	28,90	10,95	11,92
- AC _{Nt}	23,54	29,85	11,34	10,85
- ΔAC _{Nt}	-1,74	0,95	0,39	-1,07
- IN _{Vt}	2,17	1,56	0,86	-0,98
+ TIN _{Vt}	4,28	3,26	2,99	5,95
+ EF _{At} - AF _{At}	-2,09	0,20	-1,00	0,25
+ I _t	0,22	0,19	0,17	0,16
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
- (1-t) * I _t	0,16	0,14	0,12	0,11
+ TF _{At}	-2,25	0,06	-1,12	0,14
+ TP _{Nt}	-2,02	-3,32	-1,87	-6,08
= 0	0,00	0,00	0,00	0,00

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala Geuk egina.

140. koadroa Ibilgailu motordunen, atoiari eta erdi-atoiari fabrikazioaren sektoreko iturrien eta erabilaren egoera

(M euro - Batez besteko balioak)

Kontzeptua	Euskal Herria		Estatua	
	2017	2018	2017	2018
+ V _t	305,57	346,10	607,76	582,72
- C _t	283,17	325,06	568,10	545,41
- AM _t	7,02	9,98	20,01	21,53
= BA _{It}	15,39	11,07	19,64	15,77
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
= BA _{Idt}	11,00	7,92	14,04	11,28
+ AM _t	7,02	9,98	20,01	21,53
- IF _t	0,67	0,76	5,25	4,72
+ GF _{Ot}	17,34	17,14	28,80	28,08
+ RE _t	-0,78	-1,80	-2,22	-5,38
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
= RE _{Idt}	-0,56	-1,29	-1,59	-3,85
+ EF _t	1,31	-0,10	2,59	0,46
+ GF _{Et}	0,75	-1,39	1,00	-3,39
+ AC _{Nt} -1	22,38	12,44	6,76	2,31
- AC _{Nt}	9,76	12,77	1,20	-2,38
- ΔAC _{Nt}	-12,63	0,33	-5,56	-4,69
- INV _t	18,88	9,15	30,37	26,82
+ TIN _{Vt}	11,84	6,27	4,99	2,56
+ EF _{At} - AF _{At}	-7,21	1,10	1,82	4,17
+ I _t	0,42	0,47	0,90	0,88
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
- (1-t) * I _t	0,30	0,34	0,65	0,63
+ TF _{At}	-7,51	0,76	1,17	3,54
+ TP _{Nt}	-4,33	-7,03	-6,16	-6,10
= 0	0,00	0,00	0,00	0,00

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala Geuk egina.

141. koadroa Beste garraio-material batzuen fabrikazioaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera

(M euro - Batez besteko balioak)

Kontzeptua	Euskal Herria		Estatua	
	2017	2017	2017	2017
+ V _t	320,88	490,57	289,40	359,16
- C _t	289,85	432,64	266,57	327,32
- AM _t	10,67	17,73	13,14	14,62
= BA _{It}	20,36	40,20	9,70	17,21
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
= BA _{Idt}	14,56	28,74	6,93	12,31
+ AM _t	10,67	17,73	13,14	14,62
- IF _t	6,13	9,99	4,75	4,09
+ GFO _t	19,11	36,47	15,32	22,84
+ RE _t	1,48	-11,08	8,83	-1,86
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
= RE _{Idt}	1,06	-7,92	6,31	-1,33
+ EF _t	3,91	0,98	0,64	-1,28
+ GFET	4,97	-6,95	6,96	-2,61
+ ACN _{t-1}	134,19	165,33	148,67	185,66
- ACN _t	87,42	183,22	156,14	174,68
- ΔACN _t	-46,77	17,89	7,47	-10,98
- INV _t	24,95	32,71	8,54	1,84
+ TINV _t	45,90	-21,08	6,26	29,36
+ EFAT - AFAT	-19,89	32,44	4,58	-17,30
+ I _t	8,65	9,76	10,28	10,03
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
- (1-t) * I _t	6,19	6,98	7,35	7,17
+ TFA _t	-26,08	25,46	-2,77	-24,48
+ TPNT	-19,82	-4,38	-3,50	-4,89
= 0	0,00	0,00	0,00	0,00

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala Geuk egina.

142. koadroa Altzarien fabrikazioaren eta beste manufaktura-industria batzuen sektoreko iturrien eta erabileren egoera

(M euro - Batez besteko balioak)

Kontzeptua	Euskal Herria		Estatua	
	2017	2017	2017	2017
+ V _t	24,04	8,20	19,24	17,68
- C _t	22,26	7,96	16,94	15,49
- AM _t	0,53	0,25	0,69	0,54
= BA _{It}	1,25	0,00	1,61	1,65
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
= BA _{Idt}	0,89	0,00	1,15	1,18
+ AM _t	0,53	0,25	0,69	0,54
- IF _t	0,11	0,07	0,07	0,10
+ GF _{Ot}	1,31	0,18	1,78	1,63
+ RE _t	0,18	0,00	-0,05	-0,15
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
= RE _{Idt}	0,13	0,00	-0,04	-0,11
+ EF _t	0,31	-0,02	0,04	0,05
+ GF _{Et}	0,44	-0,02	0,00	-0,06
+ AC _{Nt-1}	8,81	4,01	6,30	6,67
- AC _{Nt}	7,13	3,84	7,10	7,41
- ΔAC _{Nt}	-1,69	-0,16	0,80	0,74
- IN _{Vt}	1,42	0,30	1,79	0,79
+ TIN _{Vt}	2,02	0,02	-0,81	0,04
+ EF _{At} - AF _{At}	-0,73	-0,06	0,94	0,50
+ I _t	0,12	0,01	0,13	0,11
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
- (1-t) * I _t	0,08	0,01	0,10	0,08
+ TF _{At}	-0,81	-0,07	0,84	0,42
+ TP _{Nt}	-1,21	0,06	-0,04	-0,46
= 0	0,00	0,00	0,00	0,00

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala Geuk egina.

143. koadroa Makineria eta ekipoen konponketa eta instalazioaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera

(M euro - Batez besteko balioak)

Kontzeptua	Euskal Herria		Estatua	
	2017	2018	2017	2018
+ V _t	8,42	11,44	17,54	21,68
- C _t	7,76	10,18	15,78	20,01
- AM _t	0,29	0,50	0,44	0,69
= BA _{It}	0,37	0,76	1,33	0,98
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
= BA _{Idt}	0,26	0,54	0,95	0,70
+ AM _t	0,29	0,50	0,44	0,69
- IF _t	0,01	0,01	0,01	0,12
+ GF _{Ot}	0,54	1,03	1,37	1,27
+ RE _t	-0,06	-0,47	-0,05	-0,10
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
= RE _{Idt}	-0,04	-0,33	-0,03	-0,07
+ EF _t	0,03	0,01	0,08	0,11
+ GF _{Et}	-0,02	-0,33	0,05	0,04
+ AC _{Nt-1}	2,51	2,69	2,75	2,50
- AC _{Nt}	2,08	2,74	3,13	2,54
- ΔAC _{Nt}	-0,43	0,05	0,38	0,04
- INV _t	0,45	0,83	1,01	0,95
+ TIN _{Vt}	0,51	-0,18	0,04	0,31
+ EF _{At} - AF _{At}	-0,47	0,24	-0,30	-0,13
+ I _t	0,05	0,05	0,08	0,09
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
- (1-t) * I _t	0,03	0,03	0,05	0,06
+ TF _{At}	-0,50	0,21	-0,36	-0,20
+ TP _{Nt}	0,00	-0,03	0,32	-0,11
= 0	0,00	0,00	0,00	0,00

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala Geuk egina.

144. koadroa Industria-sektore osoko iturrien eta erabileren egoera

(M euro - Batez besteko balioak)

Kontzeptua	Euskal Herria		Estatua	
	2017	2018	2017	2018
+ V _t	92,75	121,18	108,44	116,50
- C _t	84,15	110,59	98,61	105,75
- AM _t	3,21	4,26	3,35	3,73
= BA _{It}	5,39	6,33	6,48	7,02
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
= BA _{Idt}	3,85	4,52	4,63	5,02
+ AM _t	3,21	4,26	3,35	3,73
- IF _t	0,64	0,85	0,63	0,65
+ GF _{0t}	6,43	7,94	7,35	8,10
+ RE _t	-0,62	-1,44	0,30	-0,26
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
= RE _{Idt}	-0,44	-1,03	0,22	-0,19
+ EF _t	0,49	0,31	0,56	0,58
+ GF _{Et}	0,05	-0,72	0,77	0,39
+ ACN _{t-1}	22,80	27,52	18,17	21,38
- ACN _t	19,84	31,87	19,56	20,68
- ΔACN _t	-2,97	4,36	1,38	-0,71
- INV _t	4,19	5,20	3,19	6,36
+ TINV _t	5,25	-2,33	3,55	2,84
+ EF _{At} - AF _{At}	-4,48	5,64	-0,51	-0,38
+ I _t	0,70	1,00	0,77	0,79
* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
- (1-t) * I _t	0,50	0,72	0,55	0,56
+ TF _{At}	-4,98	4,93	-1,06	-0,94
+ TP _{Nt}	-0,27	-2,60	-2,49	-1,89
= 0	0,00	0,00	0,00	0,00

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala Geuk egina.

12. EAEKO ENPRESA-SAREAREN AZTERKETA

12.1 SARRERA

Txosten honen aurreko edizioetan egindako lanaren ildo berean, kapitulu honek EAEko, Nafarroako eta Estatu osoko enpresa-egituraren bilakaera aztertzen du, denborarik zabalen batetik (2013-2019 aldia), eta sektore ekonomikoak eta soldatapeko estratuak aintzat hartuta. Horren harira, komeni da kontuan izatea, azterketaren homogeneotasun handiagoa izateko, EINEko Enpresen Direktorio Nagusia (DIRCE) hartu dela informazio-iturri bakartzat.

12.2 BILAKAERA OROKORRA

Krisialdi ekonomikoaren ondorioz, enpresa aktiboen bolumena, modu orokortuan, jaitsi egin zen aztertutako hiru geografia-eremuetan (EAE, Nafarroa eta Estatu). Bolumen hori, ordea, berreskuratzen hasi zen 2014an Nafarroan, 2015ean estatu-mailan eta 2016an EAEn. Estatuan, susperraldia iraunkor mantendu da 2019. urtera arte (baina askotariko erritmoekin urteetan zehar). Nafarroan, 2018ra arte gora egin zuen eta 2019an atzera egin du. Aitzitik, EAEn, 2017an igoera eten egin zen, 2018an berriz hasi zen, eta 2019an, ostera ere atzera egin du.


Zehazki, EAEko enpresa aktiboen kopurua 2013an 153.709 izatetik 2019an 142.198 izatera igaro da; bilakaera horrek agerian uzten du, guztira, -% 7,5eko jaitsiera metatu dela. Bestalde, estatu mailan, enpresa aktiboen bolumenak % 6,9ko gorakada pilatu du. Hala, 2013an 3.146.570 izatetik 2019an 3.363.197 izatera pasatu da. Aurrerapen hori Nafarroan izandakoa (% 8,2) baino txikiagoa da; han, 2013an 40.860 izatetik 2019an 44.224 izatera pasatu baitira. Horrela, aztertutako eremu geografikoen artean, EAEn soilik izan da enpresa aktiboen atzerakada 2013tik 2019ra arteko aldian.

Edonola ere, komeni da aintzat hartzea urte arteko gorabeherak intentsitate desberdinekoak izan direla aztertutako hiru geografia-eremuetan, eta, halaber, alde nabarmenak hauteman direla eremu bakoitzari dagozkion urte arteko gorabeheren artean.


EAEn kasu zehatzean, enpresa aktiboen bolumenak 2017an pairatu zuen urte arteko beherakadarik handiena (-% 7,2, urtebete lehenago erregistratutako % 1,8ko gorakadaren ondoren). Hazkunderik handiena, berriz, 2018an hauteman zen (% 2,9). Estatu mailan, jaitsiera bakarria 2014an izan zen (-% 0,9), eta igoera handiena, berriz, 2015ean, (% 2,2). Aldiz, Nafarroan, jaitsiera bakarria 2019an izan zen (-% 0,1), eta igoera handiena, 2015ean (% 3,7).

21. grafikoa Enpresa kopuruaren bilakaera


EAE



Nafarroa




Estatua



Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).


Urte arteko bilakaerari dagokionez, 2019an enpresa aktiboen kopurua -% 1,5 murriztu da EAEn, eta -% 0,1, Nafarroan. Aldiz, Estatu mailan % 0,8 igo da.

22. grafikoa Enpresa kopuruaren urte arteko aldakuntza



Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).

23. grafikoa Pisuaren bilakaera Estatuko guztizkoarekiko (Estatua=100)



Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).


Dinamika horren arabera, EAEko enpresa aktiboek Estatu mailako guztizkoarekiko duten partaidetza 2013an % 4,9 izatetik 2019an % 4,2 izatera murriztu da. Nafarroako enpresei dagokienez, aldiz, ia ez da aldatu (% 1,31 2019an, eta % 1,3 2013an).

12.3 SEKTORE EKONOMIKOAK

Sektore ekonomikoei dagokienez, honako hauek dira jarraian jorratuko diren sektoreak: industria, eraikuntza, merkataritza eta gainerako zerbitzuak. Hala, 2013 eta 2019 artean, EAEko enpresa kopurua sektore guztietan murriztu zen. Antzeko dinamika izan da bai Nafarroan, bai Estatu osoan, nahiz eta azken bi kasu horietan gainerako zerbitzuetan enpresa kopurua handitu egin den.

EAEEn, 2013 eta 2019 arteko aldian, enpresa kopuruan atzerakada handiena eraikuntzan izan zen (-% 18,8); Nafarroan, merkataritzan (-% 2,5), eta Estatuan, berriz, industrian (-% 3,6). Aldiz, EAEEn jaitsiera txikiena gainerako zerbitzuetan izan zen (-% 1,6). Sektore horretan izan dira igoerarik handienak bai Nafarroan (% 17,6), bai Estatu osoan (% 14,4).

24. grafikoa Enpresen bilakaera, sektore ekonomikoaren arabera (indizea 2013=100)



Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).

Arreta 2013 eta 2019 ekitaldietan jarrita eta Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionaleko (EJSN-2009) banaketak aintzat hartuta, handizkako eta txikizkako merkataritzak eta ibilgailu motordunen eta motorren konponketak dira parte-hartzerik handiena duten jarduerak enpresa kopuruari dagokionez, bi ekitaldietan eta hiru geografia-eremuetan. Hala, EAEn 2019an jarduera hori burutzen duten 31.452 enpresek autonomia-erkidegoko guztizkoaren % 22,1 osatzen dute (% 22,8 zen 2013an). Datu hori jarduera horretan

Estatuan erregistratutako kuotaren oso antzekoa da (guztizko nazionalaren % 22 izan zen 2019an; % 24,3, aldiz, 2013an), eta Nafarroakoa baino pixka bat handiagoa (foru-erkidegoko guztizkoaren % 21,2 izan zen 2019an; eta % 23,5, 2013an).

145. koadroa Enpresak, atal ekonomikoaren arabera. 2013-2019 konparazioa

Kontzeptua	EAE		Nafarroa		Estatua	
	2013	2019	2013	2019	2013	2019
Guztira	153.709	142.198	40.860	44.224	3.146.570	3.363.197
Erauzte-industriak	50	40	35	26	2.567	2.060
Manufaktura-industria	12.210	10.111	3.240	2.957	182.179	178.280
Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire girotuaren hornidura.	445	511	477	703	15.094	11.847
Ur-hornidura, saneamendu-jarduerak, hondakinen eta deskontaminazioaren kudeaketa	298	264	149	143	6.745	6.889
Eraikuntza	23.962	19.451	6.249	6.213	425.593	422.350
Handizkako eta txikizkako merkataritza; ibilgailu motordunen eta motorren konponketa	35.048	31.452	9.603	9.366	765.379	741.357
Garraioa eta biltegiatzea	11.327	9.625	3.381	3.259	206.123	194.244
Ostalaritza	13.218	13.046	3.430	3.515	282.512	280.079
Informazioa eta komunikazioak	2.754	2.880	506	680	55.173	68.158
Finantza- eta aseguru-jarduerak	3.013	2.533	772	774	72.355	77.396
Higiezinekin lotutako jarduerak	3.331	2.567	1.146	1.498	129.002	179.484
Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	19.622	19.649	4.696	5.445	381.626	423.805
Administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak	5.832	4.863	1.905	2.424	163.421	198.210
Hezkuntza	3.559	4.353	712	1.426	79.108	106.434
Osasun-jarduerak eta gizarte-zerbitzuetakoak	7.687	8.355	1.373	1.663	144.772	165.690
Arte-, jolas- eta entretenimendu-jarduerak	2.972	3.416	938	1.392	75.553	101.346
Bestelako zerbitzuak	8.381	9.082	2.248	2.740	159.368	205.568

Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).

EAEko eta Estatu osoko 2019ko datuak kenduta, aintzat hartutako hiru geografia-eremuetan, handizkako eta txikizkako merkataritzaren eta ibilgailu motordunen eta motorren konponketaren ondoren, honako hauek nabarmendu behar dira hurrenez hurren: eraikuntza eta jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak. Hala, 2019an, EAEn eraikuntzaren atalak 19.451 enpresa biltzen ditu, autonomia-erkidegoko guztizkoaren % 13,7 (2013an % 15,6 zen); Nafarroan, 6.213 enpresa, foru-erkidegoko guztizkoaren % 14 (2013an % 15,3 zen); eta Estatuan, berriz, 422.350 enpresa hartzen ditu, guztizko nazionalaren % 12,6 (2013an % 13,5koa zen).

Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoek dagokienez, 2019an, 19.649 enpresa dira EAEn, hots, autonomia-erkidegoko guztizkoaren % 13,8 (2013an % 12,8 zen); Nafarroan 5.445 enpresa, foru-erkidegoko guztizkoaren % 12,3 (2013an % 11,5 zen); eta Estatuan, aldiz, 423.805 enpresa, guztizko nazionalaren % 12,6 (2013an % 12,1).

12.4 SOLDATAPEKOEN ESTRATUAK


Soldatapekoen estratuari dagokionez, eta lehenik eta behin haien agregazio handiagoa aintzat hartuz, 2013 eta 2019 artean bilakaera heterogeneoa ikus daiteke aztertutako hiru geografia-eremuetan.

EAEren kasuan, 2013 eta 2019 artean, enpresa kopuruak modu orokortuan egin du behera soldatapekoen estratu guztietan, salbuespen bakarrarekin: hiru eta bost soldatapeko dituzten enpresak, % 1,9 hazi baitira. Jaitsiera handiena sei eta bederatzi soldatapeko dituzten enpresen artean gertatu da (-% 14,7).

Nafarroan, sei eta bederatzi soldatapeko dituzten enpresek nahiz hamar eta hemeretzi soldatapeko dituztenek jaitsiera izan dute 2013 eta 2019 artean (-% 11,7 eta -% 5,9, hurrenez hurren); gainerako kasuetan, aldiz, gorakada izan da.

Estatu mailan, soldatapeko bat edo bi dituzten enpresek nahiz sei eta bederatzi soldatapeko dituztenek jaitsiera izan dute (-% 1,9 eta -% 1,3, hurrenez hurren); gainerako kasuek, aldiz, igoera izan dute.

25. grafikoa Enpresen bilakaera, soldatapekoen tarteen arabera (indizea 2013=100)



Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).

Azterketa 2013 eta 2019 ekitaldietara mugatuta eta soldatapekoen estratua desagregazio handiagoarekin landuz, soldatapekorik gabeko enpresek dute gehiengoa kontuan hartutako bi ekitaldietan eta hiru geografia-eremuetan. Hala, 2019an EAEn dauden mota horretako 70.734 enpresek autonomia-erkidegoko guztizkoaren % 49,7 hartzen dute (2013an % 49,9). Partaidetza hori baxuagoa da Estatukoa (gutzizko nazionalaren % 56; 2013an % 53,4 zen) eta Nafarroakoa (foru-erkidegoko guztizkoaren % 56,2; 2013an % 52,5) baino.

146. koadroa Enpresak, soldatapekoen estratuen arabera. 2013-2019 konparazioa

	EAE		Nafarroa		Estatua	
	2013	2019	2013	2019	2013	2019
Guztira	153.709	142.198	40.860	44.224	3.146.570	3.363.197
Soldatapekorik gabe	76.673	70.734	21.464	24.864	1.681.588	1.882.745
1-2 soldatapeko	48.201	43.975	11.289	11.434	922.646	905.013
3-5 soldatapeko	13.478	13.729	3.845	3.931	280.643	302.375
6-9 soldatapeko	6.642	5.664	1.853	1.636	125.029	123.424
10-19 soldatapeko	4.529	4.028	1.222	1.150	74.204	79.393
20-49 soldatapeko	2.671	2.584	728	742	39.506	45.082
50-99 soldatapeko	801	750	226	213	11.745	12.625
100-199 soldatapeko	398	397	129	143	6.130	6.658
200-499 soldatapeko	224	226	78	77	3.450	3.789
500-999 soldatapeko	55	68	14	19	885	1.083
1.000-4.999 soldatapeko	33	35	12	11	643	842
5.000 soldatapeko edo gehiago	4	8	0	4	101	168

Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).

Soldatapekorik ez duten enpresen ondoren, ordena honetan ageri dira aztertutako hiru eremu geografikoetan: soldatapeko bat edo bi dituzten enpresak eta hiru eta bost soldatapeko artean dituztenak. Hala, EAEn esparruan, 2019an bat edo bi soldatapeko dituzten 43.975 enpresek autonomia-erkidegoko guztizkoaren % 30,9 hartzen dute (2013an % 31,4); kuota hori estratu honek Estatuan (2019an % 26,9; 2013an % 29,3) eta Nafarroan (2019an % 25,9; 2013an % 27,6) lortutakoa baino handiagoa da. Era berean, 2019an EAEn hiru eta bost soldatapeko artean dituzten 13.729 enpresek autonomia-erkidegoko guztizkoaren % 9,7 biltzen dute (2013an % 8,8); kuota hori Nafarroan (2019an % 8,9 eta 2013an % 9,4) eta Estatuan (% 9; 2013an % 8,9) erregistratutakoa baino apur bat handiagoa da.



19

4. LEHEN SEKTOREA

1. IKUSPEGI OROKORRA

1.1 BILAKAERA ESTATU MAILAN

Duela hamarkada bat bizi izandako krisiak kaltetu egin zuen lehen sektorea, baina denbora batez baino ez. Ondorengo urteetan bere dinamikotasuna berreskuratu zuen, eta azken urteetan goranzko joera jarraitua eta egonkorra izan du. 2019an, ordea, 2009az geroztiko jaitsierarik handiena izan zuen nekazaritza-adarraren ekoizpenak, Nekazaritza Ministerioaren estatistika orokorraren arabera.

Nekazaritza-adarraren ekoizpenak $-2,9\%$ ko jaitsiera izan zuen. Haren baitako landare-ekoizpenaren azpisektoreak, berriz, jaitsiera are handiagoa izan zuen ($-6,9\%$). Landare-ekoizpenak lehen aldiz egin zuen behera 2014az geroztik, eta 2009az geroztiko jaitsierarik handiena izan zen. Hala, azpisektorea 2016ko antzeko mailara pasatu zen. Bestalde, animalia-ekoizpenak eta “zerbitzuak eta beste batzuk” kategoriek gora egin zuten ($+3,4\%$ eta $+1,7\%$, hurrenez hurren), aurreko urtean baino neurri handiagoan, eta horrek landare-ekoizpenaren beherakada konpentsatu zuen.

Balantze ekonomikoaren masa handien eta produktuen araberako azterketan gehiago sakonduz, landareen adarrak izandako ia 2.200 milioiko beherakadaren (29.300 milioitan geratu arte) zati handi bat, batez ere, frutaren eta zerealen jaitsierekin lotuta dagoela ikus daiteke. Frutek 1.845 milioiko jaitsiera izan zuten, eta zerealek ia 700 milioikoa. Epe luzeko testuingurua kontuan hartuta, zerealen beherakada ez zen ezohikoa izan, baina frutek izandakoa mende honetako jaitsierarik handiena izan zen.

2019an Espainiako kategoriarik garrantzitsuena ez zen frutena izan, barazkiak baizik. 2016an eta 2018an, ordea, bai, frutak nagusitu ziren, bi azpisektoreek 2013 inguruan hasitako hazkunde nabarmenaren testuinguruan. Bilakaera hori ez dator bat gainerako landareek epe luzean izan duten egonkortasun handiagorekin, esaterako, zerealek, ardoak edo olioak.

Hala, 2019an landare-ekoizpenak $57,9\%$ ko pisua izan zuen, 2012az geroztiko baxuena. Animalien ekoizpena, berriz, 2012ko maximora iritsi zen berriro, $38,7\%$ ra. Gainerako $3,5\%$ a sektoreari estu lotutako industria- eta zerbitzu-jardueren multzoak osatu zuten.

Frutaren kasuan, tona kopurua ($-7,4\%$) eta batez besteko prezioa ($-11,6\%$) jaitsi egin ziren. Ardoaren kasuan, batez ere, ekoiztutako kopurua jaitsi zen. Olioaren kasuan, 52% gehiago ekoiztu zuten, eta prezioa $23,6\%$ baxuagoa izan zen. Zerealen eta industria-laboreen kopurua 17% baino apur bat gehiago jaitsi zen.

Landareen adarra osotasunean kontuan hartuta, batez ere prezioa murriztu zen (-% 5,7), baina kopurua ere bai (-% 1,3). Animalien ekoizpenari dagokionez, berriz, datu horiek gora egin zuten % 2,1 eta % 1,3.

Espainiako abeltzaintza-sektorean txerri-aziendaren pisuak gora egiten jarraitzen du. 2019an % 11,9 hazi zen, batez ere, prezioen garestitzeagatik. Abeltzaintzaren guztizkoaren % 42 inguru dagokio txerri-aziendari, eta haragiaren eta abereen ataleko guztizkoaren erdia baino gehiago. Gainerako espezieek behera egin zuten apur bat edo apenas igo ziren 2019an; behi-aziendaren hazkundera gelditu egin zen. Esnaren ekoizpenak ere goranzko bilakaera izan zuen; hegaztien haragia eta arrautzak, berriz, % 10 merkeagotu ziren.

Estatuko nekazaritzako eta abeltzaintzako Balio Erantsi Gordinak landareen adarrak baino are jaitsiera handiagoa izan zuen, -% 7,8koa. Amortizazioak, diru-laguntzak eta zergak deskontatu ondoren geratzen den nekazaritza-errenta, berriz, apur bat gehiago jaitsi zen (-% 8,4). Krisi orokorrak geroztiko jaitsierarik handienak izan ziren, baina aurreko ekitaldietako igoera handiak konpentsatu zituzten. Dena den, sektoreak Espainiako ekonomian duen pisuak % 3ko maximotik gertu jarraitzen du.

147. koadroa Espainiako nekazaritza-sektorearen makromagnitudeak

(Meuro)

Kontzeptua	2018	2019*	% Δ 2019/2018		
	Balorea	Balorea	Balorea	Kopurua	Prezioa
A.- Nekazaritza-adarreko ekoizpena	52.157,7	50.656,9	-2,9	-0,3	-2,6
• Landare-ekoizpena	31.483,0	29.310,4	-6,9	-1,3	-5,7
• Animalia-ekoizpena	18.954,9	19.597,3	3,4	1,3	2,1
• Zerbitzu-ekoizpena	528,6	543,7	2,9	-0,4	3,3
• Bigarren mailako jarduerak, ez- nekazaritzakoak, ez-bereizgarriak	1.191,2	1.205,5	1,2	0,1	1,1
B.- Bitarteko kontsumoak	23.344,5	24.100,9	3,2	1,0	2,3
C.- (A-B) Balio erantsi gordina	28.813,2	26.556,0	-7,8	-1,3	-6,6
D.- Amortizazioak	5.349,5	5.516,2	3,1	-0,3	3,4
E.- Beste diru-laguntza batzuk	5.607,0	5.635,5	0,5	-	-
F.- Beste zerga batzuk	427,5	440,8	3,1	-	-
G.- (C-D+E-F) Nekazaritza-errenta	28.643,2	26.234,5	-8,4	-	-

(*): 2020ko urtarrileko 2. estimazioa. Ekoizleak jasotako oinarritzko prezioen arabera.
Iturria: Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa.

1.2 BILAKAERA EUSKAL HERRIAN

Sektorearen makromagnitudeak⁽¹⁾

EAEren kasuan, eskura ditugu 2019ko nekazaritza-, abeltzaintza- eta basogintza-sektoreen ekoizpenaren balio ekonomikoaren aurrerapen batzuk, eta, kalkulu horien arabera, multzoaren balio ekonomikoa 555,7 milioi eurokoa izan zen, aurreko urtean baino % 0,4 edo 2 milioi gehiagokoa. Dena den, aurreko urteko bilakaera baino hobea izan zuen. Azken hirurtekoan, multzoaren hazkundea % 1,8koa baino ez da izan. Guztizkoaren % 32 abeltzaintzari egokitu zitzaion 2019an, eta milioi bateko jaitsiera izan zuen (-% 0,5). Beste bi kategoriek, berriz, nekazaritzak (guztizkoaren % 50,7) eta basogintzak (% 13,4), aldakuntzak konpentsatu zituzten: nekazaritzak 13 milioiko galera izan zuen (-% 4,4), eta basogintzak ia 16 milioi irabazi zituen (+% 27,1). Guztizko balantzearen gainerako masa ekonomikoak ia ez ziren mugitu, eta nekazaritza-errenta, edo ekoizleentzako balio erantsi garbia, -% 0,2 jaitsi zen.

Epe luzera, sektorea bere maximo historikoetan geldi daitekeela adierazten du horrek: zehazki, 2019ko datua da altuena. Dena den, bitxia izanik ere, azpisektore bakoitza bakarka kontuan hartuz gero, ez dira mendeko balio maximoak hiru azpisektoreetako bakar batentzat ere.

Hamarkadaren hasierako krisiak nekazaritzaren eta basogintzaren balio ekonomikoari eragin zien, eta, ondorioz, sektore osoari. Hamarkadaren erdialdera arte sektoreak ez zituen berreskuratu krisiaren aurreko balioak. Abeltzaintzari ez zion asko eragin krisiak, eta goranzko bilakaera izaten jarraitu du, gorabehera txikiekin. Izan ere, abeltzaintzaren jarduera geldituta dago apur bat, eta prezioen igoerak oso apalak dira. Nekazaritza-sektoreak 2014az geroztiko lehen beherakada izan zuen 2019an, baina jaitsiera apala izan zen. Basogintza, berriz, etengabe hazten ari da 2009aren eta 2010aren artean jasandako erorikoaren ondoren, eta mendearen hasierako maximoetatik gertu dago berriro ere.

Landareen adarraren barruan, emaitzak oso desberdinak izan ziren. Mahastigintzaren eta ardogintzaren sektoreko ekoizpenak 30 milioi baino gehiago egin zuen behera, baina jaitsiera hori, neurri batean, beste kategoriatzat hartuz hazkundeak konpentsatu zuen. Izan ere, zerealek ia 10 milioiko igoera izan zuten, barazkiek 5,7 milioikoa eta beste kategoriatzat hartuz igoera txikiagoak.

Abeltzaintzari dagokionez, behera egin zuen apur bat, haragia ez diren produktuek izandako jaitsiera apalen ondorioz. Behi-haragiaren ekoizpenak gora egin bazuen ere, hazkunde hori ez zen nahikoa izan multzoak saldo positiboa izateko.

⁽¹⁾ EAEko nekazaritzako makromagnitudeen aurrerapena. Nafarroari buruzko informazio ofiziala beste denbora-eredu baten arabera argitaratzen da.

Basogintzaren kasuan, radiata pinuaren edo insignisaren salmentak ia heren bat igo ziren, eta horrek basogintzak ere gora egitea eragin zuen. Izan ere, pinu mota hori da Euskadiko basoetako produktu nagusia eta ugariena; sortutako balioaren lau bosten hari dagozkio.

Landareen adarreko lehen kategoria mahastiek osatzen dute, eta haien eragina –eta haien gorabehera handien eragina– garrantzitsua da. Izan ere, 2019an behera egin arren, nekazaritzako eta abeltzaintzako balioaren bosten bat inguru (% 20,4) dagokie mahastiei. Ondorengoak honakoak dira: barazkiak (% 12,7), behi-esnea (% 11,1), pinu-egurra (% 10,4), behi-haragia (%9,1), zerealak (% 8,4), eta, argi eta garbi urrunago, “beste abere-ekoizpen batzuk” (% 5,2), arrautzak (% 4,8), frutak (% 3,5), beste egur batzuk (% 3) eta patatak (% 2).

Landareen adarraren kasuan, barazkien eta zerealen goranzko bilakaera apalagoa izan da hamarkadan zehar, eta, zerealen kasuan, gorabeheratsuagoa. Abeltzaintzari dagokionez, behi-esnearen pisu ekonomikoa gelditu egin da hamarkadan zehar, prezioen beheranzko joeraren ondorioz. Behi-haragiaren pisu ekonomikoak, berriz, jauzi garrantzitsua egin du; dena den, gorabehera handiak izan ditu eta eskariak behera egiteko arriskuan dago.

148. koadroa EAEko nekazaritza-sektorearen makromagnituteak*

Kontzeptua	2017	2018	2019
Amaierako nekazaritza-ekoizpena	553,9	553,8	555,7
Nekazaritza	284,2	294,8	281,8
Abeltzaintza	192,1	178,9	178,0
Basozaintza-sektorea	56,5	58,6	74,5
Norbere konturako beste ekoizpen eta hobekuntza batzuk	21,0	21,5	21,5
- Sektoretik kanpoko gastuak	192,0	196,5	198,2
= Balio erantsi gordina (m.p.)	361,9	357,3	357,6
+ Saldoa: diru-laguntzak - zergak	63,4	65,0	64,9
= Balio erantsi gordina (f.k.)	425,3	422,2	422,5
- Amortizazioak	81,0	82,9	83,9
= Balio erantsi garbia (f.k.)= Nekazaritza Errenta	344,3	339,4	338,6

(*): Aurrerapen-datuak; baliteke gerora aldatzea.


Iturria: Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako estatistikak. Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila.

Prezioei dagokienez, nekazaritzaren sektoreak, orokorrean, % 6,3ko jaitsiera izan zuen: nekazaritzak % 10,1, abeltzaintzak -% 2,1 eta basogintzak -% 2,7. Mahastien prezioek -% 19,2 egin zuten behera, eta horrek azaltzen du mahastien balioak izandako beherakada handia neurri batean, baina ez guztiz. Industria-labore nagusiak, hots, azukre-erremolatxak (-% 12,7) eta txerri-haragiak (+% 15,8) ere bi digitutako aldakuntza izan zuten prezioan; txerri-haragiak, hala, buelta eman zion aurreko urteko beherakadari.

Kopuruei dagokienez, urte arteko aldakuntza handiak izan ziren: +% 35,2 zerealetan, +% 26,7 lekadunetan, +% 38,8 erremolatxan, -% 31,6 beste industria batzuetan, +% 38,9 insignis pinuan, eta, urrunago, +% 14,2 frutetan edo % 10,9 barazkietan.

Faktore-kostuetako BEGa gelditu egin da berriro ere EAEn, eta horrek prezioen eragina bertan behera uztea ahalbidetzen du. Nafarroan, berriz, faktore-kostuetako BEGaren goranzko joera egonkorragoa izan da, nahiz eta oso apala izan eta 2019an aldatu gabe mantendu.

26. grafikoa Balio erantsi gordinaren bilakaera, nekazaritza-sektoreko faktoreen kostura (M euro)



Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua. / Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako estatistikak. Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila.

Nafarroako bilakaera

Zurezko laboreen ekoizpenak behera egin zuen Nafarroan 2019an, Estatuan bezala. Hain zuzen ere, Estatuan, frutek izan zuten jaitsiera absoluturik handiena, eta ardoak, urte arteko beherakada handiena, ehunekotan (-% 25). Nafarroan ere fruten eta ardoaren balio ekonomikoak behera egin zuen, eta, datuei erreparatuta, hori izan zen urteko berri nagusia. Ardoari dagokionez, bi lurraldeetako jaitsierak normaltasun-mugaren barruan daudela uler daiteke epe luzera –Nafarroaren kasuan, igoera oso handi baten zuzenketa izan zen–. Frutari dagokionez, ordea, Estatuan, hazkunde-erritmo handi baten zuzenketa izan zen 2019ko beherakada; Nafarroan, aitzitik, azpisektorearen beste adierazle batzuek ere beheranzko joera izan dute epe luzean. Barazkiek ez zuten halako jaitsierarik izan, ez Nafarroan –non garrantzi berezia duten–, ez Estatuan.

Nafarroako Gobernuak emandako datuen arabera, Nafarroako abeltzaintzako eta nekazaritzako Balio Erantsi Gordina % 0,3 baino ez zen igo 2019an, 2010az geroztiko ehunekorik txikiena. Hala, sektoreak % 2,8ko pisua izan zuen Nafarroako ekonomiaren gainean, aurreko urtean baino hamarren bat gutxiago, Estatuko datuaren azpitik. Nafarroako BPGa % 3,8 hazi zen 2019an.

Nafarroaren kasuan eskura ditugun iturriek azpisektoreen ekoizpen ekonomikoaren gaineko datuak eskaintzen dituzte, baina Estatuko datuen kasuan baino atzerapen handiagoarekin. Hala ere, konparaketak egitea ahalbidetzen duten indize batzuk aurreratzen ari da Ministerioa. Adibidez, prezioenak.

2015eko prezioak erreferentzia gisa hartuz gero, eta azken urteetako bilakaerari erreparatu gero, Nafarroan landareen adarra urtero 2015ean baino maila altuagoan mantendu dela ikus daiteke, eta animalien adarra gutxiago hazi dela. Estatuan kontrakoa pasatu da. 2019ean, ordea, bi adarrak gerturatu egin ziren berriro ere. Nafarroan, landareen adarreko prezioek urte arteko $-4,2\%$ ko jaitsiera izan zuten, eta animalien adarrekoek $0,4\%$ ko igoera. Ondorioz, abeltzaintzaren eta nekazaritzaren balantze orokorra $0,4\%$ koa izan zen.

Landare-produktuen baitan, honakoak izan ziren aldakuntzak: $-1,9\%$ zerealetan, $+2,2\%$ lekadunetan, $-1,9\%$ patatan, $0,1\%$ industria-laboreetan, $7,0\%$ bazka-laboreetan, $-8,6\%$ frutetan, $24,1\%$ fruitu lehorretan (adibidez, arbendola, Nafarroan oso hedatua), $2,9\%$ barazkietan, eta jaitsiera oso handia ardoaren kasuan ($-30,2\%$). Baso-produktuak $8,5\%$ garestitu ziren.

Animalia-produktuen artean, txerri-aziendak izan zuen hazkunderik handiena ($22,2\%$); hegaztien ekoizpenak, berriz, behera egin zuen ($-18,2\%$). Behi-aziendak ($-0,8\%$), ardi-aziendak ($0,4\%$), ahuntz-aziendak ($-1,3\%$), untxiek ($6,8\%$), esneak ($0,1\%$), arrautzek ($-9,6\%$) eta animalia biziek ($6,7\%$) aldakuntza txikiagoak izan zituzten.

Nekazaritzako elikagaien kanpo-merkataritza

Bi autonomia-erkidegoek eskaintzen dituzte nekazaritzako eta abeltzaintzako esportazioen eta inportazioen gaineko datuak. Kasu honetan, elikagaien industriari dagozkion datuak ere kontuan hartzen dira. Izan ere, elikagaien industriako hornitzaileek beren kanpo-merkataritza propioa eta zuzena izan arren, industria sektore horrek ematen dio irteera nekazaritzako eta abeltzaintzako ekoizpenaren zati handi bati, eta sektore horrek inportatzen ditu Estatutik kanpoko nekazaritza eta abeltzaintza sektoreetako produktuak.

Hiru azpisektoreak, bi autonomia-erkidegoak eta esportazioen eta inportazioen kendura kontuan hartuta geratzen den balantzea positiboa da. Gainera, 2019an berritasun bat izan zen. Izan ere, 2013az geroztik behera egiten ari zen amaierako emaitza garbia, baina 2019an gora egin zuen. EAEko landareen esportazioen hazkundera izan zen, nagusiki, hobekuntzaren gakoa. Nafarroan, hamarkadan zehar lehen aldiz, behera egin zuten landareen azpisektoreko esportazioek; inportazioak ere jaitsi egin ziren, baina neurri apalagoan. EAEn, berriz, kontrakoa gertatu zen. 2018an landareen azpisektoreko

esportazioak egonkor mantendu ziren EAEn, eta inportazioak izugarri hazi ziren. 2019an inportazioen bolumenak altua izaten jarraitu zuen, baina esportazioek gora egin zuten.

149. koadroa Nekazaritzako elikagaien kanpo-merkataritza. Euskal Herria

(M euro)

Muga-zergen atala	Eremua	Esportazioak		Inportazioak	
		2018	2019	2018	2019
Animalia biziak eta animalia-erreinuko produktuak	EAE	266,3	262,5	425,5	427,5
	Nafarroa	181,3	204,4	175,8	178,2
	Euskal Herria	447,6	466,9	601,3	605,7
Landare-erreinuko produktuak, gantzak eta olioak	EAE	94,6	152,3	568,7	529,1
	Nafarroa	385,9	436,2	238,5	236,3
	Euskal Herria	480,5	588,5	807,2	765,4
Elikagaien industrietako produktuak	EAE	629,8	643,9	311,4	363,9
	Nafarroa	574,6	616,1	238,7	259,6
	Euskal Herria	1.204,4	1.260,0	550,1	623,5
Nekazaritzako elikagaien sektorea	EAE	990,7	1.058,8	1.305,6	1.320,5
	Nafarroa	1231,0	1256,7	688,5	699,0
	Euskal Herria	2.221,7	2.315,5	1.994,1	2.019,5
Nekazaritzako elikagaien sektoreak esportazio/inportazioen guztizkoaren gainean duen partaidetzaren %	EAE	3,9	4,2	5,1	6,6
	Nafarroa	13,5	12,4	14,2	12,8
	Euskal Herria	6,4	6,5	6,6	7,9

Iturria: Eustat eta Nafarroako Estatistika Institutua, Aduanen Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.

Nafarroan, landareen-azpisektorearen balantzeak apur bat okerrera egin bazuen ere, elikagaien industriak eta animalien azpisektoreak hobera egiten jarraitu zuten, eta, ondorioz, amaierako balantzeak goranzko joera mantendu zuen. EAEn, landareen-azpisektorearen galeraren ondorioz balantzeak negatiboa izaten jarraitu bazuen ere, azaldu dugun moduan, egoera apur bat hobetu zen, eta multzoaren balantzeak ere hobera egin zuen. EAeko nekazaritza-azpisektorearen edo landareen adarraren aldakuntzez harago, gainerako kategoriek aldakuntza txikiak izan zituzten, eta, orokorrean, bat etorri ziren multzoaren dinamikotasun ekonomikoaren goranzko joera orokorrarekin. Hamarkadan zehar, inportazioen hazkundearen ondorioz, beherakada handia izan du EAeko landareen balantzeak. Horrez gain, animalien azpisektoreko balantzeak ere negatiboa izaten jarraitzen du EAEn, baina landareen kasuan baino alde askoz txikiagorekin.

Biztanleria okupatua

Nekazaritza- eta abeltzaintza-sektoreetako enpleguari dagokionez, Estatistika Institutu Nazionalak egiten duen Biztanleria Aktiboaren Inkesta da bi autonomia-erkidegoen gaineko estimazioa eskaintzen digun adierazleetako bat.

Testuinguru honetan, probintzien laginak txikiagoak dira, eta horrek ekaineko edo bigarren hiru hilabeteetako kalkuluak, esanguratsuenak direnak, aldakorragoak izatea eragiten du. Izan

ere, Estatu osoko era guztietako pertsonekin ausaz osatutako lagin batek emandako emaitzetan oinarritutako datu estimatuak dira.

Dena den, sektorearen beraren idiosinkrasiak ere izan dezake eragina. Hala, urtearen erdialdean islatuta ager daitekeen "argazkian" eragin handia izan dezakete honakoek: hainbat ekoizpenen uzta- eta bilketa-kanpainak nola joan diren, zein datatan kontzentratu diren, zenbat lanesku behar izan duten, baldintza klimatikoak eta biologikoak, zein labore nagusitu den, etab.

Estatuari dagokionez, 2009ko krisi orokorraren ondorioz asko jaitsi zen enplegua, eta 2017 ingurura arte ez zen galera berreskuratu. 2017an asko hazi zen, eta mantendu egin da ondorengo biurtekoan.

150. koadroa Enplegua lehen sektorean*

Urtea	(m.pertsona)						
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE	Nafarroa	Euskal Herria	Espainia
2010	3,1	4,7	4,7	12,5	11,3	23,8	772,8
2011	2,4	3,9	3,4	9,7	7,1	16,8	735,9
2012	2,2	7,7	2,2	12,1	8,6	20,7	722,3
2013	4,6	7,6	3,2	15,4	15,5	30,9	753,1
2014	3,0	6,2	4,4	13,6	13,4	27,0	739,3
2015	1,8	6,2	2,5	10,5	9,4	19,9	740,4
2016	3,7	5,4	1,9	11,0	9,8	20,8	760,2
2017	3,8	7,7	3,8	15,3	10,1	25,4	832,6
2018	3,2	2,9	2,8	8,9	14,2	23,1	822,5
2019	3,4	4,2	3,4	11,0	12,5	23,5	809,3


(*): Urte bakoitzeko ekaineko datuak eskaini ditugu, sektoreko enpleguaren urtarokako bilakaera aztertzeko adierazgarriagoak direla uste dugulako.

Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkesta. EIN.

EAEan eta Nafarroan, eta Euskal Herrian orokorrean, enpleguaren profila ez da "U" formakoa izan hamarkadan zehar. Hamarkadaren erdialdean balio maximoak izan zituen, eta ondoren balio horiek apaldu egin ziren. 2019aren lehen zatiko estimazioak duela hamarkada bat erregistratutakoen antzekoak dira. Badirudi azkenaldian nahiko geldi daudela EAeko zifrak, batez ere, Bizkaikoak. Ondorioz, alde esanguratsua nabari da Nafarroako datuekin alderatuta, han hobeak baitira. Hamarkadan zehar, Bizkaiko zifrak altuagoak izan dira Arabakoak edo Gipuzkoakoak baino. 2018an ez zen halakorik gertatu, baina 2019an bai, alde gutxirekin izan arren.

27. grafikoa Enpleguaren bilakaera lehen sektorean*

(m pertsona)



(*): Urte bakoitzeko ekaineko datuak eskaini ditugu, sektoreko enpleguaren urtarokako bilakaera aztertzeko adierazgarriagoak direla uste dugulako.

Iturria: EIN Biztanleria Aktiboaren Inkesta.

2. NEKAZARITZA-AZPISEKTOREA

EAEko eta Nafarroako nekazaritza-azpisektoreak kontraste handiak ditu, bai autonomia-erkidegoen artean, bai produktu nagusien artean. Produktu batzuen kalitateak ospea hartu du azken urteetan, gastronomiari eta turismoari esker. Beste produktu batzuen kasuan, berriz, lehia handia dago beste leku batzuetatik ekarritako salgaien prezioa dela eta, ondorioz, herritarrek gertuko kontsumo ekologikoari balioa eman diezaioten saiatu behar du sektoreak.

Euskal Autonomia Erkidegoa da joera horren gune eta onuradun nagusia. Badaude jatorri-izendapen oso zehatzak dituzten produktu batzuk, ospe handia dutenak, eta oso errentagarriak direnak. Hori, zeharka, positiboa da nekazaritza-azpisektorearentzat.

Nafarroan joera hori ez da hainbeste antzematen, baina bertako produktuen kalitateari balio handia ematen diote Estatuan. Beti bezala, EAEn baino pisu handiagoa izaten jarraitzen du nekazaritzak Nafarroan, baita hedadura handiagoa ere. EAEko eta Nafarroako produkturik gehienak Nafarroan ekoizten dira, EAEn espezializazio edo kontzentrazio handiagoa duten produktu gutxi batzuk izan ezik (patata eta ardoa Araban, txakolina, sagardoa, piperra...).

Nafarroan "industrializaziorako" joerak garrantzi handiagoa hartu du, nekazaritza-azpisektoreen aniztasun handiagoa baitago. Errentagarritasun eta ospe txikiagoa duten produktu batzuk, hala ere, ekoizten jarraitzen dute, baina tona kopurua eta diru-sarrerak murrizten ari dira apurka. Nafarroako Erriberako baratzak jarraitzen du sektorearen gailurra izaten, eta errendimendu esanguratsua duten produktuen kopurua zabala da bertan.

Kanpoko joerek eta egoera klimatikoek eragin egiten diete tokiko produktuaren ospari zein gertuko kontsumoari, eta, ondorioz, produktu askoren kasuan nabarmen aldatzen dira azalera, tona kopuruak, prezioak eta amaierako balioa. Dena den, produktu ugarietan epe luzeko joerak antzematen dira, positiboak zein negatiboak.

Aztertu dugun ekoizpen-taulan kategorien arteko aldeak ikus daitezke 2019ko balantzearen eta aurreko urtekoaren artean. Zerealen eta bazkaren ekoizpenak gora egin zuen; barazkien eta industria-laboreen ekoizpena suspertu edo, gutxienez, egonkortu egin zen; zurezko laboreen kasuan, hala nola fruta-arbolak edo mahastiak, beherakada izan zen, eta aurreko urteko gorakada orekatu zuen; tuberkuluen ekoizpena, berriz, jaitsi egin zen berriro ere.

2.1 EKOIZPENAK, AZALERAK ETA ERRENDIMENDUAK

Lehenik eta behin, bi autonomia-erkidegoetako Nekazaritza Ministerioek tona kopuruaren gainean jasotako datuetara gerturatuko gara.

Nabarmentzekoa da, 2018an gorakada handia izan ondoren, ardoaren ekoizpena 2017ko kopuruarekin edo are baxuagoetara itzuli zela.

Aitzitik, zereal nagusiek % 10 inguruko igoera izan zuten, garagarrak izan ezik, zeinak jaitsiera apal bat izan zuen. Bazka-produktuek, berriz, hazkunde apalagoak izan zituzten, hala nola abereentzako pentsuak.

Barazki gehienek aldaketa txikiak izan zituzten, digitu bakarrek, eta ia denek beherantz. Tipula eta ilar berdea izan ziren salbuespenak, urte arteko hazkunde nabarmena izan baitzuten. Tuberkulu nagusiak, patatak, nabarmen egin zuen atzera, eta industria-labore nagusiak, azukre-erremolatxak, gora egin zuen.

Frutei dagokienez, sagarra mantendu zen hobekien, batez ere sagardotarakoa. Madariak eta mertxikak, berriz, jaitsiera handia izan zuten.

Ministerioen datu hauek, bestalde, EAEko eta Nafarroako ekoizpena Estatuko ekoizpenarekin alderatzeko aukera ematen dute. Produktu batzuk Estatuko batezbestekoaren gainetik daude, eta horiek gure eremuan bereizgarriak direla edo espezializatuta daudela esan daiteke: zainzuria, espinaka, azalorea, brokolia, ilar berdea edo sagardotarako sagarra.

Zerealei dagokienez, garagarraren eta gariaren ekoizpenak gorabeherak izan zituen 2015-18 hirurtekoan, baina geroztik garia gailendu egin da, eta garagarra gelditu. Artoa eta oloa egonkortu egin dira. Bazkari dagokionez, bazka-artoaren ekoizpenaren joera goranzkoa izan da epe luzean. Alpaparen joera, berriz, beheranzkoa izan da; dena den, 2019an beherakada apalagoa izan zuen 2018an baino.

Barazkien artean, tona kopuru handiena ekoizten dena, tomatea, egonkortu egin zen. Bigarren lekuan brokolia dago; hamarkada honetan izugarriko gorakada izan du, baina azken hiru urteetan behera egin du, eta apur bat orekatu da aurreko urteetako hazkundera. Antzekoa gertatu zitzaion piperrari, aurreko urteetan goranzko joera izan baitzuen, neurri txikiagoan bada ere. Azalorak kendu zion hirugarren postua piperrari. Azken bost urteetan bikoiztu egin da azalorearen ekoizpena, baina 2019an moteldu egin zen. Atzerago egon arren, goranzko joerarekin jarraitu zuten tipulak eta ilar berdeak.

151. koadroa Euskal Herriko nekazaritza-ekoizpen adierazgarrienak*

(m Tm)

Produktua	2018	2019**	% Δ 19/18	% Euskal Herria / Espainia 2019
Zerealak				
– Garia	520,4	568,9	9,3	9,7
– Garagarra	392,0	389,5	-0,7	5,3
– Oloa	85,7	93,9	9,6	11,6
– Artoa	162,2	178,2	9,9	4,3
Bazka-laboreak				
– Artoa	233,8	244,5	4,6	6,0
– Alpapa	261,4	270,6	3,5	2,9
Barazkiak				
– Zainzuria	6,7	6,8	0,8	10,0
– Letxuga	18,9	17,1	-9,3	1,7
– Espinaka	13,7	12,8	-6,3	16,6
– Tomatea	153,6	157,6	2,6	3,0
– Piperra	32,4	30,6	-5,6	2,1
– Orburua	14,9	13,8	-7,0	6,9
– Azalorea	40,3	38,1	-5,5	20,3
– Brokolia	76,3	73,1	-4,3	13,5
– Tipula	21,0	25,4	21,0	1,9
– Leka	12,8	13,0	2,2	9,2
– Ilar berdea	17,8	20,0	12,2	17,9
Fruta-arbolak				
– Sagardo-sagarra	8,4	9,0	7,3	9,9
– Mahai-sagarra	14,4	14,0	-2,6	2,5
– Madaria	19,9	16,9	-15,1	5,4
– Mertxika	11,7	8,9	-24,0	1,0
– Arbedola	2,6	2,6	0,2	0,8
Ardoa eta muztioa (m HI)	1.682,1	1.244,9	-26,0	3,3
Patata	74,0	61,0	-17,7	2,7
Azukre-erremolatxa	151,1	175,1	15,8	6,2

(*): *Balioespenak.*

(**): *Behin behineko datuak.*

Iturria: Nekazaritza eta Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren hileko buletina.

Fruta-arbolen ekoizpenak aldaketa handiak izan ditu hamarkadan zehar. Tona kopuruari dagokionez, madaria ekoizten da gehien. 2014an eta 2017an ekoizpen maila oso altua izan ondoren, hamarkadako lehen zatiko kopurueta bueltatu zen 2019an. Mahai-sagarra bigarren postuan mantendu zen, madariaren antzeko bilakaera izan ondoren. Mahai-sagarraren kasuan, nabarmenagoa da beheranzko joera, gero eta gehiago ekoizten baita sagardoa egiteko sagarra. Sagardo-sagarrak gorabehera handiak izan ditu azken ekitaldian, baina hamarkadaren hasierako pixkanakako goranzko erritmoa hartu du berriro ere. Lehen aldiz, mertxikaren ginetik kokatu da. 2009ko eta 2019ko tona kopuruak alderatuz gero, pisuaren erdia inguru galdu duela ikus daiteke. Arbedolaren ekoizpena, berriz, egonkor mantendu da. Industria-labore nagusiak, azukre-erremolatxak, beheranzko joera apala du, nahiz eta gorabehera ugari izaten dituen. 2019an, esaterako, aurreko urtean izandako beherakadaren zati bat berreskuratu zuen. Patata, bestalde, egonkor mantendu da, eta 2017an izandako gorakada konpentsatu du ondorengo 2 urteetan.

152. koadroa Euskal Herriko produktu esanguratsuenekin landatutako azalera*

Produktua	2018	2019**	% Δ 19/18	% Euskal Herria / Espainia 2019
<i>(ha)</i>				
Zerealak				
– Garia	101.749	103.514	1,7	5,4
– Garagarra	96.467	90.845	-5,8	3,4
– Oloa	17.777	18.108	1,9	3,9
– Artoa	13.638	15.527	13,9	4,3
Bazka-laboreak				
– Bazka-artoa	5.278	5.360	1,6	4,9
– Alpapa	6.513	6.467	-0,7	2,5
Barazkiak				
– Zainzuria	1.947	1.763	-9,5	12,2
– Letxuga	862	765	-11,3	2,2
– Espinaka	847	695	-17,9	13,0
– Tomatea	2.221	2.302	3,6	4,0
– Piperra	1.213	1.150	-5,2	5,3
– Orburua	1.165	1.163	-0,2	8,1
– Azalorea	1.729	1.852	7,1	23,7
– Brokolia	6.007	5.356	-10,8	16,9
– Tipula	413	407	-1,5	1,6
– Leka	1.278	977	-23,6	13,3
– Ilar berdea	2.370	2.596	9,5	15,9
Patata	1.938	1.884	-2,8	2,7
Azukre-erremolatxa	2.100	1.767	-15,9	5,8

(*): *Balioespenak.*

(**): *Behin behineko datuak.*

Oharra: Ez ditugu sartu mahastizaintzaren eta fruta-arbolen azalerei buruzko datuak, horien argitalpenaren nahitaezko maiztasun mugatuagatik (bost urtetik behin).

Iturria: Nekazaritza eta Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren hileko buletina.

Erabilitako azaleraren adierazleak, izatez, egonkorragoak dira, eta epe luzeko joerak argiago ikusteko aukera ematen dute. Zerealen artean, garia da azalera gehien hartzen duena, garagarrari lekua kenduta. Aztertu ditugun gainerako zerealen azalera –bazka-produktuak bezalaxe– egonkor mantendu da, eta artoa azalera berreskuratzen ari dela ikus daiteke.

Barazkien artean, nabarmentzekoa da brokolia lehen urtez beherantz egiten hasi zela, hedatze-joera oso indartsu baten ondoren. Aurretik ikusita bezala, ekoizpen-jarduerak aurreko 3 urteetan beheranzko joera zuen ordurako. Gainerako barazkiek epe luzerako joerak baieztatu dituzte. Ilar berdearen kasuan, goranzko joera argia; tomatea, piperra, tipula eta orburua erabat egonkortuta daude; zainzuriak behera egin zuen apur bat, baina 2017ko maila eskuratu zuen berriro; azaloreak 2018ko goranzko jauziari eutsi zion; espinakak eta letxugak hedadura galtzen jarraitu zuten. Erremolatxaren azalera bat dator haren ekoizpenaren bilakaerarekin. Patataren kasuan, berriz, azaleraren beheranzko joera ez dator bat tona kopuruarekin.

153. koadroa Nekazaritza-produktu esanguratsuenek lortutako errendimenduak*

(Tm/ha)

Produktua	Euskal Herria		Espainia	
	2018	2019**	2018	2019**
Zerealak				
– Garia	5,1	5,5	3,9	3,0
– Garagarra	4,1	4,3	3,6	2,8
– Oloa	4,8	5,2	2,7	1,8
– Artoa	11,9	11,5	11,9	11,7
Bazka-laboreak				
– Bazka-artoa	44,3	45,6	37,8	37,3
– Alpapa	40,1	41,8	38,0	36,6
Barazkiak				
– Zainzuria	3,5	3,8	4,7	4,7
– Letxuga	21,9	22,4	27,8	28,5
– Espinaka	16,2	18,5	18,1	14,5
– Tomatea	69,2	68,5	85,0	90,9
– Piperra	26,7	26,6	62,3	66,7
– Orburua	12,8	11,9	12,8	14,1
– Azalorea	23,3	20,5	24,5	24,1
– Brokolia	12,7	13,6	16,2	17,0
– Tipula	50,9	62,4	53,5	55,2
– Leka	10,0	13,4	17,6	19,3
– Ilar berdea	7,5	7,7	7,9	6,9
Patata	38,2	32,4	29,8	33,1
Azukre-erremolatxa	72,0	99,1	81,3	92,8

(*) *Balioespenak.*(**) *Behin behineko datuak.**Iturria: Nekazaritza eta Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren hileko buletina.*

Labore mota bakoitzerako azaldu ditugun azalera- eta ekoizpen-datuetatik abiatuta, hektarea bakoitzeko errendimendua kalkula daiteke, tonatan. Datu hauek nahiko egonkorak dira, kasu gehienetan. Produktuen hobekuntza biologikoak edo meteorologiak eragin ditzakete aldaketak, gehienetan epe motzekoak, urte artekoak, baina kasu batzuetan jauzi kualitatibo nabarmenak ikus daitezke. Landare bakoitzaren ezaugarriak eta labore bakoitzaren baldintzak partikularrak dira. Batzuek, adibidez erremolatxak, beste batzuek baino masa handiagoa hartzen dute hektareako, eta urte arteko aldakuntza handiagoa izaten dute. 2019an, esaterako, erremolatxaren errendimenduak jauzi bat eman zuen, baina aurreko urteko ezohiko datua orekatu baino ez zuen egin jauzi horrek. Tipularen kasuan, berriz, egindako aurreranzko jauzia berritasun bat izan zen, eta baliteke aurrerago orekatzea edo ez orekatzea.

Produktu batzuen errendimendua landatze-modalitate ezberdinen mende egoten da. Beste produktu batzuek, berriz, denboran zehar aldatzen ez den metodo finko bat behar izaten dute. Lursail moten arabera, produktuen errendimenduak ezberdinak izan daitezke. Ondorioz, EAEn eta Nafarroan zerealek eta bazkak errendimendu handiagoa dute Estatuan baino. Barietateek ere badute eragina errendimenduan. Adibidez, tomateak, edo are gehiago piperrak (mota askotako barazkia), errendimendu handiagoa dute Estatuan. Era berean, produktu jakin baten kasuan, lurralde batzuetan kopuruari baino garrantzi handiagoa ematen diote kalitateari, eta beste lurralde batzuetan alderantziz.

2.2 NEKAZARITZAKO PREZIOAK

Prezioek asko baldintzatzen dute sektorearen ekitaldiko ekoizpenaren azken balioa, eta nekazaritzaren alorrean prezioak asko aldatzen dira. Labore multzo baten urte amaierako balioa kuantifikatzen duen estatistika bat du Nafarroako Gobernuak, dagoeneko azaldu ditugun azaleraren, ekoizpenaren edo errendimenduaren gaineko estatistiken oso antzekoa.

2018an ardoak ezohiko garestitzea izan zuen, eta mahastizainek hektolitroko jasotako prezioa ia bikoiztu egin zen. 2019an, berriz, prezioa ia heren bat jaitسي zen, eta aurreko urtean irabazitakoaren zati handi bat galdu zuen.

2018 bezala, 2019an ere, orokorrean, behera egin zuten prezioek, baina aurreko urtean baino aldakuntza txikiagoarekin; 2018an heren baten inguruko jaitsierak izan ziren. Barazkien joera anitzagoa da frutena edo zerealena baino.

Aztertutako fruten artean, prezioek goranzko joera izan dute, mertxikak izan ezik. Mertxikak gorabeherak izan ditu azkenaldian, eta horrek okertu egin du epe luzean izan duen ekoizpenaren jaitsiara. Bitxia izan da arbendolaren kasua. 6 urtetan bere balioa hirukoiztu zuen, ondorengo 3 urteetan hazkunde horren bi herenak galdu zituen, eta 2019an bere lekua berreskuratu zuen.

Zerealen eta bazkaren kasuan ere magnitudeen ordena antzekoa da kilogramoko prezioei dagokienez, eta, orokorrean, egonkortasunerako joera dute, zerealek 2012an goia jo ondoren; balio maximo hark, aldi berean, kategoria honetako produktu guztiei eragin zien.

Barazkiei dagokienez, deigarria da zainzuriaren prezioaren bat-bateko beherakada, 2011-18 tartean prezioa bikoiztu ondoren. Tomatearen datuak, berriz, finkatu egin ziren, tona kopuruari dagokionez produktu nagusia izan arren, 2016ko prezioa baino askoz baxuagoa izan zuen. Prezio altueneko barazki gehieneko prezioak egin du behera apur bat. Tomatearen eta letxugaren salbuespenak kontuan izan gabe, haien prezioek gora egin baitute azken urteetan, gainerakoek ez dute aldaketa handirik izan eta ekoizpen bakoitzaren epe luzeko batebestekoarekin bat datoz. Barazkiez gain, patatekin ere gauza bera gertatzen da.

154. koadroa Nekazaritza-produktu esanguratsuenen prezioak(*)

Produktua	Nekazariak jasotako prezioak (euro/100 kg)		
	2018	2019	% Δ 19/18
Zerealak			
– Garia	18,84	18,55	-1,5
– Garagarra	17,89	17,36	-3,0
– Oloa	14,99	16,37	9,2
– Artoa	17,84	18,04	1,1
Bazka-laboreak			
– Alpapa	11,02	11,76	6,7
Barazkiak			
– Aza (burua)	24,35	28,55	17,2
– Zainzuria	324,35	267,75	-17,5
– Letxuga	59,81	55,41	-7,4
– Espinaka	71,47	64,56	-9,7
– Tomatea	11,14	11,38	2,2
– Piperra	76,06	70,33	-7,5
– Orburua	83,22	71,41	-14,2
– Azalorea	35,90	41,40	15,3
– Brokolia	56,40	56,10	-0,5
– Tipula	25,20	14,66	-41,8
– Leka	46,50	45,42	-2,3
– Ilar berdea	25,20	25,40	0,8
Fruta-arbolak			
– Sagarra	53,88	45,52	-15,5
– Madaria	54,97	55,65	1,2
– Mertzika	47,31	39,61	-16,3
– Arbedola	96,19	119,30	24,0
Ardoa (euro/Hl)			
– Ardo zuri berria	110,22	76,32	-32,5
– Ardo beltz berria	96,09	64,88	-30,8
Patata (sasoi erdikoa)	39,65	38,13	-3,8
Patata (berantiarra)	24,94	25,18	1,0

(*): Balioespenak.

Iturria: Coyuntura Agraria-ren buletina. Nafarroako Gobernua. Landa Garapeneko, Toki Administrazioako eta Ingurumeneko Departamentua.

3. ABELTZAINZA-AZPISEKTOREA

Historian zehar abeltzaintzak garrantzi handia izan du EAEn eta Nafarroan, batez ere, habitat atlantikoan. Azken hamarkadetan, ordea, aldaketa bortitzak jasan ditu sektoreak, eta oraindik aldatzen ari da. Hausnar egiten duten abereen (behi-aziendak eta ardi-aziendak, nagusiki) ustiategi kopurua, beti landa-eremuko bereizgarriena izan dena, izugarri murriztu da pixkanakako kontzentrazioaren eta industrializazioaren ondorioz.

Oro har, 2019an, ekoiztako kopuruak mantendu egin ziren. Esnari dagokionez, Euskal Herriak eta Errioxak osatutako multzoa kontuan hartuz gero, ekoizpena eta kontsumoa ia parekatu egin ziren, Nafarroako INTIA-ITG institutuaren arabera.

Dena den, prezioek behera egiten dute etengabe. Ondorioz, sektoreak egokitzen joan behar izan du uneoro: kontzentrazioa, teknologia berriak, arrazak hobetzea, abeltegi eta abere bakoitzeko produktibitatea handitzea, merkatu-estrategiak eta balio erantsia, etab.

Azken urteetan garrantzi berezia hartu dute sektorearentzat mehatxu bihurtu diren bi kezka sozialek. Batetik, negutegi-efektuko gasen emisioaren kontzientziak. Bestetik, dieta- eta pentsamolde-aldaketen eraginez haragiaren kontsumoa izaten ari den etengabeko beherakadak. Haragiaren ekoizpena errentagarria izateari uzteko arriskuan dago, eta esnearen ekoizpenak multzoari eusteko presioa jasotzen du.

Lurraldearen kohesioa, kohesio soziala eta landa-paisaia mantentzeko sektoreak eskaintzen dituen onurak, eta gertuko kontsumoak ematen dituen elikadura-kalitatea eta konfiantza ez dira nahikoa izaten ari aipatutako faktore negatiboak orekatzeko.

Hegaztien eta txerri-azienden negozioen egoera ezberdina da. Behi-haragiaren eta ardi-haragiaren beherakada hegazti-haragiak ordezkatu du neurri handi batean, eta hegazti-haragiaren industriak gorakada handia izan du, bereziki, Nafarroan.

Txerri-haragiak gorakada handia izan du Estatuan, nazioartean duen ospeagatik. Igoera horretan eragin nabarmena izan du gure lurraldeak, Nafarroaren ekoizpenari esker, eta sektorea hazi egin da apur bat; hain zuzen ere, Estatukoaren atzetik nahiko gertu dago. Igoera hori ez da islatzen ganaduaren hilketan, izan ere, produkzio-prozesuaren zati hori Nafarroatik kanpo egiten da 2017az geroztik.

3.1 ABELTZAINZA-ERROLDA

4 azienda mota nagusien Euskal Herriko abeltzaintza-errola 1,67 milioi animaliakoa da, eta Estatuko guztizko erroldaren % 3 osatzen du. Kopuru hori erkidegoka eta espezieka sailkatuz gero, 2019an guztizkoaren % 38,8 Nafarroako txerri-azienda zen; % 28,4, erkidego horretako ardi-azienda, eta % 7,2, Nafarroako behi-azienda. Bestalde, % 8,1 EAEko behi-azienda zen; % 13,1, erkidego horretako ardi-azienda, eta % 2,1 eskas, EAEko txerri-azienda. Ahuntz-aziendak osatzen du guztizkoa. EAEko % 2,1 zen ahuntz-azienda, eta Nafarroako % 0,8. Ikus daitekeen moduan, bazkatzen diren habitatarekiko nahiko modu proportzionalan banatzen dira espezieetako hiru, baina, jakina den moduan, txerri-aziendaren kudeaketak beste ezaugarri batzuk ditu, eta Nafarroan biltzen dira ia guztiak.

155. koadroa Abeltzaintza-errola (urte bakoitzeko azaroaren 30ean)

Eremua	Urtea	(abelburuak)			
		Behi-azienda	Ardi-azienda	Ahuntz-azienda	Txerri-azienda
EAE	2014	141.979	263.796	28.023	24.800
	2015	135.569	259.454	26.410	27.124
	2016	136.510	253.660	28.732	32.348
	2017	137.339	239.265	27.438	34.895
	2018	134.611	229.795	26.695	35.773
	2019	136.126	219.080	26.058	35.801
Nafarroa	2014	114.030	527.890	12.708	546.356
	2015	116.223	516.469	12.968	528.764
	2016	115.737	508.138	12.985	647.096
	2017	122.293	498.116	13.010	650.250
	2018	122.566	480.251	12.947	610.897
	2019	120.170	475.306	13.012	650.029
Euskal Herria	2014	256.009	791.686	40.731	571.156
	2015	259.454	775.923	39.378	516.469
	2016	252.247	761.798	41.717	679.444
	2017	259.632	737.381	40.448	685.145
	2018	257.177	710.046	39.642	646.670
	2019	256.296	694.386	39.070	685.830
Espainia	2014	6.078.733	15.431.804	2.704.229	26.567.578
	2015	6.182.908	16.522.956	3.009.582	28.367.335
	2016	6.257.057	15.962.892	3.088.035	29.231.595
	2017	6.465.747	15.963.106	3.059.731	29.971.357
	2018	6.510.592	15.852.525	2.764.790	30.804.102
	2019	6.600.333	15.478.615	2.659.112	31.246.043
Euskal Herria/Espainia %	2019	3,9	4,5	1,5	2,2

Iturria: Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa.

Azken hamarkadan behi-aziendak behera egin du EAEn, gutxika eta modu apalean. Nafarroan, berriz, mantendu egin da, eta azken hirurtekoan goranzko jauzi txiki bat egin du. Ardi-aziendak beherakada handiagoa izan du EAEn Nafarroan baino. Ahuntz-aziendak ere behera egin du EAEn, baina oso modu apalean, eta Nafarroan gora egin du apur bat. Azkenik, txerri-aziendak hazkunde apala izan du EAEn, eta neurri handiagoan hazi da Nafarroan.

Lurralde osoa eta azken hamarkada kontuan hartuta, behi- eta ahuntz-aziendak mantendu egin dira, ardi-aziendak behera egin du etengabe, eta txerri-azienda kopuru maximoan dago. Estatuko bilakaera antzekoa izan da, baina kasu horretan txerri-aziendaren pisu erlatiboa askoz handiagoa da, eta azken bosturtekoan izandako igoera nabarmenagoa izan da. Dena den, alpatzekoa da Nafarroan 2019an txerri-aziendak % 6,4 egin zuela gora (% 6,1 Euskal Herrian), eta Espainian % 1,4 baino ez. Hala eta guztiz ere, Nafarroaren kasuan, aurreko urteko beherakadaren suspertzeari dagokio hazkunde hori; Espainian, berriz, zazpigarren urtez jarraian hazi zen.

3.2 ABERE-EKOIZPENA ETA EMAITZA EKONOMIKOAK

Esne-ekoizpena eta emaitza ekonomikoak

Esnearen negozioari dagokionez, esnearen prezioa behera egiten ari da, aurrez aipatu bezala, baina, esnea ekoizten duten animalien haragiaren kasuan ez bezala, esnearen eskaria ez da jaitsi. 2019an, aurreko bi urteetako ia esne bolumen bera ekoitzi zuten Euskal Herrian. Alor honetan, Nafarroak eta EAEko lurraldeek bilakaera desberdina izan zuten: hamarkadaren hasieran Nafarroak EAE gainditu zuen ekoiztutako litro kopuruari dagokionez; kopuru hori hazi egin zen –bereziki, 2015ean erregistratutako jauziarekin–, eta azken bosturtekoan heren bat altuagoa izan da, gutxi gorabehera, Nafarroako esne-ekoizpena.

156. koadroa Esne-ekoizpena

Urtea	Eremua	Esne-ekoizpena			
		Behia	Ardia	Ahuntza	Guztira
					<i>(m litro)</i>
2017	Araba	49.379	3.023	136	52.538
	Bizkaia	62.063	1.689	423	64.175
	Gipuzkoa	74.573	5.188	208	79.969
	EAE	186.015	9.898	769	196.682
	Nafarroa	238.643	15.043	297	253.984
	Euskal Herria	424.658	24.942	1.066	450.666
2018	Araba	49.014	2.994	163	52.170
	Bizkaia	60.553	1.727	467	62.748
	Gipuzkoa	73.070	5.393	167	78.630
	EAE	182.637	10.114	797	193.548
	Nafarroa	241.712	15.752	274	257.738
	Euskal Herria	424.349	25.866	1.071	451.286
2019	Araba	50.957	2.931	162	54.050
	Bizkaia	58.499	1.696	506	60.701
	Gipuzkoa	71.458	5.428	175	77.060
	EAE	180.914	10.055	842	191.811
	Nafarroa	242.154	14.661	270	257.085
	Euskal Herria	423.068	24.716	1.112	448.896

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Sektoreen Estatistika eta Anlisi Zerbitzua. Nafarroako Gobernua. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentua.

Aitzitik, EAeko hiru lurraldeetan jaitsiera apal bat izan zuen esne-ekoizpenak hamarkadaren hasieran, ondoren apur bat suspertu zen, eta azken hirurtekoan behera egin du berriro pixka bat, Araban izan ezik, non ekoizpena ez den jaitsi. EAEn antzeko guztizko kopuruak izan zituzten 2019an, 2015ean eta 2011n, eta Gipuzkoak jarraitzen du pisu handiena izaten.

Ardi-esnearen ekoizpena 20 aldiz txikiagoa den arren, lurralde guztietan gora egin du eta, ondoren, egonkortu egin da. Nafarroako ekoizpenak 2015ean egindako jauziak eta ondorengo egonkortzeak ardi-esnari ere eragin zion. Ahuntz-esnearen ekoizpena ardi-esnearen ekoizpena baino 25 aldiz txikiagoa da, eta, kasu honetan, Bizkaian ekoizten da gehien. Bertan, 2014an ekoizpena igo zen, eta oraindik modu esanguratsuan igotzen jarraitzen du.

Behi-esnearen erabilerak eta ardi-esnearen erabilerak oso ezberdinak dira. Behi-esnearen kasuan, proportzioak nahiko egonkor mantendu dira. Erabilera nagusia zekor-hazkuntza da, ia bolumenaren erdia erabiltzen baita horretarako. Kontsumorako salmenta da bigarren erabilera nagusia; gorabehera ugariren ondoren, beheranzko joera du orain, gainerako erabilerek bezala. Nabarmentzekoa da ustiatagietako pertsonen kontsumorako bideratutako esne kopurua ere, gutxiago izan arren.

157. koadroa EAEn ekoiztako esnearen erabilera

Erabilera	2017	2018	2019	(m litro) % Δ 19/18
Behi-azienda	186.014	182.637	180.914	-0,9
– Zekor-hazkuntza	5.086	4.850	4.794	-1,2
– Pertsonen kontsumoa ustiategian	1.393	1.315	1.184	-10,0
– Zuzeneko salmenta kontsumitzaileei	3.876	3.627	3.565	-1,7
– Salmenta esne-zentralei	175.659	172.845	171.371	-0,9
Ardi-azienda	9.898	10.114	10.055	-0,6
– Gazta	5.801	5.857	5.248	-10,4
– Pertsonen kontsumoa ustiategian	42	42	38	-9,9
– Zuzeneko salmenta kontsumitzaileei	464	499	486	-2,5
– Salmenta esne-zentralei	3.591	3.716	4.282	15,2
Guztira	195.912	192.751	190.969	-0,9
– Zekor-hazkuntza	5.086	4.850	4.794	-1,2
– Gazta	5.801	5.857	5.248	-10,4
– Pertsonen kontsumoa ustiategian	1.435	1.357	1.222	-10,0
– Zuzeneko salmenta kontsumitzaileei	4.340	4.126	4.051	-1,8
– Salmenta esne-zentralei	179.251	176.561	175.653	-0,5

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren *Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Sektoreen Estatistika eta Analisi Zerbitzua*.

Ardi-esnearen kasuan, gaztak ekoizteko erabiltzen da esne gehiena, eta erabilera horrek eragin du azken bosturteko igoeraren zatirik handiena. Dena den, zentraletara egindako salmentak ere igo dira. 2019an, bereziki, joera nabarmen aldatu zela ikus daiteke – koiunturala izan daitekeen arren –, izan ere ekoizpenaren hamarren bat, gutxi gorabehera, gazta ekoizteko erabiltzetik esnearen salmentara pasatu zen.

4 lurraldeetako erakunde publiko espezializatuek behi-esnearen ustiatzearen laginak aztertzen dituzte aspalditik, emaitza ekonomiko esanguratsuenen bilakaera aztertu ahal izateko.

Laginari erreparatuta, Arabako ustiatzearen batez besteko tamaina gainerako lurraldeetako baino askoz handiagoa dela ikus daiteke (batezbesteko txikiena duen lurraldekoa, Gipuzkoakoa, baino 3 aldiz handiagoa). Aldi berean, hektarea bakoitzeko batezbesteko animalia kopurua gainerako lurraldeetan baino askoz baxuagoa da Araban. Bestetik, ustiatze bakoitzeko behien ratioa Bizkaikoaren eta Gipuzkoakoaren bikoitza da Araban eta Nafarroan (gutxi gorabehera). Eta batezbesteko ekoizpen- eta bazka-gastuak askoz baxuagoak dira Bizkaiko ustiatzearen gainerako lurraldeetan baino. Lau lurraldeetan antzeko joera duten adierazleak esnearen salneurria eta behi bakoitzeko litro-ekoizpena dira. Dena den, behi bakoitzeko litro-ekoizpenaren kasuan, azken hamarkadan, Arabak eta Nafarroak datu apur bat hobekiago izan dituzte kostako bi lurraldeek baino. Gauza bera gertatzen da behi bakoitzeko urteko balio ekonomikoari dagokionez; izan ere, 2019an barneko bi lurraldeek beste bi lurraldeekiko zuten alde apala hazi egin zen. Araba izan zen lehena, non behi bakoitzaren urteko balio ekonomikoak 3.558 eurokoa izan zen. Azken postuan Bizkaia kokatu zen, 2.959 euroko balioarekin.

158. koadroa Esnea ekoizten duten eliteko behi-ustiatze bidez osatutako lagin baten emaitzak

Kontzeptua	Lurgintza (Gipuzkoa)		Lorra (Bizkaia)		Aberre (Araba)		INTIA-ITG (Nafarroa)	
	2018	2019	2018	2019	2018	2019	2018	2019
Datu teknikoak								
- Lagineko ustiatze kopurua	35	35	61	58	41	40	46	44
- Behi kopurua	1.953	2062	4.295	3.822	4.076	4.292	5.554	5.504
- Ha. NAE/ustiatze	24,1	23,9	34,3	35,0	73,4	73,3	47,1	49,8
- Behi/ustiatze	55,8	58,9	70,4	65,9	111,1	111,7	120,7	125,1
- Behi/ha.	2,3	2,4	2,1	1,9	1,5	1,5	2,6	2,5
- Ekoizpen- eta bazka-gastuak (euro/ha)	399,68	484,7	241,11	220,18	523,09	524,00	661,04	612,98
Prezioak eta etekinak								
- Esnearen prezioa (euro/1.000 litro)	350,55	348,30	348,84	355,19	333,00	345,00	335,28	337,01
- Esne-ekoizpena litro/behi	8.731	8.873	8.560	8.330	10.105	10.313	9.777	10.068

Iturria: EAEko lurralde bakoitzeko nekazaritzako eta abeltzaintzako zentro kooperatiboen eta Nafarroako Teknologien eta Nekazaritzako Elikagaien Azpiegituren Institutua Elkarte Anonimoak (INTIA, ITG dibisioa) eskaintutako estatistikak.

Abeltzaintza- eta nekazaritza-sektorearen gaineko bi institutuk, Arabako Abere eta Nafarroako INTIA-ITGk, ustiatzearen edo abeltzearen aldagai ekonomikoaren urteko laginak eskaintzen dituzte. Abere esnetarako ardien eta haragitarako behien datuak eskaintzen ditu, eta INTIA-ITGk batezbesteko sei kontu: bi espezieen esnearen emaitzak, bi horien haragiaren emaitzak, eta txerri-haragiaren hainbat negoziotako bi kontu. Gastu finkoak eta aldakorrek, produkzioarekin lotutako diru-sarrerek eta diru-laguntzetatik jasotakoak

eta geratzen den marjinak nolako bilakaera duten ikus daiteke azterketa horretan. Aztertutako ustiategi guztien batezbestekoan oinarritzen dira eskaintzen dituen datuak.

Nafarroako esnetarako ardien negozioaren kasuan, diru-laguntzek garrantzi handiagoa dute, diru-sarreraren % 5,4 baitira. Gastuak, berriz, diru-sarreraren % 72,5 dira, eta horrek % 27,5eko marjina uzten du. Diru-laguntzak kontuan izan gabe, marjina % 22,1ekoa izango litzateke. Diru-sarreraren % 37,4 gastu finkoak dira, gastu aldakorren kopurua baino altuagoa, behi-azienden kasuan ez bezala. Izan ere, % 25,2 elikadura-gastuak dira, eta % 9,9 beste aldagai batzuk. 2019an areagotu egin zen kostuen hazkundea eta marjinaren murrizketa. Aurreko urtean ere gertatu zen hori, baina 2019an diru-laguntzak normaltasunera itzuli ziren, 2018an ohikoak baino altuagoak izan ondoren. Esnetarako behien jarduera baino gehiago okertu da esnetarako ardien jarduera azken bi urteetan. Horrek aldaketa ekarri du, 2015-2017 biurtekoan bilakaera egonkorra eta positiboa izan baitzen.

Arabako batez besteko egoeraren egitura ezberdina da: gastu finkoen eta diru-laguntzen balioak askoz handiagoak dira Nafarroako laginekoak baino; diru-laguntzen aurreko marjina garbiak balio negatiboak izan ditu azken 4 ekitaldietan, eta beherantz jarraitzen du. Azken irabazia positiboa izan zen 2019an. Izan ere, produktu gordinak beherantz egin du azken bosturtekoan (2018an izan ezik), eta guztizko gastuak gora egiten ari dira 2016az geroztik.

159. koadroa ABEREK eta INTIA-ITGk kudeatutako ardi-esne ustiategien batez besteko emaitza ekonomikoak

Kontzeptua	ABERE		INTIA-ITG	
	2018	2019	2018	2019
Datu tekniko-ekonomikoak				
- Ustiategien laginak	25	26	27	25
- Eskulana (GLU) ustiategiko	1,75	1,70	1,9	2,0
- Ardi kopurua ustiategiko	353	354	360	373
- Azalera Ha.	76,0	77,4	26,1	27,6
- Esne-ekoizpena (litro/ardi)	--	--	146	149
- Esnearen prezioa (euro/1.000 litro)	--	--	1.545,93	1.531,44
Ekoizpena eta emaitzak (euro)				
Produktu gordina	110.187	105.567	103.898	107.005
- Elikadura-gastuak	23.006	22.858	25.318	28.527
- Gastu aldakorak	19.039	16.971	9.674	11.146
= Marjina gordina	68.142	65.738	68.904	67.332
+ Diru-laguntzak	23.807	24.063	9.864	6.151
+ Beste diru-sarrera batzuk	4.671	3.367	0	0
- Gastu finkoak eta langileenak	62.973	65.225	37.770	42.351
= Marjina garbia	47.469	41.374	31.133	24.981
Emaitza unitarioak (euro)				
- Marjina garbia / ardia	134,47	116,88	86,38	86,38
- Marjina garbia / GLU	27,069	24,338	18,890	18,890

Iturria: Abere eta Nafarroako Teknologien eta Nekazaritzako Elikagaien Azpiegituren Institutua (INTIA, ITG dibisioa).

Haragi-ekoizpena: emaitza ekonomikoak

INTIA-ITGk egindako haragitarako behi-azienden eta ardi-azienden ustiategien lagina aztertuta, jarduera horien zailtasunak esnearekin lotutakoak baino handiagoak direla ikus daiteke. Ardi-azienden kasuan eta behi-azienden kasuan, esnearekin lotutako negozioek diru-laguntza handiagoak jasotzen dituzte. Ardi-azienden kasuan, gainera, esnetarako izanez gero, elikadurarekin lotutako gastu aldakorrak handiagoak dira. Kostuak prezioetan islatzeko, ordea, zailtasunak dituzte, eta diru-laguntzak kontuan izan gabe geratzen zaien marjina garbia negatiboa izaten da askotan.

2019an hori ez zen behi-aziendekin bakarrik pasatu, baita ardi-aziendekin ere. Behi-azienden kasuan, marjina negatiboa murriztu egin zen, aurreko urteko joerari jarraituz. Ardi-azienden kasuan, ordea, azken urteetan ratio hobeak izan bazituzten ere, 2019an eremu negatiboan barneratu ziren, eta, aldi berean, diru-laguntzek behera egin zuten.

Prezioak oso gutxi igo ziren, eta horrek adierazten du erosleak ez daudela prest sektoreak kostuei aurre egiteko beharko lukeen prezio-igoera onartzeko. Alderantziz, ziur aski prezioak jaitea espero dute erosleek. Ondorioz, sektoreak ezin du apenas zentimorik igo kilogramoko.

160. koadroa Abere eta INTIA-ITGren kudeaketa tekniko-ekonomikoaren kontrolpean dauden haragitarako behi- eta ardi-ustiategien emaitzak

Kontzeptua	ABERE		INTIA-ITG			
	Haragitarako behiak		Haragitarako behiak		Haragitarako ardiak	
	2018	2019	2018	2019	2018	2019
Datu tekniko-ekonomikoak						
- Ustiategien laginak	72	71	25	24	30	29
- Eskulana (GLU)	0,9	0,9	1,1	1,0	1,2	1,2
- Behi/Ardi kopurua ustiategiko	59	55	69	60	718	690
- Azalera Ha.	93,0	85,2	34,1	38,2	36,0	40,7
- Txahal/arkume ekoizpena, kg. behi/ardiko(*)	--	--	208,9	215,6	20,1	20,4
- Txahal/arkume salneurria kiloko	--	--	4,04	4,05	3,80	3,85
Ekoizpena eta emaitzak (euro)						
- Produktu gordina	41.647	40.852	66.707	64.176	59.393	55.385
- Elikadura-gastuak	21.584	19.476	36.818	32.627	35.919	36.459
- Gastu aldakorrak	6.077	5.784	15.687	14.263	10.364	9.590
= Marjina gordina	13.987	11.858	26.713	27.512	33.981	21.885
+ Diru-laguntzak	26.351	25.278	12.511	10.227	20.871	12.548
- Gastu finkoak eta langileenak	28.883	27.069	35.068	31.282	22.882	24.282
= Marjina garbia	19.086	18.726	-8.355	-3.769	11.099	-2.398
Emaitza unitarioak (euro)						
- Marjina garbia behia/ardia	320,87	339,92	-121,36	-62,47	15,45	-3,48
- Marjina garbia GLU	21.937	21.040	-7.609	-3.908	10.341	-2.302

(*): Haragi kiloak: Behi-haragi kiloak, kanalean. Ardi-aziendaren kasuan, kiloak bizirik.

Iturria: Abere eta Nafarroako Teknologien eta Nekazaritzako Elikagaien Azpiegituren Institutua, Elkarte Anonimoa (INTIA, ITG dibisioa).

Arabako haragitarako behien laginean esnetarako ardien kasuan gertatzen den gauza bera gertatzen da: gastu finkoen pisua Nafarroan baino altuagoa da (kasu honetan, apur bat baino ez), eta diru-laguntzen batezbestekoa ere foru-erkidegoan baino askoz altuagoa da (kasu honetan, aldea handiagoa da). Dena den, gastu finkoak Nafarroakoak baino altuagoak, baina gastu aldakorrek baxuagoak izanik, aldera orekatu egiten da, eta diru-laguntzen aurreko marjina garbiak (bi lurraldeetan negatiboa izan da azken bosturtekoan) antzeko pisu erlatiboa du. Marjina garbiaren bilakaera ezberdina izan da azken hirurtekoan, Araban okertu egin baita, eta Nafarroan apaldu egin baita izaera negatiboa. Araban, diru-laguntzek erraz estaltzen dituzte azpisektore honen amaierako marjina garbi negatiboa eta urte arteko gorabehera nabarmenak –epe luzean egonkorra izan arren–. Nafarroan, berriz, diru-laguntzen batez besteko zenbatekoa askoz txikiagoa denez, urte arteko gorabehera horiek galerak eragin dituzte hainbat ekitalditan.

161. koadroa INTIA-ITGren kudeaketa tekniko-ekonomikoaren kontrolpean dauden txerri-azienden ustiategien emaitzak

Kontzeptua	Txerrikumeen ekoizpena ⁽¹⁾		Ziklo itxia ⁽²⁾	
	2018	2019	2018	2019
Ezaugarri tekniko-ekonomikoak				
– Aztertutako ustiategi kopurua	10	7	14	13
– Urdanga kopurua ustiategiko	174,8	199,6	397,8	318,7
– Urdanga bakoitzeko saldutako txerrikumeak	22,7	23,8	0,8	1,1
– Urdanga bakoitzeko saldutako txerri gizenduak	0,3	0,4	22,5	21,5
– Urdanga bakoitzeko saldutako txerriak, guztira	23,0	24,2	23,3	22,6
– Saldutako txerrikumeen batezbesteko pisua (kg)	20,8	21,8	12,9	10,8
– Saldutako txerri gizenduen batezbesteko pisua (kg)	111,8	113,6	111,5	111,9
– Saldutako txerrikume + txerri gizendu kopurua	4.016	4.831	9.276	7.184
– Txerrikumearen batezbesteko salneurria (euro)	44,23	51,69	36,77	35,91
– Txerri-kiloaren batezbesteko salneurria (euro)	1,1	1,3	1,08	1,307
– GLU guztira	1,0	1,2	3,2	2,8
Emaitza ekonomikoak (euro)				
– Produktu gordina	191.713,85	272.845,29	1.135.847,01	1.050.726,30
• Gastu aldakorrek	120.729,40	157.166,36	822.184,04	649.109,60
– Marjina gordina	70.984,45	115.678,93	313.662,97	401.617,14
• Gastu finkoak	47.546,53	59.680,19	240.976,57	186.060,85
– Marjina garbia	23.437,92	55.998,74	72.686,39	215.556,29

(1): 3 ustiategik 24,53 kg-ko batezbesteko pisua duten txerrikumeak ekoizten dituzte, eta 4 ustiategik titia kendutako 7,52 kg-ko txerrikumeak saltzen dituzte.

(2): Ustiategi horiek saltzen duten % 80 baino gehiago txerri gizendua da.

Iturria: Nafarroako Teknologien eta Nekazaritzako Elikagaien Azpiegituren Institutua, Elkarte Anonimoa (INTIA, ITG dibisioa).

INTIA-ITGk ziklo osoko txerri-azienda ustiategien eta txerrikumeak ekoizten dituztenen lagin baten datuak eskaintzen ditu urtero. Ziklo osoaren ekoizpena –abere helduaren salmenta– da jardueraren atal nagusia, eta atal horren egoera oso positiboa izan zen 2019an. Gastu aldakorrek asko mugatu ziren, eta aurreko ekitaldietako goranzko joera eten egin zen. Horrez gain, gastu finkoek behera egin zuten apur bat. Produktu gordinaren prezioa ere jaitsi zen, baina gastuak baino gutxiago. Ondorioz, marjina garbia igo egin zen,

eta buelta eman zion aurreko urteko jaitsierari. 2017ko igoera baino are handiagoa izan zuen azpisektoreak 2019an.

Txerrikumeen hazkuntzara bideratutako ustiategien gastu aldakorrek gora egin zuten, baina igoera hori prezioetara ere eramán ahal izan zuten. Hala, gastu finakoak ere normalean baino gehiago igo baziren ere, emaitzak are gehiago igo ziren. Ondorioz, negozio osagarri honen marjina garbiak hazkunde handiagoa izan zuen urte onenetan baino, hala nola 2014an eta 2017an baino.

Txerri-azienden kasuan ere, badirudi gakoa prezioetan dagoela. Ziklo itxian, taulan ikus daitekeen moduan, 1,08 eurotik 1,31 eurora igo zen kiloko prezioa 2019an. Txerrikumeen salmentan antzeko igoera izan zen. Bi kasuetan, 2013az geroztiko preziorik altuena izan zuten.

Abereen hilketa

Euskal Herrian ekoizten den haragi kopuruari dagokionez, erreferentziazko adierazlea dagozkien hiltegiek ematen dutena da, eta ez dago zuzenean zein guztiz lotuta ustiategien lurralde-banaketarekin. Hala, esaterako, 2017az geroztik, Nafarroan ekoizten den txerri-azienda gehiena ez dute foru-erkidegoan hiltzen. Faktore horrek azaltzen du ondorengo orrialdeko grafikoan islatuta dagoen bat-bateko aldaketa. Ondorioz, Euskal Herrian hildako txerri-aziendaren tona kopurua ardi-aziendaren, untxien edota zaldi-aziendaren hilketaren antzeko mailan geratu da, eta hegaztien hilketa-zifretatik oso urrun. Hildako hegazti kopurua 2019an jaitsi egin bazen ere, epe luzean izugarritzko garapena izan du.

162. koadroa Euskal Herrian hildako aziendaren kanaleko pisua

Urtea	Behi-azienda	Ardi-azienda	Ahuntz-azienda	Txerri-azienda	Zaldi-azienda	Hegaztiak	Untxiak	Guztira
2010	26.219	4.372	41	41.577	1.787	77.571	3.978	155.545
2011	25.741	4.339	30	41.043	2.264	88.144	4.207	165.769
2012	21.548	3.806	29	40.856	2.725	97.062	4.418	170.443
2013	21.067	4.217	30	37.607	2.596	102.444	4.323	172.284
2014	19.715	4.093	44	37.706	2.655	103.667	4.423	172.303
2015	12.461	3.868	44	34.827	3.359	103.518	4.612	162.689
2016	18.029	4.071	42	23.379	3.532	116.739	4.440	170.233
2017	17.808	3.741	63	3.318	3.765	112.612	4.105	145.412
2018	18.117	3.825	60	3.551	3.328	125.866	4.282	159.028
2019	19.438	3.575	54	3.291	3.775	118.535	3.681	152.349
% Euskal Herria/ Espania 2019	2,8	3,1	0,5	0,1	38,4	6,8	7,0	2,1


Iturria: Abeltzaintzako inkestak. Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa.

Hortaz, 2006az geroztik, eta are gehiago 2017az geroztik, azterketa honen protagonista hildako hegaztien tona kopurua da. Kanalean, hiltegieta (batez ere Nafarroako

hiltegietan) ekoiztako haragiaren % 77,8 hegaztiarena da. 2019an -% 5,8ko beherakada izan zuen 2018arekin alderatuta, baina jaitsiera hori ez zen esanguratsua izan. Izan ere, antzeko zerbait gertatu zen 2017an, eta ondoren goranzko joera hartu zuen berriro ere.

Ardi-aziendaren hilketak jaitsiera handia izan zuen 2008-09an, eta ordutik jaisten joan da, apalago bada ere. Zaldi-aziendaren hilketaren hazkundera egonkortu egin dela dirudi, eta 2018ko beherakadari aurre egin dio: 2019an gora egin zuen tona kopuru bakarrak izan ziren zaldi-aziendarena eta behi-aziendarena. Behi-azienda ere egonkortu egin dela dirudi 19.000 tonaren inguruan; kasu honetan, beheranzko joera luzea eta geldoa izan zuen aurreko hamarkadan. Nafarroako ekoizpenak eragin zituen hazkunde horiek (baita behi-aziendarena ere, ekoizpen mota hori EAEn nagusitu arren). EAEn, berriz, behera egin zuten espezie guztiek, ahuntz-aziendak izan ezik; ahuntz-azienden kopurua Nafarroan baino are urriagoa da EAEn. 2019an Euskal Herriko aldakuntza-tasak honakoak izan ziren: % 7,3 behi-aziendan, -% 6,5 ardi-aziendan, -% 9,7 ahuntz-aziendan, -% 7,3 txerri-aziendan, % 13,4 zaldi-aziendan, -% 5,8 hegaztietan eta -% 14 untxietan. Espezie gehienek kasuan, aldakuntzaren zeinua aldatu egin zen aurreko urtearekin alderatuta (denak, baita guztizkoa ere, behi-aziendaren eta ahuntz-aziendaren kasuan izan ezik). Horrek agerian uzten du animalien hilketek gorabeherak izan ohi dituztela. Dena den, badirudi azken urteetan, orokorrean, kopuru nahiko egonkorak mantendu dituztela ekoizpen askok.

28. grafikoa Euskal Herriko abere-ekoizpena, espezieen arabera (Indizea 1990=100)



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Estatistika Organoa. Nafarroako Gobernu. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentua.

Egoera aztertzeko beste modu bat 1990. urtea erreferentzia gisa hartzea da. Gaur egun, urtean hiltzen den hegaztien tona kopurua urte hartakoaren hirukoitza baino handiagoa da. Txerri-aziendaren kasuan, berriz, hilketa-jarduera beste lurralde batzuetara pasatu dutenez, orain dela hiru hamarkada hiltzen zuten kopuruaren zati txiki bat baino ez dute hiltzen orain. Untxiaren, behi-aziendaren eta ardi-aziendaren ekoizpen mailak 1990eko antzeko magnitudeak izaten jarraitzen dute.

4. BASOGINTZAREN AZPISEKTOREA

Euskadiko paisaia naturalaren eta ekonomikoaren funtsezko elementuak dira oraindik ere basoak, eta landa-eremuak dinamizatzen dituen jardueretako bat da basogintza. Erkidegoan, egurrak garrantzi handia du paperaren edo altzarien industrietzat, produkzio bioenergetikoarentzat edo eraikuntzarentzat, eta produkzio-balioa gora doa. Nekazaritza Eligakaien Sektorearen Behatokiaren arabera, egurraren eraldaketari dagokio nekazaritza-elikagaien industria-establezimenduen laurdena, gutxi gorabehera, baita establezimendu-multzo horri dagokion enpleguaren seirena ere. Nekazaritza-sektorearen baitako basogintza-azpisektorearen kuota hirukoiztu egin da azken hamarkadan.

Egurra mozteko lizentzien inguruan hiru lurraldeetako diputazioek eskainitako datuen arabera, eta bolumenari dagokionez, moztutako egurraren % 87 radiata- edo insignis-pinua izan zen.

163. koadroa EAEn egurra mozteko lizentziak

(m³ a.g. = metro kubiko, azal eta guzti)

Urtea	Eremua	Koniferoak	Hostotsuak	Guztira
2017	Araba	177.960	10.043	188.003
	Bizkaia	756.657	181.044	937.701
	Gipuzkoa	702.709	11.882	714.591
	EAE	1.637.327	202.968	1.840.295
2018	Araba	133.725	4.361	138.086
	Bizkaia	1.308.300	159.934	1.468.234
	Gipuzkoa	1.098.824	13.885	1.112.709
	EAE	2.540.849	178.179	2.719.028
2019	Araba	110.487	11.799	122.285
	Bizkaia	1.070.210	198.776	1.268.987
	Gipuzkoa	1.117.938	10.552	1.128.490
	EAE	2.298.636	221.128	2.519.762

Iturria: *Estatistika eta Análisi Sektorialen Zerbitzua, Nekazaritza eta Arrantza Saila. Eusko Jaurlaritza.*

Gipuzkoako eta Bizkaiko eremuaren % 70tik gora eta Arabako eremuaren % 60tik gora basoa da. Araban, hala ere, proportzioan beste bi lurraldeetan baino askoz egur gutxiago mozten dute. Gainera, Arabako basoen hiru laurdenak jabetza publikokoak dira. Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, alderantziz: % 75 baino gehiago pribatuak dira. Guztizko mozketa kopurua handiagoa da Bizkaian, baina, azalerari dagokion proportzioan, jarduera-maila Gipuzkoakoaren oso antzekoa da. Bizkaian, berezitasun gisa, zuhaitz hostotsuen mozketa-jarduera esanguratsua dute, batez ere, eukaliptoena; pinuen artean, berriz, insignisaren ondoren, pinaster pinua gailentzen da. Gipuzkoan eta Bizkaian, ordea, larizio pinua gailentzen da insignisaren ondoren. Izeien produkzioa ere apur bat hazten ari da Gipuzkoan. Araban koniferoek ez dute beste lurraldeetan bezainbesteko garrantzirik. Ondorioz, zuhaitz hostotsuek garrantzi handiagoa dute.

164. koadroa EAEn egurra mozteko lizentziak

(m³ a.g. = metro kubiko, azal eta guzti)

Espeziea	2018	2019	% Δ 19/ 18
– Pinu gorria	528	2.798	429,6
– Larizio pinua	49.019	36.355	-25,8
– Pinaster pinua	30.013	15.379	-48,8
– Halepensis pinua	0	0	-
– Radiata pinua (insignis)	2.384.265	2.188.389	-8,2
– Beste konifero batzuk	77.023	55.714	-27,7
Koniferoak, guztira	2.540.849	2.298.636	-9,5
– Makala	1.002	350	-65,1
– Eukalipto	161.643	205.398	27,1
– <i>Quercus</i>	5.275	6.266	18,8
– Beste hostotsu batzuk	10.260	9.114	-11,2
Hostotsuak, guztira	178.179	221.128	24,1
GUZTIRA	2.719.028	2.519.762	-7,3

Iturria: Estatistika eta Análisi Sektorialen Zerbitzua, Nekazaritza eta Arrantza Saila. Eusko Jaurlaritza.

Azken hamarkadan hazi egin da sektorearen jarduera. Urtetik urtera, batez beste, % 23 hazi da mozteko lizentzia jaso duen egur-bolumena. Goranzko joera hori, nagusiki, insignis pinuak eragin du. Izan ere, zuhaitz hostotsuei dagokienez, ez da ia aldaketarik izan, eta gainerako koniferoek behera egin dute.

Joera hori epe luzean mantendu da, urtetik urterako gorabeherak eta aparteko baldintza naturalak izan arren. Esaterako, 2009an, gertuko lurraldeetan zuhaitz kopuru handia moztu zuten, eta merkatua hondoratu egin zen. Ondorioz, Euskadin asko jaitsi zen mozketa-bolumena. 2018an, berriz, insignis pinuaren gaixotasunak kontrakoa eragin zuen. Izan ere, Euskadin zuhaitz asko moztu zituzten, prebentzio-arrazoiengatik edota gaixotutako pinuak guztiz lehortu aurretik aprobetxatu ahal izateko.

2019an gutxitu egin zen jatorri fungikoa duen eta klima-aldaketari lotuta dagoen “banda marroia” izeneko gaixotasuna. Batetik, fumigazioari eta zientzia-aurrerapenei esker. Bestetik, hezetan gutxiago egon zelako. Ondorioz, mozketa bolumenean ez zuen apenas eraginik izan. 2018ko ezohiko igoeraren ondoren, 2019an mozketa-bolumena azken hamarkadako azelerazio-erritmoari dagokion mailan kokatu zen.

Mozketa-bolumena murriztu arren, produkzioa (salmentak) % 27,1 hazi zen eurotan, eta aurreko urtean moztutako egurrari irteera eman zioten. 2018an, gaixotasunak egurraren balioari eragin zion; ez saldutako egurraren kalitatea jaitsi zelako, moztutako egurraren artean aprobetxatzeko moduko kopurua murriztu zelako baizik. 2019an, egur gutxiago moztu arren, saltzeko pilatutako egur kopuruak % 12,6 egin zuen gora, eta batez besteko prezioek behera jarraitu zuten. Dena den, prezioek % 2,4 baino ez zuten behera egin 2018arekin alderatuta, eta insignis pinuak soilik izan zuen jaitziera, gaixotasunaren eraginez.

5. ARRANTZA-SEKTOREA

5.1 IKUSPEGI OROKORRA

2019a ez zen urte ona izan euskal arrantza-sektorearentzat, salmentak % 10 inguru jaitsi eta 2015az geroztiko baxuenak izan baitziren. Sektoreari ezarritako kuoten eta mugen ondorioz, nabarmen laburtu zituzten hainbat arrantza-aldi: arrantzaleek aste gutxitan agortu behar izan zituzten beren kuotak, eta denbora-tarte batean eskaintza handiegia pilatzeak, normalean, prezioen jaitsiera eragiten du. Sektorearen ustez, Euskal Herrirako kuota eksklusiboak izateak kudeaketa egokiagoa izatea ahalbidetuko luke, eta ondorioz, arrantza-aldiak luzatuko lirateke.

Ontzidiari dagokionez, Estatuko ontzien % 2 baino ez dira Euskal Herrikoak. Ontzi horiek, ordea, Estatuko ontzidiaren tona kopuruaren % 18 osatzen dute, eta potentziaren % 15. Horretan eragina du euskal ontzidian 2018an alturako 5 ontzi berri gehitu izanak; 2019an ez zen ontzirik gehitu. Altura handiko arrantzak berebiziko garrantzia du, sektorearen diru-sarreraren % 70 baitagokio, enpleguaren % 40ra iritsi ez arren.

Azken 20 urteetan, ontzi kopurua da gehien jaitsi den adierazlea. Egun, 2000. urteko ontzi kopuruaren erdia baino gutxiago geratzen da. Enpleguaren gaineko inpaktua txikiagoa da proportzioan, eta tona kopuruan eta potentzian izandako murrizketak apalak dira. Arazoetako bat ontzidiaren antzinatasuna da, baina are kezkarriagoa da tripulatuzaileen eskaintza-falta.

165. koadroa Euskal Herriko ontzidiaren egitura

Sektorea	Urtea	Unitate kopurua	Potentzia (ZP)	EGT*	Tripulatuzaile kopurua
Altura	2016	42	108.060	39.274	763
	2017	39	107.308	36.365	713
	2018	44	148.008	52.928	1.093
	2019	44	146.618	53.794	1.019
Baxura	2016	153	47.837	10.910	1.142
	2017	157	48.772	11.070	1.153
	2018	156	48.494	10.017	1.131
	2019	154	48.858	10.030	1.126
Euskal Herria, guztira	2016	195	155.897	50.184	1.905
	2017	196	156.079	47.435	1.866
	2018	200	196.502	62.945	2.224
	2019	198	195.477	63.824	2.145

(*): Erregistro Gordineko Tonak.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Estatistika Organoa.

Arazo hauei, eta EBn zein nazioartean ezarritako kuotei, beste bat gehitu behar zaie: arrainaren per capita kontsumoa behera egiten ari dela apurka. Brexitak ere hainbat ziurgabetasun-egoera eragin zituen sektorean 2019an.

Aipatutako arrazoen ondorioz, bi produktu garrantzitsuenen tona kopurua eta prezioak jaitsi egin ziren, hain zuzen ere, hegaluzearena eta antxoarena. Hain preziatuak ez diren beste espezie batzuen kasuan bai, hazi ziren tona kopurua edo prezioak, esaterako, txitxarroaren, sardinaren edo berdelaren kasuan, baina igoera horiek ez zuten inola ere ekitaldiari irtenbidea emateko balio izan. Edonola ere, sektoreak aurreko kanpainetako emaitza onei esker eusten dio, hala nola 2017ko kanpainari esker.

Azken 5 denboraldietako datuak aztertuta, hegaluzea da produkturik indartsuena, baliorik altuena duena. Goranzko joera du, gainera, hegaluzearen balioak, 2019an joera hori apur bat moteldu bazen ere. Antxoa da bigarrena garrantziaren arabera zerrendan. Dena den, 2017an goia jo zuenetik, geldialdi nabarmena izan du. Berdela eta sardina dira hurrengoak. Berdelaren goranzko joera moteldu egin da, tona kopuruaren beherakadaren ondorioz, baina prezioari esker gaintitu zuen azken kanpaina, bere balioa handitu egin baitzen. Sardinaren kasuan, berriz, azken hamarkadan gorakada harrigarria izan ondoren, azken bost denboraldietan beheranzko joera izan du, eta are okerragoa 2019an.

Kontrakoa gertatzen da legatzarekin. Gehien kontsumitzen den arraina izanik ere, antzina baino askoz gutxiago arrantzatzen du euskal ontzidiak, batez ere, Pasaiakoak. Gainera, gaur egun, Euskadin kontsumitzeko saltzen den legatz kopuruaren guztizkoa kontuan hartuta, gehiena ez da euskal ontziek arrantzatutakoa.

Bestetik, alturako produktu nagusia ere, atuna, garai apalean dago, bere biomasaren berreskuratze-lanetan ari baitira nazioarte mailan.

5.2 BAXURAKO ARRANTZA

Baxurako ontzidia

Ontzidiaren lurraldekako banaketan, adierazleak lehorreratzeen kasuan aipatutakoen antzekoak dira: baxurako azpisektorea Bizkaikoaren bikoitza da Gipuzkoan tamainari dagokionez, baita enpleguari, tona kopuruari edo potentziari dagokienez ere. Ontzien batez besteko tamaina da gehien ezberdintzen dituen. Ontzi kopuruari dagokionez, Gipuzkoak 83 ditu, eta Bizkaiak, 71. Bermeoko baxurako ontzidian ontzi txiki asko daude, eta horrek azaltzen du aldea.

Kontzentrazio horren ondorioz, azken urteetan ontzidiaren murrizketa Bizkaian azkarragoa zela zirudien Gipuzkoan baino. Izan ere, ontzi askoko portu bat izatea, eta ontziak txikiak izatea, ontziak kentzeko faktoreak izan ohi dira. Aitzitik, azken lau urteetan joera hori alderantzikatu egin da. Badirudi Bermeo Bizkaiko beste portu txiki batzuetako ontziak hartzen ari dela, eta baliteke gauza bera gertatzen aritzea Ondarroan eta Hondarribian ere. Izan ere, 3 portu horietan gora egiten ari da ontzi kopurua. Getariaren

eta Pasaiaren joerak egonkorragoak izan dira hamarkadan zehar, baina 2019an Getaria izan zen gorakada nabarmenena izan zuen EAEko portua, batez ere potentziari dagokionez. Gainera, tripulatzaile kopuruaren beheranzko joerari buelta ematea ere lortu zuen.

Portu nagusia Hondarribia da argi eta garbi, ontzi kopuruari dagokionez izan ezik, alor horretan Bermeoren parean baitago. Getaria eta Bermeo bera dira hurrengoak, azken horrek beheranzko joera gelditzea lortu baitu azken urteetan. Hondarribia, adierazle guztietan nagusi izan arren, laugarren portua da salmenten balioari dagokionez. Eta gauza bera gertatzen da beste portu batzuetan ere, adibidez, Ondarroan eta Orion: alde handia dago adierazleen eta esleitzen zaien balio ekonomikoaren artean. Horrek zerikusia izan dezake herri bati edo beste bati emaitzak zein ontzi kopurua esleitzen zaizkien moduarekin lotutako hainbat faktoreekin.

Orokorrean, urte batetik besterako aldakuntzak oso baxuak izan ziren 2019an: % 0,4ko eta % 1,3ko igoerak enpleguan eta ontzi kopuruan, eta -% 0,8ko eta -% 0,1eko jaitsierak potentzian eta tona kopuruan, hurrenez hurren. Esan liteke hamarkadaren lehenengo zatian adierazle horiek behera egin zutela, eta bigarren zatian, berriz, egonkortu egin zirela.

166. koadroa EAEko baxurako ontzidria, portuen arabera (2019)

Portua	Unitate kopurua	Potentzia (ZP)	EGT	Tripulatzaile kopurua
– Hondarribia	32	14.916	3.388	365
– Getaria	25	11.405	2.474	258
– Orio	5	3.710	710	79
– Pasaia	16	1.579	254	50
– Donostia	5	513	67	14
GIPUZKOA, GUZTIRA	83	32.123	6.893	766
– Bermeo	32	8.876	1.822	179
– Zierbena	5	864	175	27
– Armintza (Lemoiz)	4	280	34	10
– Lekeitio	9	2.011	357	46
– Ondarroa ^(*)	10	3.465	558	63
– Santurtzi ^(*)	11	1.239	191	35
BIZKAIA, GUZTIRA	71	16.735	3.137	360
EAE, guztira	154	48.858	10.030	1.126

(*): *Estatistika-sekretua gordetzeko, Bilboko eta Plentziako datuak Santurtziko datuekin elkartu dira, eta Mutrikukoak Ondarroakoekin.*

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Estatistika Organoa.

167. koadroa EAEko baxurako ontzidia, modalitatearen arabera, 2019

Modalitatea	Unitate kopurua	Potentzia ZP	EGT	Tripulatzaille kopurua
– Inguraketa, Beita bizia eta Xaxiangoa/Kazakoa(*)	46	28.510	6.362	668
– Arte xeheak, Artefaktuak eta Zapo-sarea(*)	30	2.742	372	78
– Tretza	9	1.131	189	26
GIPUZKOA, GUZTIRA	85	32.383	6.922	772
– Inguraketa, Beita bizia eta Xaxiangoa/Kazakoa(*)	40	5.635	1.045	144
– Arte xeheak, Artefaktuak eta Zapo-sarea(*)	18	7.417	1.475	147
– Tretza	11	3.424	589	63
BIZKAIA, GUZTIRA	69	16.476	3.108	354
EAE, guztira	154	48.858	10.030	1.126

(*): *Estatistika-sekretua gordetzeko, artefaktuekin eta zapo-sarearekin aritzen diren ontziak arte xeheen modalitatean sartu dira. Halaber, beita bizia eta xaxiangoa/kazakoa erabiltzen dutenak inguraketaren modalitatean multzokatu dira.*

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Estatistika Organoa.

Lurralde bakoitzeko ontzien tamainaren ezberdintasuna lotuta egon daiteke, neurri handi batean, lurralde bakoitzean nagusi diren arrantzarako teknika nagusiekin. Arrazoi estatistikoak direla eta taula honetan multzokatuta erakutsi arren, beita bizia Gipuzkoan erabiltzen dute nagusiki, eta xaxiangoa edo kazakoa, berriz, Bermeon. Dena den, teknika alternatiboen pisua da Bizkaiko ezaugarri nabarmenena: arte xeheak, artefaktuak, zapo-sarea eta tretza. Bizkaian berebiziko pisua dute teknika horiek. Gipuzkoan, berriz, hondarrekoak dira. Gipuzkoan, inguraketaren bidezko arrantzak garrantzi handia du, beita biziaren bidez egiten den arrantzak baino are handiagoa.

Baxuran lehorreratutako arrantza

2019an, espezieen araberako salmenten balioaren banaketa honako hau izan zen: % 37,1 hegaluzeak, % 22,9 antxoak, % 17,1 berdelak, % 13,2 "besteek", % 3,7 sardinak, % 3,6 legatzak eta % 2,4 txitxarroak. Hamarkadan zehar, arrantza-aldi nagusien salmenta-kuoten nagusitasuna txandakatzen joan da. Esaterako, antxoaren salmenta-kuota % 36koa zen 2013an, eta hegaluzea garrantzia hartzen joan da 2014an % 15eko kuota izan zuenetik. Berdelaren garrantzi ekonomikoak ere gora egin du azken 5 urteetatik 4tan, eta kontrakoa gertatu da sardinarekin, pisua galtzen joan baita. Gainerako espezieen aldakuntza-tarteak estuagoak dira.

2018tik 2019ra % 10 inguru egin zuen behera balioak, eta ondorioz, diru-sarrerak 8,4 milioi euro baxuagoak izan ziren. Kopuru horretatik, sardinari dagozkio 3,3 milioi, hegaluzeari 2,3, antxoari ere 2,3, eta legatzari milioi bat baino apur bat gehiago. Gainerako espezieen balioaren igoerak ekarritako diru-sarrerak, berriz, ez ziren milioi erdira iritsi.

168. koadroa Baxurako ontzidiaren bidez lehorreratutako arrantza, guztira

Lurraldea	2018		2019		% Δ 19/18	
	Tm	(m euro)	Tm	(m euro)	Tm	(m euro)
Gipuzkoa	29.625	54.438	22.357	49.018	-24,5	-10,0
Bizkaia	23.986	29.340	17.238	26.368	-28,1	-10,1
EAE	53.611	83.778	39.595	75.386	-26,1	-10,0

Oharra: Kofradietako salmentak.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Estatistika Organoa.

Lurraldeka, baxurako produkzio-balioaren % 65 Gipuzkoako portuei dagokie, eta % 35 Bizkaiko. Getaria da nagusi, balioaren % 25,5ekin, segidan Ondarroa % 24,6rekin, eta 2019an gerturatu egin ziren Pasaia (% 20,7) –goranzko joera apalarekin jarraitu baitzuen– eta Hondarribia (% 18,8), bi portu nagusietan baino gutxiago egin baitzuen behera balioak bertan. Urrunago dago Bermeoko portua (% 9,7), non alturako arrantzako dedikazioa handia den. Gainerako portuen adierazleek, berriz, beherantz egiten jarraitzen dute, eta haien balioa ia hutsala da lehorreratzeen balioaren estatistikan.

Datuak portuka sailkatuta, 8,4 milioiko jaitsiera orokorra honela banatzen da: Ondarroan 4,9 milioiko jaitsiera, Getarian 4 milioikoa eta Hondarribian 2,2koa. Bermeok, berriz, hamarkadako urterik onena izan zuen baxuran eta aurreko urtean baino 1,8 milioi euro gehiagoko diru-sarrerak izan zituen 2019an, aurreko urtean baino heren bat gehiago. Pasaia 0,8 milioi gehiagoko diru-sarrerak izan zituen. Jaitsiera eta igoera horien emaitza da aipatutako 8,4 milioiko galera.

169. koadroa Baxurako ontzidietatik lehorreratutako arrantza osoa, portuen arabera, 2019

Kontzeptua	Guztira	%	Especie nagusiak						
			Antxoa	Hegaluzea	Txitxarroa	Legatza ⁽¹⁾	Sardina	Berdela	Beste batzuk
– Hondarribia	7.267	18,4	2.153	2.446	255	5	585	1.481	342
– Pasaia	6.556	16,6	608	358	242	558	788	2.835	1.167
– Getaria	8.534	21,6	2.610	3.572	224		591	1.423	114
– Ondarroa	13.389	33,8	7.230	742	1.260	10	1.033	2.321	794
– Lekeitio	263	0,7	--	1	1	6	--	223	31
– Bermeo	3.579	9,0	683	848	12	40	1	1.821	174
GIPUZKOA, GUZTIRA	22.357	56,5	5.372	6.376	721	563	1.964	5.739	1.623
BIZKAIA, GUZTIRA	17.238	43,5	7.913	1.592	1.273	58	1.034	4.365	1.002
EUSKAL HERRIA, GUZTIRA	39.595	100,0	13.285	7.968	1.994	621	2.998	10.104	2.626
<i>Gipuzkoako %</i>			24,0	28,5	3,2	2,5	8,8	25,7	7,3
<i>Bizkaiko %</i>			45,9	9,2	7,4	0,3	6,0	25,3	5,8
<i>Euskal Herriko %</i>			33,6	20,1	5,0	1,6	7,6	25,5	6,6

(1): Legatza, merlenka eta tarteko legatza sartzen dira hemen.

(2): Berdela eta betaundia sartzen dira hemen.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Estatistika Organoa.


Honek zerikusia du portu bakoitzaren espezializazioarekin. Baxuran, Bermeo hegaluzearekin eta berdelarekin aritzen da. Pasaia legatzarekin, eta gero eta gehiago berdelarekin. Ondarroak lan egin izan du gehien antxoarekin, eta Getarian eta Hondarribian ere, non antzeko jarduera baituten, antxoak balio altuak izan ohi zituen. Hegaluzeak azken bi horietan du garrantzirik handiena.

2019an, azken hamarkadako urte arteko jaitsierarik handiena izan zuen tona kopuruak, % 26,1koa. Izan ere, 2018ko tona kopurua 2012az geroztik erregistratutako altuena izan zen. Guztizko tona kopuruak minimo berri bat ezarri zuen 2019an; 2011koa baino apur bat baxuagoa izan zen.

Honen aldean, balioaren % 10eko jaitsierak apala dirudi, baina 2013az geroztiko urte arteko daturik okerreña da. Hala ere, jasotako diru-sarrerek 2011n edo 2013-2015 hirurtekoan izandakoen gainetik jarraitzen dute. 2019ko beherakada aurreko urtekoaren antzekoa izan zen, eta badirudi 2015-2017 hirurtekoan izandako gorakada apaltzera datorren moteltze-joeraren parte dela.

Azken urteetako bilakaera antzekoa izan da Bizkaian eta Gipuzkoan, bai tona kopuruari dagokionez, bai balioari dagokionez. Izan ere, bi lurraldeetako ontzidiaz baldintza antzekoen mende dago, eta askotan bakartzat jotzen da. Bizkaiko portuetan apur bat gehiago jaitsi zen tona kopurua 2019an (-% 28,1; Gipuzkoan, -% 24,5), baina balioaren jaitsieran hamarren bateko aldea baino ez zuten izan (-% 10,1 Bizkaian eta -% 10 Gipuzkoan).

29. grafikoa Baxurako ontzidietatik lehorreratutako arrantzaren balioa (mila €), espezieen eta portuen arabera, 2019



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Estatistika Organoa.

Prezioen bilakaerak azaltzen du balioaren jaitsiera apala. Tona kopuruaren eta balioaren guztizkoaren gainean, ratio orokorra 1,90 euro/kg-koa da. Hamarkadako urte arteko

garestitzerik handiena da, eta zalantzarik gabe, eskaintzaren jaitsiera nabarmenarekin du zerikusia.

Prezioen bilakaeran, 2015 eta 2017 urteen artean hegaluzearen prezioak izandako gorakadaren eragina antzeman daiteke. Gorakada hori lehengoratu egin zen 2017 eta 2019 artean. Dena den, antxoaren prezioaren beherakada egonkortu izanak (2013ko maximoaz geroztik jaitsiz joan da) konpentsatu egin zuen egoera, baita "beste espezieak" multzoaren garestitze nabarmenak eta berdelaren urte arteko ezohiko gorakadak ere. Espezierik garestienaren prezioaren igoera, legatzarena, gelditu egin zen azken 3 urteetako garestitzearen ondoren.

Batez besteko prezioei dagokienez, aldea dago Bizkaiaren eta Gipuzkoaren artean (2,19 euro/kg Gipuzkoan, eta 1,53 euro/kg Bizkaian). Prezioen bilakaera, ordea, antzekoa da bietan, porturen bat espezializatuta dagoen espezieetan izan ezik; izan ere, portu horiek beti egongo dira haientzat estrategikoak diren espezieen truke prezio handiagoa ordaintzeko prest. Legatzaren kasuan ikus daiteke alde hori, Pasaiaiko portua oso espezializatuta baitago legatzean. Eta, batez ere, "beste espezieak" multzoak Gipuzkoan duen prezio askoz ere altuagoan ikus daiteke aldea. Baliteke, arrantzarako teknika ezberdinak erabiltzen dituztenez, espezie ezberdinak sartzea "besteak" multzoan, eta prezioak ere horregatik izatea hain ezberdinak.

Gainerakoan, Bizkaiko portuekin alderatuta, Gipuzkoan prezio altuagoa duten espezieek -hegaluzea eta legatza- dute garrantzi handiagoa, bai Getarian eta Hondarribian (non antzeko espezieekin egiten duten lan), bai Pasaian, non legatzean espezializatuta dauden.

170. koadroa Baxurako ontzidietatik lehorreratutako arrantzaren balioa, portuen arabera, 2019

(m euro)

Kontzeptua	Guztira	%	Espezie nagusiak						
			Antxoa	Hegaluzea	Txitxarroa	Legatza ⁽¹⁾	Sardina	Berdela ⁽²⁾	Beste batzuk
- Hondarribia	14.178	18,8	2.591	8.449	151	23	499	1.874	592
- Pasaia	15.620	20,7	1.033	1.246	259	2.472	747	3.654	6.210
- Getaria	19.220	25,5	3.537	12.620	141		518	1.740	664
- Ondarroa	18.536	24,6	9.089	2.607	1.272	41	1.054	2.940	1.534
- Lekeitio	455	0,6		5	0	13		273	163
- Bermeo	7.341	9,7	983	3.008	7	163	1	2.385	793
GIPUZKOA, GUZTIRA	49.018	65,0	7.160	22.315	550	2.495	1.764	7.268	7.466
BIZKAIA, GUZTIRA	26.368	35,0	10.071	5.625	1.281	231	1.056	5.598	2.505
EUSKAL HERRIA, GUZTIRA	75.386	100,0	17.231	27.940	1.831	2.726	2.820	12.867	9.971
<i>Gipuzkoako %</i>			14,6	45,5	1,1	5,1	3,6	14,8	15,2
<i>Bizkaiko %</i>			38,2	21,3	4,9	0,9	4,0	21,2	9,5
<i>Euskal Herriko %</i>			22,9	37,1	2,4	3,6	3,7	17,1	13,2

(1): Legatza, merlenka eta tarteko legatza sartzen dira hemen.

(2): Berdela eta betaundia sartzen dira hemen.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Estatistika Organoa.

Jarraian, bi kanpaina edo arrantza-aldi nagusien bilakaerak alderatuko ditugu, antxoarena eta hegaluzearena. 2019an, behera egin zuten biek, tona kopuruari zein balio ekonomikoari dagokienez. Jaitsiera hori faktore berria da, eta sektore osoaren balantzea baldintzatzen du.

Antxoari dagokion tona kopurua hegaluzearena baino askoz handiagoa izan da azken urteetan, eta goranzko joera indartsua izan zuen 2017ra arte. Orduetik, ordea, behera egiten joan da, eta 2015eko mailara hurbildu da. Balio ekonomikoari dagokionez, aurreko urteetako igoerak zein 2019ko jaitsierak (-% 11,3) ez dute hainbesteko inpaktua izan, eta prezioa egonkortu egin da, urte batzuetan beheranzko joera apala izan ondoren. Beheranzko joera horretan zerikusia zuten, batez ere, aleak kalitate onekoak baina txikiak izateak kontserben industriari sortzen zizkien arazoek.

Hegaluzearen kasuan, 2014-2018 tartean tona kopuruak gora egin ondoren, 2019an behera egin zuen apur bat. Gauza bera gertatu zen balio ekonomikoarekin; aipatutako tarte horretan hirukoiztu egin zen, eta 2019an % 7,7 egin zuen behera. Hegaluzearen prezioa jaitsi egin zen apur bat, eta 2012-2015 laurtekoan izan zuen maila berdinean kokatu zen ia.


171. koadroa Antxoaren eta hegaluzearen arrantza-aldien bilakaera

Kontzeptua	2015	2016	2017	2018	2019
Antxoa					
– Lehorreratzeak (Tm)	11.858	14.613	16.754	15.112	13.285
– Batez besteko prezioa (euro/kg)	1,69	1,58	1,62	1,29	1,30
– Balioa (mila euro)	20.046	23.090	27.059	19.427	17.231
Hegaluzea					
– Lehorreratzeak (Tm)	5.110	6.118	6.322	8.448	7.968
– Batez besteko prezioa (euro/kg)	3,42	3,78	3,97	3,58	3,51
– Balioa (mila euro)	17.471	23.131	25.082	30.282	27.940

Oharra: Kofradietako salmentak.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Estatistika Organoa.

30. grafikoa Antxoaren eta hegaluzearen arrantza-aldiak



Oharra: Kofradietako salmentak.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Estatistika Organoa.

5.3 ALTURAKO ARRANTZA

Alturako arrantzaren azpisektoreari dagokio euskal arrantzaren salmenten % 70. Garrantzi txikiagoa du enpleguari dagokionez, baina handiagoa azpiegiturei dagokienez. Atuna eta bakailaoa arrantzatzen dute nagusiki. Ontzidiaren erdia baino gehiago atunontzi izoztaileek osatzen dute, gehienak Bermeoko portuan daude eta ontzirik handienak dira. Alturako arrantzaren ontzidia bi bakailao-ontzirekin osatzen da, biak Pasaiaiko portukoak. Freskoko alturan ontzi txikiagoekin egiten dute lan, eta gehienbat Ondarroan.

2018an 6 ontzi gehitu zituzten ontzidira. Ezohiko berria izan zen, eta 2019an ez zuen jarraipenik izan. 2019an aldaketa bakarra izan zen: Bermeori esleitutako freskoko alturako ontzi bat desagertu egin zen, eta atunontzi izoztaile bat gehiago gehitu zitzaion Bermeoko ontzidiari. Gainerako freskoko alturako 16 ontziak, guztiak Ondarroan, mantendu egin ziren. Aldaketa txiki horrek jarraipena eman zion alturako arrantzaren aldeko apustua egiteko joerari.

Enpleguari dagokionez, 2018an sei atunontziren esleipenak eragindako igoeraren ondoren, 2019an tripulatzaille kopuruaren ohiko beheranzko joera itzuli zen. Azken hamarkadan, tripulazioaren murrizketa handiagoa izan da alturako sektorean baxurakoan baino –ontzi kopuruarekin kontrakoa gertatzen da–, eta gauza bera gertatu zen 2019an: aurreko urteko hazkunderari esker baxurako enplegu mailatik puntu bakarrera egon ondoren –ia % 54ko enpleguaren igoera–, berriro ere gehiago jatsi zen alturako enplegua baxurakoa baino: % 6,8 eta % 0,5eko jaitsierak, hurrenez hurren.

172. koadroa Euskal Herriko alturako ontzidiaren egitura, 2019

	Unitate kopurua	Potentzia ZP	EGT	Tripulatzaille kopurua
- Freskoko altura	16	8.638	3.394	199
- Altura handia - atunontzi izoztaileak	26	134.175	48.750	(*)
- Altura handia - bakailao-ontziak	2	3.805	1.650	(*)
- Altura handia, guztira	8	137.980	50.400	820
Altura, guztira	44	146.618	53.794	1.019

(*): *Estatistika-sekretua gordetzeko, 2 bakailao-ontzien datua eta atunontzi izoztaileen datua freskoko alturaren guztizkoan sartu dira.*

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Estatistika Organoa.



19

5. ZERBITZUAK

1. IKUSPEGI OROKORRA

2018tik 2019ra, Estatuko ekonomiaren hazkunde-erritmoa % 2,4tik % 2ra jaitsi zen. Testuinguru horretan, EAEn BPGa % 3tik % 2,2ra murriztu zen.

2019an, hirugarren sektorea, orokorrean, % 2,5 hazi zen EAEn, % 3,4 Nafarroan eta % 2,6 Estatuan. Hortaz, aurreko ekitaldian baino ehuneko bi hamarren, ehuneko zazpi hamarren eta ehuneko hamarren bat txikiagoak izan ziren hazkundeak, hurrenez hurren (2018an % 2,7ko, % 4,1eko eta % 2,7ko hazkundeak izan zituzten sektorean, hurrenez hurren).

Behin hona iritsita, txosten honen aurreko edizioetan bezala, komeni da gogoratzea zaila dela sektorearen azterketa bateratua egitea, sektorea oso heterogeneoa delako. Dena den, enplegua da adierazle egonkorrenetako bat. Zentzu horretan, kontuan izan behar da 2019an hirugarren sektoreko okupazio-tasa % 2,9 hazi zela EAEn, % 5,7 Nafarroan (% 3,5 Euskal Herri osoan) eta % 2,4 Estatuan.

2. HEZKUNTZA

2.1 UNIBERTSITATEKOAK EZ DIREN IKASLEEN BILAKAERA

Unibertsitatekoak ez diren ikasleen kopurua mantendu egin da Euskal Herrian 2019/2020 ikasturtean, kontuan hartuta aurreko ikasturtean baino % 0,4 ikasle gehiago baino ez direla matrikulatu. Guztira 488.974 ikasle matrikulatu dira, aurreko ikasturtean baino 2.102 gehiago. Lanbide Heziketan % 3,1eko igoera izan da, Batxilergoan % 2,0koa eta DBHn (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza) % 1,5ekoa. Lehen Hezkuntzan (-% 0,4) eta Haur Hezkuntzan (-% 1,1), berriz, behera egin du matrikula kopuruak.

Haur Hezkuntza

Haur Hezkuntzari dagokionez, 2019/2020 ikasturtean 108.943 ikasle matrikulatu dira Euskal Herrian, hau da, aurreko ikasturtean baino 1.257 gutxiago. Ikastetxe motari erreparatuta, jaitsierak nagusi diren testuinguruan, irakaskuntza publikoa egonkor mantendu da (% 0,2), eta aldiz, irakaskuntza pribatuak ikasle gutxiago izan ditu (-% 2,7). Hala, aurreko urteetako joera mantenduz, sare bakoitzaren pisu espezifikoak mantendu egin da; ikastetxe publikoetan matrikulatu dira ikasleen % 55,9 eta pribatuetan % 44,1.

173. koadroa Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera. Haur Hezkuntza

Eremua	2018/ 2019 ikasturtea			2019/ 2020 ikasturtea		
	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira
Araba	8.686	5.685	14.371	8.609	5.508	14.117
Bizkaia	20.910	21.876	42.786	20.897	21.032	41.929
Gipuzkoa	14.957	13.844	28.801	14.677	13.604	28.281
EAE	44.553	41.405	85.958	44.183	40.144	84.327
Nafarroa	16.302	7.940	24.242	16.765	7.851	24.616
Euskal Herria	60.855	49.345	110.200	60.948	47.995	108.943

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.

Datuak lurraldeka aztertuta, eta EAEREkin hasita, aurreko urteetako joerak jarraitu egin du eta Haur Hezkuntzako ikasle kopurua jaitsi egin da. Bizkaian, ikasleen ia erdiak dituen lurraldean (% 49,7), % 2,0 egin du behera maila horretako ikasleen matrikulazioak, ikastetxe publikoetan (-% 0,1) eta, batez ere, pribatuetan (-% 3,9) erregistratutako murrizketaren ondorioz. Bestetik, ikasleak nahiko modu homogeneoan banatzen dira ikastetxe publikoen (% 49,8) eta pribatuen (% 50,2) artean. Gipuzkoan ere, ikasle gehien dituen bigarren lurraldean (% 33,5), jaitsi egin da Haur Hezkuntzako ikasleen kopurua (-% 1,8). Sare publikoan % 1,9ko murrizketa izan da, eta sare pribatuan % 1,7koa. Banaketari dagokionez, ikastetxe publikoetan matrikulatu diren ikasleen % 51,9, eta pribatuetan, % 48,1. Araban, ikasleen % 16,7 izanik, nabarmena da ikastetxe pribatuetako matrikulazioen jaitsiera (-% 3,1). Beherakada apalagoa izan da ikastetxe publikoetan (-

% 0,9); bertan, matrikulatu dira 10 ikasletatik 6. Aitzitik, matrikulazioak nabarmen jaitsi diren testuinguruan, Nafarroa salbuespena da, % 1,5 igo baita Haur Hezkuntzako ikasle kopurua, sare publikoan izandako igoeraren ondorioz (+% 2,8). Hain zuzen ere, ikastetxe publikoetan matrikulatzen da ikasleen % 68,1. Sare pribatuan, berriz, jaitsi egin da ikasle kopurua (-% 1,1).

Hala, EAEn guztira 84.327 ikasle matrikulatu dira Haur Hezkuntzan, aurreko ikasturtean baino 1.631 gutxiago. Nafarroan, berriz, 24.616 ikaslera iritsi dira, aurreko ikasturtean baino 374 gehiago.

174. koadroa Euskalduntze maila Haur Hezkuntza

Eremua	2018/ 2019 ikasturtea					2019/ 2020 ikasturtea				
	A	B	D	X	Guztira	A	B	D	X	Guztira
Araba	3,1	30,7	66,2	0,0	100	3,2	29,1	67,7	0,0	100
Bizkaia	3,3	20,9	74,8	1,0	100	2,8	20,3	75,9	1,0	100
Gipuzkoa	2,1	2,9	95,0	0,0	100	2,1	2,8	95,0	0,0	100
EAE	2,9	16,5	80,1	0,5	100	2,7	15,9	80,9	0,5	100
Nafarroa*	16,0	1,0	28,8	54,1	100	15,7	0,9	28,6	54,9	100
Euskal Herria	5,8	13,1	68,8	12,3	100	5,6	12,5	69,1	12,8	100
Pribatua	6,0	26,5	55,2	12,3	100	5,8	26,0	55,9	12,3	100
Publikoa	5,6	2,3	79,9	12,3	100	5,4	1,9	79,5	13,1	100

Oharra: Hezkuntza-ereduen eta zentro motaren arabera ikasleen banaketa Euskal Herri osoari dagokio.

A: Hezkuntza gaztelaniaz; euskara beste irakasgai bat baino ez da.

B: Irakaskuntza elebiduna.

D: Hezkuntza euskaraz; gaztelania beste irakasgai bat baino ez da.

X: Euskararekin inolako harremanik ez duen hezkuntza.

():* Nafarroaren kasuan, euskararekin inolako harremanik ez duen hezkuntzari ofizialki G deitzen zaio.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Departamentua.

Hezkuntza maila honetako euskalduntze mailari dagokionez, ez da aurreko ikasturteko hizkuntza-maparekiko aldaketa handirik izan. D ereduak (irakaskuntza euskaraz; gaztelania beste irakasgai bat baino ez da) gora egiten jarraitu du Haur Hezkuntzan, baina aldeak izan dira lurraldeen artean.

Datuak lurraldeka aztertuta, Gipuzkoan D ereduak da nagusi: ia balio maximoetan kokatuz matrikulazio guztien % 95ekin. Gainerako ikasleak A (irakaskuntza gaztelaniaz; euskara beste irakasgai bat baino ez da) eta B (irakaskuntza elebiduna) ereduatan matrikulatu dira (% 2,1 eta % 2,8, hurrenez hurren). Bizkaian, Haur Hezkuntzako ikasleen % 75,9 matrikulatu dira D ereduari, eta % 20,3 B ereduari. A eta X (euskararekin inolako harremanik ez duen hezkuntza) ereduaren garrantzia, berriz, hondarrekoa izan da (% 2,8 eta % 1,0). Arabari dagokionez, D ereduak nagusi izan arren (% 67,7), esanguratsua da, halaber, B ereduaren garrantzia (% 29,1). A ereduak du presentziarik txikiena (% 3,2). Nafarroaren kasuan, EAerekiko alde handiak ikus daitezke; izan ere, X ereduari matrikulatzen da ikasleen erdia

baino gehiago (% 54,9); jarraian, D ereduan, % 28,6, eta A ereduan, berriz, % 15,7. Azkenik, B ereduaren garrantzia marginala da (% 0,9).

Hala, euskalduntze maila (D eredu gehi B eredu) % 96,8koa da EAEn 2019an. Nafarroan, berriz, % 29,5ekoa baino ez da. Lurralde guztiak kontuan izanda, Euskal Herriak % 81,6ko euskalduntze maila du.

Lehen Hezkuntza

Azterketarekin aurrera jarraituz, eta Lehen Hezkuntzari dagokionez, 2019/2020 ikasturtean 173.108 ikasle matrikulatu dira Euskal Herrian, aurreko ikasturtean baino 740 gutxiago; hau da, kopuru erlatiboetan adierazita, matrikulazioetan % 0,4ko jaitsiera izan da. Zentro motaren arabera, ikasleen % 55,3 sare publikoan matrikulatu dira, aurreko ikasturtearekiko oso alde txikiarekin (-17 ikasle gutxiago). Gainerako % 44,7a irakaskuntza pribatuan matrikulatu da; sare honetan erregistratutako beherakada handiagoa izan da, 723 ikasle gutxiago matrikulatu baitira (-% 0,9).

175. koadroa Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera. Lehen Hezkuntza

Eremua	2018/ 2019 ikasturtea			2019/ 2020 ikasturtea		
	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira
Araba	12.900	8.189	21.089	12.836	8.269	21.105
Bizkaia	32.250	33.149	65.399	32.148	32.973	65.121
Gipuzkoa	22.819	21.625	44.444	22.432	21.262	43.694
EAE	67.969	62.963	130.932	67.146	62.504	129.920
Nafarroa	27.816	15.100	42.916	28.352	14.836	43.188
Euskal Herria	95.785	78.063	173.848	95.768	77.340	173.108

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentua.

Hain zuzen ere, beheranzkoa izan da hezkuntza maila honetako ikasle kopuruaren joera nagusia. Bi lurraldetan baino ez du gora egin: Arabako sare pribatuan (+% 1,0) eta Nafarroako sare publikoan (+% 1,9). Gipuzkoan, sare pribatuan zein publikoan % 1,7 egin du behera ikasle kopuruak. Hala ere, banaketari dagokionez, zentro publikoetako kopurua apur bat altuagoa da (% 51,3). Bizkaian ere, ikasleen banaketa orekatuagoa izanik (% 49,4 sare publikoan eta % 50,6 pribatuan), antzeko jaitsiera hauteman da sare publikoan zein pribatuan (-% 0,3 eta -% 0,5, hurrenez hurren). Aldiz, Araban, zentro pribatuetako ikasle kopuruak gora egin du (+% 1,0) eta sare publikoak, aldiz, behera (-% 0,5). Dena den, sare publikoa da nagusi, ikasleen % 60,8rekin. Nafarroan, sare publikoak 10 ikasletatik 6 barne hartzen ditu. Gainera, gora egiten du zentro publikoetako ikasle kopuruak (+% 1,9). Sare pribatuan, berriz, matrikulazioak arinki jaisten dira (-% 1,7).

Hala, EAEn guztira 129.920 ikasle matrikulatu dira Lehen Hezkuntzan, 2018/2019 ikasturtean baino 1.012 gutxiago. Nafarroan, berriz, 43.188 ikaslara iristen dira, aurreko ikasturtean baino 272 gehiago.

176. koadroa Euskalduntze maila Lehen Hezkuntza

(%)

Eremua	2018/ 2019 ikasturtea					2019/ 2020 ikasturtea				
	A	B	D	X	Guztira	A	B	D	X	Guztira
Araba	5,2	36,7	58,1	0,0	100	4,8	35,3	59,9	0,0	100
Bizkaia	4,1	24,5	69,8	1,7	100	3,7	24,1	70,5	1,7	100
Gipuzkoa	2,5	7,1	90,4	0,0	100	2,4	6,3	91,3	0,0	100
EAE	3,7	20,5	74,9	0,8	100	3,5	19,9	75,8	0,8	100
Nafarroa	19,5	0,3	26,0	54,2	100	19,3	0,3	26,0	54,4	100
Euskal Herria	7,6	15,5	62,8	14,0	100	7,4	15,0	63,4	14,2	100
Pribatua	7,6	29,4	48,6	14,5	100	7,2	29,1	49,5	14,2	100
Publikoa	7,7	4,2	74,5	13,6	100	7,5	3,7	74,6	14,2	100

Oharra: Hezkuntza-ereduen eta zentro motaren arabera ikasleen banaketa Euskal Herri osoari dagokio.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentua.

Euskalduntze mailari dagokionez, Haur Hezkuntzan bezalaxe, D ereduak presentzia handiagoa eta bilakaera hobea izan du hiru lurralde historikoetan, batez ere, Gipuzkoan. Hain zuzen ere, Gipuzkoan ikasleen % 91,3 matrikulatu da D ereduari, aurreko ikasturtearekiko ehuneko 0,9 puntuko hazkundearekin. Igoera horrek are gehiago ahultzen du gainerako ereduaren presentzia eskasa. A ereduari ikasleen % 2,4 matrikulatu da, eta B ereduari % 6,3. Bizkaian ere partaidetza handiena D ereduari izan du (% 70,5), eta B ereduari da hurrengoa, (% 24,1). A (% 3,7) eta X (% 1,7) ereduak oso presentzia txikia izan dute. Araban, ikasleen ia % 60 matrikulatu da D ereduari; % 35,3, B ereduari, eta, ia hondarreko garrantziarekin, % 4,8, A ereduari. Nafarroako egoera oso ezberdina da, X ereduari baitu presentziarik handiena (% 54,4). D ereduari (% 26,0), A ereduari (% 19,3) eta B ereduari (% 0,3) izan dira hurrengoak. Azken hori ia desagertuta dago.

Gauzak hala, Lehen Hezkuntzan euskalduntze-tasa % 78,4koa izan da Euskal Herrian 2019/2020 ikasturtean: EAEn mugatuz gero, % 95,7koa da tasa hori, eta Nafarroari dagokionez, berriz, % 26,3koa.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH)

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari (DBH) dagokion informazioa aztertuko da jarraian. 2019/2020 ikasturtean Euskal Herrian 114.478 ikasle matrikulatu dira, aurreko ikasturtean baino 1.711 gehiago. Hortaz, % 1,5 handitu da ikasle kopurua Euskal Herrian. Aztertutako lurralde guztietan egin du gora: Gipuzkoan gehien, % 1,8, jarraian, Araban % 1,6, Nafarroan % 1,5 eta, azkenik, Bizkaian % 1,3.

177. koadroa Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera. DBH

Eremua	2018/ 2019 ikasturtea			2019/ 2020 ikasturtea		
	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira
Araba	6.428	6.643	13.071	6.565	6.713	13.278
Bizkaia	18.872	23.737	42.609	19.132	24.019	43.151
Gipuzkoa	14.011	15.470	29.481	14.527	15.491	30.018
EAE	39.311	45.850	85.161	40.224	46.223	86.447
Nafarroa	16.503	11.103	27.606	16.497	11.084	28.031
Euskal Herria	55.814	56.953	112.767	57.171	57.307	114.478

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.

Matrikulak zentro motaren arabera aztertuta, EAEko hiru lurralde historikoetan ikasle kopurua handiagoa da ikastetxe pribatuetan (Bizkaian % 55,7, Gipuzkoan % 51,6 eta Araban % 50,6), baina bilakaera hobea izan dute ikastetxe publikoek. Hala, Gipuzkoan, sare publikoan % 3,7ko igoera erregistratu da, eta pribatuan, % 0,1ekoa. Araban, sare publikoan % 2,1ko hazkuntza izan da, eta pribatuan, % 1,1ekoa. Bizkaian, berriz, biek antzeko igoera hauteman dute: % 1,4koa sare publikoak, eta % 1,2koa pribatuak. Bestalde, Nafarroan presentzia handiagoa izan du sare publikoak (10 ikasletatik 6), baita bilakaera hobea ere (+% 2,7ko igoera, eta pribatuak -% 0,2ko galera). Hala, areagotu egiten da bi sareen arteko aldea.

Datu guztiak kontuan izanda, EAEn 86.447 ikasle matrikulatu dira DBHn, 2018/2019 ikasturtean baino 1.286 gehiago. Nafarroan, berriz, 28.031 ikasle matrikulatu dira, aurreko ikasturtean baino 425 gehiago.

178. koadroa Euskalduntze maila DBH

Eremua	2018/ 2019 ikasturtea					2019/ 2020 ikasturtea				
	A	B	D	X	Guztira	A	B	D	X	Guztira
Araba	14,3	34,4	51,3	0,0	100	13,0	34,9	52,1	0,0	100
Bizkaia	8,2	27,1	63,4	1,3	100	7,5	26,8	64,5	1,3	100
Gipuzkoa	2,7	13,4	83,9	0,0	100	2,6	11,7	85,7	0,0	100
EAE	7,2	23,5	68,6	0,6	100	6,6	22,8	69,9	0,6	100
Nafarroa	8,5	0,1	25,4	66,0	100	8,5	0,0	24,8	66,7	100
Euskal Herria	7,5	17,8	58,0	16,7	100	7,1	17,2	58,9	16,8	100
Pribatua	9,8	31,2	43,4	15,6	100	9,3	30,9	44,3	15,6	100
Publikoa	5,2	4,1	73,0	17,7	100	4,9	3,5	73,5	18,1	100

Oharra: Hezkuntza-ereduen eta zentro motaren araberako ikasleen banaketa Euskal Herri osoari dagokio.


Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.

Hizkuntza-ereduaren araberako ikasleen banaketari dagokionez, beheko ikasmailetako hizkuntza-maparekiko antzekotasun ugari ikus daitezke. D ereduak nagusi izaten jarraitzen du Bizkaian (% 64,5), Araban (% 52,1) eta, batez ere, Gipuzkoan (% 85,7). B ereduak, berriz, bere presentzia mantendu du Bizkaian (% 26,8) eta Araban (% 34,9), eta

apur bat gutxiago Gipuzkoan (% 11,7). A ereduak, Araban presentzia apur bat badu ere (% 13,0), indarra galtzen du beste bi lurraldeetan (% 7,5 Bizkaian eta % 2,6 Gipuzkoan). X ereduak Bizkaian baino ez da eskaintzen eta hondarreko pisua bereganatzen du (% 1,3). Nafarroan, bestalde, X ereduak gailentzen da, ikasleen % 66,7rekin. D ereduak da hurrengoa, distantzia apur batekin (% 24,8), eta, azkenik, A ereduak (% 8,5).

Hortaz, DBHko euskalduntze-tasa % 76,1ekoa izan da Euskal Herrian 2019/2020 ikasturtean. Tasa altuena EAERI dagokio, % 92,7ko balioarekin, Nafarroan, aldiz, % 24,8ra murrizten da.

31. grafikoa Unibertsitatekoak ez diren ikasleen matrikulazioen bilakaera Euskal Herrian



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentua.

Erdi-mailako irakaskuntza

Oinarrizko Lanbide Heziketa, Erdi Mailakoa eta Goi Mailakoa

Lanbide Heziketan (Oinarrizkoa, Erdi Mailakoa eta Goi Mailakoa) berriro ere igo egiten da matrikula kopurua. Hala, 2019/20 ikasturtean 52.463 ikasle matrikulatu dira Euskal Herrian heziketa zikloetan, aurreko ikasturtean baino 1.592 gehiago. Matrikulen igoera hau (+% 3,1), batez ere, sare publikoko gorakadak eragiten du (+% 4,6); izan ere, sare pribatuan ere igo egiten da ikasle kopurua, baina modu apalagoan (+% 1,1).

179. koadroa Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera.
Oinarrizko Lanbide Heziketa, Erdi Mailakoa eta Goi Mailakoa

Eremua	2018/ 2019 ikasturtea			2019/ 2020 ikasturtea		
	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira
Araba	3.613	2.815	6.428	3.624	2.817	6.441
Bizkaia	9.834	10.055	19.889	9.868	10.086	19.954
Gipuzkoa	9.688	5.760	15.448	10.258	5.829	16.087
EAE	23.135	18.630	41.765	23.750	18.732	42.482
Nafarroa	6.563	2.543	9.106	7.303	2.678	9.981
Euskal Herria	29.698	21.173	50.871	31.053	21.410	52.463

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentua.

Datuak lurraldeka aztertuta, Nafarroa nabarmentzen da, matrikula kopurua dezente hazi baita bertan (+% 9,6), batez ere sare publikoan, hau da, ikasle gehien jasotzen dituen sarean (% 73,2), aurreko ikasturtean baino % 11,3 ikasle gehiago matrikulatu baitira. Sare pribatuan ere igo egin da ikasle kopurua, % 5,3, hain zuzen ere. Gipuzkoan ere aurreko ikasturtean baino ikasle gehiago izan dira (+% 4,1), eta, Nafarroan bezala, igoera handiagoa hauteman da sare publikoan, pribatuan baino (+% 5,9 publikoan eta +% 1,2 pribatuan). Hain zuzen, sare publikoan matrikulatzen da ikasleen % 63,8. Bizkaiari dagokionez, matrikula kopurua egonkor mantendu da bi sareetan (+% 0,3), eta ikasleen banaketa ere nahiko orekatua izan da (% 50,5 pribatuan eta % 49,5 publikoan). Araban ere ez da apenas igoerarik izan matrikulazioan, ez zentro publikoetan (+% 0,3), ez pribatuetan (+% 0,1), eta ikastetxe publikoek ikasle gehiago dituzte (% 56,3).

Hala, 2019/2020 ikasturtean 42.482 ikasle matrikulatu dira Lanbide Heziketan EAEn, aurreko ikasturtean baino 717 gehiago. Nafarroan, berriz, 9.981 ikasle, aurreko ikasturtean baino 875 gehiago.

180. koadroa Euskalduntze maila
 Oinarrizko Lanbide Heziketa, Erdi Mailakoa eta Goi Mailakoa

(%)

Eremua	2018/ 2019 ikasturtea					2019/ 2020 ikasturtea				
	A	B ^(*)	D	X	Guztira	A	B ^(*)	D	X	Guztira
Araba	77,9	14,2	7,9	0,0	100	74,8	17,3	7,9	0,0	100
Bizkaia	73,0	15,6	11,5	0,0	100	69,5	18,6	11,9	0,0	100
Gipuzkoa	45,6	17,6	36,7	0,0	100	43,9	18,5	37,7	0,0	100
EAE	63,6	16,1	20,3	0,0	100	60,6	18,3	21,1	0,0	100
Nafarroa	0,0	0,0	6,0	94,0	100	0,0	0,0	6,5	93,5	100
Euskal Herria	52,2	13,2	17,7	16,8	100	49,1	14,8	18,3	17,8	100
Pribatua	63,5	13,9	10,6	12,0	100	61,5	15,1	10,9	12,5	100
Publikoa	44,2	12,8	22,8	20,3	100	40,5	14,7	23,4	21,4	100

Oharra: Hezkuntza-ereduen eta zentro motaren arabera ikasleen banaketa Euskal Herri osoari dagokio.

():* Batxilergorako eta Lanbide Heziketarako, A eta D ereduak baino ez daude legez, baina A eredu talde batzuek irakasgai batzuk euskaraz ematen dituzte, eta modalitate hori, A eredu indartu gisa ezagutzen dena, B eredura hurbil daiteke.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.

Hizkuntza-ereduen arabera banaketa aztertuta, aurrez aztertutako hezkuntza-mailerikiko alde handiak ikus daitezke. EAEn A ereduan matrikulatu da ikasleen gehiengo (% 60,6). Nafarroan, berriz, X eredu ia balio maximoetara iristen da (% 93,5), D ereduari leku txikia utziz (% 6,5), nahiz eta azken eredu horretan nolabaiteko igoera izan den.

Arabian eta Bizkaian antzekotasunak nabari dira: A ereduak da nagusi (% 74,8 eta % 69,5, hurrenez hurren). Hortaz, mugatua da B (% 17,3 eta % 18,6) eta D (% 7,9 eta % 11,9) ereduaren garrantzia. Bestalde, Gipuzkoan hizkuntza-ereduen banaketa uniformeagoa da: ikasleen % 43,9 A ereduan matrikulatzen dira, % 37,7 D ereduan eta % 18,5 B ereduan.

Gauzak horrela, Euskal Herriko euskalduntze maila % 33,1ekoa da 2019/2020 ikasturtean; % 39,4koa EAEn eta % 6,5ekoa Nafarroan.

Batxilergoa

Batxilergoari dagokionez, 2019/2020 ikasturtean 39.982 ikasle matrikulatu dira, aurreko ikasturtean baino % 2 gehiago (796 ikasle gehiago). Sare publikoko zein pribatuko ikastetxeetan igotzen da ikasle kopurua, eta aztertutako adierazle guztiek hobekuntzak erregistratzen dituzte. EAEn, ikasleen banaketari dagokionez, sare bakoitzaren pisu espezifiko nahiko orekatua da (ikasleen % 50,7 sare publikoan eta % 49,3 pribatuan). Nafarroan, ordea, 10 ikasletatik 6k ikastetxe publikoak aukeratzen dituzte.

181. koadroa Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera. Batxilergoa

Eremua	2018/ 2019 ikasturtea			2019/ 2020 ikasturtea		
	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira
Araba	2.383	2.346	4.729	2.410	2.393	4.803
Bizkaia	7.218	8.116	15.334	7.330	8.295	15.625
Gipuzkoa	5.026	5.336	10.362	5.180	5.572	10.752
EAE	14.627	15.798	30.425	14.920	16.260	31.180
Nafarroa	5.307	3.454	8.761	5.341	3.461	8.802
Euskal Herria	19.934	19.252	39.186	20.261	19.721	39.982

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.

Lurraldekako azterketa Gipuzkoatik hasita, % 3,8 hazi da matrikula kopurua 2019/2020 ikasturtean, gehixeago sare pribatuan (+% 4,4) sare publikoan baino (+% 3,1). Gainera, sare pribatuak bereganatzen du ikasle gehien (% 51,8). Bizkaian bilakaera bera izan dute bi sareek, baina ikasle gehiago biltzen ditu sare pribatuak (% 53,1), eta matrikulazioa ere gehiago hazten da ikastetxe pribatuetan (+% 2,2, eta publikoetan, aldiz, +% 1,6). Araban, itunpeko ikastetxeetako matrikula kopurua % 2,0 hazi da, eta publikoetakoa, aldiz, % 1,1. Bien arteko banaketa, berriz, nahiko orekatua da: ikasleen % 49,8 sare pribatuan, eta % 50,2 publikoan. Nafarroari dagokionez, ikasleen % 60,7 sare publikoan matrikulatuta dago. Ikasle kopurua, ostera, ez da apenas igo bi sareetan (+% 0,6 publikoan eta +% 0,2 pribatuan).

Hala, 2019/2020 ikasturtean 31.180 ikasle matrikulatu dira EAEn, aurreko ikasturtean baino 755 ikasle gehiago. Nafarroan, berriz, 8.802 ikasle matrikulatu dira, aurreko ikasturtean baino 41 gehiago.

182. koadroa Euskalduntze maila Batxilergoa

Eremua	2018/ 2019 ikasturtea					2019/ 2020 ikasturtea				
	A	B	D	X	Guztira	A	B	D	X	Guztira
Araba	41,4	8,4	50,2	0,0	100	39,1	9,1	51,9	0,0	100
Bizkaia	34,8	4,2	59,7	1,3	100	33,5	4,4	60,6	1,5	100
Gipuzkoa	18,2	4,9	77,0	0,0	100	17,5	5,2	77,3	0,0	100
EAE	30,2	5,1	64,1	0,7	100	28,8	5,4	65,0	0,8	100
Nafarroa	3,9	0,0	25,7	70,4	100	3,9	0,0	25,8	70,3	100
Euskal Herria	24,3	3,9	55,5	16,3	100	23,3	4,2	56,4	16,1	100
Pribatua	34,1	7,0	42,5	16,4	100	33,7	7,4	42,9	16,0	100
Publikoa	14,8	0,9	68,1	16,2	100	13,3	1,0	69,5	16,1	100

Oharra: Hezkuntza-ereduen eta zentro motaren arabera ikasleen banaketa Euskal Herri osoari dagokio.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.

Amaitzeko, euskalduntze-tasari dagokionez, aldaketa gutxi hauteman dira aurreko ikasturtearekin alderatuta. EAEn D ereduak da nagusi (% 65,0) eta Nafarroan X ereduak (% 70,3). Lurralde historikoen arabera aztertuta, Gipuzkoan D ereduak jarraitzen du nagusi

izaten (% 77,3), jarraian, distantzia apur batera A eredia (% 17,5), eta pisu askoz txikiagoarekin, B eredia (% 5,2). Bizkaian 10 ikasletatik 6 D eredian matrikulatzen dira, A ereduak ikasleen herena biltzen du (% 33,5), eta gainerakoek B (% 4,4) eta X (% 1,5) ereduak aukeratzen dituzte. Araban, D (% 51,9) eta A (% 39,1) ereduak bereganatzen dituzte ikasle gehien, eta B ereduak garrantzi txikiagoa du (% 9,1). Nafarroan X eredian matrikulatu dira ikasle gehienak (% 70,3), D ereduak % 25,8ko presentzia du eta A ereduaren garrantzia marginala da (% 3,9).

Hori guztia aintzat hartuta, Euskal Herriko euskalduntze maila % 60,6koa izan da: % 70,4koa EAEn eta % 25,8koa Nafarroan.

2.2 UNIBERTSITATEKO IKASLEEN BILAKAERA

Unibertsitateko matrikulen ganean eskuragarri dauden azken datuen arabera, 2019/2020 ikasturtean % 0,3 jaitsi da matrikula kopurua Euskal Herriko unibertsitateetan, eta horrela, aurreko ikasturteetako goranzko joera alderantzikatu da. Hala, 64.139 ikasle matrikulatu dira Euskal Herriko bost unibertsitateetan, 2018/2019 ikasturtean baino 217 gutxiago. Bost unibertsitate horietatik hiru pribatuak dira (Deustuko Unibertsitatea, Nafarroako Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea) eta beste biak publikoak (Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa).

Zehazki, bi unibertsitateetan baino ez du egin behera ikasle kopuruak. Batetik, Deustuko Unibertsitatean (-% 8,4), ikasleen % 13,2rekin, eta bestetik, UPV/EHU (-% 0,4), Euskal Herrian ikasle gehien jasotzen dituen unibertsitatean (% 54,7). Bestalde, ikasle kopurua hazi egiten da Mondragon Unibertsitatean (+% 6,9ko igoera eta ikasleen % 7,3), Nafarroako Unibertsitate Publikoan (+% 3,3ko igoera eta ikasleen % 11,3) eta Nafarroako Unibertsitatean (+% 1,8ko igoera eta ikasleen % 13,6). Datuak lurraldeen arabera aztertuta, Bizkaian matrikulatzen dira ikasle gehienak, % 40,6, jarraian, Gipuzkoan % 25,2, Nafarroan % 23,3 eta distantzia gehixeagorekin, Araban % 10,9.

183. koadroa Ikasleen eta irakasleen bilakaera Euskal Herriko unibertsitateetan

Unibertsitatea eta lurraldeak	Ikasleak		Irakasleak	
	18/19 ikasturtea	19/20 ikasturtea ⁽¹⁾	18/19 ikasturtea	19/20 ikasturtea ⁽¹⁾
Euskal Herriko Unibertsitatea	35.197	35.068	5.629	5.596
Araba	7.006	7.002	988	987
Bizkaia	19.310	19.267	3.248	3.220
Gipuzkoa	8.881	8.799	1.393	1.389
Nafarroako Unibertsitatea	8.552	8.705	1.023	1.033
Nafarroa	7.568	7.714	885	891
Gipuzkoa	984	991	138	142
Nafarroako Unibertsitate Publikoa	7.006	7.237	934	966
Nafarroa	7.006	7.237	934	966
Deustuko Unibertsitatea	9.241	8.469	1.835	1.747
Bizkaia	7.296	6.771	1.554	1.453
Gipuzkoa	1.945	1.698	281	294
Mondragon Unibertsitatea	4.360	4.660	474	522
Gipuzkoa	4.360	4.660	474	522
Guztira	64.356	64.139	9.895	9.864
Araba	7.006	7.002	988	987
Bizkaia	26.606	26.038	4.802	4.673
Gipuzkoa	16.170	16.148	2.286	2.347
EAE	49.782	49.188	8.076	8.007
Nafarroa	14.574	14.951	1.819	1.857

(1): Behin-behineko datuak.

Iturria: EHU, Nafarroako Unibertsitatea, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Deustuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea eta irakaskuntzaren estatistika.

Irakasleei dagokienez, Euskal Herri osoko datuak kontuan izanda, jaitsiera arina ikus daiteke, aurreko ikasturtean baino % 0,3 irakasle gutxiago izan baitituzte unibertsitateek, hau da, 31 irakasle gutxiago; guztira, irakasle kopura 9.864koa da. Unibertsitate bakoitzeko datuak aztertuta, irakasleen murrizketa zehazki bi unibertsitatetako murrizketekin lotuta dagoela ikus daiteke. Batetik, Euskal Herriko Unibertsitatean, non 5.596 irakasle dauden, % 0,6 jaitsi da irakasle kopurua, hau da, aurreko ikasturtean baino 33 irakasle gutxiago daude. Bestetik, Deustuko Unibertsitatean murrizketa handiagoa izan da (-% 4,8), eta aurreko ikasturtean baino 88 irakasle gutxiago izan dituzte. Gainerako unibertsitateetan gora egin du irakasle kopuruak: Mondragon Unibertsitateak izan du igoerarik handiena, 48 irakasle gehiagorekin. Nafarroako Unibertsitate Publikoak 32 irakasle gehiago izan ditu, eta, azkenik, Nafarroako Unibertsitateak 10 gehiago.

Jarraian Euskal Herriko unibertsitate bakoitzeko ikasle kopuruaren bilakaera aztertuko da, modu zehatzagoan.

184. koadroa Ikasleen banaketa UPV/EHU

Lurralde historikoa	18/19 ikasturtea	19/20 ikasturtea ⁽¹⁾	%	% Δ aurreko urtean
Araba	6.880	6.912	100,0	0,5
Farmazia Fakultatea	1.374	1.335	19,3	-2,8
Filologia, Geografia eta Historia F.	2.100	2.119	30,7	0,9
Irakasleen UE	1.083	1.136	16,4	4,9
Industria Ingeniaritza Teknikoko UE	810	832	12,0	2,7
Gizarte Laneko UE	578	568	8,2	-1,7
Enpresa Zientzien UE	449	440	6,4	-2,0
Jarduera Fiskoaren eta Kirolaren Zientzien F.	486	482	7,0	-0,8
Bizkaia	18.746	18.707	100,0	-0,2
Zientziak eta Teknologia F.	2.581	2.616	14,0	1,4
Arte Ederren F.	1.196	1.210	6,5	1,2
Ekonomia eta Enpresa Zientzien F.	2.614	2.601	13,9	-0,5
Gizarte eta Komunikazio Zientzien F.	2.386	2.430	13,0	1,8
Medikuntza eta Erizaintza F.	1.355	1.392	7,4	2,7
Industria Ingeniaritzako eta Telekomunikazioetako GET	1.761	1.761	9,4	0,0
Enpresa Ikasketen UE	849	815	4,4	-4,0
Erizaintzako UE (Leioa)	681	698	3,7	2,5
Irakasleen UE	1.986	1.984	10,6	-0,1
Lan Harremanen E.	547	564	3,0	3,1
Industria Ingeniaritza Teknikoko UE	1.696	1.622	8,7	-4,4
Meatzte Ingeniaritza Teknikoko UE	370	309	1,7	-16,5
Nautikako GET	197	188	1,0	-4,6
Zuzenbide Fakultatea. Bizkaiko atala	527	517	2,8	-1,9
Gipuzkoa	8.677	8.596	100,0	-0,9
Zientzia Kimikoen F.	325	313	3,6	-3,7
Zuzenbide F.	851	847	9,9	-0,5
Informatika F.	568	607	7,1	6,9
Filosofia eta Hezkuntza Zientzien F.	985	958	11,1	-2,7
Psikologia F.	1.107	1.108	12,9	0,1
Arkitekturako GET	634	638	7,4	0,6
Enpresa Ikasketen UE	1.162	1.082	12,6	-6,9
Irakasleen UE	1.130	1.128	13,1	-0,2
Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko UE	276	276	3,2	0,0
Donostiako Unibertsitate Politeknikoa	1.162	1.168	13,6	0,5
Erizaintzako UE	477	471	5,5	-1,3
Arabako Medikuntza eta Erizaintza Fakultatearen Irakaskuntza Unitatea	126	90	--	-28,6
Gipuzkoako Medikuntza eta Erizaintza Fakultatearen Irakaskuntza Unitatea	204	203	--	-0,5
Bizkaiko Medikuntza eta Erizaintza Fakultatearen Irakaskuntza Unitatea	564	560	--	-0,7
Guztira	35.197	35.068	100	-0,4

(1): Behin-behineko datuak.
Iturria: UPV/EHU.

Ikasle gehien dituen unibertsitatearekin hasiko da azterketa, Euskal Herriko Unibertsitatearekin hain zuzen ere. 2019/2020 ikasturtean 35.068 ikasle matrikulatu dira bertan, aurreko ikasturtean baino 129 gutxiago (-% 0,4). UPV/EHUko ikasle gehienak Bizkaiko campusean matrikulatzen dira (% 55), baina aurreko ikasturtean baino % 0,2

ikasle gutxiago jasotzen ditu, zehazki, 39 gutxiago. Gipuzkoan matrikulatzen da ikasleen % 25, eta hemen ere aurreko ikasturtean baino % 0,9 ikasle gutxiago izan dituzte (81 ikasle gutxiago). Arabako campusean baino ez da igo ikasle kopurua, campusik txikienean (ikasleen % 20). Aurreko ikasturtean baino % 0,5 ikasle gehiago matrikulatu dira bertan, hau da, 32 ikasle gehiago. Fakultateen artean ere, alde handiak izan dira ikasleen bilakaerari dagokionez, eta urte batetik besterako aldakuntza ezberdina izan da bakoitzean.

Bizkaitik hasita, hura baita UPV/EHUren erreferentziazko campusa, eskaintza osatzen duten 14 fakultateetatik 7tan behera egin du matrikula kopuruak. Aurreko ikasturteetan bezala, jaitsiera handiena Meatze Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskolak izan du (-% 16,5): ikasleen % 1,7 biltzen du atal horrek. Halaber, honako fakultateetan ere jaitsi egin da ikasle kopurua, baina modu apalagoan: Nautikako GET (-% 4,6), Industria Ingeniaritza Teknikoko UE eta Enpresa Zientzien UE (-% 4, bi kasuetan). Ikasleen % 1,0, % 8,7 eta % 4,4 barne hartzen dituzte, hurrenez hurren. Era berean, honako fakultateetan apur bat jaisten da matrikula kopurua: Zuzenbide Fakultatea (-% 1,9ko jaitsiera, eta ikasleen % 2,8), Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea (-% 0,5ko jaitsiera eta ikasleen % 13,9) eta Irakasleen UE (-% 0,1eko jaitsiera eta ikasleen % 10,6). Bestalde, bilakaera positiboa izan dute 6 fakultatek: hazkunderik handiena Lan-harremanen Eskolan (% 3,1eko igoera eta ikasleen % 3), Medikuntza Fakultatean (% 2,7ko igoera eta ikasleen % 7,4), Erizaintzako UEn (% 2,5ko igoera eta ikasleen % 3,7) eta Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean (% 1,8ko igoera, eta ikasleen % 13,0) hauteman dira. Urtetik urterako aldakuntza-tasa % 1,4koa izanik, Zientzia eta Teknologia fakultatea nabarmentzen da ikasleen % 14 jasota. Arte Ederren Fakultatean, berriz, ikasleen % 6,5 bilduta, % 1,2ko igoera izan da. Azkenik, Industria Ingeniaritza eta Telekomunikazioen GETen ez da aldakuntzarik izan, aurreko urteko ikasle kopuru bera izan baitute: 1.761.

Gipuzkoako campusari dagokionez (-% 0,9), 11 fakultateetatik 6tan behera egin du matrikula kopuruak. Enpresa Zientzien UEk izan du jaitsierarik handiena (-% 6,9), baina, aldi berean, ikasle gehien barne hartzen dituenetarikoa bat da (% 12,6). Fakultate hauetan ere jaitsi egin da ikasle kopurua: Zientzia Kimikoen Fakultatea (-% 3,7), Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea (-% 2,7) eta Erizaintzako UE (-% 1,3). Fakultate horiek ikasle kopuru oso ezberdina biltzen dute: % 3,6, % 11,1 eta % 5,5, hurrenez hurren. Neurri txikiagoan bada ere, behera egin dute Zuzenbide Fakultateko (-% 0,5) eta Irakasleen UEko (-% 0,2) matrikula kopuruek ere. Ikasleen % 9,9 eta % 13,1 bereganatzen dituzte, hurrenez hurren. Bestalde, igoerarik handiena Informatika Fakultatean hauteman da (+% 6,9), eta ikasleen % 7,1 biltzen du. Honako fakultateetan ere igo da matrikula kopurua, apalago bada ere: Arkitektura Fakultatea (+% 0,6), Donostiako Unibertsitate Politeknikoa (+% 0,5) eta Psikologia Fakultatea (+% 0,1). Ikasleen % 7,4, % 13,6 eta % 12,9 jasotzen dituzte, hurrenez hurren. Azkenik, Ingeniaritza Teknikoko UEk aurreko ikasturteko ikasle kopuru bera mantendu du, 276 ikasle.

Arabako campusari dagokionez, nabarmentzekoa da fakultate hauetan izandako ikasle kopuruaren igoera: Irakasleen UE (+% 4,9 eta ikasleen % 16,4), Industria Ingeniaritza Teknikoko UE (+% 2,7 eta ikasleen % 12) eta Filologia, Geografia eta Historia Fakultatea (+% 0,9 eta ikasleen % 30,7). Fakultate horiek garrantzi berezia dute, Arabako unibertsitate-ikasleen 10etik 6k bertan ikasten baitute. Bestalde, nabarmentzekoa da pisu gehieneko fakultateetako batek izandako ikasleen galera, hain zuzen ere, Farmazia Fakultateak (-% 2,8 eta ikasleen % 19,3). Horrez gain, ikasleak galdu dituzte Enpresa Zientzien UEk (-% 2,0), Gizarte Laneko UEk (-% 1,7) eta Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultateak ere (-% 0,8).

Nafarroako Unibertsitateari dagokionez, nabarmentzekoa da Nafarroakoa dela erreferentziatzeko campusa, bertan ikasten baitute ikasleen % 88,6k. Zehazki, 7.714 ikasle matrikulatu dira Nafarroako campusean, aurreko ikasturtean baino % 1,9 gehiago (146 gehiago). Campuseko hamabi fakultateetatik seitan izan da matrikulazioen hazkundera, eta horrek konpentsatu egin zuen beste seitan izandako matrikula kopuruaren jaitsiera.

185. koadroa Ikasleen banaketa Nafarroako Unibertsitatean

Lurralde historikoa	18/19 ikasturtea	19/20 ikasturtea ⁽¹⁾	%	% Δ aurreko urtean
Nafarroa	7.568	7.714	100	1,9
Zuzenbidea	742	734	9,5	-1,1
Medikuntza	1.235	1.217	15,8	-1,5
Filosofia eta Letrak	357	403	5,2	12,9
Komunikazioa	814	886	11,5	8,8
Hezkuntza eta Psikologia	655	633	8,2	-3,4
Zientziak	623	632	8,2	1,4
Farmazia eta Nutrizioa	680	695	9,0	2,2
Arkitektura	470	495	6,4	5,3
Teologia	168	161	2,1	-4,2
Ekonomia eta Enpresa Zientziak	1.121	1.161	15,1	3,6
Idazkaritza eta Administrazioa	185	182	2,4	-1,6
Erizaintza	518	515	6,7	-0,6
Gipuzkoa	984	991	100	0,7
Industria Ingeniaritza	984	991	100	0,7
Guztira ⁽²⁾	8.552	8.705	100	1,8

(1): Behin-behineko datuak.

(2): Horiez gain, doktoregoko 1.030 ikasle eta masterreko 770 ikasle daude Nafarroan eta Gipuzkoan.

Iturria: Nafarroako Unibertsitatea.

Hala, hazkundera izan duten fakultateen artean, hauek dira esanguratsuenak, ikasle kopuru handia jasotzen baitute: Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea (ikasleen % 15,1eko eta % 3,6ko igoera) eta Komunikazio Fakultatea (ikasleen % 11,5eko eta % 8,8ko igoera). Farmazia eta Nutrizio Fakultateak ikasleen % 9,0 barne hartzen du, eta % 2,2ko gorakada hauteman du. Halaber, Zientzia Fakultateak ikasleen % 8,2 biltzen du, eta % 1,4ko egin dute gora matrikulazioek. Era berean, ikasleen presentzia baxuagoa izan arren, esanguratsua da honako fakultateetan izandako ikasle-kopuruaren hazkundera:

Filosofia eta Letren Fakultatea (ikasleen % 5,2 eta % 12,9ko igoera), eta Arkitektura Fakultatea (ikasleen % 6,4 eta % 5,3ko igoera). Bestalde, Medikuntza Fakultatean behera egin du ikasle kopuruak (-% 1,5), ikasle gehien jasotzen dituen fakultatea izanik ere (% 15,8). Halaber, murriztu egin da ikasle kopurua Zuzenbide Fakultatean, antzeko proportzioan (-% 1,1); ikasleen % 9,5 jasotzen ditu fakultate honek. Garrantziaren arabera, honakoak dira ondorengo fakultateak: Hezkuntza eta Psikologia Fakultatea (ikasleen % 8,2 eta % 3,4ko jaitsiera) eta Erizaintza Fakultatea (ikasleen % 6,7 eta % 0,6ko jaitsiera).

Gipuzkoako campusean Ingeniaritza Eskola baino ez dago (Idazkaritza eta Administrazio Gradua Iruñera pasa da). Bertan, aurreko ikasturtean baino 7 ikasle gehiago matrikulatu dira; guztira, 991.

186. koadroa Ikasleen banaketa Nafarroako Unibertsitate Publikoan (UPNA)

Fakultateak eta Unibertsitate Eskolak	18/19 ikasturtea	19/20 ikasturtea ⁽¹⁾	%	% Δ aurreko urtean
Nekazaritza Ingeniaritzen GET	532	579	8,0	8,8
Industria Ingeniaritza eta Telekomunikazioen GET	1.917	1.965	27,2	2,5
Osasun Zientzien Fakultatea	678	784	10,8	15,6
Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea	1.189	1.168	16,1	-1,8
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea	1.820	1.865	25,8	2,5
Zientzia Juridikoen Fakultatea	645	637	8,8	-1,2
Ekonomia eta Enpresa Zientzien/Zientzia Juridikoen F. ⁽²⁾	226	229	3,2	1,3
Nekazaritza Ingeniaritzen/Ekonomia eta Enpresa GET	-	10	0,1	-
Guztira ⁽⁴⁾	7.007	7.237	100	3,3

(1): Behin-behineko datuak.

(2): Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzaren eta Zuzenbidearen Gradu Bikoitzean matrikulatutako ikasleak jasotzen ditu.

(3): Datuen Zientzien eta Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzaren Gradu Bikoitzeko ikasleak jasotzen ditu.

(4): Horiez gain, masterreko 806 ikasle eta doktoregoko 418 ikasle daude Nafarroan.

Iturria: Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

Azterketa Nafarroako Unibertsitate Publikora (UPNA) mugatuta, 2019/2020 ikasturtean % 3,3 igo da ikasle kopurua, eta 7.237 ikasle matrikulatzen dira (aurreko ikasturtean baino 230 gehiago). UPNAren zortzi fakultatetatik bostek izan dute igoera. Zehazki, eta fakultate bakoitzaren garrantzia kontuan izanda, esanguratsua da Industria Ingeniaritza eta Telekomunikazioen GETean eta Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatean izandako matrikulazio kopuruaren igoera, apala izan arren (+% 2,5). Fakultate horiek ikasleen % 27,2 eta % 25,8 barne hartzen dituzte, hurrenez hurren. Osasun Zientzien Fakultateak izan du urte batetik besterako aldakuntzarik handiena (+% 15,6), eta ikasleen % 10,8 biltzen du. Nekazaritza Ingeniaritzen GETak ikasleen % 8,0 bereganatzen du eta % 8,8ko hazkundea erregistratu du. Azkenik, Ekonomia eta Enpresa Zientzien/Zientzia Juridikoen Fakultateak balio apalagoak izan ditu (ikasleen % 3,2 eta % 1,3ko igoera). Bestalde, honako fakultate hauek balio negatiboak erregistratu dituzte: Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea (-% 1,8) eta Zientzia Juridikoen Fakultatea (-% 1,2). Ikasleen % 16,1 eta % 8,8 jasotzen dituzte, hurrenez hurren. Azkenik, 2019/2020 ikasturtean gradu berri bat eskaini da,

Datuen Zientzian eta Enpresen Administrazioan eta Zuzendaritzan Gradu Bikoitza. 10 ikasle matrikulatu dira bertan.

187. koadroa Ikasleen banaketa Deustuko Unibertsitatean

Lurralde historikoa	18/19 ikasturtea	19/20 ikasturtea ⁽¹⁾	%	% Δ aurreko urtean
Bizkaia	7.296	6.771	100	-7,2
Zuzenbide Fakultatea	1.031	923	13,6	-10,5
Teologia Fakultatea	155	118	1,7	-23,9
Ingeniaritza Fakultatea	898	933	13,8	3,9
Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatea	1.648	1.458	21,5	-11,5
Psikologia eta Hezkuntza Fakultatea	1.780	1.712	25,3	-3,8
EUMBAM (DUri atxikitako zentroa)	722	714	10,5	-1,1
Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea	1.062	913	13,5	-14,0
Gipuzkoa	1.945	1.698	100	-12,7
Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatea	647	608	35,8	-6,0
Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea	951	752	44,3	-20,9
Zuzenbide Fakultatea	74	68	3,9	-9,5
Psikologia eta Hezkuntza Fakultatea	273	271	16,0	-0,7
Guztira ⁽²⁾	9.241	8.469	100	-8,4

(1): Behin-behineko datuak.

(2): Horiez gain, doktoregoko 340 ikasle eta masterreko 1.284 ikasle daude.

Iturria: Deustuko Unibertsitatea

Deustuko Unibertsitateari dagokionez, aurrez aipatu moduan, nabarmen jaitsi da matrikula kopurua (-% 8,4). Fakultate guztietan hauteman dira jaitsierak, bakar batean izan ezik. Ondorioz, 2019/2020 ikasturtean 8.469 ikasle matrikulatu dira (aurreko ikasturtean baino 772 gutxiago).

Bizkaiko campusak ikasleen % 80 biltzen du, baina aurreko ikasturtean baino % 7,2 ikasle gutxiago matrikulatu dira bertan. Fakultate guztietan behera egin du ikasle kopuruak, Ingeniaritza Fakultatean izan ezik (% 3,9ko igoera eta ikasleen % 13,8). Teologia Fakultateak izan du galerarik handiena (-% 23,9), baina partaidetza txikia du (% 1,7). Jaitsiera nabarmenak erregistratu dituzte Gizarte eta Giza Zientzien Fakultateak (-% 11,5), Zuzenbide Fakultateak (-% 10,5) eta Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateak ere (-% 14,0). Gainera, ikasle asko jasotzen dituzte fakultate horiek (% 21,5, % 13,6 eta % 13,5, hurrenez hurren). Horiez gain, Psikologia eta Hezkuntza Fakultateak % 3,8ko jaitsiera pairatu du. Fakultate horrek jasotzen du, hain zuzen ere, ikasle kopuru handiena, % 25,3. EUMBAMen, berriz, % 10,5eko partaidetza izanik, % 1,1 murriztu da matrikula kopurua.

Gipuzkoako campusari dagokionez, 1.698 ikasle matrikulatu dira, aurreko ikasturtean baino dezente gutxiago (-% 12,7). Fakultate guztiek erregistratu dituzte galerak, baina nabarmenezkoa da Ekonomia Zientzien Fakultatearen kasua. Ikasleen % 44,3 jasotzen ditu, eta % 20,9ko galera izan du. Ikasle kopurua murriztu egin da honako fakultateetan ere: Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatea (% 6,0ko jaitsiera eta ikasleen % 35,8),

Psikologia eta Hezkuntza Fakultatea (-% 0,7 eta ikasleen % 16,0) eta Zuzenbide Fakultatea (-% 9,5 eta ikasleen % 3,9).

188. koadroa Ikasleen banaketa Mondragon Unibertsitatean

Fakultateak eta Unibertsitate Eskolak	Ikasturtea 18/19	19/20 ikasturtea ⁽¹⁾	%	% Δ aurreko urtean
Goi Eskola Politeknikoa	1.585	1.674	100	5,6
Industria Antolaketako Ingeniaritza Gradua	170	185	11,1	8,8
Industria Elektronikoko Ingeniaritza Gradua	164	179	10,7	9,1
Informatikako Ingeniaritza Gradua	168	178	10,6	6,0
Telekomunikazio Sistemen Ingeniaritza Gradua	34	21	1,3	-38,2
Ingeniaritza Mekanikoko Gradua	400	391	23,4	-2,3
Industria Diseinuko eta Produktu Garapeneko Ingeniaritza G.	258	264	15,8	2,3
Energiaren Ingeniaritza	104	107	6,4	2,9
Ingeniaritza Meatronikoa	77	117	7,0	51,9
Prozesu Industrialetako Ekoteknologiaren Ingeniaritza	54	74	4,4	37,0
Ingeniaritza Biomedikoa	156	158	9,4	1,3
Giza eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea	1.096	1.146	100,0	4,6
Haur Hezkuntza Gradua	352	335	29,2	-4,8
Lehen Hezkuntza Gradua	553	616	53,8	11,4
Ikus-entzunezko Komunikazio Gradua	191	195	17,0	2,1
Enpresa Zientzien Fakultatea	1.265	1.430	100	13,0
Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Gradua	438	460	32,2	5,0
Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza Gradua	827	928	64,9	12,2
Business Data Analytics Gradua	0	42	2,9	0
Gastronomia Zientzien Fakultatea	414	410	100	-1,0
Gastronomia eta Sukaldaritza Arteak	414	410	100	-1,0
Guztira ⁽²⁾	4.360	4.660	100	6,9

(1): Behin-behineko datuak.

(2): Horiez gain, masterreko 316 ikasle daude.

Iturria: Mondragon Unibertsitatea

Mondragon Unibertsitateari erreparatuta, 2019/2020 ikasturtean 4.660 ikasle matrikulatu dira (+% 6,9), aurreko ikasturtean baino 300 gehiago.

Goi Eskola Politeknikoan % 5,6 ikasle gehiago matrikulatu dira. Bertan eskaintzen dituzten hamar graduetatik zortzitan gora egin du ikasle kopuruak. Batetik, nabarmentzekoa da Ingeniaritza Meatronikoan izandako igoera (+% 51,9). 2017/2018an gradu hori eskaintzen hasi zirenetik, lehen aldiz gainditu da 100 ikasleren langa. Bestetik, gorakada nabarmena hauteman da Prozesu Industrialetako Ekoteknologiaren Ingeniaritza Graduan ere (+% 37,0). Bi gradu horiek ikasleen % 7,0 eta % 4,4 barne hartzen dituzte, hurrenez hurren. Halaber, ikasle kopuruak gora egin du Industria Elektronikoko Ingeniaritza Graduan (+% 9,1), Industria Antolaketan (+% 8,8) eta Ingeniaritza Informatikoan (+% 6,0). Gradu horietako bakoitzak ikasleen % 10 inguru jasotzen du. Energiaren Ingeniaritza Graduan (+% 2,9), Industria Diseinuko eta Produktu Garapeneko Ingeniaritzan (+% 2,3) eta Ingeniaritza Biomedikoan (+% 1,3) ere igo egin da ikasle kopurua, baina beste gradu batzuek baino ikasle gutxiago biltzen dituzte. Bestalde, jaitsierarik handiena Telekomunikazio Sistemen

Ingeniaritza Graduak pairatu badu ere (-% 38,2), gradu horrek ikasle gutxi jasotzen ditu (% 1,3). Azkenik, Ingeniaritza Mekanikoko Graduan izandako jaitsierak (-% 2,3) eragin handiagoa izandu, ikasleen % 23,4 matrikulatzen baitira gradu horretan.

Giza eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean, berriz, 1.146 ikasle matrikulatu dira, aurreko ikasturtean baino % 4,6 gehiago. Hala, ikasle kopurua igo egin da Lehen Hezkuntza Graduan (+% 11,4, eta ikasleen % 53,8 biltzen du) eta Ikus-entzunezko Komunikazio Graduan, neurri apalagoan bada ere (+% 2,1, eta ikasleen % 17). Bestalde, fakultate honetan, Haur Hezkuntza Graduak baino ez ditu ikasleak galdu (-% 4,8); ikasleen % 29,2 barne hartzen ditu gradu horrek.

Enpresa Zientzien Fakultatean 1.430 ikasle matrikulatu dira, eta lau fakultateetatik igoerarik handiena erregistratu duen fakultatea izan da, % 13 haziz. Igoera hori, hein handi batean, Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza Graduak hautemandako igoerari dagokio. Ikasleen % 64,9 bereganatzen du gradu horrek, eta % 12,2ko hazkundera erregistratu du. Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Graduan ere, ikasleen % 32,2 jasota, gora egin du ikasle kopuruak (+% 5,0). Aldi berean, Business Data Analytics Gradu berriak 42 ikasle gehitu dizkio kopuru totalari.

Azkenik, Gastronomia Zientzien Fakultatean ikasle kopurua jaitsi egin da eskaintzen duten gradu bakarrean, Gastronomia eta Sukaldaritza Arteen Graduan (-% 1,0); bertan, 410 ikasle matrikulatu dira.

3. GARRAIOA

3.1 TRENBIDE BIDEZKO GARRAIOA

Trenbide bidezko garraioarekin hasiko dugu kapitulua. Euskal Herriko bidaiari kopuruak gora egin zuen 2019an, hirugarren urtez. Hala, 2019an 40.288 bidaiari garraiatu zituzten, aurreko ekitaldian baino % 3,8 gehiago –erreferentziazko bi konpainietako bidaiariak kontuan izanda, Renfe-koak eta EuskoTrenekoak–.

189. koadroa Bidaiarien mugimendua*

Urtea	Bidaiariak (m)	%Δ
2015	32.118	-0,2
2016	31.959	-0,5
2017	35.483	11,0
2018	38.798	9,3
2019	40.288	3,8

(*): Renferen datuak Bilboko eta Donostiako aldirietako bidaiarien zifrari dagozkio.

Iturria: Renfe eta EuskoTren.

Informazioa tren-konpainien arabera aztertuta, Renfe-ko bidaiari kopurua nahiko egonkor mantendu zen, eta EuskoTrenekoek gora egin zuten.

190. koadroa Bidaiarien mugimendua konpainien arabera

Kontzeptua	2017	2018	2019	% Δ19/18 ^(m)
Renfe-Bilboko sarea	10.044	10.429	10.574	1,4
Renfe-Donostiako sarea	6.051	5.886	5.858	-0,5
EuskoTren	19.388	22.484	23.857	6,1
Guztira	35.483	38.798	40.288	3,8

Iturria: Renfe eta EuskoTren.

Zehazki, % 6,1 igo zen EuskoTreneko bidaiarien kopurua, aurreko ekitaldian bezala. Hala, Euskal Herrian jarduera handiena duen konpainia da (bidaiarien mugimenduen % 59,2 hartzen ditu). 2019an 23,9 milioi erabiltzaile izan zituen guztira, EuskoTrenek lan egiten duen bi lurraldeetan banatuta: 13,1 milioi erabiltzaile Gipuzkoan, eta 10,8 milioi Bizkaian. Gipuzkoan, linea nagusiko (Lasarte-Hendaia) bidaiari kopurua % 7 hazi zen Amara eta Hendaia artean, eta % 11,8, berriz, Lasarte eta Amara artean. Bizkaian, berriz, Bilbo eta Zornotza arteko tarteak izan zuen hazkunderik handiena (% 9,7). Era berean, 3. lineak (Kukullaga-Matiko) % 6ko hazkundera izan zuen; bidaiari bolumen handiena duen linea da (5 milioi bidaiari baino gehiago).

Trenbidearen gaineko datuez gain, aipatzekoa da EuskoTrenek Gasteizen eskaintzen duen tranbia-zerbitzua. 2019an 8.338.025 erabiltzaile izan zituen tranbiak, inoizko daturik altuena.

Renferi dagokionez, Bilboko eta Donostiako sareetako bidariaren datuek kontrako joerak izan zituzten. Bilboko sarean gora egin zuen bidaiari kopuruak (% 1,4), eta 10,5 milioi bidaiari izatera iritsi ziren. Donostian, berriz, bidaiari kopuruak behera egin zuen berriro (-% 0,5), eta 5,8 milioi bidaiarirekin itxi zuten ekitaldia. Gauzak hala, Renfek guztira 16,4 milioi bidaiari izan zituen, aurreko ekitaldian baino % 0,7 gehiago.

191. koadroa Bidaiarien garraioagatiko diru-bilketa

Kontzeptua	<i>(m euro)</i>			
	2017	2018	2019	% Δ19/18
Renfe*	16.636,1	15.322,7	14.934,8	-2,5
EuskoTren**	29.304,7	32.074,4	33.514,9	4,5
Guztira	45.940,8	47.397,1	48.449,7	2,2

(*): Renferen datuak aldirietako bidaiariel bakarrik dagozkie.

(**): Trenaren zein tranbia eta autobusen diru-bilketa hartzen ditu barne. BEZik gabeko datuak.

Iturria: Renfe eta EuskoTren.

Bi tren-konpainien diru-bilketari dagokionez, bien artean 48.449,7 mila euro bildu zituzten, 2018an baino % 2,2 gehiago. EuskoTrenek 33.514,9 mila euro bildu zituen, aurreko urtean baino % 4,5 gehiago, eta % 69,2ko pisu espezifikoak izan zuen. Renfek, berriz, aurreko urtean baino -% 2,5 gutxiago bildu zuen, eta ekitaldia 14.934,8 mila euroko diru-bilketarekin itxi zuen.

192. koadroa Jatorria eta/edo helmuga Euskal Herrian duten merkantzien bolumena(*)

Kontzeptua	<i>(m Tm)</i>			
	2017	2018	2019	% Δ19/18
Renfe	2.235,8	2.082,9	1.781,3	-14,5
EuskoTren	46,7	12,5	5,5	-56,0
Guztira	2.282,5	2.095,5	1.786,8	-14,7

(*): Edukiontziak salbu.

Iturria: Renfe eta EuskoTren.

Jatorria eta/edo helmuga Euskal Herrian duten merkantzien garraioak behera egin zuen berriro ere 2019an (-% 14,7). Bi konpainiek izan zuten beherakada, neurri handiagoan edo txikiagoan. Batetik, Renfek 2.000 mila tona merkantzia baino gutxiago garraiatu zuen, aurreko ekitaldian baino % 14,5 gutxiago. Renferi dagokio merkantzien garraioaren ia bolumen osoa (% 99,7). EuskoTrenek oso merkantzia gutxi garraiatzen du, bolumen osoaren % 0,3 baino ez. 2019an 5,5 mila tona garraiatu zituen, aurreko urteko bolumenaren erdia (-% 56,0).

193. koadroa Trenbide bidezko garraioan enplegatutako langileak

Kontzeptua	2017	2018	2019	% Δ19/18
Renfe	658	645	641	-0,6
EuskoTren	1.137	1.151	1.164	1,1
Guztira	1.795	1.796	1.805	0,5

Iturria: Renfe eta EuskoTren.

Trenbide bidezko garraioan enplegatutako langile kopurua oso gutxi igo zen 2019an, % 0,5. 1.805 langile enplegatu ziren guztira, aurreko urtean baino 9 gehiago. EuskoTreneko langile kopurua apur bat igo zen (% 1,1), 1.164 langile izateraino. Renfeko langile kopurua, berriz, ia ez zen aldatu (-% 0,6); 641 langile izan zituen Renfek, aurreko ekitaldian baino 4 gutxiago.

Atal honekin amaitzeko, "Euskal Y" sarearen azpiegiturei dagozkien inbertsioen gaineko berri nagusiak azalduko ditugu. Eusko Jaurlaritzaren arabera, abiadura handiko trena (AHT) ez da errealitate bilakatuko, gutxienez, 2024ra arte. Bi dira ezarritako epeak ez betetzeko mehatxu nagusiak. Batetik, "Bergarako korapiloaren" eraikuntzaren atzerapena –EAEko hiru hiriburuetarako adarren abiapuntua–. Bestetik, Nafarroarekiko loturaren proiektuaren atzerapena. Era berean, kezka sortzen du Bilboko eta Gasteizko geltokiak lurperatzeko lanek daramaten aurrerapen eskasak. Bizkaiko hiriburuaren kasuan, Gobernu zentralak onartu zuen informazio-azterketa, baina ez da aurrerapausorik izan ingurumen-inpaktuaren deklarazioan eta eraikuntza-proiektuan. Arabako hiriburuari dagokionez, oraindik ez dute informazio-azterketarik egin, hortaz, are zailagoa izango da lanak aurreikusitako epean amaitzea.

Bilboko Metroa

Bilboko Metroak balantze positiboarekin amaitu zuen 2019a. Hirugarren urtez izan zuen goranzko bilakaera. 2019an % 1,8 hazi zen bidaiari kopurua, eta lehen aldiz 90 milioi bidaiariren langa gainditu zuten. Zehazki, 91.570.001 erabiltzaile izan zituen metroak, 2018an baino 1.633.675 bidaiari gehiago. Era berean, Bilboko Metroa martxan egon den 25 urteetan zehar, hiru urtetan baino ez du bilakaera negatiboa izan (2012, 2013 eta 2016an). Datu horrek argi uzten du erabiltzaileek harrera ona egin diotela garraibide honi.

194. koadroa Bidaiarien mugimendua Bilboko Metroan

Urtea	Bidaiariak (m)	%Δ
2010	88.556	1,7
2011	89.616	1,2
2012	87.615	-2,2
2013	87.133	-0,6
2014	87.397	0,3
2015	87.536	0,2
2016	87.105	-0,5
2017	88.172	1,2
2018	89.936	2,0
2019	91.570	1,8

Iturria: Bilboko Metroa.

Metroaren bidaiari kopuruaren gorakada hainbat faktorek eragin dute. Batetik, “ohiko bezeroen” erabilera hazi izanak. Izan ere, bidaia kopuruak gora egin zuen arratsaldeetako aisialdirako eta erosketetarako ordu-tarteetan, eta, batez ere, goizetako eta eguerdietako puntako orduetan. Bestetik, “egutegi-efektua” delakoak. Izan ere, 2018an baino bi lanegun gehiago eta hiru zubi gutxiago izan ziren, metroaren mesedetan. Eta, azkenik, Bilbon egindako hainbat ekitaldik, hala nola Berri Txarrak taldearen edo Enio Morriconeren kontzertuek eta hainbat oposaketa publikok (Hezkuntza, BFA...), mugimendu handiagoa eragin zuten. Era berean, nabarmentzekoa da Eguberri egunean 2018an baino % 8,4 bidaiari gehiago izan zituztela, eta azaroaren 29an, “Black Friday” egunean, inoizko baliozkotze kopururik handiena izan zela (346.011 baliozkotze egun bakarrean). San Tomas eguna, berriz, tradizioz bidaia kopuru altuena izaten duen eguna, bigarren lekuan geratu zen 327.386 bidaiarekin.

Bilboko Metroaren sarea osatzen duten 41 geltokiei dagokienez, joera orokorrarekin bat etorriz, Enbor Komunean 2018an baino 229.628 bidaia gehiago kontatu zituzten, hau da, % 0,8 gehiago. Bidaiari gehien jasotzen dituen geltokiak ere, Zazpikaleak/Cascoviejo geltokiak (7.211.370 erabiltzaile), % 2,9ko hazkundera izan zuen. Hortxe ikus daiteke bidaiarien bilakaera ona. Pisu gehien duten hurrengo bi geltokiak Moyua (6.401.254 erabiltzaile) eta Indautxu (6.279.735 erabiltzaile) dira, eta horiek ere gorakada izan zuten, baina apalagoa (% 0,3 eta % 1,9, hurrenez hurren). Era berean, 1. linean (Etxebarri-Plentzia) % 3,1 igo zen bidaiari kopurua. Geltoki hauetan erregistratu zituzten hazkunderik altuenak: Areeta (% 2,8), Erandio (% 4,8) eta Algorta (% 3). 2. linean (Basauri-Kabiezes) ere antzeko joera izan zen, eta % 2,5 igo zen bidaiari kopurua, batez ere, jatorria edo helmuga Zazpikaleak/Casco Viejo geltokian zuten bidaietan.

Bilboko Metroan bidaiatzeko moduari dagokionez, Creditrans txartelarekin egindako bidaiak gailendu ziren, aurreko ekitaldietan bezala. 10 bidaiaritik 5ek Creditrans txartelaren bidez ordaindu zuten (aurreko urtean baino % 0,1 gutxiagok). Bigarren aukera erabiliena aldi baterako tituluak izan ziren; erabiltzaileen % 24,4k erabili zuten aukera hori

(% 0,4ko hazkundera). Hirugarren aukera, berriz, Gizatrans txartel pertsonalizatua izan zen, % 13,5eko kuotarekin (% 0,1eko jaitsiera). Bestalde, urteko txartelak erabilera askoz txikiagoa izan zuen, erabiltzaileen % 5,2k erabili zuten, eta aldizkako txartela, % 2,3k.

3.2 ERREPIDE BIDEZKO GARRAIOA

Errepide bidezko garraioa aztertzen hasteko, ibilgailuen parkearekin hasiko gara. Trafiko Zuzendaritza Nagusiak (DGT) emandako datuen arabera, Espainiako parkea 34.434.791 ibilgailuk osatzen zuten 2019an, aurreko ekitaldian baino % 2,1 gehiagok. Euskal Herriko ibilgailuen parkea ere hazi egin zen, % 1,2, hain zuzen ere; 1.854.901 ibilgailuk osatu zuten parkea 2019an.

Datuak lurraldeka aztertuta, ibilgailuen parkeak bilakaera positiboa izan zuela ikus daiteke, aztertutako lau lurraldeetan hazi baitzen ibilgailu kopurua. Hala, Bizkaiko ibilgailuen parkeak % 37,3ko ordezkartza izan zuen, eta % 1,0 hazi zen. Jarraian datoz Gipuzkoakoak eta Nafarroakoak, % 25,7ko eta % 25,4ko ordezkartzeekin, eta antzeko hazkundera izan zuten (% 1,5 eta % 1,6, hurrenez hurren). Azkenik, Araban % 0,7ko igoera apala izan zen, eta % 11,6ko partaidetza izan zuen. Ondorioz, Espainiako ibilgailuen % 5,4 osatu zuen Euskal Herriko parkeak, aurreko ekitaldiko zifra bera.

Ibilgailuen adinari dagokionez, aurreko ekitaldietan bezala, goranzko joerak jarraitu zuen Estatuan zein Euskal Herrian. Estatuan, batez besteko adina 12,7koa izan zen, eta Euskal Herrian 11,4koa. Hala, Eusko Jaurlaritzak Renove Plan berria jarriko du martxan, eta Gobernu Zentralak laguntza osagarriak, 10 urtetik gorako ibilgailuak kendu eta haien ordezkari ibilgailu eraginkorragoak eta gutxiago kutsatzen dutenak erosteko.

Informazioa ibilgailu moten arabera sailkatuz gero, aldaketa gutxi antzematen dira, eta, orokorrean, igoera txiki batzuk izan ziren. Estatuan, parkeko 10 ibilgailutik 7 turismoak ziren, aurreko ekitaldian baino % 2,0 gehiago. Kamioiak kokatu ziren bigarren lekuan (% 14,6), % 0,7ko hazkunderarekin. Motozikletek, berriz, % 10,5eko pisuarekin, hazkunde handiagoa izan zuten (% 4,3). Azkenik, traktore industrialek eta autobusek ordezkartza oso txikia izan bazuten ere (% 0,7 eta % 0,2, hurrenez hurren), 2018ko balioak hobetu zituzten (% 3,0ko eta % 0,9ko igoerak).

Azterketa Euskal Herrira mugatuta, eta informazioa lurraldeen arabera aztertuta, ibilgailuen bost kategoriatatik hiritan Bizkaia gailendu zen: turismoak (% 38,9), autobusak (% 47,7) eta kamioiak (% 33,8). Bestetik, Gipuzkoan kontatu ziren motozikleta gehien (% 36,2), eta Nafarroan traktore industrial gehien (% 35,6). Parkearen bilakaerari dagokionez, goranzko joera nagusitu bazen ere, kamioiek balio negatiboekin itxi zuten ekitaldia (-% 0,6). Hala, motozikleta kopurua hazi zen gehien (% 3,6), eta autobusak izan

ziren hurrengoak (% 2,5). Turismoen eta traktore industrialen kopuruak ere gora egin zuten, baina apalago (% 1,2 eta % 1,0, hurrenez hurren).

195. koadroa Ibilgailuen parkea*

(unitate)

Eremua	Kamioiak ⁽¹⁾		Autobusak		Turismoak		Motozikletak		Traktore industrialak		Beste batzuk ⁽²⁾		Guztira	
	2018	2019	2018	2019	2018	2019	2018	2019	2018	2019	2018	2019	2018	2019
Araba	29.222	28.880	538	529	158.049	159.129	16.011	16.445	1.334	1.422	8.177	8.472	213.331	214.877
Bizkaia	85.815	85.332	1.959	2.116	519.061	523.363	55.387	57.622	3.529	3.489	19.513	20.103	685.264	692.025
Gipuzkoa	62.229	61.744	978	967	325.642	330.178	60.553	62.676	3.224	3.356	17.556	18.149	470.182	477.070
EAE	177.266	175.956	3.475	3.612	1.002.752	1.012.670	131.951	136.743	8.087	8.267	45.246	46.724	1.368.777	1.383.972
Nafarroa	76.809	76.540	849	820	326.338	332.401	35.386	36.622	4.612	4.564	19.351	19.982	463.345	470.929
Euskal Herria	254.075	252.496	4.324	4.432	1.329.090	1.345.071	167.337	173.365	12.699	12.831	64.597	66.706	1.832.122	1.854.901
Espainia	4.980.911	5.015.973	64.905	65.470	24.074.151	24.558.126	3.459.722	3.607.226	225.942	232.680	924.351	955.316	33.729.982	34.434.791
Euskal Herria/ Espainia %	5,1	6,6	6,7	6,8	5,5	5,5	4,8	4,8	5,6	5,5	7,0	7,0	5,4	5,4

(*): Behin-behineko datuak.

(1): Kamioiak eta furgonetak barne hartzen ditu.

(2): Beste ibilgailu batzuk, atoiak eta erdi-atoiak barne hartzen ditu.

Iturria: Trafiko Zuzendaritza Nagusia (DGT)

Kamioien, traktore industrialen eta autobusen matrikulazio garbiari dagokionez, Estatuak bilakaera hobea izan zuen Euskal Herriak baino. Euskal Herrian behera egin zuen matrikulazio kopuruak lau lurraldeetan; Bizkaiko autobusena izan zen salbuespen bakarra. Matrikulazio garbien uzkuertze-testuinguru horretan, kamioien eta traktore industrialen matrikulazio garbien beherakada nabarmena izan zen (-1.447), eta aurreko urteko gorakada gelditu zuen. Lurralde guztiek izan zuten eragina beherakada horretan, baina, batez ere, Bizkaiak, han aurreko urtean baino 523 unitate gutxiago matrikulatu baitzituzten. Estatuan, bestalde, aurreko ekitaldian baino 41.800 matrikulazio gehiago izan zituzten. Autobusei dagokienez, 2019an gora egin zuen autobusen matrikulazio garbien matrikulazio kopuruak, bai Euskal Herrian (108) –Bizkaian alor honetan izandako igoeraren ondorioz–, bai Estatuan (565). Ondorioz, matrikulazio garbiek antzeko beherakada izan zuten Bizkaian (-366), Gipuzkoan (-364) eta Nafarroan (-346), eta apur bat apalagoa Araban (-263). Estatuan, berriz, gora egin zuten (42.365).

196. koadroa Kamioi, traktore industrial eta autobusen matrikulazio garbia*

(unitate)

Eremua	Kamioiak eta traktore industrialak		Autobusak		Guztira	
	2018	2019	2018	2019	2018	2019
Araba	684	-254	-2	-9	682	-263
Bizkaia	1.201	-523	71	157	1.272	-366
Gipuzkoa	717	-353	38	-11	755	-364
EAE	2.602	-1.130	107	137	2.709	-993
Nafarroa	2.144	-317	1	-29	2.145	-346
Euskal Herria	4.746	-1.447	108	108	4.854	-1.339
Espainia	186.768	41.800	1.315	565	188.083	42.365

(*): Parkearen urte arteko aldakuntza.

Iturria: Trafiko Zuzendaritza Nagusia (DGT)

Jarraian, motorizazio-indizea aztertuko dugu. Hain zuzen ere, 1.000 biztanleko ibigailuen adierazlearekin hasita, Euskal Herrian 1.000 biztanleko 648 ibilgailu zeuden 2019an. Aurreko ekitaldiko kopurua baino apur bat altuagoa izan bazen ere, Estatuko zifratik urrun mantendu zen, Estatuan 732 ibilgailu baitzeuden 1.000 biztanleko. Informazioa lurraldeka banatuta, Nafarroak izan zuen tasarik altuena (720 ibilgailu 1.000 biztanleko). Gipuzkoa eta Araba kokatu ziren ondoren, 1.000 biztanleko 659 eta 648 ibilgailurekin, hurrenez hurren. Eta, azkenik, Bizkaia, 1.000 biztanleko 600 ibilgailurekin.

Turismo bakoitzeko biztanle kopuruari dagokionez, ez zen aldaketarik izan 2018arekin alderatuta. Euskal Herrian 2,1 biztanle zeuden ibilgailuko, eta Estatuan, 1,9. Aurreko ekitaldian bezala, tasa apur bat altuagoa izan zuten Gipuzkoak eta Bizkaiak, ibilgailuko 2,2 biztanlekoa. Araban eta Nafarroan, berriz, biztanleko 2,1 eta 2,0 ibilgailu zeuden, hurrenez hurren.

197. koadroa Motorizazio-indizeak

Eremua	Ibilgailuak/1.000 biztanle		Biztanleak/Turismoa	
	2018	2019	2018	2019
Araba	649	648	2,1	2,1
Bizkaia	596	600	2,2	2,2
Gipuzkoa	652	659	2,2	2,2
EAE	622	627	2,2	2,2
Nafarroa	715	720	2,0	2,0
Euskal Herria	644	648	2,1	2,1
Espainia	722	732	1,9	1,9

Iturria: Trafiko Zuzendaritza Nagusia eta guk geuk egina.

Aurrera eginez, eta merkantzien garraioari dagokionez, Merkantzien Errepide Bidezko Garraioari buruzko Inkesta Iraunkorraren inguruan Sustapen Ministerioak argitaratutako datuen arabera, 2019an jarduerak gora egin zuen Euskal Herrian (EAEn zein Nafarroan), Estatuan ez bezala. EAEko datuetan sakonduta, 89.897 mila tona merkantzia garraiatu zituzten 2019an (Euskal Herrian garraiatutako merkantzien bolumenaren bi heren), hau da, 2018an baino % 10,0 gehiago. Igoera horretan eragin dute bai eskualde barneko garraioak,

bai eskualdeen artekoak: eskualde barneko garraioa % 11,3 hazi zen, eta eskualdeen artekoa, % 9,1. Nafarroan ere gora egin zuen garraiatutako merkantzien bolumenak. 43.432 mila tona garraiatu zituzten, aurreko urtean baino % 12,4 gehiago. Nafarroan neurri handiagoan egin zuen gora eskualde barneko garraioak (% 26,0), eskualdeen artekoak baino (% 6,4). Hala, Euskal Herrian 133.329 mila tona merkantzia garraiatu zituzten guztira 2019an, aurreko urtean baino % 10,8 gehiago. Estatuan, berriz, aurreko ekitaldian baino % 3,5 tona gutxiago garraiatu zituzten, 1.105.950 mila tona.

198. koadroa Garraiatutako merkantziak, autonomia-erkidegoaren arabera. Eskualde barruko garraioa eta eskualde arteko garraioa, jatorri eta/edo helmugako autonomia-erkidegoaren arabera.

Eremua	(m Tm)							
	EAE		Nafarroa		Euskal Herria		Estatua	
	2018	2019	2018	2019	2018	2019	2018	2019
Eskualde barruko garraioa	36.537	40.649	11.817	14.890	48.354	55.539	810.079	851.346
Eskualde arteko garraioa	45.157	49.248	26.814	28.542	71.971	77.790	336.322	254.604
Guztira	81.694	89.897	38.631	43.432	120.325	133.329	1.146.401	1.105.950

Iturria: Sustapen Ministerioaren Estatistika Buletina.

Garraio mota bakoitzaren bilakaerari dagokionez, eskualdeen arteko garraioak % 9,1 egin zuen gora EAEn, eta % 6,4 Nafarroan. Trafikoaren % 54,8 izan zen eskualdeen artekoa EAEn, eta % 65,7 Nafarroan. Eskualde barruko garraioak % 45,2ko partaidetza izan zuen EAEn, eta hazi egin zen aurreko urtearekin alderatuta (% 11,3). Nafarroan ere nabarmen egin zuen gora eskualdeen arteko garraioak (% 26,0); garraio osoaren % 34,3 izan zen. Ondorioz, Euskal Herrian gehiago hazi zen eskualde barruko garraioa (% 14,9), eskualdeen artekoa baino (% 8,1). Lehenengoa garraioaren % 41,7 izan zen, eta, bigarrena, % 58,3.

Errepide bidezko garraioaren gaineko kapituluaren ondorio gisa, hiri-garraioaren inguruko daturik esanguratsuenak azalduko ditugu, EAEko hiru hiriburuetan lan egiten duten hiru konpainiek emandakoak: Bilbobusek, DBUSEk eta Transportes Urbanos de Vitoriak (TUVISA). Txosten hau egitean Bilbobusen eta TUVISAREN 2019ko datuak ez zeuden eskuragarri, hortaz, konpainia horiei buruzko informazioa 2018koa da.

Bilbobusek emandako informazioaren arabera, 2018an enpresako oinarritzko datuen balioek gora egin zuten. 43 linea mantendu zituzten, 35 ohiko zerbitzu eta 8 gaueko zerbitzurekin. Linearen luzerari, ordea, 1,4 kilometro gehitu zizkieten, 632,9 kilometrokoa izateraino. Autobus kopuruan ez zen aldaketarik izan; 148 unitate zituzten, horietatik 4 guztiz elektrikoak, eta 2, hibridoak. Langile kopuruak, ordea, gora egin zuen; 611 langile izatetik, 628 izatera pasatu ziren, hau da, 17 langile gehiago.

Dbusi dagokionez –2019ko datuak–, magnitude nagusiek bilakaera positiboa izan zuten. Gora egin zuen autobus kopuruak (+4 unitate), 136 autobus izateraino, eta gora egin zuen langile kopuruak ere (aurreko ekitaldian baino 10 gehiago), 531 langile izateraino. Linea kopurua, berriz, 41 lineatan mantendu zuten (32 egunekoak eta 9 gauekoak), baina

kilometro kopurua murriztu egin zuten, 545,6 km izatetik, 541,0 km izateraino, 4,6 km gutxiago.

Transportes Urbanos de Vitoria (TUVISA) 2018an egonkor mantendu zen. Sareko linea kopurua (guztira 15; horietatik 10, egunekoak, eta 5, gauekoak) eta sarearen luzera (203,5 kilometro) mantendu egin zituzten, eta autobus kopurua unitate bat murriztu zuten, 87tik 86ra (horietatik 5, hibridoak). Dena den, langile kopurua hazi egin zen. 12 langile berri hartu zituzten, eta guztira 343 izan ziren.

199. koadroa Hiri-garraioa. Sektorearen oinarrizko datuak.

Kontzeptua	Bilbo		Donostia		Gasteiz	
	2018	2019	2018	2019	2018	2019
Sareko lineak (*)	43	--	41	41	15	--
Luzera (km)	632,9	--	545,6	541,0	203,5	--
Autobusen parkea	148	--	132	136	86	--
Plantilla	628	--	521	531	343	--

(*): Eguneko eta gaueko lineak barne hartzen ditu.

Iturria: Transportes Colectivos S.A.; Cía. Del Tranvía de San Sebastián, S.A.; Transportes Urbanos de Vitoria, S.A.

Konpainia bakoitzaren jardueran sakonduz, eta Bilbobusekin hasita, eskura ditugun adierazle ia guztiek behera egin zuten 2018an. 45 mila kilometro ballagarri gutxiago egin zituzten (-% 0,7) eta 403 mila bidaiari gutxiago garraiatu zituzten (-% 1,6). Horrek eragina izan zuen konpainiaren negozio-zifran, 11.122 mila euro gutxiago (-% 0,5) bildu baitzituen.

200. koadroa Hiri-garraioaren bilakaera

Kontzeptua	Bilbo		Donostia		Gasteiz	
	2018	2019	2018	2019	2018	2019
Ibilitako km baliagarriak (m)	6.380	--	6.883	7.005	4.537	--
Garraiatutako bidaiariak (m)	25.055	--	29.169	29.584	15.759	--
Diru-bilketa (m euro)	11.122	--	20.455	20.750	6.876	--
Ustiapenaren emaitza (m euro)	--	--	-15.811	-18.267	--	--
Tarifak (euro)	1,3/0,65	--	1,75	1,80	1,4/0,6	--

(--): Txosten hau egitean datuak ez zeuden eskuragarri.

Iturria: Transportes Colectivos S.A.; Cía. del Tranvía de San Sebastián, S.A.; Transportes Urbanos de Vitoria, S.A.

Donostiako garraio-konpainiaren kasuan, kontrako joerak ikus daitezke, nahiz eta adierazle gehiagok egin zuten gora behera baino. Donostiako autobusek egindako kilometro baliagarrien kopurua % 1,8 hazi zen, eta 7.000 kilometroren langa gaintu zuen. Aldi berean, 29.584 mila bidaiari garraiatu zituzten, aurreko urtean baino % 1,4 gehiago. Diru-bilketak ere gora egin zuen, eta 20.750 mila euro jaso zituzten. Ustiapenaren emaitzak balio negatiboekin jarraitu zuen eta aurreko ekitaldikoa baino altuagoa izan zen (-18.267 mila euro).

Amaitzeko, eta Gasteizko hiri-garraioari dagokionez, 2018an berriro egin zuten gora TUVISAren adierazleek. Guztira 4.537 mila kilometro egin zituzten (% 1,1eko hazkundea)

eta 15.759 mila bidaiari garraiatu zituzten, aurreko ekitaldian baino % 3,9 gehiago. Testuinguru horretan, 2017an baino % 1,8 gehiago bildu zuten, 6.876 mila euro.

3.3 ITSASO BIDEZKO GARRAIOA

Jarraian, itsaso bidezko garraioa aztertuko dugu. ANAVEk (Espainiako Ontzi Elkartea) munduko itsaso bidezko garraioari buruz argitaratutako informazioaren arabera, igoera arina izan zuen, 2019an % 0,6 hazi zen munduko merkataritza, eta, guztira, 11.887 milioi tona merkantzia garraiatu zituzten.

201. koadroa		Itsaso bidezko munduko merkataritza			(M Tm)
Merkantziak	2017	2018	2019	% Δ 19/ 18	
Solteko salgai solido nagusiak ⁽¹⁾	3.150	3.215	3.223		0,2
Petrolio gordina eta produktuak	3.059	3.087	3.019		-2,2
Beste solteko salgai solido batzuk	1.949	2.015	2.045		1,5
Edukiontzietako kargak	1.797	1.844	1.882		2,1
Karga orokor konbentzionala	889	914	928		1,5
Beste solteko salgai likido batzuk ⁽²⁾	686	740	790		6,8
Guztira	11.529	11.814	11.887		0,6

(1): Ikatza, burdin-mea, alea.

(2): Gas likidotuak eta produktu kimikoak.

Iturria: Anave, Clarkson.

Munduko merkataritzaren gaineko azterketan sakonduz, eta merkantzia moten araberako trafikoari dagokionez, produktu guztiek gora egin zuten, petrolio gordinak eta petrolio-produktuek izan ezik. Azken hauek, % 25,4ko pisuarekin, % 2,2 egin zuten behera. Pisu handiena duen partidarekin hasiko gara, solteko salgai solidoekin (burdin-mea, ikatzak eta aleak). % 27,1eko ordezkariak dute, eta 2019an % 0,2 igo ziren horien balioak. Bestetik, beste solteko salgai solido batzuek eta karga orokor konbentzionalak antzeko igoera izan zuten (% 1,5). Dena den, lehenengoen partaidetza (% 17,2) askoz handiagoa da bigarrenarena baino (% 7,8). Edukiontzietako kargen garraioa % 2,1 igo zen (% 15,8ko pisu erlatibo) eta beste solteko salgai likido batzuen garraioa % 6,8 (% 6,6ko pisua).

202. koadroa		Espainiako itsas merkataritza		(m Tm)
Kontzeptua	2018	2019	% Δ 19/ 18	
Esportazioak	104.441	103.953		-0,5
Inportazioak	214.012	209.960		-1,9
Kabotajea	48.635	48.854		0,5
Guztira	367.088	362.767		-1,2

Iturria: Anave, Estatuko Portuak.

Mundu mailan ez bezala, itsas merkataritzaren jarduerak behera egin zuen Espainian (-% 1,2), eta ordura arteko goranzko joera egonkorra eten zen. Hala, 2019an 362.767 mila tona merkantzia garraiatu zituzten. Batez ere, inportazioek eragin zuten emaitza hori.

Estatuko itsas merkataritzaren % 57,9 ordezkaten dute inportazioek, eta 2019an % 1,9 jaitsi ziren. Esportazioek ere behera egin zuten, baina modu apalagoan, % 0,5. Jardueraren % 28,7 ordezkaten dute esportazioek. Kabotajeak baino ez zuen gora egin, baina hamarren batzuk baino ez (% 0,5). % 13,5eko partaidetzarekin itxi zuen urtea.

Nazioarteko eta Estatuko itsas merkataritzaren magnitude nagusiak aztertuta, jarraian Euskal Herriko bi portuen jardueraren balantzea egingo dugu, Bilboko portukoa (Bizkaia) eta Pasaia portukoa (Gipuzkoa). Hala, orokorrean, Bilboko portuko jarduera murriztu egin zen, eta Pasaia portukoa, berriz, hobetu egin zen.

Bilboko portua aztertuz hasiko gara. 2019an apur bat murriztu zuen jarduera (-% 0,4); 35.561 mila tona garraiatu zituzten guztira. Dena den, Bilboko portuak Euskal Herriko erreferentziatzko portua izaten jarraitzen du, hari baitagokio merkantzien trafikoaren % 90 baino gehiago. Jardueraren zatirik handiena deskargak eta kargak osatzen dute (% 64,9 eta % 34,8, hurrenez hurren). 2019an deskargak gora egin zuten (% 3,4), eta kargak behera (-% 6,7). Zuzkidurak, ordezkari oso txikia izanik (% 0,3), % 2,7ko hazkundea izan zuen 2018arekin alderatuta.

203. koadroa Euskal Herriko portu nagusietako trafikoak

Kontzeptua	(m Tm)					
	2017	Bilbo 2018	2019	2017	Pasaia 2018	2019
Deskargak	21.637,3	22.314,2	23.062,9	1.664,2	1.733,2	1.829,9
Kargak	12.557,7	13.269,3	12.383,4	1.255,5	1.355,4	1.368,0
Zuzkidura	111,7	111,7	114,7	29,1	25,1	25,1
Tokiko trafikoak	0,0	0,2	0,0	0,0	0,0	0,0
Arrantza	0,0	0,0	0,0	26,0	24,6	21,9
Guztira	34.306,7	35.695,4	35.561,0	2.974,8	3.138,3	3.244,9

Iturria: Bilboko Portuko Agintaritza. Pasaia Portuko Agintaritza.

Pasaia portuko trafikoari dagokionez, 2019ko ekitaldian 3.244,9 mila tona garraiatu zituzten, aurreko ekitaldian baino % 3,4 gehiago. Hala, aztertutako adierazle guztiek egin zuten gora, arrantzak izan ezik. % 0,7ko partaidetza du arrantzak, eta % 11,0 jaitsi ziren haren balioak. Deskargak dute pisu handiena (% 56,4), eta nabarmen egin zuten gora (% 5,6). Kargak (% 42,2ko ordezkari) eta zuzkidura (% 0,8), berriz, ez ziren apenas hazi (% 0,9 eta % 0,0, hurrenez hurren).

204. koadroa Merkantzien guztizko trafikoaren osaera

(m Tm)

Kontzeptua	Bilbo			Pasaia		
	2017	2018	2019	2017	2018	2019
Petrolio-produktuak	16.236,4	16.367,3	14.710,7	--	--	--
Merkantzia orokorra	9.868,0	10.335,1	9.943,6	2.085,3	2.085,6	2.166,60
Solteko salgai solidoak	4.543,2	4.757,9	4.681,2	834,4	1.003,0	1.031,32
Beste solteko salgai likido batzuk (*)	3.547,5	4.123,2	6.110,9	--	--	--
Gainerakoak	111,7	111,9	114,7	55,1	49,7	47,00
Guztira	34.306,7	35.695,4	35.561,0	2.974,8	3.138,3	3.244,92

(*): Datua gas naturalaren eta beste solteko salgai batzuen baturari dagokio.
Iturria: Bilboko Portuko Agintaritza. Pasaiaiko Portuko Agintaritza.

Bilboko portuko merkantzien trafikoaren osaeraren gaineko datuetan sakonduz, nabarmentzekoak dira petrolio-produktuen (-% 10,1) eta merkantzia orokorraren (-% 3,8) jaitsierak. Jardueraren % 41,4 eta % 28,0 hartzen dute bi horiek, hurrenez hurren. Solteko salgai solidoen trafikoak jardueraren % 13,2 hartzen du, eta horrek ere behera egin zuen (-% 1,6). Beste solteko salgai likido batzuek jardueraren % 17,2 hartze dute, eta 2019ko ekitaldian nabarmen hazi zen haien trafikoa (% 48,2).

Pasaiaiko portuari dagokion agertokia oso ezberdina da, batez ere, jardueraren zatirik handiena bi partidarara mugatzen delako. Merkantzia orokorren trafikoak du pisurik handiena (% 66,8), eta % 3,9ko igoera izan zuen. Bigarren lekuan kokatzen da solteko salgai solidoen trafikoa (% 31,8), eta horrek ere igoera izan zuen (% 2,8). Gainerako merkantziek % 1,4ko ordezkari baina ez dute Gipuzkoako portuko trafikoan, eta behera egin zuten 2019an (-% 5,4).

205. koadroa Kanpoko trafikoa eta kabotajea

(m Tm)

Kontzeptua	Bilbo			Pasaia		
	2017	2018	2019	2017	2018	2019
Inportazioa	21.175,3	21.778,5	22.415,6	1.619,6	1.675,2	1.751,3
Esportazioa	11.103,6	11.387,4	10.772,5	1.255,5	1.355,4	1.368,0
Kabotajea	1.916,1	2.417,7	2.258,2	44,6	58,0	78,6
Guztira	34.195,0	35.583,5	35.446,3	2.919,7	3.088,6	3.197,9

Iturria: Bilboko Portuko Agintaritza. Pasaiaiko Portuko Agintaritza.

EAEko kanpo-trafikoari eta kabotajeari dagokienez, eta bi portuetako jarduera erreferentzia gisa hartuta, 2019an 38,6 milioi tona mugitu zituzten, horietatik 35,4 milioi tona Bilboko portuan. Esportazioek (-% 4,7) zein kabotajeak (-% 5,6) behera egin zuten, eta, ondorioz, jarduerak ere beherakada txiki bat izan zuen (-% 0,1). Inportazioek izandako gorakada apala (% 3,0) ez zen nahikoa izan gainerako partidetan izandako beherakadak konpentsatzeko.

Azterketa Bilboko portura mugatuta, trafikoak % 0,4 egin zuen behera; izan ere, esportazioek (-% 5,4) eta kabotajeak (-% 6,6) ere behera egin zuten. Inportazioek

jardueraren % 63,2 hartzen dute, eta % 2,9 egin zuten gora, baina gorakada hori ez zen nahikoa izan balantza orekatzeko. Pasaiko portuan, berriz, erreferentziazko adierazle guztiek egin zuten gora. Inportazioek, % 54,8ko ordezkartzarekin, % 4,5 egin zuten gora. Esportazioek, berriz, % 42,8ko partaidetzarekin, % 0,9 egin zuten gora. Kabotajea da partaidetzarik txikiena duen partida (% 2,5), baina hazkunderik handiena izan zuena (% 35,5).

206. koadroa Bilboko Portuaren kanpoko trafikoaren osaera. 2019

Esportazioak		Inportazioak	
Produktu kimikoak	1.196,1	Petrolio gordina	9.523,1
Gasolina	956,3	Gas naturala	4.200,1
Beste mineral ez-metaliko batzuk	878,6	Produktu siderurgikoak	1.961,9
Produktu siderurgikoak	843,8	Soja-babak	1.036,0
Beste petrolio-produktu batzuk	730,8	Produktu kimikoak	825,7
Zementua eta klinkerra	664,0	Edukiontzien tara	522,2
Bestelakoak	5.502,9	Bestelakoak	4.346,6
Guztira	10.772,5	Guztira	22.415,6

(m Tm)

Iturria: Bilboko Portuko Agintaritza. Geuk egina.

Esportazioari eta inportazioari dagokien informazioa merkantzia motaren arabera aztertuko dugu jarraian. Esportazioei dagokienez, produktu kimikoen trafikoa kokatu zen lehen postuan (% 11ko pisu erlatiboa), ia bere bolumena aldatu gabe (% 0,5eko hazkundera). Gasolinaren esportazioa (% 8,9ko partaidetzarekin) % 36,1 murriztu zen, eta, ondorioz, bigarren lekura pasatu zen. Beste mineral ez-metaliko batzuek eta produktu siderurgikoek % 8 inguruko partaidetza izan zuten. Lehenengok igoera nabarmena izan zuten (% 11,9), eta bigarrenak, berriz, beherakada (-% 3,3). Beste petrolio-produktu batzuen jarduerak, % 6,8ko pisu espezifikorekin, gora egin zuen (% 4,2). Zementuaren eta klinkerraren esportazioak, berriz, % 6,2ko partaidetza izanik, behera egin zuen (-% 8,7).

Inportazioei dagokienez, petrolio gordinak jarraitu zuen lehen postuan (jardueraren % 42,5 hartzen du), baina urte batetik besterako aldakuntzarik okerrena izan zuen (-% 15,3). Produktu siderurgikoek ere, partaidetza txikiagoa duten arren (% 8,8), behera egin zuten (-% 13,2). Aldi berean, gas naturalaren inportazioak, jardueraren % 18,7 bilduta bigarren postuan egonik, % 98,7ko hazkundera izan zuen. Askoz partaidetza txikiagoarekin, soja-babek (guztizkoaren % 4,6), produktu kimikoek (% 3,7) eta edukiontzien tarak (% 2,3) osatu zuten inportazioen mapa.

207. koadroa Pasaiaiko Portuaren kanpoko trafikoaren osaera. 2019

Esportazioak		Inportazioak	
Produktu siderurgikoak	708,8	Produktu siderurgikoak	710,4
Automobilak eta horien piezak	423,1	Burdina-txatarrak	206,9
Eraikuntza-materialak	80,1	Papera eta orea	180,6
Zementua eta klinkerra	74,7	Pentsuak eta bazkak	144,1
Beste erauzketa-mineral batzuk	33,6	Ongarri naturalak eta artifizialak	113,7
Beste salgai batzuk	47,7	Beste salgai batzuk	395,5
Guztira	1.368,0	Guztira	1.751,3

(m Tm)

Iturria: Pasaiaiko Portuko Agintaritza. Geuk egina.

Azterketa Pasaiaiko portura mugatuta, kanpo-trafikoan urte batetik besterako aldakuntza positiboak erregistratu zituzten, bai esportazioek (% 0,9), bai inportazioek (% 4,5). Esportazioei dagokienez, produktu siderurgikoak mantendu ziren lehen postuan. Esportazioen % 51,8 dagokio jarduera horri, eta % 2,0ko hazkundera izan zuen. Automobilak eta horien piezen trafikoak jardueraren % 30,9 hartu zuen, eta hazkundera nabarmena izan zuen (% 9,3). Gora egin zuen eraikuntza-materialen trafikoak ere, baina apalago (% 3,5) eta partaidetza erlatibo txikiagoarekin (% 5,9). Gainerako partidek behera egin zuten. Zementuaren eta klinkerraren esportazioak -% 14,3 egin zuen behera, eta beste merkantziek are gehiago, -% 36,8.

Inportazioei dagokienez, esportazioen atalean bezala, produktu siderurgikoak kokatu ziren lehen postuan (% 40,6ko garrantzia), baina -% 0,1 egin zuen behera. Neurri berean egin zuen behera paperaren eta orearen inportazioak ere (% 10,3ko pisua). Bestetik, ongarri naturalek eta artifizialek, % 6,5eko pisu erlatiboa izanik, nabarmenago egin zuten behera (-% 23,8). Igoerarik handiena izan zuten jarduerak, berriz, pentsuen eta bazkaren (% 11,6) eta burdina-txatarraren (% 71,7) inportazioak izan ziren, inportatutako bolumen osoaren % 8,2ko eta % 11,8ko partaidetzekin, hurrenez hurren.

208. koadroa Bilboko Portua. Herrialdeen araberako trafikoa. 2019

Herrialdea	(m Tm)		
	Kargak	Deskargak	Guztira
Estatu Batuak	1.425,1	2.185,7	3.610,9
Erresuma Batua	1.999,0	1.372,6	3.371,6
Errusia	77,0	3.254,1	3.331,2
Mexiko	149,7	2.195,1	2.344,7
Espainia	1.160,9	647,4	2.258,2
Herbehereak	1.144,7	830,2	1.974,9
Norvegia	53,6	1.390,1	1.443,7
Libia	1,3	1.408,9	1.410,2
Brasil	676,3	582,4	1.258,7
Trinidad eta Tobago	7,2	1.167,7	1.174,9
Frantzia	940,7	95,1	1.035,8
Belgika	754,8	250,8	1.005,7
Venezuela	3,0	941,9	944,9
Bestelakoak	3.540,1	6.740,8	10.280,9
Guztira	12.383,4	23.062,9	35.446,3

Iturria: Bilboko Portuko Agintaritza. Geuk egina.

Trafikoa herrialdeen arabera aztertuz gero, eta Bilboko portuarekin hasita, aurreko ekitaldiko rankingarekiko aldeak nabari dira. Hala, Estatu Batuek lehen postua lortu zuten, eta Erresuma Batua bigarren postura pasatu zen. Trafikoaren % 10,2 dagokio Estatu Batuei, eta % 9,5, aldiz, Erresuma Batuari. Errusiak (% 9,4), Mexikok (% 6,6) eta Espainiak (% 6,4) osatu zituzten lehen 5 postuak. Horien artean, Errusia izan zen 2019an sailkapenean gora egitea lortu zuen bakarra. Mexikok, Espainiak, Herbehereek (% 5,6ko partaidetza), Norvegiak (% 4,1) eta Belgikak (% 2,8) postu bat behera egin zuten. Dena den, jaitsierarik handiena Brasilek izan zuen, hirugarren postutik bederatzigarrenera jaitsi baitzen. Bestalde, nabarmentzekoa da herrialde berriak sartu zirela trafikoa mapan, hain zuzen ere Trinidad eta Tobago, Frantzia eta Venezuela, trafiko osoaren % 3,3ko, % 2,9ko eta % 2,7ko partaidetzekin, hurrenez hurren.

209. koadroa Pasaiaiko Portua. Herrialdeen araberako trafikoa. 2019

Herrialdea	(m Tm)		
	Deskargak	Kargak	Guztira
Erresuma Batua	124,3	563,6	687,9
Belgika	233,7	247,9	481,6
Herbehereak	196,7	87,9	284,6
Alemania	261,0	20,4	281,5
Suedia	259,5	0,0	259,5
Irlanda	65,5	128,3	193,9
Finlandia	122,3	4,7	127,0
Espainia	96,1	0,4	96,4
Estatu Batuak	46,7	15,6	62,3
Egipto	57,9	3,5	61,5
Errusia	54,9	0,0	54,9
Frantzia	46,0	4,9	50,9
Ukraina	48,1	0,0	48,1
Bestelakoak	217,0	290,9	507,9
Guztira	1.829,9	1.368,0	3.197,9

Iturria: Pasaiaiko Portuko Agintaritza. Geuk egina.

Pasaiako portuari dagokionez, Erresuma Batuak lehenengo postua mantendu zuen % 21,5eko partaidetzarekin, aurreko urtean baino apur bat txikiagoa (ehuneko -1,1 puntu gutxiago). Belgika kokatu zen bigarren postuan (% 15,1) eta Herbehereek (% 8,9) hirugarren postua kendu zioten Suediari, zeina bosgarren lekura pasatu baitzen (% 8,1). Bestetik, Alemaniak (% 8,8) eta Finlandiak (% 4,0) mantendu egin zituzten laugarren eta zazpigarren postuak. Irlandak (% 6,1) eta Frantziak (% 1,6), berriz, postu bat atzera egin zuten 2018ko sailkapenarekin alderatuta. 2019an herrialde berriak batu ziren zerrendara, hala nola Estatu Batuak eta Errusia, % 1,9ko eta % 1,7ko partaidetzekin, hurrenez hurren.

210. koadroa Bilboko Portua. Magnitude ekonomikoak


Kontzeptua	(m euro)		
	2017	2018	2019
Zerbitzuengatiko diru-sarrerak eta kanonak	68.779	70.594	ed
Gastu arruntak	33.446	34.646	ed
Amortizazioak	29.492	29.841	ed
Ustiapenaren irabazia	6.124	5.925	ed
Ekitaldiaren emaitza	5.471	5.949	ed
Cash Flow	41.087	41.715	ed
Ibilgetu materiala	529.635	520.941	ed

ed: ez dago daturik.

Iturria: Bilboko Portuko Agintaritza.


Bilboko portuaren finantzazioari dagokionez, eta 2018ko Balantzean argitaratutakoaren arabera (txosten hau egitean eskura genuen azken informazioa), 2017an 68,8 milioi eurokoa izatetik 2018an 70,6 milioi eurokoa izatera pasatu zen negozio-zifra. Hortaz, negozioaren bolumena % 2,6 hazi zen, aurreko urtean baino gutxiago (% 5,5). Ekitaldiaren emaitza ia 6 milioi eurokoa izan zen, 2017an baino % 8,7 handiagoa. Era berean, banku-zor garbia 42,5 milioi eurokoa izan zen (2017an 39,8 milioikoa), izan ere, zorpetze maila handitu zuten Espigoi Zentralaren lehen fasea finantzatzeko. Bestetik, Portuko Agintaritzaren 2018-2022 Plan Estrategikoan jasotakoaren arabera, portuko tasak gradualki jaisten joango dira, merkantzia portutik pasatzearen kostua murrizte aldera.

32. grafikoa Merkantzien eta itsasontzien trafikoa Bilboko Portuan



Iturria: Bilboko Portuko Agintaritza.

33. grafikoa Merkantzien eta itsasontzien trafikoa Pasaiaiko Portuan



Iturria: Pasaiaiko Portuko Agintaritza.

3.4 AIRE BIDEZKO GARRAIOA

Aenak emandako datuen arabera, aire bidezko garraioaren jarduera hazi egin zen berriro ere. Aireontzien trafikoak gora egin zuen, baita bidaiari kopuruak eta Euskal Herrian garraiatutako merkantzien bolumenak ere. Hala, 2014an hasitako goranzko joerak jarraitu zuen.

211. koadroa Euskal Herriko aire bidezko garraioa*

Urtea	Aireontziak			Bidaiariak (m)			Merkantziak (m)		
	Guztira	% Δ	Euskal Herria/ Espainia %	Guztira	% Δ	Euskal Herria/ Espainia %	Guztira	% Δ	Euskal Herria/ Espainia %
2013	60.156	-18,1	3,4	4.211,8	-9,4	2,2	40.044,1	8,3	6,3
2014	59.996	-0,3	3,3	4.406,2	4,6	2,2	45.055,3	12,5	6,6
2015	63.211	5,4	3,3	4.659,0	5,7	2,3	49.255,0	9,3	6,9
2016	64.124	1,4	3,1	5.043,1	8,2	2,2	55.116,9	11,9	6,9
2017	68.033	6,1	3,1	5.505,5	9,2	2,2	62.445,9	13,3	6,8
2018	72.558	6,7	3,2	6.105,3	10,9	2,3	63.408,0	1,5	6,3
2019	74.996	3,4	3,2	6.642,8	8,8	2,4	65.465,4	3,2	6,1

(*): 2019ko behin-behineko datuak
Iturria: AENA.

Euskal Herriko lau aireportuen jarduera modu bateratutan aztertuta, erreferentziatzeko hiru adierazleak hazi egin zirela ikus daiteke, baina neurri ezberdinetan. Loiu (Bilbo), Noain (Iruñea), Hondarribia (Donostia) eta Foronda (Gasteiz) dira lau aireportuak. Aireontzien trafikoak eta merkantzien trafikoak antzeko hazkundeak izan zuten (% 3,4 eta % 3,2, hurrenez hurren). Bidaiarien fluxuak, berriz, hazkunde handiagoa izan zuen (% 8,8). Hala, 2019an ia 75.000 aireontzi eta 6,6 milioi bidaiari baino gehiago kontatu zituzten, eta 65.465 tona merkantzia garraiatu ziren.

Estatuan azterketa bera eginda, aztertutako hiru adierazletik bik Euskal Herrian baino hazkunde txikiagoa izan zutela ikus daiteke. Izan ere, Estatuan aireontzien trafikoa % 2,6 hazi zen, eta bidaiari kopurua, % 4,4. Merkantzien garraioan, ordea, hazkunde handiagoa izan zuten (% 5,7). Gauzak hala, Euskal Herriak Estatuan zuen ordezkari murriztu egin zen azken adierazle horri dagokionez, baina bere pisua mantendu zuen aireontzien trafikoan, eta apur bat igo bidaiarien trafikoan.

212. koadroa Aireportuko aireontzien trafikoa*

(unitate)

Kontzeptua	Bilbo		Iruñea		Donostia		Gasteiz		Euskal Herria		Euskal Herria/ Espainia %	
	2018	2019	2018	2019	2018	2019	2018	2019	2018	2019	2018	2019
Trafikoa, guztira	49.966	51.591	6.422	6.135	6.415	6.473	9.755	10.797	72.558	74.996	3,2	3,2
Barnekoa	28.778	29.558	5.395	5.008	5.681	5.543	3.998	4.202	43.852	44.311	5,3	5,1
Nazioartekoa	21.188	22.033	1.027	1.127	734	930	5.757	6.595	28.706	30.685	1,9	2,0

(*): 2019ko behin-behineko datuak

Iturria: AENA.

Aireontzien trafikoa eremu geografikoen arabera aztertuta, Noainen izan ezik, gainerako aireportuetan hazi egin zen jarduera. Erreferentziazko aireportuarekin hasiko gara, Loiuarekin; bertan biltzen da jardueraren % 68,8. Trafikoak gora egin zuen Loiu (% 3,3), bai nazionalak (% 2,7), bai nazioartekoak (% 4). Donostiako aireportuari jardueraren % 8,6 dagokio. Bertan, barne-trafikoan behera egin zuen aireontzi kopuruak (-% 2,5), baina nazioarteko jarduerak gora egin zuen (% 24,7). Ondorioz, orokorrean, nahiko egonkor mantendu zen (% 0,9). Forondak % 14,4ko pisua du. 2019ko ekitaldian trafikoa % 10,7 egin zuen gora: % 5,7 barne-trafikoan eta % 14,6 nazioartekoan. Bestalde, Noingo aireportuan % 4,5 murriztu zen aireontzi kopurua. Izan ere, trafiko-jarduera nagusiak, nazionalak, behera egin zuen (-% 7,2, eta nazioartekoa % 9,7 hazi zen), eta Euskal Herriko jarduera osoaren % 8,2 kitatu zuen. Orokorrean, Euskal Herriko aireportu guztietan bilakaera hobea izan zuen nazioarteko trafikoa, barruko trafikoa baino.

213. koadroa Merkantzien trafikoa, aireportuen arabera*

(Tm)

Kontzeptua	Bilbo		Iruñea		Donostia		Gasteiz		Euskal Herria		Euskal Herria/ Espainia %	
	2018	2019	2018	2019	2018	2019	2018	2019	2018	2019	2018	2019
Trafikoa guztira	1.216	980	29,3	22,2	6,7	0,4	62.156	64.463	63.409	65.465	6,3	6,1
Barnekoa	348	232	0,0	2,3	6,7	0,4	17.179	17.766	17.534	18.001	13,5	14,3
Nazioartekoa	868	748	29,3	19,9	0,0	0,0	44.977	46.697	45.875	47.464	5,2	5,0

(*): 2019ko behin-behineko datuak

Iturria: AENA.

Merkantzien trafikoari dagokionez, Gasteizek jarraitu zuen kategorian horretako erreferentziazko aireportua izaten. Gasteizko aireportuari dagokio jardueraren zatirik handiena (% 98,5), eta % 3,7ko hazkundera izan zuen 2019an. Barneko trafikoa eta nazioarteko trafikoa hazi ziren arren, nazioartekoak hazkunde askoz nabarmenagoa izan zuen. Gainerako aireportuek balio negatiboekin itxi zuten urtea. Loiu nabarmen egin zuen behera jarduerak (-% 19,4), nazioarteko trafikoa (-% 13,8) eta barneko trafikoa (-% 33,3) beherakadek eraginda. Jarduera osoaren % 1,5 hartu zuen Loiu aireportuak. Hondarribiko eta Iruñeko aireportuen presentzia oso txikia izan zen (% 0,01 eta % 0,034,

hurrenez hurren), eta merkantzien trafikoak nabarmen egin zuen behera bietan (-% 94,0 eta -% 24,3, hurrenez hurren).

214. koadroa Bidaiarien trafikoa, aireportuen arabera*

Kontzeptua	Bilbo		Iruñea		Donostia		Gasteiz		Euskal Herria		Euskal Herria/ Espainia %	
	2018	2019	2018	2019	2018	2019	2018	2019	2018	2019	2018	2019
	Trafikoa guztira	5.469	5.906	206	243	289	320	141	174	6.105	6.643	2,3
Barnekoa	3.140	3.349	160	187	288	318	71	110	3.659	3.965	4,5	4,6
Nazioartekoa	2.329	2.557	46	55	1	2	70	64	2.446	2.678	1,3	1,4

(*): 2019ko behin-behineko datuak

Iturria: AENA.

Bidaiarien trafikoari dagokionez, gaitasun handieneko aireportuarekin hasiko gara, Loiukoarekin (Euskal Herriko bidaiarien % 88,9 jasotzen ditu). 2019an 5.906 mila bidaiari jaso zituen, 2018an baino % 8,0 gehiago. Barneko trafikoa (% 6,7) zein nazioartekoa (% 9,8) hazi ziren. Donostiako aireportuarekin jarraituko dugu. Kontuan izanik barneko merkatuaren bilakaerak (% 10,4ko hazkundera) baldintzatzen duela aireportuaren jardueraren emaitza, 2019an % 10,7ko hazkundera izan zuen, eta jarduera osoaren gaineko % 4,8ko partaidetza. Forondako aireportuak du pisu espezifiko txikiena (% 2,6), baina urte batetik besterako hazkunderik handiena izan zuen (% 23,5), batez ere, trafiko nazionalaren bilakaeraren ondorioz (% 54,7). Nazioarteko trafikoak, berriz, behera egin zuen (-% 8,4). Noingo aireportuak Euskal Herriko bidaiarien % 3,7 jasotzen ditu. 2019an hazi egin zen bidaiari kopurua (% 18). Trafiko nazionala (% 16,9) zein nazioartekoa (% 19,6) hazi ziren.

215. koadroa Aireportuko trafikoaren hazkundera (2019/2018)*

Aireportua	Bidaiariak		Aireontziak		Merkantziak	
	Mila	% Δ	Unitateak	% Δ	Tm	% Δ
Bilbo (Loiu)	436	8,0	1.625	3,3	-236	-19,4
Iruñea (Noain)	37	18,0	-287	-4,5	-7	-24,3
Donostia (Hondarribia)	31	10,7	58	0,9	-6	-94,0
Gasteiz (Foronda)	33	23,5	1.042	10,7	2.307	3,7
Euskal Herria	537	8,8	2.438	3,4	2.057	3,2

(*): 2019ko behin-behineko datuak

Iturria: AENA.

Kapituluairekin amaitzeko, Euskal Herriko lau aireportuetako berritasunak azalduko ditugu jarraian. Loiuko aireportuarekin hasita, Bilboko Aireportuko Plan Zuzentzaileak datozen urteetan aireontzien geltokiko plataforma handitzea, bidaiarientzako aparkalekuen gaitasuna handitzea eta terminala birmoldatzea edo handitzea aurreikusten ditu. Horrez gain, bost helmuga berri gehituko dituzte (Lyon, Rotterdam, Cagliari, Murtzia eta Atenas), baita bi airelinea (Transavia eta Aegean) eta Volotea konpainiaren hegazkin berri bat ere.

Donostiako aireportuari dagokionez, Airbus berri bat gehitu zioten zerbitzuari, eta, ondorioz, bidaiari kopuruak gora egin zuen, bidaiariak gertuko beste aireportu batzuetara joan beharra saihestu zuelako. Bestetik, udarako beste ibilbide batzuk gehitzea aurreikusten dute. Adibidez, Londresera eta Espainiako zein nazioarteko beste helmuga batzuetara.

Forondako aireportua, merkantzien garraioari dagokionez, nazio mailako laugarren aireportua da, eta 2019an inoizko daturik onena izan zuen. Horretarako gakoa izan zen DHL aireportuan bertan egotea (aireportura iristen den merkantziaren % 90 maneiatzen du). Hala, 2020an bere instalazioak handitzea aurreikusten du enpresak (2017ko birmoldatzeaz geroztik, 4.000 metro koadro ditu). Horretarako VIaren (Gasteizko aireportua sustatzen duen sozietatea) nabea erosi nahi du, 1.700 metro koadro inguru dituena. Bestetik, ibilbide berri bat ezarri nahi dute Gasteiz eta Malagaren artean, RyanAir konpainiarekin, eta baliteke ibilbide horrek gaur egungo Gasteiz-Tenerife Hegoaldea ibilbidea ordezkatzea.

Iruñeko aireportuari dagokionez, linea berriak gehitu zizkieten ohiko eskaintzari. Iruñea-Madril linea erregularrak, aireportuko trafikoaren % 70 jasota, % 16ko igoera izan zuen, eta, ondorioz, gora egin zuen bidaiari kopuruak.

Azkenik, aipatu beharrekoa da COVID-19ak eragindako alarma-egoerak eta osasun-krisiak zapuztu egin dutela sektorearen magnitude nagusiek izandako bilakaera ona, sektoreari gogor eragin baitio, eta ondorioak ikusteko daude oraindik.

4. TURISMOA

4.1 COVID-19: AGERTOKI-ALDAKETA

Kapitulu honek 2019an turismo-jarduerak izandako emaitzetan jartzen du arreta. Urteko analisiari heldu aurretik, azpimarratzekoa da txostena idazteko prozesuan covid-19aren kutsapenak eragindako osasun-krisia hasi dela, eta horrekin batera alarma-egoera, euste-neurriak eta populazioaren konfinamendua ezarri direla, eta mugimendua mugatu dela (lekukoa, eskualdekoa, estatukoa eta estatuz kanpokoa).

Turismo-sektorea izan da kalterik gogorrenak jasan dituen sektoreetako bat. Martxoaren bigarren hamabostaldian eta apirilean zehar ia erabat gelditu zen jarduera, eta maiatzean eta ekainean zehar irekiera progresiboa eta pixkanakakoa izango du, baina muga batzuekin edukieran eta espazio komunetan, eta artean mugikortasunerako aukerak berreskuratu gabe (eskualdeen artekoa, adibidez). 2020ko agertoki honetan, lehendik zetorren turismo-dinamismoa modu gogorrean eten da; kalkuluen arabera 2020an turismo-jarduerak¹ % 81eko jaitsiera izan du. Turismo-jarduera 2021ean suspertuko da, Espainiako gizarteak eta inguruko ekonomiek –bi horiek dira eskaera turistikoaren oinarria– krisitik irteteko izango dituzten erritmo eta intentsitateak baldintzatuta.

4.2 NAZIOARTEKO EGOERA

Turismoaren Mundu Erakundeak (UNWTO) adierazi du 2019an turistek joan-etorri kopuruak hazten jarraitu duela, eta hazkunde horrekin, elkarren segidako hamargarren urtea izan dela gutxienez. Munduan turistek kopurua 1.461 milioikoa izan zen, zifra errekorra eta aurreko ekitaldian baino % 3,8 altuagoa. Datu hori baikorra bada ere, aurreko urteetan erregistratutako aldakuntza-tasak baino askoz baxuagoa da (% 7ko eta % 6ko igoera izan zen, hurrenez hurren, 2017an eta 2018an). Zentzu horretan, hainbat izan dira sektorearen hazkundera geldiarazi duten aldagaiak, horien artean azpimarratzekoak: ekonomia batzuen dezelerazioa, AEBren eta Txinaren arteko merkataritza-tentsioak, Brexita edo Thomas Cook bidaiari-antolatzaile britainiarraren porrota. Hala ere, zifra historikoak izan dituen urtea da.

Banaketa geografikoari dagokionez, Europak –742 miloi bidaiari jasotzen ditu– munduko turistek erdia jasotzen du (% 50,8); jarraian daude Asia-Pazifikoa (% 24,9), Amerika (% 15,1), Afrika (% 4,9) eta Ekialde Ertaina (% 4,4). Aztertutako bost eskualdeetan nazioarteko bisitariak ugartu badira ere, hazkundera moteltze orokorra egon da. Nabarmenezkoa da Ekialde Ertaineko bilakaera (% 8,5), batez bestekoa baino askoz ere handiagoa. Egipto eta Saudi Arabia bezalako turismogune garrantzitsuetako batzuek

¹ Exceltur. Covid-19: koronabirusak turismoan izan dituen balizko inpaktuak (2020ko apirilaren 19a).

turismo-jarduerak normaltasunera itzuli ondoren, merkatu hori suspertu egin da; izan ere, lehen, turisten etorria murriztu egin zen leku horietan, segurtasun-faltagatik.

216. koadroa Nazioarteko turistak

Turistak, miloitan

Eremua	2017	2018	2019	2019ko merkatu-kuota (%)	% Δ 19/ 18
Guztira	1.333	1.407	1.461	% 100	3,8
-Europa	677	716	742	50,8	3,6
-Asia eta Pazifikoa	324	348	364	24,9	4,6
-Amerika	211	216	220	15,1	1,9
-Afrika	63	68	71	4,9	4,4
-Ekialde Ertaina	58	59	64	4,4	8,5
Europa					
-Ipar Europa	79	79	80	5,4	1,3
-Mendebaldeko Europa	193	200	204	14,0	2,0
-Erdialdeko/ Ekialdeko Europa	137	148	154	10,6	4,1
-Hego Europa/ Mediterraneo	268	289	305	20,8	5,5
<i>-Horietatik UE-28koak</i>	<i>540</i>	<i>562</i>	<i>577</i>	<i>39,5</i>	<i>2,7</i>

(*): 2019ko behin-behineko datuak

Iturria: Turismoaren Mundu Erakundea

Europari dagokionez, turista gehien erakartzen dituzten helmugak (305 milioi turista) eta 2019an bilakaera positiboena izan dutenak (% 5,5eko urte arteko aldakuntza) Hego Europa/ Mediterraneo inguruan daude, helmuga klasikoak udako oporretarako motibazioari begiratuta –eguzkia eta hondartza–, eta gainera, merkatu-igorle garrantzitsuetatik geografikoki oso gertu daudenak (Ipar Europa, Alemania eta Erresuma Batua, besteak beste). Horrenbestez, Mediterraneoeko helmugek nazioarteko turismo-fluxuaren % 20,8 eta Europakoaren % 41,1 xurgatzen dute. Eraitza horietan eragina du Frantzia, Espainia eta Italia –AEB eta Txinarekin batera– jasotzen duten bidaiari kopuruari dagokionez munduko rankingeko lehenengo bost postuetan egoteak.

4.3 TURISMOA ESPAINIAN

Turismo-industria sektore nazional garrantzitsuenetako bat da BPGren kontribuzioari dagokionez, baita enpleguan dakartzan onurei dagokien ere. 2018an (eskuragai dagoen azken datua¹), turismoak 147.946 milioi euroko ekarpena egin zuen, BPGren % 12,3 eta enplegu guztiaren % 12,7 (2,62 milioi lanpostu). 2015tik turismoak BPGn duen pisua 1,3 puntu hazi da, eta ondorioz, estatuko panoraman hazkunderik handiena izan duen sektore nagusietako bat da orain, automobilgintzarekin batera. Hori dela eta, dimentsio ekonomikoak eta dinamismo sektorialak agerian uzten dute turismoak ekonomiaren hazkunderako motor gisa duen rola.

¹ EIN Espainiako Turismoaren Kontu Satelitea (CSTE) 2018ko estatistiken berrikusketa

Eskari turistikoa

Espainiako turismo-sektorearen 2019ko balantzea positiboa da, baina sektore horren moteltzea erakusten du aurreko urteen aldean. Jasotako turista kopuruari eusteko joera agerikoa da urtearen bigarren zatian eta jatorrizko merkatu gutxi batzuetan, baina horiek garrantzi handia dute jarduera osoan.

Dezelarazio horren atzeko arrazoiaren artean nabarmentzekoa da, batetik, merkatu nagusietatik –Frantzia eta Alemania, kasu– datozen turista kopuruan egon den jaitsiera txikia, neurri batean AEBko turistek konpentsatu dutena. Bestetik, Erresuma Batuan Brexitari lotutako zalantzak ugaritu egin dira (erreserbak baliogabetzea, aldez aurreko kontrataziorik ez egitea), eta hori gutxi balitz, Thomas Cook bidaiaria-antolatzaile nagusienetakoa zena kolapsatu egin da, zeinak eragin handia baitzuen Erresuma Batutik eta Alemaniatik Kanariar eta Balear Uharteetara zihoazenen turismo-jardueran. Horri inguru hurbileko merkatu lehiakideek (Kroazia, Turkia) egiten duten konpetentzia gehitu behar zaio, baita Ipar Afrikaren (Tunisia) pixkanakako suspertzea ere, bi urtean zehar atzeraldian egon eta gero. Hala eta guztiz ere, bidaiari-fluxuen dinamismoan moteltzea egon bada ere, turismo-gastuan hobekuntza egon dela nabarmendu behar da.

Edonola ere, Espainiak 2019an 83,7 milioi turista jaso zituen, aurreko ekitaldian baino % 1,1 gehiago. Etorrera horien analisi xehean argi ikusten da hiru herrialderen pisu erlatiboa, hiruren ekarpenak osotara ia % 50 osatzen baitu. Lehena Erresuma Batua da, % 21,6ko parte-hartzea duena, eta 18 milioi bisitari baino zertxobait gehiago. Jarraian datoz Alemania eta Frantzia, bakoitzak 11 milioina turista inguru izanik. Gainerako herrialdeen artean, AEBn erregistratutako bilakaera nabarmentzen da, bi digituko bakarra izan den neurrian. Ildo beretik, hura izan da turismo nazionalaren merkatu tradizionalen erorketa leuntzen lagundu duen jatorri-herrialdeetako bat.

217. koadroa Espainiara datozen bidaiariak¹, jatorriaren arabera

Eremua	2017	2018	2019	% Δ 19/ 18
Erresuma Batua	18.806.776	18.523.957	18.078.076	-2,4
Alemania	11.897.376	11.414.955	11.176.545	-2,1
Frantzia	11.267.269	11.293.323	11.156.671	-1,2
Herrialde eskandinaviarrak	5.826.548	5.803.535	5.548.745	-4,4
Italia	4.222.865	4.389.453	4.542.709	3,5
Herbehereak	3.704.549	3.855.269	3.701.944	-4,0
AEB	2.637.484	2.959.487	3.332.654	12,6
Belgika	2.474.720	2.505.146	2.538.829	1,3
Portugal	2.137.880	2.344.322	2.440.746	4,1
Irlanda	2.046.123	2.053.385	2.177.106	6,0
Suitza	2.059.201	1.883.148	1.824.839	-3,1
Errusia	1.150.055	1.227.530	1.311.746	6,9
Europako gainerakoak	5.543.011	6.003.629	6.415.281	6,9
Amerikako gainerakoak	3.228.531	3.411.059	3.784.482	10,9
Munduko gainerakoak	4.866.135	5.140.216	5.670.638	10,3
Guztira	81.868.522	82.808.413	83.701.011	1,1

Iturria: EIN Herrialdeen arteko bidaiaren mugimenduaren estatistika (Frontur)

Eskari turistikoaren analisiarekin jarraituz eta Hotelen Okupazioari buruzko Galdetegiari ² (EIN) erreparatuta –bidaiarien fluxua eta hotelek, turismo-ostatuek, landa-ostatuek eta campingek osatzen duten turismo-ostatuen sareko gualdiak hartzen ditu aztergai–, lehenengo datu garrantzitsua da bidaiarien fluxua handitu egin dela (% 3,1), 133,7 milioi izatera iristeraino. Halaber, goranzko aldakuntza izan da, baina zerbait apalagoa gualdiei dagokienez (% 0,6); osotara 466,6 milioi izan dira ekitaldian. Azpimarratzekoa da jardueraren zatirik mardulena hotelen sarean kontzentratzen dela: 108,6 milioi bidaiari eta 343,2 milioi gualdi izan ditu guztira, eta horren emaitza modura, 3 egunetik gorako batez besteko egonaldia (3,2).

Era berean, egiaztatu da Espainian bizi diren bidaiarien (guztira % 48,5) eta ez-egoiliarren (% 51,5) kopuruak bilakaera berdintsua izan dutela (urte arteko aldakuntza-tasa % 2,9 eta % 3,3, hurrenez hurren). Gualdiei dagokienez, ez-egoiliarren segmentuak (parte-hartze askoz handiagoarekin, guztizkoaren % 62,5) bilakaera txikiagoa izan du egoiliarrenak baino (hurrenez hurren, urte arteko aldakuntza-tasaren % 0,1 eta % 2,5).

¹ Frontur-ek (Atzerritarren mugimendu turistikoaren estatistika), garraiobideen eta bidaiatzeko motibazioaren arabera, Espainian bizi ez diren eta ostatu mota guztiak erabiltzen dituzten bidaiarien fluxua jasotzen du, honako hauek barne: bigarren etxebizitzak, etxebizitza partikularrak, eta horiez gain, hotel-sareak, landa-ostatuak, apartamentu turistikoak edota campingak. Horiek dira kapitulu honetako aztergai nagusia.

² Ez ditu plataformen bitartez (Airbnb, adibidez) eskainitako plazek eragindako mugimendua eta okupazioa kontuan hartzen, eskaintza hori legezko ostatu-sarean ez badago behintzat.

218. koadroa Eskari turistikoaren bilakaera Espainian

Eremua	2017	2018	2019	% Δ 19/ 18
Bidaiariak (mila)	128.385	129.728	133.738	3,1
-Hotelak	103.804	105.311	108.618	3,1
-Landa-turismoa	4.050	4.261	4.414	3,6
-Apartamentu turistikoak	12.662	12.289	12.470	1,5
-Campingak	7.869	7.867	8.236	4,7
Gaualdiak (mila)	468.477	464.035	466.640	0,6
-Hotelak	340.583	339.981	343.164	0,9
-Landa-turismoa	11.034	11.458	11.678	1,9
-Apartamentu turistikoak	78.148	73.437	71.601	-2,5
-Campingak	38.712	39.159	40.197	2,7
Batez besteko egonaldia				
-Hotelak	3,3	3,2	3,2	0,00pp
-Landa-turismoa	2,7	2,7	2,6	-0,1pp
-Apartamentu turistikoak	6,2	6,0	5,7	-0,3pp
-Campingak	4,9	5,0	4,9	-0,1pp

Iturria: EIN Hoteletako okupazioaren galdetegia

Gainerako turismo-establezimenduei dagokienez, turismo-apartamentuetan 12,5 milioi bidaiari erregistratu dira (urte arteko % 1,5eko igoera) eta 71,6 milioi gaualdi (-% 2,5); batez beste 6 eguneko egonaldiak egin dira. Landa-turismoaren sareari dagokionez, 2019an osotara 4,4 milioi bidaiari kontabilizatu dira (2018an baino % 3,6 gehiago) eta 11,7 milioi gaualdi inguru (2018an baino % 1,9 gehiago); ondorioz, batez beste 2,6 eguneko egonaldiak izan dira. Azkenik, campingetan 8,2 milioi bidaiari izan dira (urte arteko hazkundera % 4,7koa izan zen) eta 40,2 gaualdi (% 2,7); batez beste 5 eguneko egonaldiak egin dira.

Eskaintza turistikoa

Espainian turismo-sektoreak izan dituen emaitza onak eskaintza turistikoan ere islatzen dira. Establezimendu motei erreparatuta, hoteletan 76 establezimendu gehitu zaizkio sareari; guztira, beraz, 14.818 hotel daude martxan. Era berean, landa-turismoaren eskaintza ere zabaldu egin da: 485 establezimendu gehiago daude, eta osotara 17.145. Bi sare horietan zabalpenen ondorioz, % 1,2 ugaritu dira hoteletako plazak, eta % 2,8, berriz, landa-turismokoak. Alabaina, dinamismo baxuagoa aztertu da campingen kategorian: guztira 769 establezimendu daude (2018an baino bat gehiago), eta ia aldakuntzarik ez da egon plaza-kopuruan (499.318). Apartamentu turistikoetan ere aurreko ekitaldiko balioak berdintsu mantendu dira, bai zifretan (132.433) baita eskainitako plaza-kopuruan ere (507.338).

Enplegatuei erreparatuta, sektoreak eutsi egin dio enplegua sortzeko gaitasunari, guztira 281.061 enplegatu¹ izan baititu, eta beraz, % 2,5eko urte arteko hazkundea izan du. Enpleguaren gehiena hotel-sektorekoa da (219.784, enplegu guztiaren % 78,2), zeina hazi egin baita azken urtean (+% 2,5) eta 5.405 enplegu gehiago sortu baititu. Apartamentu turistikoak (kopuru osoaren % 10,2) eta landa-ostatuak (% 9,1), batuta, sektore honetako enpleguaren ia bosten bat osatzen dute (28.629 eta 25.520 lanpostu, hurrenez hurren) eta dinamismo esanguratsua izan dute 2019an landa-arloan (hazkundearen % 4,4).

219. koadroa Espainiako eskaintza turistikoaren bilakaera (urteko batez bestekoa)

Eremua	2017	2018	2019	% Δ 19/ 18
Establezimendu kopurua				
-Hotelak	14.753	14.742	14.818	0,5
-Landa-turismoa	16.344	16.660	17.145	2,9
-Apartamentu turistikoak	134.261	132.443	132.433	-0,0
-Campingak	765	768	769	0,1
Eskainitako plaza kopurua				
-Hotelak	1.478.293	1.498.212	1.515.608	1,2
-Landa-turismoa	155.711	160.659	165.128	2,8
-Apartamentu turistikoak	517.824	508.498	507.338	-0,2
-Campingak (partzelaka)	494.366	501.734	499.318	-0,5
Langileak				
-Hotelak	210.074	214.379	219.784	2,5
-Landa-turismoa	23.360	24.436	25.520	4,4
-Apartamentu turistikoak	28.516	28.540	28.629	0,3
-Campingak	6.593	6.937	7.128	2,7

Iturria: EIN Hoteletako okupazioaren galdetegia

Atxikitako taulak eskaintza turistikoaren tipologia tamainaren arabera sailkatzen dituen ratioak jasotzen ditu. Campingak dira plaza-kopuruari dagokionez dimentsiorik handiena dutenak (649,3 plaza); segidan, hotelak (102,3), eta azkenik, landa-ostatuak eta apartamentu turistikoak dira dimentsio txikiena dutenak (9,6 eta 3,8, hurrenez hurren). Gainera, azken urtean ratio hau hoteletan baino ez da hazi (+% 0,7)

¹ Establezimenduak kudeatutako zuzeneko enpleguari dagokio; kontuan hartu behar da ostatu-establezimenduek gero eta gehiago kontratatzen dituztela zerbitzu-enpresak eguneroko zereginetarako (garbiketara, cateringa, mantentzea, etab.). Hemen ez da jasotzen mota honetako enplegua.

220. koadroa Espainiako eskaintza turistikoaren bilakaera (urteko batez bestekoa)

Eremua	2017	2018	2019	% Δ 19/ 18
Plazak establezimendu bakoitzean				
-Hotelak	100,2	101,6	102,3	0,7
-Landa-turismoa	9,5	9,6	9,6	0,0
-Apartamentu turistikoak	3,9	3,8	3,8	0,0
-Campingak	646,2	653,3	649,3	-0,6
Enplegua establezimendu bakoitzean				
-Hotelak	14,2	14,5	14,8	2,1
-Landa-turismoa	1,4	1,5	1,5	0,0
-Apartamentu turistikoak	0,2	0,2	0,2	0,0
-Campingak	8,6	9,0	9,3	3,3

Iturria: EIN Hoteletako okupazioaren galdetegia

Establezimenduko enplegu-ratioak enpresa-dimentsioak neurtzen ditu; hotel-sarean nabarmen handiagoa da, establezimendu bakoitzeko 14,8 lanposturekin. Ratioa askoz txikiagoa da campingetan (9,3 lanpostu), eta batez ere, landa-ostatueta (1,5 lanpostu) eta apartamentu turistikoetan (0,2 lanpostu). Azkenik, jardueraren dinamismoa nabaria izan da 2019an adierazle honetan hobekuntza izan duten ostatu-moten lautik bi segmentutan, hain zuzen, hoteletan eta campingetan (% 2,1 eta % 3,3, hurrenez hurren).

Okupazio maila eta prezioen bilakaera

Okupazio mailari dagokionez, hotelak dira okupazio maila handiena duten establezimenduak (% 58,5); ez dute aurreko ekitalditik aldaketarik izan. Segidan, apartamentu turistikoak eta campingak daude (% 37,2 eta % 39,6ko okupazioarekin, hurrenez hurren), eta, azkenik, proportzio dezente baxuagoan daude landa-turismoko establezimenduak (% 18,7). Hiru segmentu horiek udako oporretako turismora oso bideratuta daude eta denboraldi laburragoa dute hotelen eskaintzaren aldean, hotelen segmentuak hiri eta hondartzako helmugak konbinatzen baitituzte eta motibazio- eta irekiera-tarte zabalagoak baitituzte.

Aztertutako hiru ostatu-sareen prezio-indizeak (2008=100 oinarria) erakusten du ratorik handiena apartamentu turistikoena (142,2) eta landa-ostatuena (142,0) dela, hotelen datuaren aldean (111,9). Hiru kasuetan agerikoa da 2019an erregistratutako urte arteko hobekuntza; hain zuzen ere, 2015az geroztik urtez urte hazten ari zen. Gauzak horrela, 2019an, bidaiarien fluxuari eustek eta prezioen hobekuntzak duten efektuak Estatuan egindako gastu turistikoaren hazkundera azaltzen du.

221 koadroa Okupazio mailaren eta prezio-indizeen bilakaera Espainiako turismo-ostatuaren sareetan (urteko batezbestekoa)

Eremua	2017	2018	2019	Δ19/18
Okupazio maila plaza kopuruko				
-Hotelak	59,1	58,5	58,5	0,00pp
-Landa-turismoa	18,7	18,9	18,7	-0,2pp
-Apartamentu turistikoak	39,7	38,1	37,2	-0,9pp
-Campingak (partzelaka)	38,7	39,0	39,6	0,6pp
Prezio-indizea				
-Hotelak	108,0	109,9	111,9	2,00pp
-Landa-turismoa	137,3	140,1	142,0	1,9pp
-Apartamentu turistikoak	135,6	140,4	142,2	1,8pp
-Campingak	nd	nd	nd	--

pp: ehuneko puntuak

Iturria: EIN Hoteletako okupazioaren galdetegia

2019ko ekitaldiaren balantzea positiboa izan da, ñabardurak ñabardura. Batetik, turista atzerritar kopuruari eutsi egin zaio (hondartza duten leku eguzkitsuek eskari berezia izan dute), baina hazi egin dira diru-sarrerak, gastu handiagoko profilen presentziagatik¹; eskaintza handitu egin da eta enpleguak hazten jarraitzen du.

4.4 TURISMOA EAEN

Eustaten Turismoaren Kontu Sateliteari jarraikiz, EAEko turismoa 4,6 milioi eurora igo zen 2018an² eta BPGren % 6,1 izan zen. Bizkaiak eta Gipuzkoak egin dute ekarpenik handiena (% 44,9 eta % 41,5); Arabak pisu txikiagoa izan zuen (% 13,6). Argi dago Gipuzkoa dela turismoan espezializaziorik handiena duen lurraldea, lurraldeko BPGren % 7,6 hartzen baitu, Bizkaiko turismoak (% 5,4) eta Arabakoak (% 5,1) baino altuagoa.

Eskari turistikoa

Eustaten Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkestaren emaitzen arabera, 2019an 3,4 milioi bidaiari jaso ditu Euskadik eta guztira 7 milioi gaualdi erregistratu ditu, % 3,6ko eta % 3,3ko igoerekin, hurrenez hurren.

¹ Exceltur-ek ematen duen informazioaren arabera, 2019 urteak sekula izandako turismo-jardueraren bolumenik handiena izan du (153 mila milioi euro).

² Eskuragarri dagoen azken datua.

222. koadroa Jasotako bidaiari kopurua, gualdiak eta batezbesteko egonaldia (EAE 2019).

Jatorriaren arabera

Eremua	Bidaiariak	%	Δ19/18	Gualdiak	%	Δ19/18	Batez besteko egonaldia
GUZTIRA	3.441.967	100,0	3,6	7.021.938	100,0	3,3	2,04
Guztira Estatuan	2.031.310	59,0	2,1	4.146.481	59,1	1,5	2,04
-Madril	456.986	22,5	-3,5	931.711	22,5	-3,4	1,81
-EAE	374.976	18,5	4,8	679.659	16,4	3,2	2,10
-Katalunia	296.239	14,6	-0,1	620.720	15,0	-2,1	2,40
-Andaluzia	135.725	6,7	4,7	325.875	7,9	5,3	1,96
-Gaztela eta Leon	126.036	6,2	4,7	246.591	5,9	3,2	2,36
-Valentziako Erkidegoa	113.049	5,6	5,6	266.549	6,4	4,8	1,99
-Aragoi	81.340	4,0	6,2	161.847	3,9	6,5	2,14
-Galizia	80.955	4,0	-3,5	173.342	4,2	-8,9	1,62
-Nafarroa	72.541	3,6	0	117.371	2,8	-1,8	2,04
-Asturias	64.280	3,2	6,1	123.284	3,0	9,4	1,92
-Gaztela-Mantxa	50.579	2,5	3,9	124.761	3,0	10,2	2,47
-Beste autonomia erkidego batzuk	178.602	8,9	10,4	374.771	9,0	10,1	2,10
Atzerrikoak guztira	1.410.657	41,0	5,7	2.875.457	40,9	6,0	2,04
-Frantzia	288.409	20,4	-0,3	453.835	15,8	-0,8	1,57
-Amerika	260.458	18,5	10,9	588.601	20,5	10,8	2,26
-Alemania	130.430	9,2	11,8	282.021	9,8	10,0	2,16
-Erresuma Batua	129.331	9,2	-2,2	264.056	9,2	-4,6	2,04
-Italia	82.162	5,8	11,3	177.686	6,2	12,1	2,16
-Portugal	52.892	3,7	2,9	111.458	3,9	6,6	2,11
-Belgika	39.954	2,8	5,2	79.289	2,8	3,9	1,98
-EBko gainerakoak ⁽¹⁾	199.225	14,1	6	440.980	15,3	5,7	2,21
-Europako gainerakoak ⁽²⁾	79.439	5,6	6,3	169.098	5,9	4,6	2,13
-Munduko gainerakoak	148.357	10,5	9,9	308.434	10,7	13,4	2,08

(1): EB Gainerakoak Austria, Bulgaria, Zipre, Danimarka, Eslovakia, Eslovenia, Estonia, Finlandia, Grezia, Hungaria, Irlanda, Letonia, Lituania, Luxenburgoko, Malta, Polonia, Txekiar Errepublikak, Errumania, Suedia, Kroazia

(2): Europako gainerakoak: EBkoak ez diren Europako herrialdeak
Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzailen Inkesta.

EAEn jasotzen den bidaiari kopuruan eta gualdietan ikus daitekeen dinamismoa batez ere merkatuko bi segmentutan ikus daiteke: estatuko turismoa hazi egin da (% 2,1 eta % 1,5) eta batez ere atzerrikoa (% 5,7 eta % 6,0). Biek ala biek 2,04 eguneko batezbesteko egonaldiak izan dituzte. Horrela, bidaiarien eta gualdien erdia baino zerbait gehiago estatuko turistek izan dira (% 59,0 eta % 59,1, hurrenez hurren).

Bidaiarien jatorriari erreparatzen dion analisiari dagokionez, eta estatuko turistei erreparatuta, duten garrantzi espezifikoagatik Madril (% 22,5), EAE (% 18,5) eta Katalunia (% 14,6) nabarmentzen dira. Ranking hori berbera da gualdiei begiratuz gero (% 22,5eko, % 16,4ko eta % 15eko partaidetza izan dute); hala ere, bi adierazleetan EAEk bakarrik erregistratu ditu hobekuntzak. Atzerriko turistei erreparatuta, jatorri-herrialdeetan Frantzia gailentzen da (% 20,4); ondoren, Amerika gisa etiketatutako herrialdeen multzoa dator (% 18,5), eta hirugarren, Alemania eta Erresuma Batua (biek % 9,2). Gualdiei dagokienez, posizioak aldatu egiten dira: Amerika da nagusi (guztien % 20,5), eta jarraian

daude Frantzia (% 15,8), Alemania (% 9,8) eta Erresuma Batua (% 9,2). Halaber, azpimarratzekoa da Italiak, Alemaniak eta Amerikak 2019an erregistratutako dinamismoa, bi erreferentzia-adierazleetan bina digituko bilakaera izan baitute.

Analisia hiru lurraldeetara ekarriz, atxikitako grafikoak argi erakusten du EAEn, Bizkaian eta Gipuzkoan jardueraren profila gorakorra izan dela; gainera, 2019an maximo historikoetara iritsi da. Araban, hala ere, jaitsiera txiki bat gertatu da bi adierazleetan, eta hala, bukatutzat eman da ordura arte positiboa zen joera.

34. grafikoa Bidaiarien eta gaualdien bilakaera, EAEn eta lurralde historikoetan 2016-2019



Iturria: Eustat.

EAEko lurralde bakoitzaren ekarpenari begiratuta, Bizkaiak 1.615.917 bidaiari eta 3.194.743 gaualdiko ekarpena egin zuen; EAEko guztizko datuen % 46,9 eta % 45,5, hurrenez hurren. Gipuzkoan 1.365.778 bidaiari eta 2.878.527 gaualdi erregistratu ziren 2019an, zehazki, guztizkoaren % 39,7 eta % 41,0. Azkenik, Arabak guztira 460.272 bidaiari izan ditu, guztizkoaren % 13,4, eta 948.668 gaualdi, guztizkoaren % 13,5.

Lurralde bakoitzaren jarduerari dagokionez, Gipuzkoak eta Bizkaiak antzeko jokabidea izan dute, bi kasuetan jasotako bidaiari kopurua handitu egin baita (% 5,6 eta % 3,9), eta gaualdi kopurua ere bai (% 5,2 eta % 2,6). Hala ere, dinamismo turistiko handiagoaz gain, Gipuzkoak atzeritarren segmentu nabarmen esanguratsuagoa du Bizkaiarena baino, bidaiarien datuetan (% 46,0, Bizkaiko % 40,6ren aldean) zein gaualdietan (% 44,1 eta % 40,5). Gainera, Gipuzkoak batez besteko egonaldi luzeagoak ditu Bizkaiak baino (2,11; aldiz, Bizkaian, 1,98). Joera hori segmentu guztietan ikus daiteke, estatukoetan (2,13; eta Bizkaian, 1,96) eta atzerrikoetan ere bai (2,09 eta 2,00).

Kontrara, Arabara joandako bidaiari kopurua jaitsi egin da (-% 2,9), baita erregistratutako gaualdi kopurua ere (-% 0,1). Bi segmentuek bultzatu dute horretara, hau da, bidaiari kopuruak (-% 1,9 eta -% 5,4, estatuan eta atzerrian, hurrenez hurren) eta gaualdiek (-% 1,1 eta -% 2,8, estatuan eta atzerrian). Hala eta guztiz ere, batez besteko egonaldien kopurua beste bi lurraldeen berdintsua da (2,06), baina estatuko bidaiarien ehunekoa handiagoa da (% 72,6 eta % 74,4, bidaiari kopuruan eta gaualdietan).

223. koadroa Eskaera turistikoaren bilakaera EAEn


Kontzeptua	Bidaiariak			Gaualdiak			Batez besteko egonaldia	
	2019	%	% Δ 19/18	2019	%	% Δ 19/18	2019	% Δ 19/18
Araba	460.272	13,4	-2,9	948.668	13,5	-0,1	2,06	2,9
Estatuko egoiliarak	334.376	72,6	-1,9	699.127	74,4	-1,1	2,09	0,9
Atzerriko egoiliarak	125.896	27,4	-5,4	249.541	25,6	2,8	1,98	8,7
Bizkaia	1.615.917	46,9	3,9	3.194.743	45,5	2,6	1,98	-1,2
Estatuko egoiliarak	959.853	59,4	2,7	1.880.789	59,5	1,6	1,96	-1,1
Atzerriko egoiliarak	656.064	40,6	5,6	1.313.954	40,5	4,1	2,00	-1,4
Gipuzkoa	1.365.778	39,7	5,6	2.878.527	41,0	5,2	2,11	-0,4
Estatuko egoiliarak	737.081	54,0	3,3	1.566.564	55,9	2,4	2,13	-0,8
Atzerriko egoiliarak	628.697	46,0	8,5	1.311.963	44,1	8,7	2,09	0,2
EAE	3.441.967	100,0	3,6	7.021.938	100,0	3,3	2,04	-0,3
Estatuko egoiliarak	2.031.310	59,0	2,1	4.146.481	60,1	1,5	2,04	-0,7
Atzerriko egoiliarak	1.410.657	41,0	5,7	2.875.457	39,9	6,0	2,04	0,3

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta.

Zehazkiago, atxikitako grafikoan egiazta daitekeenez, estatuko turistei dagokienez, Arabaren, eta, batez ere Gipuzkoaren gaualdietako ekarpenak bidaiarien garrantzi erlatiboa gaintzen du kontaketa orokorrean. Ordea, Bizkaiak –garrantzi espezifiko handiena du– ekarpen handiagoa egin du bidaiari-kopuruan gaualdietan baino. Atzerriko

merkatuaren segmentuari dagokionez, zeinetan Gipuzkoak eta Bizkaiak aldagai parekoak baitituzte, Gipuzkoak bakarrik mantendu ditu gaualdiak datu horren gainerik.

35. grafikoa Bidaiariak eta gaualdiak, lurraldeen eta merkatu-segmentuen arabera (%) 2019




Iturria: Eustat.

Bidaiari-kopurua eta gaualdien aldagaietan hilabeteko bilakaeraren analisiak agerian uzten du EAEko eskaera turistikoa bereizgarria urtarokotasuna dela, batik bat udakoa baita: emaitzarik onenak dituen sasoi da (bereziki abuztua), eta orduan izan da bidaiari-kopuruaren errekorra (392.319), baita gaualdi gehien ere (915.078). Ehunekotan, urteko hirugarren hiruhilekoan bidaiaren guztizkoaren % 31,9 erregistratu da, eta urteko gaualdien % 34,4.

Azkenik, urtarokotasunerako joera horretan ere aintzat hartu beharra daude Aste Santua (apirila, 2018an baino % 8,6 bidaiari gehiago), eta maiatzaren 1a, bigarren hiruhilekoko emaitzak zehazten baitituzte (apirila-maiatza, % 5,5). Horrez gain, laugarren hiruhileko emaitzak ere (+% 3,2 urria-abendua), oso positiboak izan dira, nahiz eta ez dagoen estatu mailako bisitariarentzat zubi aipagarriarik¹ tarte horretan. Honela, atxikitako grafikoak erakusten duen moduan, bidaiari-kopuruaren hilabeteko batezbestekoa pixkanakakoa eta gorakorra izan da.

¹ Urriaren 12a, larunbata, eta azaroaren 1a, ostirala.

36. grafikoa Bidaiari kopuruaren bilakaera eta gualdiak, hilabeteka (EAE, 2017-2019)



Iturria: Establezimendu turistikoko hartzaileen inkesta (EUSTAT)

Eskaintza turistikoa

2019an, EAEko eskaintza turistikoa 1.792 establezimenduk osatu dute (+%1,5), eta egunero 36.794 plaza eskaini dituzte (+% 2,3). Guztira 5.026 langilek egin dute bertan lan (zuzenean). Sare horretan hotelak gailentzen dira; izan ere, eskaintzaren zatirik handienaren jabe izan dira bestelako establezimenduen artean, adibidez, ostatu turistikoa, aterpetxeak, campingak, Airbnb, etab.

Kategoria horretan, EAEn hotelen sarean 603 hotel egon dira 2019an, aurreko ekitaldian baino 10 gehiago. 128 hotelek dituzte hiru izar edo gehiago (aurreko ekitaldian baino 6 gehiago), eta 476 dira bi izarrekoak eta pentsioak, 2018an baino 1 gehiago.

224. koadroa Hotel-establezimenduen eskaintzaren bilakaera EAEn eta lurraldeka 2017-2019

Kontzeptua	2017	2018	2019	%	% Δ 19/ 18
Araba	73	72	70		-2,8
-Hiru izar edo gehiago	18	18	18	25,7	0,0
-Izar bat edo bi eta pentsioak	55	54	52	74,3	-3,7
Bizkaia	220	225	231		1,8
-Hiru izar edo gehiago	52	53	58	25,1	9,4
-Izar bat edo bi eta pentsioak	171	174	173	74,9	-0,6
Gipuzkoa	283	296	302		1,7
-Hiru izar edo gehiago	47	51	52	17,2	2,0
-Izar bat edo bi eta pentsioak	238	247	251	82,8	1,6
EAE	576	593	603		1,2
-Hiru izar edo gehiago	117	122	128	21,2	4,9
-Izar bat edo bi eta pentsioak	464	475	476	78,8	0,2

*Oharra: Hotel-establezimenduen urteko totalak hautatutako urtean gutxienez egun batez irekita egon diren establezimenduen kopurua ematen du
Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta.*

EAEn hiru izar edo gehiago dituzten hotelen eskaintzari erreparatuta, Bizkaiak establezimenduen % 45,3 hartzen du; ondoren Gipuzkoa dator (% 40,6) eta azkenik Araba (% 14,1). Bilakaerari dagokionez ere, Bizkaiak du jarduerarik onena; 2019an osotara 5 hotel gehiago izan ditu. Ondoren, Gipuzkoa dago (eskaintzari bat gehitu dio), eta azkenik Araba, aurreko ekitaldiko balio berberekin.

Kategoria baxuari dagokionez, Gipuzkoa da sarea sendotzen lagundu duen lurralde bakarra; 4 establezimendu gehitu dizkio sareari (guztira 251 ditu, EAEko guztizkoaren % 52,7). Arabak bi galdu ditu, eta Bizkaiak, bat. Horrenbestez, ekitaldia amaitzean izar bateko eta biko establezimenduen eta pentsioen artean, 52 establezimendu zeuden Araban (EAEko guztizkoaren % 10,9) eta 173 Bizkaian (% 36,3). Hala ere, azpimarratzekoa da Araban eta Bizkaian establezimenduen proportzioa berdintsua bada ere kategoriaren arabera (% 25 eta % 75, gutxi gorabehera), Gipuzkoan kategoria baxukoaren garrantzi erlatiboa % 83tik gertu dagoela.

Hotel-sarea aztertu ondoren, beste establezimenduetako informazioa gehitu behar zaio horri, adibidez, landa-turismokoak edo apartamentu turistikoak, nahiz eta presentzia txikiagoa duten eta jarduera aldakorragoa urtean zehar.

225. koadroa EAEko eskaintza turistikoaren bilakaera. Urteko batezbestekoa

Kontzeptua	Hotel-establezimenduak*			Landa-ostatuak			Apartamentu turistikoak			GUZTIRA		
	2018	2019	% Δ 19/18	2018	2019	% Δ 19/18	2018	2019	% Δ 19/18	2018	2019	% Δ 19/18
Araba												
Establezimenduak	72	70	-2,8	97	99	2,1	250	253	1,2	419	422	0,7
Eskaintako plazak, egunetan	4.242	4.187	-1,3	920	969	5,3	926	932	0,6	6.088	6.088	0,0
Langileak	500	489	-2,2	107	113	5,6	36	37	2,8	643	639	-0,6
Bizkaia												
Establezimenduak	225	231	2,7	125	122	-2,4	252	261	3,6	602	614	2,0
Eskaintako plazak, egunetan	13.745	14.217	3,4	1.284	1.237	-3,7	869	923	6,2	15.898	16.377	3,0
Langileak	1.974	2.057	4,2	139	140	0,7	57	69	21,1	2.170	2.266	4,4
Gipuzkoa												
Establezimenduak	296	302	2,0	181	181	0,0	268	273	1,9	745	756	1,5
Eskaintako plazak, egunetan	11.159	11.530	3,3	1.976	1.931	-2,3	834	870	4,3	13.969	14.331	2,6
Langileak	1.741	1.842	5,8	223	219	-1,8	55	61	10,9	2.019	2.122	5,1
EAE												
Establezimenduak	593	603	1,7	403	402	-0,2	770	787	2,2	1.766	1.792	1,5
Eskaintako plazak, egunetan	29.146	29.933	2,7	4.179	4.137	-1,0	2.629	2.724	3,6	35.954	36.794	2,3
Langileak	4.215	4.388	4,1	468	471	0,6	148	167	12,8	4.831	5.026	4,0

(*): Irekitako hotel-establezimenduak.

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta. Irekitako hotel-establezimenduak*

Hau esanda, datuen hurbilpen bat egitean agerian gelditzen da Arabak datu baxuagoak dituela establezimendu kopuruari dagokionez (EAEko guztizkoaren % 23,5), eskaintako plazei erreparatuta (% 16,5) eta baita langile-kopuruari dagokionez ere (% 12,7) Gipuzkoak baino (% 42,2, % 38,9 eta % 42,2, hurrenez hurren) eta Bizkaiak baino (% 34,3, % 44,5 eta % 45,1, hurrenez hurren). Horrenbestez, Gipuzkoa EAEko sarean establezimendu gehien dituen lurraldea da (756 establezimendu), baina Bizkaia gailentzen da eskaintako plaza kopuruari dagokionez (16.377) eta enplegatutako pertsonen dagokionez (2.266). Halaber, aipatutako hiru adierazleek erakusten dute Araban 2018 urtearekiko aldakuntzak oso txikiak izan direla Bizkaiaren eta Gipuzkoaren aldean; izan ere, horiek jarduera askoz mesedegarriagoa dute, batez ere enpleguaren alorrean (% 4,4 eta % 5,1eko hazkundea). Zentzu horretan, garrantzitsua da azpimarratzea hotelek gainerako establezimenduen aldean enplegua sortzeko duten gaitasuna; Bizkaian turismo-sektoreko enpleguaren % 90,8 sortuta; Gipuzkoan, % 86,6, eta Araban, % 76,5. Eskaintako plazei erreparatuta berresten diren emaitzak.

Lehenik eta behin, Arabak bi hotel-establezimendu galdu ditu (70 izan dira 2019an, eta 72, berriz, 2018an), baina landa-ostatuak eta apartamentu turistikoak ugari egin dira: bi eta hiru, hurrenez hurren. Araba da landa-ostatuak hotelak baino ugariagoak diren lurralde bakarra, eta era berean, turismo-establezimenduen artean apartamentu turistikoak dira bertan ugariak (% 60, % 42,5 eta % 36,1 Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, hurrenez hurren). Bizkaian 2019. urteko balantze positiboa izan du sektoreak –azpimarratzekoa da hotel-sarea handitu izana–, landa-turismoko establezimenduen kasuan izan ezik (-3). Gipuzkoa Bizkaiaren pareko agertoki batean legoke; eta aurreko ekitalditik landa-

ostatuen kopuruari eutsi egin zaion arren, eskainitako plazak galdu egin dira eta langile kopurua murriztu dute.

Atxikitako taulak emaitzak jasotzen ditu, okupazio maila, adibidez, hiru lurraldeei eta kasu bakoitzean alpatzen den zonalde bakoitzari erreparatuta. Emaitza-adierazlea da, eskainitako plazen okupazio maila erakusten duelako (egun bakoitzean), izan den eskaerarekiko.

226. koadroa Batez besteko egonaldia eta okupazio maila, establezimendu motaren eta zonalde geografikoaren arabera.

Kontzeptua	Hotel-establezimenduak			
	Batez besteko egonaldia		Okupazio maila (plazak)	
	2018	2019	2018	2019
Araba	1,84	1,89	51,2	51,6
Gasteiz	1,91	1,98	53,1	53,3
Arabar Errioxa	1,59	1,60	55,5	53,1
Arabako gainerako zonaldeak	1,77	1,75	39,1	42,2
Bizkaia	1,95	1,93	57,0	56,6
Bilbo	1,93	1,92	62,0	61,7
Bilboko metropoli-eremua (*)	1,86	1,84	53,4	50,9
Bizkaiko kosta	2,08	2,07	49,7	51,2
Bizkaiko barnealdea	2,20	2,14	45,0	44,2
Gipuzkoa	2,03	2,03	58,7	60,4
Donostia	2,04	2,06	65,1	67,3
Donostiako metropoli-eremua	2,03	2,02	45,8	47,3
Gipuzkoako kosta (*)	1,77	1,74	59,0	60,4
Gipuzkoako barnealdea	2,60	2,57	45,7	45,9

(*): Hiriburuak ez dira sartzen.

Iturria: Eustat.

EAEko hotel-ostatuen sareak % 51,6aren (Araba) eta % 60,4aren (Gipuzkoa) arteko okupazio maila du, eta tarteko mailan dago Bizkaia (% 56,6). Hori bai, hiriburu guztiek hobetzen dute dagokien lurraldeko datua; Donostia nagusitzen da (% 67,3) eta haren ondotik datoz Vitoria-Gasteiz (% 53,3) eta Bilbo (% 61,7). 2018. urtearen aldean ez dago aldaketa esanguratsurik, zonalde batean edo bestean egondako irabazi edo galerez aparte, zeinak dagokien lurraldean konpentsatu baitira; hobekuntzarako joera dago.

Landa-ostatuen sareak hotelenak baino okupazio maila baxuagoa du (EAEko establezimenduen % 28,6), aurreko urteko datuei jarraikiz (% 29,5). Datuok desberdinak dira lurralde batetik bestera.¹

¹ Araba (% 20,9), Bizkaia (% 29,5) eta Gipuzkoa (% 31,9).

Hotel-establezimenduen batez besteko egonaldie erreparatuta, Gipuzkoak ditu daturik altuenak, batez beste 2 gaueko egonaldia gaindituz. Bizkaian zerbait jaitsi da batez besteko egonaldia (1,93), eta Araban, hobetu (1,89).

Aztertutako zonalde geografiko batetik bestera aldaketa esanguratsuak daude. Araban, hiriburuak du adierazlerik onena (1,98) eta Arabar Errioxak berriz, beheranzko joera (1,75). Bizkaian eta Gipuzkoan batez besteko egonaldirik luzeena lurraldearen barnealdekoa da (2,14 eta 2,57, hurrenez hurren), baina atzeraldi arin bat izan dute, Gipuzkoan adierazlerik baxuena kostakoa da (1,74), eta Bizkaian, Bilboko metropoli-eremukoa (1,84).

227. koadroa Hileko batez besteko tarifa EAEko (ADR) hotel-establezimenduetan, lurralde historiko eta kategorien arabera. Euroak

Kontzeptua	Hotel-establezimenduak		
	2018	2019	% Δ19/ 18
Araba	71,70	72,44	1,0
Hiru izar edo gehiago	82,40	84,00	1,9
Izar bat edo bi eta pentsioak	53,23	52,58	-1,2
Bizkaia	83,52	85,82	2,7
Hiru izar edo gehiago	95,77	97,78	2,1
Izar bat edo bi eta pentsioak	57,33	58,59	2,2
Gipuzkoa	105,75	109,67	3,7
Hiru izar edo gehiago	129,48	134,90	4,2
Izar bat edo bi eta pentsioak	73,93	77,05	4,2
EAE	90,51	93,44	3,2
Lau eta bost izar	119,62	123,90	3,6
Hiru izar	75,07	75,09	0,0
Bi izar	72,52	73,80	1,8
Izar bat	67,88	69,89	3,0
Pentsioak	57,09	59,81	4,8

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta.

Azkenik, errentagarritasun-adierazle moduan kontuan hartu beharrekoa da, hoteletako bidaiarien inguruko informazioaz, gaualdiez, establezimenduez, edukieraz eta okupazio mailaz gain, hileko batez besteko tarifa ere. Hazkundea desberdina izan da urtaroaren arabera: maximoa abuztuan izan da eta minimoa otsailean. Gauzak horrela, informazioa kategoriaka aztertuta eta lehenik EAE osoko datuak kontuan izanda, egiaztatu da hiru izarreko hotelen kasuan izan ezik batezbesteko tarifa igotzeko joera egon dela. Pentsioetan eta kategorian altueneko hoteletan (lau eta bost izarrekoak) egon da igoerarik handiena (% 4,8 eta % 3,6, hurrenez hurren); jarraian, izar bateko hotelen igoera egon da (% 3koa) eta ondoren bi izarrekoena (% 1,8).

Analisi hori bera lurraldearen ikuspegitik eginda, datu horiekiko desberdintasun esanguratsuak daude bilakaerari zein batezbesteko tarifari dagokionez. 2019an aldakuntza negatibo bat egon da Araban eta kategorian baxueneko establezimenduetan (-% 1,2); lurralde horretako batez besteko tarifa (72,4 euro) da baxuena eta egonkorrena (urtetik urtera % 1eko aldakuntza du). Bizkaiko hotel-sarearen eguneko batez besteko

tarifak % 3 inguruko bilakaera izan du, eta batez besteko tarifa 85,82 eurokoa izan da. Hala eta guztiz ere, tarifa Gipuzkoan hazi da gehien, batez besteko tarifa altuena duen lurraldean (% 4 inguru).

Kapitulua ondu moduan, turismo-adierazle nagusiek jarduera baikorra erakutsi digute 2019. urtean zehar. Horrek agerian jartzen du jarduera mota horrek gure lurraldean duen garrantzia, eta lurralde historikoak gero eta erakarpen turistikoko garrantzitsuagoak direla erakusten du.

19




6. FINANTZA SEKTOREA

1. IKUSPEGI OROKORRA

2019an % 2,9 hazten da munduko ekonomia. Hazkundera orokorra izan da, eta jarraipena ematen zaio aurreko ekitaldietako hazkunderaren beheranzko joera progresiboari (+% 3,6 2018an, eta +% 3,8 2017an). Ekonomia aurreratuek balio apalak mantendu dituzte (AEBn, +% 2,3 eta Eurogunean, +% 1,2). Txinaren (+% 6,1) eta Indiaren (+% 4,2) bultzadak mesede egiten die garapen bidean dauden ekonomiei (+% 4,5). Errusiak eta Brasilek, berriz, beste urte batez, ez dituzte hainbat erakunderen aurreikuspenak betetzen (+% 1,3 eta +% 1,1).

2020ko urtarrilean, munduko ekonomiaren hazkundera 2020an % 3,2koa eta 2021ean % 3,6koa izango zela aurreikusi zuen Nazioarteko Diru Funtsak (NDF). Covid-19aren pandemiak, ordea, aurrekaririk gabeko mundu mailako osasun-alerta eragin du, eta, ondorioz, biztanleriaren konfinamendua, pertsonen mugikortasuna neurri handian murriztea eta ekonomia-jardueraren gelditzea (guztiz edo partzialki). Horren guztiaren ondorioz, kontsumoa eta produkzio-jarduera nabarmen jaitsi dira, eta sektore batzuei gogor erasan die (turismoa, pertsonen zuzendutako zerbitzuak, bidaiarien garraioa, etab.). Dagoeneko nabari da ekonomiaren atzerakada 2020ko lehen (nahiz eta 15 egun baino ez eragin) eta bigarren hiruhilekoetan.

37. grafikoa Kanbio-tasa: Euroa versus Dolarra*




(*): Eguneko batez besteko balioen batezbestekoa
Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina.

NDFren ekaineko aurreikuspenen arabera, mundu mailako ekonomiaren hazkundera % 4,9 murriztuko da. Atzerakada handiagoa izango da ekonomia garatuetan (-% 8), garapen bidean dauden ekonomietan baino (-% 3). Hala, 2020an mundu mailako dezelerazioa gertatuko da, modu sinkronizatuan. Ez da halakorik gertatu 1929ko Depresio Handiaz geroztik.

Hori dela eta, 2020ko martxoaren eta ekainaren artean gertatutakoen ondorioz, 2019ko gertakarien balantzea egiteak dagoeneko ez du interesik, 2019ko gertakariak dagoeneko zaharkituak baitira eta ez baitatoz bat egun bizi dugun errealitatearekin. Dena den, mundu mailako krisialdi honetatik ateratzeko prozesuan esanguratsuak izan daitezkeen hiru faktore aipatzea komeni da, oraindik gertu dugun 2008ko krisian izan ez genituen hiru faktore, hain zuzen ere.

Lehenik eta behin, krisialdia mundu mailakoa izanik, diru-agintaritzek azkar erreakzionatu dute sistemaren beharrei erantzun ahal izateko. Tasak murriztea izan da modu partekatuan hartutako erabakietako bat. Hortaz, merkatu nagusietako erreferentziak zerotik gertu daude, eta balio horietan mantentzeko aurreikuspena dute egoera kritikoa den artean. Aldi berean, eta ezohiko azkartasunez eta koordinazioaz, finantza-baliabideen (likidezia) aukera zabala jarri dute agenteen eskura, eta ekonomia suspertzeko aparteko baliabideak ere iragarri dituzte. Eraitza gisa, begi bistakoa da 2008ko eta 2020ko krisialdietan emandako baliabideen arteko aldea.

38. grafikoa KPlaren gaineko neurri ekonomikoaren alderaketa 2008ko eta 2020ko krisialdietan, herrialdeka



Iturria: Nazioarteko Diru Funtsa (NDF)

Horrez gain, eta Espainiari dagokionez, familiek zein enpresek finantza-egoera apur bat hobea dute krisialdi honi aurre egiteko, azken hamarkadan erregistratutako desapalankamendu-prozesuari esker. 2008aren eta 2019aren artean Espainiako sektore pribatuaren kreditu-saldo bizia % 36,2 jaitsi da, beraz, ezin dira alderatu 2008ko zorpetze maila eta egungoa. Dena den, egungo krisi-egoerak eta enpleguaren galerak berankortasuna areagotuko dutela aurreikusten da -urte amaieran edo 2021ean-, eta horrek familien eta enpresen baldintza ekonomikoak kaltetuko ditu. Hala ere, susperraldia hasteko epearen eta haren sendotasunaren araberakoa izango da berankortasunaren areagotzeak izango duen eragina. Hain zuzen ere, egindako desapalankamendu-

prozesuari esker, sektore pribatuak marjina handiagoa du zorpetze maila areagotzeko (beharrezkoa bada), eta arrisku txikiagoa du sistemarentzat, entitateen balantzeak onbideratuta baitaude.

Azkenik, krisialdi honetan kontsumoa asko jaitsi da eta (ia) produkzio-jarduera guztietara hedatu da, baina, 2008ko krisialdian ez bezala, ez die zuzenean eragiten funtsezko sektoreei (finantza-sektoreari, adibidez). Ondorioz, krisialdi honetan, printzipioz, ez da sektore zehatzik erreskatatu beharrik izango. Horren orde, babes-lerro oso orokorrak (familiei babesa eta enpresei likidezia) edo oso zehatzak (airelineak, adibidez) ari dira martxan jartzen, eta jarduera orokorra berreskuratzen ez den heinean soilik (normaltasunera itzultzen joatea).

228. koadroa Koronabirusaren krisiari emandako nazioz gaindiko erantzuna

EUROPAREN ERANTZUNA: AURREKONTUA, EGONKORTASUN MEKANISMO EUOPARRA (EME) ETA EUROPAKO INBERTSIO BANKUA (EIB)		
EUOPAR BATZORDEA		
CRII (a)	NEXT GENERATION EU	SURE (a)
Kohesio-funtsen berehalako mobilizazioa 37 mm €	Aldi baterako aurrekontu osagarria, 4 urteko epean erreformak eta inbertsioak finantzatzea helburu duen Berreskuratze eta Erresilientzia Funtsa barne hartzen duena Transferentziak 427 mm € Maileguak: 250 mm €	Enplegua babesteko aldi baterako mailegu-tresna, EBko estatu kideek bermatua (a) 100 mm €
EIB TALDEAREN BIDEZ MOBILIZATUTAKO FINANTZAKETA (b)		EME
Likidezia-funtsak, titulizazioen erosketak eta bermeak 25 mm €	Kaudimena Babesteko Tresna: bermeak, maileguak eta kapitala Europako enpresei. 31 mm €	Pandemiarekin zerikusia duten zuzeneko eta zeharkako osasun-gastuak finantzatzeko prebentzio-lerroa, herrialde bakoitzaren BPGaren % 2ko balioarekin. 240 mm €
GUZTIKOA, EB FUNTSAK + EME + EIB: 1.100 mm € (EBren BPGaren % 7,9)		

(a): CRII siglen esanahia: Coronavirus Response Investment Initiative; eta SURE siglana: Support to mitigate Unemployment Risks in an Emergency.

(b) EIBk 240 mm € mobilizatzeko helburua duten bi programa hartzen ditu barne.

Iturria: Espainiako Bankua, EBko iturrietan oinarrituta. Kolore argia duten zatiak EBk Next Generation EU programaren barruan proposatutako neurriak dira, oraindik onartzeko daudenak.


229. koadroa Covid-19aren krisialdiari aurre egiteko neurri nagusiak; xehetasunak

Europar Batasuna	Zenbatekoa
- <u>Next Generation UE</u> EBren Suspertze Plana, herrialde kideentzako zuzeneko transferentzien eta maileguen bidez.	750.000 M€
- <u>Support to mitigate Unemployment Risks in an Emergency (SURE)</u> Enplegua babesteko sistemak finantzatzeko laguntza-programa, adibidez, ABEEak.	100.000 M€
- <u>Coronavirus Response Investment Initiative (CRII)</u> Aurrefinantzatutako eta oraindik exekutatu gabeko funtsen berehalako mobilizazioa, pandemiarekin zerikusia duten gastuak finantzatzeko.	37.000 M€, 29.000 M€-ra hedagarria
- <u>Egonkortasun Mekanismo Europarra (EME)</u> Covid-19ak eragindako zuzeneko eta zeharkako osasun-gastuen finantzaketa.	240.000 M€
- <u>EIBren finantzaketa</u> Enpresei zuzendutako mailegutuzako berme-funtsa sortzea Eta ETE-entzako likidezia-plana.	25.000 M€, 200.000 M€-ra hedagarria 40.000 M€
Europako Banku Zentrala	
- <u>Pandemic Emergency Purchase Programme (PEPP)</u> Aktiboen Larrialdi Erosketen Programa Berria.	1,35 bilioi €
- <u>Aktiboen Erosketa Programa (APP)</u> Aktiboen erosketa-programaren zenbatekoa areagotzea.	120.000 M€
- <u>Long-Term Refinancing Operations (LTROs)</u> Bankuen likidezari laguntzeko programa, -% 1 arteko interes-tasekin.	-
- <u>Program of non-targeted Emergency Long-Term Refinancing Operations (PELTRO)</u> Bankuak birfinantzatzeko eragiketa-programa berria, interes-tasa nagusia baino 25 oinarritzko puntu baxuagoko lizitazio-prozeduren bitartez.	-
Erreserba Federala	
- <u>Interes-tasen murrizketa</u> Tasak zerotik gertu daude	% 0 - % 0,25
- <u>Aktibo mugagabeak erosteko plana (QE)</u> Altxorren bonuak eta hipoteken titulizazioak erostea, merkatuak egoki funtziona dezan bermatzeko "beharrezko" neurrian.	mugagabea
- <u>Primary Market Corporate Credit Facility (PMCCF) eta Secondary Market (SMCCF)</u> Lehen eta bigarren mailako merkatuetan bonu korporatiboak erostea	500.000 M\$ 250.000 M\$
- <u>Term Asset-Backed Securities Loan Facility (TALF)</u> Familiatzako kontsumorako kredituak >	100.000 M\$
- <u>Commercial Paper Funding Facility (CPFF)</u> Paper komertzialaren finantzaketa, zor-agiriak eta zirkulatuzaileak erosiz.	10.000 M\$
- <u>Municipal Liquidity Facility</u> Udalerrietako eta estatuetako zorrak erostea >	500.000 M\$
- <u>Paycheck Protection Program Liquidity Facility (PPPLF)</u> Nominak Babesteko Programaren maileguen bidez babestutako finantzaketa	670.000 M\$
- <u>Main Street Lending Program</u> Beste ballabide batzuetatik kanpo geratu diren ETE-en finantzaketa	600.000 M\$

Iturria: Espainiako Bankua, 2019ko Urteko Txostena Geuk egina.

Egoera honen aurrean, mundu mailako burtsa-merkatuen erreakzioa ia berehalakoa izan da, jaitsieren (eta suspertzeren bat) segida historikoarekin. 2019a aurreko urteetan baino aldakortasun maila txikiagoarekin eta mundu mailako burtsa-indize nagusien hazkundearekin amaitu bazen ere, 2020ko lehen seihilekoan bestelakoa da egoera. Baloreen merkatuen baldintzak okertu egin dira bat-batean. Izan ere, osasun-krisia mundu mailan hedatzearen eta horrek sortutako ziurgabetasunaren ondorioz, kotizazioek behera egin dute orokorrean –mundu mailako finantza-krisiaz geroztik erregistratu gabeko intentsitatez– eta aldakortasunak egoera nabarmenak izan ditu.

39. grafikoa Ibex-35aren bilakaera. Hileko itxiera-balioaren gaineko urtetik urterako aldakuntza-tasa



Iturria: Espainiako Bankua eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionala.

2020ko lehen seihilekoaren amaieran, IBEX-35ak % 24,3ko atzerakada izan du –inoizko seihilekoko erregistrarik okerreana–, Europako indize nagusiek baino beherakada handiagoa (-% 18,2koa FTSEk eta -% 7,1koa Dax-ek). Era berean, nazioartean, Dow Jones (-% 9,6) zein Nikkei (-% 5,8) indizeen balioak jaitsi egin dira. Nasdaq indizea baino ez da hobetu (+% 12,1).

230. koadroa Burtsa-indize nagusien bilakaera

Urtea	Ibex-35 (Madril)	CAC-40 (Paris)	Dax-Xetra (Frankfurt)	FT-SE 100 (Londres)	Dow Jones (New York)	Nikkei (Tokio)	Eurostoxx 50	Nasdaq Composite
2018	8.539,9	4.730,7	10.559,0	6.728,1	23.327,5	20.014,8	3.001,4	6.635,3
2019	9.549,2	5.978,1	13.249,0	7.542,4	28.538,4	23.656,6	3.745,2	8.972,6
2020 1. seihil.	7.231,4	4.936,0	12.310,9	6.169,7	25.811,5	22.288,1	3.234,1	10.058,8
<i>Urte batetik besterako aldakuntza (%)</i>								
2019	11,8	26,4	25,5	12,1	22,3	18,2	24,8	35,2
2020 1. seihil.	-24,3	-17,4	-7,1	-18,2	-9,6	-5,8	-13,6	12,1

Oharra: 2018ko eta 2019ko abenduaren 31n, eta 2020ko ekainaren 30ean.

Iturria: Ekonomia Adierazleen datu-basea. Ekonomia eta Ogasun Ministerioa.

Badirudi nazioz gaindiko erakundeek, banku zentralek eta gobernuek hartutako neurriek eta eremu handi batzuetan osasun-krisiak izandako garapen positiboak pandemiaren lehen inpaktua baretu dutela. Dena den, urtearen lehen zatiko atzerakada garrantzitsua nork bere gain hartuta, bigarren seihilekoari egin behar diete aurre merkatuek, eta berragertze posibleetan eta AEBko eta Hego Amerikako egoera bereziki delikatu jarria dute arreta.

231. koadroa Kreditu-erakundeak eta EFC

Kontzeptua	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Erakunde kopurua. Guztira	272	262	250	245	238	232
Gordailu-erakundeak	224	217	206	205	198	195
Espainiako gordailu-erakundeak	138	135	124	122	115	114
EFC/ECAOL	47	44	43	39	39	36

Oharra: Erakunde kopurua. Guztizkora arteko aldea atzerriko sukurtsalei (gordailu-erakundeak) eta kreditu ofizialari (1 erakunde) dagokie.

Iturria: Espainiako Bankua.

Kreditu-erakundeen papera erabakigarria izango da krisialditik ateratzeko garaian. Izan ere, kaudimendun-egoeran daude eta erantzuteko ahalmena dute. Zehazki, aurreko urtearekin alderatuta, 2019aren amaieran gora egiten dute Espainiako kreditu-erakundeen kreditu-saldoak (+% 0,8) eta gordailuen bolumenak (+% 0,7). Era berean, aurrezteko modu tradizionalak duten errentagarritasun baxua kontuan izanda, aurrezkiaren zati bat inbertsio-funtsen bidez bideratzen da, eta horrek ondasunen hazkunde garrantzitsua eragiten du (+% 7,8). Bestetik, hedadura doitzen (6 entitate gutxiago) eta bulegoen sarea murrizten jarraitzen dute entitateek. Espainiako aurrez aurreko bulegoen sarean, ia 2.000 puntu gutxiago daude (-% 7,7). EAEn eta Nafarroan apalagoa izan da murrizketa (-% 6,8 eta -% 5,2, hurrenez hurren). Hau da, egoera honi aurre egiteko, balantzeak onbideratuta dituzte, eta erantzute-egitura askoz egokiagoa dute kostuei zein errentagarritasunari dagokienez.

232. koadroa Gordailu-erakundeak. Bulego kopurua

Urtea	EAE	Nafarroa	Espainia
2017	1.361	508	27.320
2018	1.314	485	26.011
2019	1.225	460	24.004

Iturria: Espainiako Bankua.

Era berean, finantza-entitateetako enplegua doitu egin da, benetako beharretara egokitzeko programen eta zerbitzuen digitalizatzeak izandako eraginaren ondorioz, baita langileen adina jaistearen ondorioz ere (60 urtekoen eta hortik gorakoen irteera programatuak eta pertsona gazteen kontratazioak). Hala, 2008tik 2019ra % 30 baino gehiago murriztu da enplegua. Covid-19ari erantzuna emateko, finantza-sareko langile askok telelanera pasatu behar izan dute, 0tik 100erako urratsa emanda. Dena den, aurrez aurreko arreta ere bermatu da eta konfinamenduaren fase zailenetan zein normaltasunerako itzulera progresiboan langile kopurua eta bulegoen irekitzea (kopurua

eta ordutegia) egokitzen joan dira. Sarearen tamainak eta finantza-jardueretako langile kopuruak doitzen jarraituko dute, batez ere, sektorean egiteko dauden berrantolaketa posibleen (fusioak) ondorioz. Gainera, baliteke telelana ezartzeko (modu eraginkorragoan eta antolatuagoan) epe ertainerako plan bat gehitzea.

233. koadroa Afiliazioa finantza-jardueretan

Urtea	Finantza- eta aseguru-jarduerak			Finantza-jarduerak, aseguruak eta pentsio-funtsak izan ezik		
	EAE	Nafarroa	Espainia	EAE	Nafarroa	Espainia
2017	13.733	3.370	321.481	8.889	2.372	209.215
2018	13.717	3.377	322.545	8.891	2.401	207.022
2019	13.609	3.259	320.453	8.820	Daturik ez	203.334

Oharra: Hileko batez besteko afiliazioa, urte bakoitzeko abenduan. Erregimen orokorra

Iturria: Gizarte Segurantzza.

2. KREDITU ERAKUNDEAK

2.1 KREDITUAREN BILAKAERA

Kredituaren bilakaera Estatuan

2019aren amaieran, Espainiako kreditu-erakundeen aktiboa 2,61 bilioi eurokoa da; hau da, urte arteko % 1,4ko igoera izan du. Eragile guztiek, bereziki sektore pribatuak, erregistratu duten finantza arloko desapalankamendu-prozesu garrantzitsuaren ondorioz, azken bederatzirteetan erregistratzen ari zen beheranzko joera hautsi du emaitza horrek.

Aktiboaren partida nagusia kreditua da; 2019a 1,74 bilioi euroko saldoarekin itxi du, urtetik urterako igoera % 0,8koa izan da, eta horrek modu nabarmenean lagundu du aktibo osoaren bilakaeran. Nabarmendu beharrekoa da 2008an krisia hasi zenetik honako hau izan dela hobekuntza erregistratu den lehen urtea. Hala, desapalankamendu handiaren garaia itxiztat eman liteke eta agerian geratuko litzateke kreditu berrietatik sortutako saldoa hasi dela emandako kredituen amaiera-erritmoa gainditzen; horrek erabilgarri dagoen kreditu-saldoa handitzea eragin du. Bestalde, saldoak hazi egin dira akzioetan eta partaidetzetan (+% 6,6), baita sektorizatu gabeko aktiboetan ere (+% 6), 0,25 eta 0,30 bilioi euroko balioekin, hurrenez hurren. Hain zuzen ere, akzioak eta partaidetzak ez diren balioen partidak baino ez du atzera egin.

Aktiboaren egitura mantendu egin da, eta kreditu-jarduera da partida nagusia (% 66,6 eta % 67, 2019an eta 2018an). Gainera, azken urteetan goranzko joera mantendu du –2014an % 62,0 izatetik, oraingo % 66,6ra–, gainerako partiden bilakaera dela-eta. Hala, 2018arekin alderatuz, pisua galdu edo mantendu egin dute beste enpresa batzuetako akzioek eta partaidetzak bai eta sektorizatu gabeko aktiboek ere (% 12,7tik % 12,1era eta % 11,1etik % 11,6ra, hurrenez hurren). Bi kasuetan, 2014az geroztik beheranzkoa da kreditu-erakundeetako aktiboari egindako ekarpenen joera (% 16,9 eta % 12,1, hurrenez hurren). Akzioak eta partaidetzak ez diren balioek, berriz, apur bat hobetu dute partaidetza (2018an % 9,2, eta orain % 9,6). Balio horien joera nahiko egonkorra da 2014az geroztik (% 9,0).

234. Koadroa Kreditu-erakundearen aktiboaren osaera

Kontzeptua	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Guztira	2.912.824	2.782.793	2.646.981	2.652.505	2.575.633	2.612.687
Kredituak	1.805.615	1.767.699	1.718.815	1.766.467	1.726.181	1.740.034
Akzioak eta partaidetzak ez diren balioak	492.346	415.493	365.826	329.512	326.042	316.423
Akzioak eta partaidetzak	261.536	246.274	243.811	259.602	236.416	252.012
Sektorizatu gabeko aktiboak	353.327	353.327	318.529	296.924	286.994	304.218

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Kreditu-inbertsioaren jomuga nagusia Beste Sektore Egoiliar batzuk (BSE) dira, familiak eta enpresak. 2019aren amaieran, 1,2 bilioi euroko saldoa eta urte arteko % 1,2ko jaitsiera jasan du partida horrek. Hortaz, desapalankamendurako joerak jarraitzen du, aurreko urteetan baino apalago bada ere (-% 3,6, -% 1,7, -% 3,8 eta -% 3,8; 2018an, 2017an, 2016an eta 2015an, hurrenez hurren). Baliteke, 2020a "normal" joan izan balitz, sektore pribatura bideratutako kredituaren goranzko joera itzuli izana, baina covid-19ak eragindako krisialdiak eta ekonomia- zein lan-jardueran izan duen eraginak, ziurrenik, atzeratu egingo dute.

Argi dago zorpetze pribatuaren egoera ezberdina dela 2020ko krisialdiari aurre egiteko, 2008koarekin alderatuta, orduko krisialdiaren iturburua finantzarioa eta higiezin burbuilari lotua izan baitzen. 2008an, sektore pribatuak jarritako kreditu-saldoa 1,9 bilioi eurokoa izan zen, eta, 2019an, 1,2 bilioitik beherakoa izan da, hau da, % 36 baxuagoa. Zorpetze-egoera horren ondorioz, berankortasunaren igoera potentzial bati aurre egiteko garaian, familien eta enpresen finantza-egoera apur bat hobea da, eta kreditu-erakundeena, berriz, ez da hain konprometitua.

Sektore ez-egoiliarrei emandako kreditua da bigarren partidarik esanguratsuena: 2019an 0,3 bilioi euro, aurreko urtean baino gehiago (+% 22). Kreditu sistemara bideratutako kredituari dagokionez, saldoa 0,2 bilioi eurokoa da; 2018ko saldoarekin alderatuta, uzkurdura handiagoa izan da (-% 10,1). Administrazio publikoei bideratutako kredituaren egoera antzekoa da, baina uzkurdura apalagoarekin (-% 2,9), eta 2019ko saldoa 0,07 bilioi eurokoa izan da. Azken agente horri dagokionez, bere zor-egoera faktore hauetan oinarritzen da: zorpetzean ezarritako muga, zorren jaulkipen-merkatura sarbidea berreskuratu izana eta bilketa-bolumenak. Faktore horiek, aldi berean, gutxitu egiten dute kanpoko finantzaketaren beharra.

235. koadroa Kreditu-erakundeak. Kreditua agenteen arabera

Kontzeptua	<i>(Meuro)</i>					
	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Guztira	1.805.615	1.767.655	1.718.815	1.766.467	1.726.181	1.740.034
Kreditu-sistema	155.097	164.206	163.053	234.694	211.861	190.494
AP	101.313	89.972	88.471	78.110	68.956	66.922
Beste sektore egoiliar batzuk	1.380.101	1.327.123	1.276.140	1.253.944	1.208.315	1.193.526
Beste ez-egoiliar batzuk	169.104	186.354	191.151	199.719	237.049	289.092

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Hala, kredituaren egitura ez da aldatu, eta beste sektore egoiliar batzuei dagokien zenbatekoak jarraitzen du nagusi izaten: kreditu-multzoaren bi heren (% 68,6), hain zuzen ere. Ildo horretan, eta jarritako zenbatekoekin bat etorritik, gainerako agenteek partaidetza txikiagoa dute: sektore ez-egoiliarak, % 16,6; kreditu-sistemak, % 10,9, eta, azkenik, administrazio publikoak, % 3,8, oso pisu txikia. Zentzu honetan, 2019ko partida guztien partaidetza jaitsi egin da apur bat, kanpo-sektorearena izanik igo den bakarra.

Gauzak horrela, kreditu-erakundeen jarduerak sortutako saldoa apur bat hobea izan da 2019an, aurreko urtean baino (+% 0,8). Izan ere, sektore ez-egoiliarra bideratutako kredituaren hazkundeak, urte arteko % 22koa izanik, gainerako kreditu-segmentuetan izandako jaitsiera konpentsatu du.

Kredituaren jomuga¹ Estatuan

Beste sektore egoiliar batzuen (edo sektore pribatuaren) kreditu-jomugak honakoak barne hartzen ditu: merkataritza-kreditua, eperako beste zordun batzuk eta beste mailegu batzuk. Eta, azken horien barruan sailkatzen dira ageriko zordunei, errentamendu finantzarioari eta kobrantza zalantzarrikako kredituei buruzko partidak.

2019aren amaieran, eperako beste zordun batzuen partida bilioi bat eurokoa da, eta urte arteko jaitsiera izan du berriro ere (-% 0,4). Bilakaera hori lotuta dago aurrez aipatutako finantza-saneamenduarekin; dena den, 2008ko krisialdia hasi zenetik izandako jaitsierarik apalena da. Beste mailegu batzuetara bideratutako kredituak ere urte arteko beherakada izan du (-% 10,6); 2013az geroztik, % 57,2ko galera metatu da partida horretan. Bestalde, merkataritza-kredituak bizitasun apur bat berreskuratu du. 2018an geraldari apal bat izan bazuen ere, 2019an berriro hazi da (+% 3,8). Hala, azken sei urteetan goranzko joera mantendu du. Hala ere, merkataritza-kredituaren hazkundera ez da nahikoa beste bi epigrafeetan izandako beherakada konpentsatzeko. Ondorioz, sektore pribatura bideratutako guztizko kredituak atzerakada jasan du (-% 1,2).

Aipatutako hiru epigrafeetako kreditu-saldoaren banaketa mantendu egin da. Izan ere, eperako beste zordun batzuen ekarpena handitu egin da (2018an % 85,9, eta 2019an, % 86,6), merkataritza-kredituarena mantendu (% 4,0tik % 4,2ra), eta beste mailegu batzuenak, berriz, murriztu (% 10,1etik % 9,1era).

236. koadroa Kreditu-erakundeak. Kredituak, motaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk

Kontzeptua	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Guztira	1.380.101	1.327.123	1.276.140	1.253.944	1.208.315	1.193.526
Merkataritza-kreditua	36.606	42.640	45.058	48.764	48.723	50.561
Eperako beste zordun batzuk	1.117.315	1.098.012	1.064.196	1.047.827	1.037.809	1.034.061
Beste mailegu batzuk	226.180	186.471	166.886	157.353	121.783	108.904

Iturria: *Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

¹ 2017az geroztik, Espainiako Bankuak ez du informazio bereizirik eskaintzen eperako beste zordun batzuen inguruan, berme erreal batean oinarritzen diren kredituei dagokienez, eta, horien barruan, hipoteka modalitatearen pean sinatutakoak. Aldaketa hori Europar Batasuneko sailkapen-eredurako egokitzapena dela-eta gertatu da (Europako Banku Zentrala).

Gordailu-erakundeetan erreparatuz gero (bankuek, aurrezki-kutxek eta kreditu-kooperatibek osatutako kreditu-erakundeen azpitaldea), 2019an emandako kreditu-saldoa 1,1 bilioi eurokoa izan da, aurreko urtekoa baino % 1,3 baxuagoa. Hala, bederatzigarren urtez jarraian beheranzko joera mantendu du, eta 2011z geroztik % 36,3ko galera metatu du.

Kreditu hau helburuaren arabera banatuz gero, ondorengoak dira bi partida nagusiak: ekoizpen-jarduerak eta etxebizitzaren erosketa edo birgaitzea. Bi partida horiek osatzen dute kreditu-saldoaren zatirik handiena (0,5 bilioi euro bakoitzak). Dena den, bi segmentuek beheranzko joera izan dute azken urteetan, eta urte arteko bilakaera negatiboa da (-% 2,8 eta -% 0,7, hurrenez hurren). Hala, 2011ko datuekin alderatuta, ekoizpen-jardueretara bideratutako kredituak % 44,9ko galera izan du, eta etxebizitzaren erosketa eta birgaitzera bideratutakoak, % 22,2koa.

Beste mailegu batzuetara bideratutako diru-kopuruak ere behera egin du (-% 4,3), kontsumo iraunkorreko ondasunen kreditua izanik hazi den bakarra (+% 20,5). Errekuperatzeko joera hartu du azken epigrafe horrek, duela urte batzuk balio oso baxuak izan arren. Izan ere, 2009tik 2013ra behera egin zuen finantzatu beharreko kontsumoak (ibilgailuen erosketa, adibidez). Hala ere, kontsumora bideratutako kredituaren igoerak ez du konpentsatzen aurrez aipatu ditugun hiru jomuga-segmentuek izandako atzerakada.


237. koadroa Gordailu-erakundeak. Kreditua, jomugaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk

Kontzeptua	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Guztira	1.328.189	1.274.656	1.222.541	1.199.079	1.150.231	1.135.590
Ekoizpen-jarduerak	647.426	619.954	582.060	570.220	526.659	512.107
Etxebizitzak erostea eta birgaitzea	568.212	541.032	524.780	511.355	504.165	500.474
Kontsumo iraunkorreko ondasunak	21.615	20.576	24.464	30.975	35.386	42.635
Beste kreditu batzuk	90.936	93.094	91.237	86.529	84.021	80.374

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Hala, gordailu-erakundearen kredituaren egitura honakoa da: % 45,1 ekoizpen-jarduerari dagokionez, % 44,1 etxebizitzak erosteari eta birgaitzeari, % 7,1 beste kreditu batzuei eta gainerako % 3,8a kontsumo iraunkorreko ondasunei. Orokorrean, ez da aldaketa nabarmenik izan, eta banaketa mantendu egin da. Dena den, joera jarraitu bat antzematen da, non ekoizpen-jarduerak pisua galtzen ari diren, eta etxebizitzak erosteko eta birgaitzeko finantzazioak gora egin duen. Era berean, kontuan izan behar da guztizko kreditu-bolumena jaitsi egin dela.

40. grafikoa Kreditu-erakundeak. Kreditua, jomugaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk



Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Kredituaren bilakaera EAEn eta Nafarroan


2019an, Euskal Herrian emandako kreditu-saldoa 84.578 milioi eurokoa izan da; ez da aldaketarik izan 2018arekin alderatuta (% 0,0). Izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoan kreditu-saldoaren hazkunde apal bat izan da (+% 0,1), eta Nafarroako Foru Komunitatean, berriz, beherakada txiki bat (-% 0,6). Bestalde, kreditu-saldoak joera ezberdina izan du EAE osatzen duten hiru lurralde historikoetan: Gipuzkoan hazi egin da (+% 3,6); Araban eta Bizkaian, berriz, atzera egin du (-% 3,9 eta -% 0,7, hurrenez hurren).

Estatuan, kreditu-saldo biziak behera egin du aurten ere (-% 1,4), eta 1,2 bilioi euroan geratu da. Atzerakada horretan eragina izan dute jomugako bi agenteek, nahiz eta Administrazio Publikoek atzerakada handiagoa izan duten beste sektore egoiliar batzuek baino (-% 3,0 eta -% 1,3, hurrenez hurren). Hala ere, administrazio publikoari dagokion pisua txikiagoa da (% 5,3; beste sektore egoiliar batzuek, berriz, % 94,7). Euskal Herriaren kasuan, sektore publikoaren dinamikotasunari esker (+% 4,3) mantendu da kreditu-saldoa (% 0,0); izan ere, sektore publikora bideratutako kredituak, kreditu pribatuaren beherakada apala (-% 0,5) orekatu du. Kreditu pribatuari dagokio kreditu-jardueraren zatirik handiena (% 89,8). Azkenik, aipatzekoa da Estatuko kreditu-saldo biziaren % 7,1 Euskal Herriari dagokiola, azken urteetako goranzko joerari jarraipena emanez (% 6,9 eta % 7,0, 2017an eta 2018an). Ratio hau apur bat handiagoa da administrazio publikoari bideratutako kredituaren kasuan (% 13,5), beste sektore egoiliar batzuen kasuan baino (% 6,7).

EAEn dagokion kreditu-saldoa ez da apenas hazi (% 0,1), izan ere, osagai publikoak izandako dinamikotasunak (% 6,6) konpentsatu egin du pribatuak jasandako atzerakada (-% 0,7). Sektore pribatuak beheranzko joera mantendu du, baina 2018an (-% 4,6) baino beherakada apalagoa pairatu du. Datu horrek, desapalankamendu fasearen amaiera

erakusten du; Estatuan baino laburragoa izan da desapalankamendu fasea EAEn. Atxikitako grafikoak beste sektore egoiliar batzuetako kreditu-saldoaren urte arteko bilakaeraren profila erakusten du; horrela, 2008. eta 2012. urteen artean izandako beheranzko doikuntza garrantzitsua nabarmentzen da, 2012 eta 2014 artean mantendu zena. 2014az geroztik, berriz, profila aldatu egiten a eta pixkanakako susperraldia hasten da, doikuntzarako joera orokor horren barruan. Hori bai, denbora-tarte osoan, urte arteko tasak negatiboak dira, eta datu horrek egindako desapalankamendu prozesuaren garrantzia nabarmentzen du.

41. grafikoa Gordailu-erakundeak. Beste sektore egoiliar batzuei emandako kredituaren bilakaera



Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

EAEko beste sektore egoiliar batzuetan emandako murrizketa (-% 0,7), Araban eta Bizkaian izandako jaitsieraren ondorioz gertatu da (-% 2,9 eta -% 1,2, hurrenez hurren). Gipuzkoako igoera (+% 1,2) ez da nahikoa izan beste bi lurraldeetako jaitsierak konpentsatzeko. Kredituaren ekarpenaren¹ osaera ez da aldatu. Bizkaiari esleitzen zaio kopururik handiena, % 59,3, Gipuzkoari % 28,0 eta Arabari % 12,7. Lurralde bakoitzeko bi bezero-segmentuen partaidetzak baldintzatzen dituzte kopuru horiek.

¹ Ezin da zuzenean lurralde bakoitzeko agenteek emandako kreditu gisa hartu. Izan ere, entitateek lurralde bakoitzari egindako esleipenean oinarritzen da (bulegoen finkapenaren eta jardueraren araberakoa). Egoitzarekin lotura duten faktoreek ere eragina dute. Kredituaren lurraldekako banaketa-egitura honetan badirudi Bizkaiak neurriz kanpoko ordezkariak duela (% 59,3), BPGari egiten dion lurralde-ekarpena kontuan izanda (% 50,6). Gipuzkoak eta Arabak, berriz, kredituaren esleipen-kuota baxuagoak dituzte (% 28,0 eta % 12,7), BPGan duten partaidetzarekin alderatuta (% 33,3 eta % 16,6).

238. koadroa Gordailu-erakundeak. Kreditua, agenteen eta lurraldearen arabera

<i>(Meuro)</i>				
Lurraldea	Urtea	AP	BSE	GUZTIRA
Araba	2017	2.531	8.011	10.542
	2018	1.369	7.699	9.068
	2019	1.234	7.477	8.711
Bizkaia	2017	3.505	37.849	41.354
	2018	5.329	35.535	40.864
	2019	5.472	35.122	40.595
Gipuzkoa	2017	576	18.389	18.965
	2018	450	18.085	18.535
	2019	912	18.298	19.210
EAE	2017	6.612	64.249	70.861
	2018	7.148	61.319	68.467
	2019	7.618	60.897	68.515
Nafarroa	2017	1.338	15.183	16.521
	2018	1.100	15.052	16.152
	2019	982	15.082	16.063
Euskal Herria	2017	7.950	79.432	87.382
	2018	8.248	76.371	84.619
	2019	8.600	75.979	84.578
Espainia	2017	74.339	1.199.107	1.273.446
	2018	65.740	1.150.228	1.215.968
	2019	63.786	1.135.590	1.199.375

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Azkenik, EAEn administrazio publikoetara bideratutako kreditua hazi egin da 2019an (+% 6,6). Bizkaiko eta Gipuzkoako gorakadek (+% 2,7 eta +% 102,7), Arabako atzerakada konpentsatu dute (-% 9,9). Bizkaiko hazkundea funtsezkoa izan da, izan ere, administrazio publikora bideratutako kredituaren zati handia egokitzen zaio, guztizkoaren % 71,8; Gipuzkoak pisu txikiagoa du, kredituaren % 12 egokitzen baitzaio, eta Arabari % 16,2. Nafarroari dagokionez, administrazio publikoaren kreditu-saldoa nabarmen jaitsi da azken urtean (-% 10,7), eta 1.000 milioi eurotik beherakoa da.

Beste adierazle batzuk: hipoteken eraketa eta ibilgailuen matrikulazioa

2019ko kreditu-jardueraren bilakaeraren inguruan emandako informazioa osatzeko, familien bi inbertsio-eremu nagusiak aztertzen dira jarraian: etxebizitza erostea eta birgaitzea, eta autoa erostea.

2019an, 357.936 hipoteka gauzatu dira Estatuan etxebizitzak erosteko, aurreko urtean baino % 2,8 gehiago. Hala, 2014an hasitako suspertze-joerari jarraipena ematen zaio. Dena den, hipoteken kopurua 2008an baino askoz txikiagoa da oraindik; guztira 836.419 hipoteka berri gauzatu ziren urte hartan, hipotekak puri-purian zeudenean, eta azken hamarkadan metatutako galera % 57,2koa izan da.

EAEn, azken urtean 18.424 hipoteka berri sinatu dira, hau da, urtetik urtera % 1,4ko igoera –Estatuan erregistratutako igoeraren erdia–. Azken bost urteetan goranzkoa izan da

joera, nahiz eta 2019ko balioa 2008koa baino % 41,9 txikiagoa den oraindik; izan ere, 2008an erregistratu zen orain arteko kopururik altuena. Nafarroaren kasuan, azken bost urteetako goranzko joera eten egin da, eta 2018an baino % 9,3 hipoteka gutxiago gauzatu dira 2019an: 4.296, 2008an baino % 50,1 gutxiago.

239.koadroa Etxebizitzaren gaineko hipoteka berrien eraketa

Kontzeptua	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Espainia						
Hipoteka kopurua	204.302	246.767	282.707	312.843	348.326	357.936
Zenbatekoa guztira (milioi €)	20.891	26.339	31.037	36.665	43.285	44.733
<i>Batez besteko zenb. (mila €)</i>	<i>102,25</i>	<i>106,74</i>	<i>109,79</i>	<i>117,20</i>	<i>124,27</i>	<i>124,98</i>
EAE						
Hipoteka kopurua	11.469	14.283	15.574	16.799	18.169	18.424
Zenbatekoa guztira (milioi €)	1.380	1.852	2.049	2.231	2.555	2.679
<i>Batez besteko zenb. (mila €)</i>	<i>120,29</i>	<i>129,65</i>	<i>131,59</i>	<i>132,83</i>	<i>140,63</i>	<i>145,38</i>
Nafarroa						
Hipoteka kopurua	3.710	3.769	3.990	4.069	4.739	4.296
Zenbatekoa guztira (milioi €)	384	389	405	430	514	500
<i>Batez besteko zenb. (mila €)</i>	<i>103,37</i>	<i>103,11</i>	<i>101,45</i>	<i>105,72</i>	<i>108,46</i>	<i>116,34</i>

Iturria: Hipoteken Estatistika. EIN. Geuk egina.

2019an Estatuan eratutako hipoteken balio monetarioa 44.733 milioi eurokoa izan da. Hortaz, hipoteka bakoitzeko batez besteko zenbatekoa 124.975 eurokoa izan da. Bi parametroek aldeko bilakaera izan dute 2014az geroztik, baina oraindik krisialdiaren aurreko balioetatik urrun daude. 2008an, 116.810 milioi eurokoa izan zen guztizko zenbatekoa, eta, hipoteka bakoitzeko batez besteko zenbatekoa, 139.655 eurokoa.

EAEan eratutako hipoteken balio monetarioa 2.679 milioi eurokoa izan da 2019an, aurreko urtekoa baino % 4,9 handiagoa. Hipoteka kopurua, berriz, % 1,4 hazi da, eta hipoteka bakoitzeko batez besteko zenbatekoa 145.382 eurokoa izan da. 2008ko datuekin alderatuta, guztizko zenbatekoa % 48,1 txikiagoa da, eta hipoteka bakoitzeko batez besteko zenbatekoa % 10,5 baxuagoa. Horrek esan nahi du hipoteka gutxiago eratzten direla, baina zenbateko handiagokoak. Nafarroari dagokionez, eratutako hipoteken balioa 500 milioi eurokoa izan da. Atzerakada izan du, 2014an suspertzea hasi zenetik lehen aldiz. Eratutako moneta-balioak -% 2,7ko galera izan du; hipoteka kopurua, berriz, % 9,3 jaitsi da. Hortaz, 2019an batez besteko zenbatekoa 116.335 eurokoa izan da. Datu guzti horiek kontuan izanda, EAEk du batez beste hipotekarik altuena (145.382 euro), Estatua da hurrengoa (124.975 euro), eta, azkenik, Nafarroa (116.335 euro).

Krisialdia hasi zenean, nabarmen hazi ziren indarrean zeuden hipoteka-maileguetan egindako aldaketak¹, baina urtetik urtera aldaketa gutxiago egiten dira. Azken hamarkadan, hamarren batera jaitsi dira hipoteketan egiten diren moldaketak: 2019an, 38.700 hipoteka moldatu ziren notario aurrean; aldiz, 2009an, 339.650 hipoteketan izan zen aldaketaren bat. Joera hori EAEn eta Nafarroan ere izan da. Azken urtean 1.133 eta 169 hipoteka baino ez dira moldatu, hurrenez hurren.

240.koadroa Aldaketa notarialak erregistratu dituzten etxebizitzaren gaineko hipotekak

Kontzeptua	(hipoteka kopurua)								
	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Espainia	188.991	184.262	154.436	129.109	105.550	87.217	56.269	48.446	38.700
EAE	1.856	2.138	1.925	1.684	1.863	1.520	1.160	1.379	1.133
Nafarroa	902	882	681	583	616	477	371	305	169

Iturria: Hipoteken Estatistika. EIN. Geuk egina.

Bestalde, 2019an matrikulatutako turismo kopuruaren bilakaerak argi erakusten du ibilgailuen salerosketa geldotu egin dela kontuan hartutako hiru lurralde-eremuetan. Estatuan, azken sei urteetako goranzko joera hautsi da, eta % 4,8 murriztu da turismoen matrikulazioa.

Estatu osoan, 1.258.260 ibilgailu berri matrikulatu dira 2019an. EAEn ere atzerakada izan da, 2018an baino % 4,6 turismo gutxiago matrikulatu baitira, 39.763 hain zuzen ere. Azkenik, auto-salerosketak Nafarroan jaitsi dira gehien (-% 13,5); 2019an guztira 11.449 ibilgailu matrikulatu dira bertan.

241.koadroa Ibilgailuen matrikulazioaren bilakaera. Turismoak

Kontzeptua	(unitateak)				
	2015	2016	2017	2018	2019
Espainia	1.034.232	1.147.007	1.234.932	1.321.437	1.258.260
EAE	37.601	38.547	39.622	41.701	39.763
Nafarroa	10.690	10.814	12.314	13.243	11.449

Iturria: Anfac.

¹ Zehazki, hauei egiten die erreferentzia: nobazioa (hipoteka kontratatu ondoren egiten den eta kontratua berriro negoziatzeko aldean borondateen akordio berri bat eskatzen duen edozein aldaketa), hartzekodunaren subrogazioa (banketxez aldatzea, eta, beraz, kontratuak baldintza berriak izatea) eta zordunaren subrogazioa (hipotekaren titularra aldatzea, titular berriaren onarpenarekin; kontratuaren baldintzetan aldaketak egon daitezke edo ez). Hauek dira adierazitako aldaketen alderdi nagusiak: epea, zenbatekoa, erreferentzia mota eta/edo aplikatutako diferentziala.

Berankortasunaren bilakaera ¹

Sektore pribatuaren (BSE) berankortasun-tasak honakoa adierazten du: emandako finantzaketa osoarekin alderatuta ordaindu gabeko edo kobrantza zalantzagarriko kredituen ehunekoa. 2019an berriro ere murriztu da ratio hori, % 4,8ra. Azken ia hamar urteetan, % 5etik behera kokatzen den lehen aldia da. 2013an izan zuen orain arteko balio maximoa (% 13,8), eta, orduetik, behera egin du sei urtez jarraian. Ekonomiaren suspertzeak eragina izan du ratioaren hobekuntzan, izan ere, familien zein enpresen egoera ekonomikoa hobea izanik, gutxiago dira kreditu-zorra ordaintzen ez dutenak.

242. koadroa Gordailu-erakundeak. Zalantzazkoen edo berankortasunaren guztizko tasaren bilakaera. Beste sektore egoiliar batzuk

Urtea	Zalantzazko kredituak	Kredituak	(M euro)
			(Zalantzazkoak/Kredituak) x100
2014	167.473	1.328.189	12,6
2015	129.984	1.274.653	10,2
2016	112.275	1.222.511	9,2
2017	94.174	1.199.106	7,9
2018	67.199	1.150.231	5,8
2019	54.301	1.135.590	4,8

Iturria: *Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina.*

Zalantzazko kredituen ratioa kreditu-xedearen arabera xehatuta, eta ekoizpen-jardueri dagokienez, 2019an berankortasun ratioa % 5,5era jaitsi da, aurreko urtean baino ehuneko 1,4 puntu gutxiago. Berankortasunak gehien eragiten dien ekoizpen-jarduerak honako hauek dira: eraikuntza² (% 12), nekazaritza eta arrantza (% 6), eta, azkenik, zerbitzu-sektorea (% 5,1). Dena den, 2014az geroztik jarduera-adar guztiek aldeko joera dute eta berankortasuna murriztu egin da.

¹ Ez dugu autonomia-erkidegoen arabera bereizitako informaziorik.

² Kalte handia jasan zuen krisialdiaren aurreko kreditu-hedapenagatik eta jarduera horren ondorengo gainbeheragatik (aktiboan balio-galera, salmenten beherakada, enpresa-likidazioak, etab.).

243. koadroa Gordailu-erakundeak. Zalantzazkoen edo berankortasun-tasaren bilakaera, kredituaren helburuen arabera. Beste sektore egoiliar batzuk

(Guztizkoaren gaineko % zalantzarriak)

Kontzeptua	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Zalantzazkoak guztira	12,6	10,2	9,2	7,9	5,8	4,8
Ekoizpen-jarduerak	18,9	14,9	13,3	10,4	6,9	5,5
Nekazaritza eta arrantza	12,2	10,2	9,1	7,5	6,3	6,0
Industria	13,3	11,2	9,1	8,8	6,3	5,6
Eraikuntza	33,7	30,9	29,7	24,5	14,0	12,0
Zerbitzuak	18,9	14,4	13,0	9,9	6,6	5,1
<i>Higiezinak</i>	36,2	27,4	25,4	18,2	9,6	5,2
<i>Finantzak (ez banka)</i>	2,4	2,1	2,1	0,3	0,3	0,2
<i>Merkataritza eta konponk.</i>	15,6	12,9	11,5	10,5	9,1	8,5
<i>Garraioa eta biltegiak</i>	17,3	13,1	8,3	6,4	5,4	4,8
<i>Ostalaritza</i>	20,4	17,2	14,6	10,8	7,9	5,8
<i>Beste zerbitzu batzuk</i>	12,2	9,9	8,8	8,7	6,4	5,3
Beste helburu batzuk /familia	6,6	5,5	5,4	5,3	4,9	4,1
Etxebizitza erostea/birgaitzea	5,7	4,7	4,6	4,6	3,9	3,3
Beste batzuk	12,2	10,0	10,0	9,2	9,2	8,0
Gainerakoak	6,3	16,6	7,0	13,2	7,5	6,0

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

244. koadroa Gordailu-erakundeak. Zalantzazko kredituaren bilakaera, helburuen arabera. Beste sektore egoiliar batzuk

(M euro)

Kontzeptua	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Zalantzazkoak guztira	167.473	129.984	112.275	94.174	67.199	54.301
Ekoizpen-jarduerak	122.312	92.186	77.335	59.943	36.541	28.302
Nekazaritza eta arrantza	2.145	1.824	1.706	1.506	1.318	1.275
Industria	14.085	11.773	9.407	9.121	6.421	5.473
Eraikuntza	15.961	12.947	11.304	8.053	3.901	2.914
Zerbitzuak	90.120	65.641	54.918	40.813	24.900	18.640
<i>Higiezinak</i>	53.732	36.670	30.275	19.759	8.387	4.559
<i>Finantzak (ez banka)</i>	2.385	2.067	1.690	274	163	136
<i>Merkataritza eta konponk.</i>	10.467	8.659	7.768	7.506	6.681	6.366
<i>Garraioa eta biltegiak</i>	4.968	3.635	1.690	1.920	1.611	1.432
<i>Ostalaritza</i>	5.686	4.612	3.881	2.889	2.057	1.545
<i>Beste zerbitzu batzuk</i>	12.883	9.981	9.026	8.465	6.001	4.601
Beste helburu batzuk/familia	44.171	34.736	33.652	32.712	29.690	25.337
Etxebizitza erostea/birgaitzea	32.308	25.204	23.930	23.274	19.857	16.374
Beste batzuk	11.863	9.532	9.722	9.438	9.833	8.963
Gainerakoak	990	3.080	1.288	1.969	968	662

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Familietara bideratutako kredituaren berankortasun-tasa % 4,1ekoa izan da 2019an. 2013an izan zuen balio maximoa, eta, orduetik, beheranzko joera izan du sei urtez jarraian. Etxebizitzak erostera eta birgaitzera bideratutako partidak du segmentuko berankortasun-tasarik txikiena (% 3,3), eta ekoizpen-jardueren tasaren azpitik kokatu da uneoro.

Hortaz, nabarmentzekoa da ondorengoa: kreditua jasotzen duten bezero-segmentu guzti-guztiek izan dute beheranzko joera azken urteetan, berankortasun-tasari

dagokionez. Era berean, kobrantza zalantzagarriko kreditu-saldoen kasuan ere, joera beheranzkoa da: 2018an 67.199 milioi eurokoa izan zen; 2019an, berriz, 54.301 milioi eurokoa, % 19,2 gutxiago. Hala ere, berankortasun-ratio guzti horiek gora egin dezakete 2020an, egungo krisialdia dela-eta.

2.2 GORDAILUEN BILAKAERA

Estatuko kreditu-erakundeetako gordailuak

2019an, kreditu-erakundeetako gordailuen saldoak¹ gora egin du Estatuan: 1,85 bilioi euro, aurreko urtean baino % 0,7 gehiago. Datu horrek nolabaiteko suspertzea erakusten du 2018arekin alderatuta. Dena den, joera orokorra beheranzkoa da, eta azken hamar urteetan % 20,6ko galera pilatu da. Pasiboaren partida nagusia beste sektore egoiliar batzuei dagokie: 1,3 bilioi euro, aurreko urtean baino % 3,9 gehiago. Bestetik, behera egin dute kreditu-sistemaren gordailuek (-% 11,8) eta administrazio publikoei dagozkienek (-% 3,3). Kanpoko sektorearen saldoa, berriz, oso arinki igo da 2018koaren aldean (+% 0,4). Hala, kreditu-erakundearen pasiboaren osaerak agerian uzten du beste sektore egoiliar batzuen pisua (% 68,2); kanpo-sektorea (% 14,3) eta kreditu-sistema (% 13,7) dira hurrengoak, alde dezentearekin. Azkenik, administrazio publikoek oso pisu txikia dute (% 3,8).

245. koadroa Kreditu-erakundeak. Kreditu-erakundeetako gordailuak, agenteen arabera

Kontzeptua	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Guztira	1.997.363	1.940.297	1.866.552	1.866.973	1.836.493	1.848.536
• Kreditu-sistema	311.533	302.810	288.158	327.483	287.838	253.978
• AP	76.150	77.058	54.371	61.722	71.785	69.445
• Beste sektore egoiliar batzuk	1.289.280	1.261.388	1.242.580	1.202.893	1.212.837	1.259.938
• Beste ez-egoiliar batzuk	320.400	299.061	281.444	274.874	264.033	265.174

Iturria: *Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

Beste sektore egoiliar batzuetan barneratzen diren agenteek egindako gordailuak tipologiaren arabera banatuta, ikus daiteke 2019an gordailuaren zatirik handiena agerikoa edo aurrezki erakoa izan dela (% 81,1). Eperako gordailuek pisu txikiagoa dute (% 15,6), eta gainerakoak, % 3,3, "beste batzuk" epigrafean bildu ditugu: aktiboen aldi baterako lagapena, aktiboen transferentziagatik eratutako pasiboak, finantza-pasibo hibridoak, edota mendeko gordailuak. Kontuan izan behar da eperako aurrezki-gordailuek erakargarritasuna galtzen dutela ordainsariak eskasak direnean, edota ordainsaririk apenas dagoenean.

¹ Kontuan izan behar da ez dagoela pasibo-posizioetako aurrezkiaren neurri osorik; hortaz, gordailu-figugetarantz bideratzeaz gain, beste inbertsio-xede batzuetara lekualdatu ahal izan dira, hala nola funtsetara, baloreetara edo beste forma batzuetara (higiezinak, esaterako).

246. koadroa Kreditu-erakundeak. Gordailuak moten arabera. Beste sektore egoiliar batzuk


Kontzeptua	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Guztira	1.289.280	1.261.388	1.242.580	1.202.893	1.212.837	1.259.938
• Agerikoa edo aurrezkoa	562.629	650.098	753.624	857.135	931.257	1.021.213
• Eperakoa	597.338	508.753	403.567	286.365	231.450	196.656
• Bestelakoak	129.313	102.537	85.389	59.393	50.130	42.069

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Aipatu beharrekoa da 2013az geroztik eperako gordailuen zati handi bat ageriko kontuetara pasatu dela. Izan ere, ia errentagarritasunik ez dagoenez, likidezia izateari eman zaio lehentasuna. Hain zuzen ere, 2019an, ageriko gordailuetako saldoa duela sei urtekoaren bikoitza izan da: 2013an 0,5 bilioi euro izatetik orain bilioi bat euro izatera. Hala, sektore pribatuaren gordailuen osaera asko aldatu da. 2013an, honakoa zen banaketa: % 38,1 ageriko gordailuetan, % 51,5 eperako gordailuetan eta % 10,4 "bestek" kategorian. 2019an, berriz, % 81,1, % 15,6 eta % 3,3, hurrenez hurren.

Gordailuen bilakaera EAEn eta Nafarroan

2019an, Euskal Herriko gordailuetako saldoa 105.321 milioi eurokoa izan da: aurreko urteko zifra baino dezente handiagoa (+% 6,5). Igoera horri esker, 100.000 milioi euroren langa pasatu da, eta azken urteetako goranzko joera sendotu da. Estatuan ere gora egin du gordailuen saldoak (+% 4,2), baina Euskal Herrian baino modu apalagoan. Ondorioz, EAEk eta Nafarroak Estatu osoko gordailuetan duten partaidetza % 8,2ra igo da. Datuak lurraldeka aztertuta, Gipuzkoak (+% 8,4), Bizkaiak (+% 6,3) eta Arabak (+% 4,2) goranzko joera dute. Hala, EAEn erregistratutako urte arteko hazkundea Nafarroakoa baino apur bat handiagoa izan da (+% 6,6 EAEn, eta +% 5,8 Nafarroan).



Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

247. koadroa Gordailu-erakundeak. Beste sektore egoiliar batzuen eta administrazio publikoen gordailuak.

(M euro)

Lurraldea	Urtea	AP	BSE	GUZTIRA
Araba	2017	926	9.977	10.903
	2018	967	10.234	11.202
	2019	916	10.756	11.672
Bizkaia	2017	1.887	42.572	44.459
	2018	2.902	42.102	45.005
	2019	3.250	44.589	47.838
Gipuzkoa	2017	414	23.886	24.300
	2018	537	24.774	25.311
	2019	634	26.790	27.425
EAE	2017	3.227	76.435	79.662
	2018	4.406	77.110	81.518
	2019	4.800	82.135	86.935
Nafarroa	2017	1.061	15.778	16.839
	2018	931	16.440	17.371
	2019	867	17.519	18.386
Euskal Herria	2017	4.288	92.213	96.501
	2018	5.337	93.550	98.889
	2019	5.667	99.654	105.321
Espainia	2017	60.910	1.146.917	1.207.827
	2018	70.862	1.165.030	1.235.892
	2019	68.817	1.218.981	1.287.798

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Gordailuen bezero-segmentu nagusia beste sektore egoiliar batzuek osatzen dute, eta azken urtean % 6,5 hazi da, 2018arekin alderatuta. Igoera honek lotura du EAEko (+% 6,5) eta Nafarroako (+% 6,6) gordailuen hazkundearekin. Izan ere, Estatuan (+% 4,6) baino gehiago hazi direnez, hobetu egin da Euskal Herriak Estatuko beste sektore egoiliarretako gordailuetan duen partaidetza-tasa (% 8,2). Lurraldeka aztertuta, gordailuetako saldoaren hazkundera orokorra dela ikus daiteke Gipuzkoan (+% 8,2), Bizkaian (+% 5,9) eta Araban (+% 5,1). Hala, mantendu egin dute EAERI egiten dioten ekarpena (% 32,6, % 54,3 eta % 13,1, hurrenez hurren).

Administrazio publikoen segmentuari dagokionez, garrantzia eskaseko partida da kontuan hartutako lurralde-eremu guztietan. Euskal Herriko administrazio publikoen gordailuei EAEk (% 84,7) eta Nafarroak (% 15,3) egindako ekarpenak mantendu egin dira. EAEko hiru lurralde historikoetan, berriz, gordailuaren banaketa¹ nahiko ezberdina da: Bizkaiari dagokio saldoaren zatirik handiena (% 67,8), Araba da hurrengoa (% 19), eta, azkenik, Gipuzkoa (% 13,2). Hala, Estatuko administrazio publikoen gordailuen guztizkoaren gainean, Euskal Herriaren sarrera-tasa % 8,2koa da.

¹ Ikusi kredituari buruzko atalean jasotako azalpen-oharra.

Aurrezkiaren beste adierazle batzuk

2019an, Estatuko familien aurrezki-tasa % 6,3koa izan da, 2011z geroztik erregistratutako indizearik altuena. Dena den, krisialdi garaiko aurrezki-malla (% 8-9) baino baxuagoa da oraindik. Indize horrek adierazten du familiek errenta gordin erabilgarriaren zein ehuneko aurrezten duten. Aurreko urtearekin alderatuta, errenta erabilgarria % 4 igo bada ere, aurrezten den zenbatekoa % 29,2 hazi da. Hala, 2019an familiek errentaren zati handiagoa bideratzen dute aurrezki-eragiketetara, eta, hortaz, zati txikiagoa erabiltzen dute gastuak estaltzeko.

Enpresen kasuan, aurrezki-tasak goranzko joera hartu zuen 2011tik 2016ra (% 26,8tik % 34,0ra igo zen). 2016az geroztik, ordea, beherantz egin du indizeak, eta 2019an % 31,5ekoa izan da. Enpresen finantza-egoera saneatuta dagoela erakusten dute emaitza horiek.

248.koadroa Errenta gordin erabilgarria, balio erantsi gordina eta aurrezki gordina

Kontzeptua	2014	2015	2016	2017	2018	2019
<i>(M euro)</i>						
Familiak						
• Errenta gordin erabilgarria	770.342	801.937	823.332	847.465	879.213	914.500
• Aurrezki gordina	41.473	48.990	49.249	39.766	44.260	57.175
• Aurrezki-tasa (%)	5,38	6,11	5,98	4,69	5,03	6,25
Soz. ez-finantzarioak						
• Balio erantsi gordina	530.054	556.189	576.785	605.026	623.545	648.175
• Aurrezki gordina	171.653	185.127	196.239	202.075	198.837	204.042
• Aurrezki-tasa (%)	32,4	33,3	34,0	33,4	31,9	31,5


Iturria: Espainiako Kontabilitate Nazionala. Kontu ez-finantzarioak. Geuk egina.

Interes-tasaren, kostuaren eta ordainketaren bilakaera

2019An, Europako Banku Zentralak (EBZ) ibilbide-orria nabarmen aldatzen du eta aurreikusita zuen moduan 2019 amaieran interes-tasa igo orde, igoera 2020ko lehen seihilekora atzeratzea erabakitzen du. Hala, birfinantzaketako interes-tasa % 0an mantenduko da, EBZk inflazioaren aurreikuspena % 2ra gerturatzen dela ikusi arte, kopuru hori gaintitu gabe. Dena den, 2020ko krisialdiak utziko duen egoera kontuan izanda, baliteke interes-tasa igotzeko erabakia berriro ere atzeratzea.

43.grafikoa Birfinantzaketako interes-tasaren bilakaera. Europako Banku Zentrala

(%)



Iturria: Europako Banku Zentrala.

Kreditu-erakundeentzat, bezero-segmentu ezberdinei egindako kobrantzen eta ordainketen arteko konbinaketa funtsezkoa da haien funtzionamendurako eta lortzen dituzten emaitzetarako (bitartekaritza-marjinak). Azken boladan, interes-tasak baxuak izan direnez, bitartekaritza-marjina txikitu egin da, eta erakundeek beste diru-iturri batzuetara jo dute (komisioak).

Familien segmentuari dagokionez, maileguak honako helburuetarako erabili dira gehienbat: etxebizitzak erosi eta birgaitzeko, kontsumora bideratutako kreditu-saldoa eta beste helburu batzuk. Hala, hiru finantzaketa-eremu horiei ezarritako interes-tasak berriz ere murriztu dira 2019an, azken hamarkadako beheranzko joerari jarraituz. Hauek dira interes-tasak, hurrenez hurren: % 1,69, % 6,66 eta % 3,04. Sozietate ez-finantzarioen segmentuan ere, aldaketak izan dira eta interes-tasak jaitsi egin dira, ondorioz, enpresa-finantzaketa merkatu egin delarik. Hain zuzen ere, aplikatutako interes-tasak beherakorrak dira, kredituaren zenbatekoarekin batera.

249. koadroa Kreditu-erakundeak. Familietarako⁽²⁾ eta sozietate ez-finantzarioetarako eragiketa berriei aplikatutako interes-tasak (TEDR)

	(%)			
	2016	2017	2018	2019
FAMILIETARAKO MAILEGUAK ETA KREDITUAK⁽²⁾				
- Etxebizitza ⁽¹⁾	1,91	1,83	1,99	1,69
- Kontsumoa ⁽¹⁾⁽³⁾	7,12	7,24	6,92	6,66
- Beste helburu batzuk ⁽¹⁾	3,62	3,36	3,27	3,04
SOZIETATE EZ-FINANTZARIOETARAKO MAILEGUAK ETA KREDITUAK				
- Zorpekoak	1,66	1,55	1,74	1,56
- 250.000 €-ra arteko kredituak ⁽¹⁾	2,64	2,33	2,05	1,87
- 250.000 eta 1.000.000 € arteko kredituak ⁽¹⁾	1,79	1,68	1,50	1,40
- 1.000.000 € baino gehiagoko kredituak ⁽¹⁾	1,60	1,51	1,53	1,23
FAMILIEN GORDAILUAK⁽²⁾				
- Agerikoak	0,06	0,04	0,03	0,03
- Eperakoak ⁽¹⁾	0,11	0,08	0,05	0,04
• 1 urte arte	0,10	0,07	0,05	0,02
• 2 baino gehiago	0,07	0,08	0,17	0,18
SOZIETATE EZ-FINANTZARIOEN GORDAILUAK				
- Agerikoak	0,15	0,10	0,08	0,07
- Eperakoak ⁽¹⁾	0,13	0,16	0,37	0,38
• 1 urte arte	0,11	0,17	0,39	0,36
• 2 baino gehiago	0,48	0,33	0,74	0,92

(1): Batez besteko tasa haztatua, produktu desberdinei dagokienez, epearen arabera. Abenduaren 31n.

(2): Familiak eta familien zerbitzura dauden irabazi-asmorik gabeko erakundeak.

(3): 2010eko maiatzetik, kreditu-txartelen bidez emandako kreditua ere sartzen da.

TEDR: Definizio mugatuko tasa efektiboa, hau da, komisiorik gabeko UTB.

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina.

Azkenik, familietako zein sozietate ez-finantzarioetako aurrezkiari aplikatutako interes-tasek agerian uzten dute gordailuen errentagarritasun baxua, orokorrean; izan ere, kreditu-erakundeetan gordailuen errendimendua % 0 ingurukoa da. Sozietate ez-finantzarioen eperako gordailuen errendimendua apur bat hobea da, baina, hala ere, oso baxua izaten jarraitzen du.

3. INBERTSIO KOLEKTIBOKO ERAKUNDEAK

Inbertsio Kolektiboko Erakundeek (IKE) goranzko joera berreskuratu zuten 2019an, eta urte arteko % 7,6ko hazkundera izan zuten. Hala, 2018ko jaitsierari (-% 3,2) aurre egin zioten; jaitsiera hura puntuala izan zen, aurreko bost urteetan goranzko joera egonkorra izan baitzuten. 2019an 311.568 milioi eurokoa izan zen IKE-en guztizko ondarea. Erregistratutako IKE-en instituzio kopurua, berriz, 4.233ra jaitsi zen (-% 3,5).

IKE-en ondarearen osaerari dagokionez, aipatzekoa da Higarrietako Inbertsio Funtzen (HIF) garrantzia, ondarearen bolumenaren zati handiena haiei baitagokie (% 89,7). 2019an, % 7,8ko hazkundera izan zuten, aurreko urtearekin alderatuta. Kapital Aldakorreko Inbertsio Sozietateek (SICAV) partaidetza askoz txikiagoa dute, guztizkoaren % 9,2, eta horiek ere gora egin zuten (+% 3,4). Azkenik, inbertsio libreko IKE-ek, sinpleek zein konposatuek, partaidetza oso txikia dute (% 0,9 eta % 0,2, hurrenez hurren), eta 2019an ondarearen saldoaren bilakaera positiboa izan zuten (+% 25,2 eta % 20,7, hurrenez hurren).

Espainiako merkatuan erregistratutako IKE-en kopuruak behera egin zuen 2019an. HIFei eta SICAVei lotutako entitateek izandako jaitsierek (-% 1,4 eta -% 5,3, hurrenez hurren) eragin zuten beherakada hori, ekitaldian zehar egindako likidazioengatik, bat-egiteengatik eta/edo eraldaketengatik. Inbertsio libreko IKE-en segmentuko erakunde kopurua, berriz, hazi egin zen 2019an.

250. koadroa Finantza arloko Inbertsio Kolektiboko Erakundearen ondarea eta kopurua

Kontzeptua	Ondarea (M euro)		Erakunde kopurua	
	2018	2019	2018	2019
Inbertsio-funtsak (HIF)	259.095	279.377	1.617	1.595
Inbertsio-sozietateak (SICAV)	27.836	28.793	2.713	2.569
Inbertsio libreko IKE (ILIKE)	2.262	2.832	49	62
Inbertsio libreko IKE-en IKE	469	566	7	7
Guztira	289.662	311.568	4.386	4.233

Iturria: CNMV. Urteko txostena.

Azken finean, ondarearen bolumenak izandako igoera nabarmenaren eta erakunde kopuruaren murrizketaren ondorioz, erakunde bakoitzaren batez besteko ondarea 73,6 milioi eurokoa izan zen 2019an, aurreko urtean baino % 11,5 handiagoa. Goranzko bilakaera izan zuten HIFek (+% 9,3), SICAVek (+% 9,2) eta IKE-en IKE-ek (+% 20,7). Inbertsio libreko IKE-en kasuan, ordea, erakunde bakoitzaren batez besteko ondarea apur bat jaitsi zen (-% 1). Hala, HIFek mantendu zuten batez besteko ondarearen bolumenik handiena (175,2 milioi euro), SICAVekiko (11,2 milioi euro), inbertsio libreko IKE-ekiko (45,7 milioi euro) eta IKE-en IKE-ekiko (80,8 milioi euro) alde handiarekin.

Munduko errenta aldakorreko merkatuetako kotizazioen balioak nabarmen egin zuen gora, eta, interes-tasa murriztuak luzatu arren, errenta finkoaren jardura asko hazi zen.

Testuinguru horretan, erakunde talde honen ondarea handitzeak, inbertsioen zorroaren zenbatekoa ere handitzea eragin zuen. Hala ere, covid-19ak eragindako krisiaren ondorioz aldaketa handiak izango dira 2020an.

HIF eta SICAVen ondarearen banaketa

Higigarrietako Inbertsio Funtsen (HIF) ondareari dagokionez, finantza-inbertsioen zorroari dagokio partidarik handiena (% 91,9). Diruzaintzaren partaidetza txikiagoa da (% 7,8), eta zordunen eta hartzekodunen saldo garbiarena, ia hutsala (% 0,3).

Hala, 2019an HIFen ondarearen bolumenak izandako hazkundeak eragina izan zuen inbertsioen zorroaren bidez kudeatutako zenbatekoan (+% 6,5), eta, neurri txikiagoan, diruzaintzaren partidaren bilakaeran (+% 28,6), zeina nabarmen hazi baitzen. Era berean, inbertsio-zorroari dagokionez, kanpo-zorroaren hazkundeak (+% 14,2) eragin zuen HIFen inbertsioen bilakaera goranzkoa izatea. Izan ere, barne-zorroak behera egin zuen aurreko urtearekin alderatuta (-% 10,7).

Hala, ondasunaren guztizko bolumenean duten pisua indartzen jarraitzen dute kanpo-inbertsioko tresnek (% 68,1). Estatuko inbertsioen zorroaren presentziak, berriz, behera egiten du etengabe (% 23,8). Ondorioz, kanpo-zorroaren ondarea 190.225 milioi eurokoa izan zen 2019an, barne-zorroaren zenbatekoaren hirukoitza; barne-zorroaren ondarea, 66.520 milioi eurokoa izan zen.

Kanpo-zorroa osatzen duten ia kontzeptu guztiek urte arteko hazkundea izan zuten. Bereziki, esanguratsua izan zen honakoen bilakaera: zorraren balioa (+% 13,1), ondare-tresnak (+% 24,2) eta IKEak (+% 11,3). Gainera, zorroaren osaeran zituzten partaidetzak mantendu zituzten (% 30, % 11,9 eta % 26,1, hurrenez hurren). Barne-zorroari dagokionez, aipatzekoa da bertako tresnen jaitsiera orokorra. Zorraren balioek (-% 11,7) eta ondare-tresnek (-% 16,8), esaterako, beherakada handiak izan zituzten. IKE-en kasua (+% 22,9) izan zen salbuespena, baina haien goranzko bilakaera ez zen nahikoa izan gainerako posizioek izandako galerak konpentsatzeko.

Ondorioz, HIFen bi zorroen ondarearen banaketa honakoa da: zorraren balio adierazgarriek guztizkoaren % 46 ordezkatzeko dute, Inbertsio Kolektiboko Erakundeek % 29,2, ondare-tresnek % 15,1 eta kreditu-erakundeetako gordailuek % 1,4, oso pisu txikia. Horiek osatzen dute HIFen ondare-inbertsioen mapa osoa.

251. koadroa Higarrietako inbertsio-sozietateen eta -funtsen ondare-banaketa, balio eraginkorren arabera

(Meuro)

Kontzeptua	Inbertsio-funtsak ^(*)			Inbertsio-sozietateak		
	2018	2019	% Δ19/18	2018	2019	% Δ19/18
Ondarea	259.095	279.377	7,8	27.836	28.793	3,4
Finantza-inbertsioen zorroa	241.016	256.751	6,5	24.841	25.940	4,4
Barne-zorroa	74.486	66.520	-10,7	5.032	4.588	-8,8
Zorraren balio adierazgarriak	50.538	44.638	-11,7	1.434	1.217	-15,1
Ondare-tresnak	10.868	9.048	-16,8	2.194	1.983	-9,6
Inbertsio kolektiboko erakundeak	6.985	8.582	22,9	1.194	1.232	3,2
Kreditu-erakundeetako gordailuak	5.855	4.005	-31,6	164	99	-40,0
Eratorkiak	235	234	-0,5	0	1	-500,0
Bestelakoak	5	5	-5,8	46	57	22,9
Kanpo-zorroa	166.523	190.225	14,2	19.804	21.348	7,8
Zorraren balio adierazgarriak	74.079	83.818	13,1	4.242	4.618	8,9
Ondare-tresnak	26.661	33.116	24,2	5.979	6.134	2,6
Inbertsio kolektiboko erakundeak	65.624	73.054	11,3	9.541	10.549	10,6
Kreditu-erakundeetako gordailuak	21	5	-78,7	0	1	1,0
Eratorkiak	136	231	70,1	28	34	23,6
Bestelakoak	1	1	-25,0	15	13	-13,8
Zalantzasiko inbertsioa, inbertsio berankorra edo auzipeko inbertsioa	8	6	-23,7	6	4	-32,1
Diruzaintza	16.897	21.735	28,6	2.732	2.660	-2,6
Zordun/hartzekodun garbiak	1.182	892	-24,5	263	192	-26,8

(*) Hortik kanpo daude inbertsio libreko IKEak (ILF eta ILIKEF).

Iturria: CNMV. Urteko txostena.

Ondoz ondoko hiru ekitalditan murrizketak izan ondoren, 2019an SICAVen ondareak nolabaiteko suspertzea izan zuen (+% 3,4). Zehazki, finantza-inbertsioen zorroaren bilakaera ere antzekoa izan zen (+% 4,4). Diruzaintzak (-% 2,6) eta zordunen eta hartzekodunen saldo garbiak (-% 26,8), berriz, behera egin zuten 2018ko zenbatekoekin alderatuta. Hala, SICAVen ondarearen osaera mantendu egin zen aurreko ekitaldiekin alderatuta. Guztizkoaren zatirik handiena inbertsioen zorroarena izan zen (% 90,1), diruzaintzaren partaidetza nabarmen txikiagoa izan zen (% 9,2), eta zordunen eta hartzekodunen saldo garbiaren pisua marjinala izan zen.

Testuinguru horretan, kanpo-zorroaren saldoak gora egin zuen ekitaldiaren itxieran (+% 7,8); SICAV erakundearen inbertsio-zorroaren zatirik garrantzitsuena izaten jarraitu zuen kanpo-zorroak (% 74,1). Hazkunde horrek barne-zorroaren jaitsiera orekatu zuen (-% 8,8ko jaitsiera eta % 15,9ko partaidetza). Zehazki, aipatzekoa da atzerriko merkatuan gora egin zutela IKE-ekin lotutako inbertsio-posizioek (+% 10,6) eta zorraren balio adierazgarriak (+% 8,9). Aitzitik, barne-zorroko zorraren saldoak eta ondare-tresnek behera egin zuten (-% 15,1 eta -% 9,6, hurrenez hurren).

Hala eta guztiz ere, termino agregatuetan, SICAVen ondarea epigrafe hauetan banatzen da: IKEak (% 40,9), ondare-tresnak (% 28,2) eta zorraren balio adierazgarriak (% 20,3). Horiek osatzen dute SICAVen ondarearen bolumen ia osoa.

HIFen tipologia

HIFen zorroa 5 bloketan edo finantza-produktu motatan egituratzen da –monetarioa, errenta finkoa, errenta aldakorra, beste funts batzuk (inbertsioaren itzulketaren gaineko berme mailaren arabera) eta funts globalak–, eta bloke horiek 15 aldaeratan banatzen dira, inbertsio-funtsen nolakotasunaren arabera.

Zentzu horretan, 2019a oso positiboa izan zen errenta finkoko eta errenta aldakorreko tresnenez, kontuan hartutako hiru adierazleei dagokienez –funts kopurua, parte-hartzaileak eta ondarea–. Beste funts batzuk eta monetarioak, berriz, asko estutu ziren. Aitzitik, funts globalen kasuan joera ezberdinak antzeman ziren; izan ere, funts kopurua eta ondarea hazi egin ziren, baina parte-hartzaileak galdu zituzten. Orokorrean, 1.710 funts (-% 0,9), 11.739.183 parte-hartzaile (+% 4,6) eta 279.377 milioi euroko ondarea (+% 7,8) zituzten HIFek 2019aren itxieran.

HIFen egiturari dagokionez, funtsen ia heren bat errenta aldakorrekoa zen (% 32,8), laurden bat errenta finkokoa (% 26,4) eta beste laurden bat beste funts batzuek osatzen zuten (% 25,6). Funts globalek pisu txikiagoa zuten (% 14,9), eta monetarioen taldearen pisua ia hutsala zen (%0,1). Era berean, parte-hartzaile kopuruari eta ondareari dagokienez, errenta finkoko (% 39,6 eta % 41,4, hurrenez hurren) eta errenta aldakorreko (% 33,7 eta % 26,1) funtsek aurreko ekitaldian baino emaitza hobek izan zituzten. Beste funts batzuek (% 14,1 eta % 15,7), funts globalek (% 11,6 eta % 15,4) eta monetarioek (% 0,9 eta % 1,4), berriz, jaitsierak izan zituzten bi adierazleetan.

252. koadroa Higarrietako Inbertsio Funtsen (HIF), partaideen eta ondarearen banaketa, zorroaren osaeraren arabera (abendua 31)

Kontzeptua	Funts kopurua		Parte-hartzaile kopurua		Ondarea (M €)	
	2018	2019	2018	2019	2018	2019
Monetarioa	26	2	400.085	103.734	6.810	3.788
Errenta finkoa (euro)	198	221	1.929.903	2.830.528	53.874	66.203
Errenta finkoa (nazioartekoa)	55	58	379.559	734.062	6.206	8.592
Errenta finko mistoa (euro)	79	75	677.738	453.625	21.719	15.833
Errenta finko mistoa (nazioartekoa)	89	98	510.419	634.256	18.752	24.987
Errenta aldakor mistoa (euro)	43	42	112.815	103.027	3.287	3.145
Errenta aldakor mistoa (nazioartekoa)	141	143	511.475	604.132	19.969	25.631
Errenta aldakorra (euro)	113	113	831.115	598.901	12.178	10.145
Errenta aldakorra (nazioartekoa)	236	263	2.225.366	2.655.123	24.405	34.079
Kudeaketa pasiboa	172	133	543.192	429.428	16.139	14.074
Errendimendu finko bermatua	67	66	165.913	154.980	4.888	4.809
Errendimendu aldakor bermatua	150	146	484.182	422.200	14.231	13.003
Berme partziala	13	9	10.478	6.270	325	226
Itzulketa absolutua	99	84	930.641	646.042	14.173	11.818
Globalak	242	255	1.501.730	1.359.915	42.137	43.042
Bokaziorik gabe	2	2	2.958	2.960	2	2
HIF, guztira	1.725	1.710	11.217.569	11.739.183	259.095	279.377

Iturria: CNMV. Urteko txostena.

Beste alde batetik, 2018an gertatu bezala bezala, nazioarteko errenta finkoak funtsen, parte-hartzaileen eta ondarearen guztizkoaren gainean izan zituen partaidetzak (% 9,1, % 11,7 eta % 12, hurrenez hurren), eurotako errenta finkoarenak baino txikiagoak izan ziren (% 17,3, % 28 eta % 29,4). Errenta aldakorraren kasuan, berriz, kontrakoa gertatu zen; nazioarteko dibisetako posizioen partaidetzak (% 23,7, % 27,8 eta % 21,4) handiagoak izan ziren eurotako errenta aldakorrarenak baino (% 9,1, % 6 eta % 4,8).

Azkenik, aztertutako 15 HIF motak kontuan hartuta, hiru nabarmentzen dira, funts kopuruari, parte-hartzaile kopuruari eta ondareari dagokienez. Zehazki, honakoak dira nabarmentzen direnak: nazioarteko errenta aldakorreko funtsak (263 funts, 2.655.123 parte-hartzaile eta 34.079 milioi euroko ondarea), eurotako errenta finkoa (221 funts, 2.830.528 parte-hartzaile eta 66.203 miloi euro) eta globalak (255, 1.359.915 eta 43.042, hurrenez hurren).

4. BURTSA-MERKATUA

2019an nabarmen hazten dira burtsaren errentagarritasun-indize nagusiak; hala ere, 2018an izandako jaitsieraren ondorioz, 2017ko kotizazio mailaren azpitik kokatzen dira oraindik ere. Burtza-jardueraren garapena bat dator ekonomiaren geldotze-aldiarekin. Hainbat faktorek izan dute eragina geldotze horretan: merkataritza-tirabirek (bereziki, AEB eta Txinaren artekoak), nazioarteko merkataritza eta/edo Alemaniako industria-jarduera neurri apalagoan hazi izanak, eta Brexitaren inguruko akordioak eragindako ziurgabetasun-egoerak; nahiz eta urtearen amaierarako apur bat arintzen den ziurgabetasun-egoera hori. Era berean, 2020ari dagokionez, covid-19aren krisia ezegonkortasun handia eragiten ari da mundu mailako merkatuetan. Zentzu horretan, gorabehera ugari eta kotizazio-indizeen zuzenketa nabarmenak ari dira gertatzen.

AEBko Erreserba Federalak ezarritako moneta-politikak aldaketa handia izan du 2019an. Izan ere, esku-hartze tasaren gogortzea geldiarazten du, eta, jaitsi egiten du, 2008az geroztik lehenengo aldiz. Zehazki, % 1,5 eta % 1,75 bitartera jaisten du tasa, hiru aldiz jarraian 25 oinarrizko puntu murriztu ondoren. Europako Banku Zentralaren kasuan, Europako ekonomiaren geldotzearen ondorioz, aldatu egin behar izan du urtearen bigarren zatian interes-tasak igotzeko asmoa, eta % 0an mantentzen ditu –maila horretan daude 2016az geroztik–. Inflazio-mailak goranzko joera sendoa izan arte eta % 2ra gerturatu arte (maila hori gainditu gabe), interes-tasak bere horretan mantentzea aurreikusten dute. Dena den, 2020an egoera aldatu egin da berriz ere, eta covid-19aren krisiaren eragina apalduko duten ondoz-ondoko likidezia-ekarpenak egitea aurreikusten da.

253. koadroa Burtza-indize nagusien bilakaera

Urtea	Ibex-35 (Madril)	CAC-40 (Paris)	Dax-Xetra (Frankfurt)	FT-SE 100 (Londres)	Dow Jones (New York)	Nikkei (Tokio)	Eurostoxx 50	Nasdaq Composite
2017	10.043,9	5.339,4	12.979,9	7.622,9	24.837,5	22.784,5	3.524,3	6.950,2
2018	8.539,9	4.730,7	10.559,0	6.728,1	23.327,5	20.014,8	3.001,4	6.635,3
2019	9.549,2	5.978,1	13.249,0	7.542,4	28.538,4	23.656,6	3.745,2	8.972,6
<i>Urte batetik besterako aldakuntza (%)</i>								
2017	7,4	9,8	13,1	6,7	25,7	19,2	7,1	29,1
2018	-15,0	-11,4	-18,7	-11,7	-6,1	-12,2	-14,8	-4,5
2019	11,8	26,4	25,5	12,1	22,3	18,2	24,8	35,2

Oharra: Abenduaren 31n.

Iturria: Ekonomia Adierazleen datu-basea. Ekonomia eta Ogasun Ministerioa.

Inflazio maila baxuari eta ekonomia nagusien dezelerazioari aurre egiteko finantza-baldintza moldakorrez baliatuta, mundu mailako burtsek irabazi handiak lortu dituzten 2019an. Zehazki, Ipar Amerikako merkatuetan erregistratzen dira irabazi handienak. Dow Jones (+% 22,3) eta Nasdaq Composite (+% 35,2) indizeek nabarmen egin dute gora, eta maximo historikoak lortzen dituzte berriro ere. Nikkei indizeak ere irabaziak izan ditu (+% 18,2). Europako merkatuei dagokienez, nabarmentzekoak dira Paris (+% 26,4),

Frankfut (+% 25,5) eta Eurostoxx 50 (+% 24,8) indizeen balioen igoera. Modu apalagoan hazi dira Erresuma Batuko burtsa (+% 12,1) eta Madrilgo IBEX 35 (+% 11,8).

4.1 IKUSPEGI OROKORRA

Lehen mailako eta jaulkipeneko merkatuak

Baloreen lehen mailako merkatuaren jarduera asko jaitsi zen 2018an. 2019an, ordea, berreskuratu egiten da jaulkipen garbien edo SEPen saldoa, zeina 55.232 milioi eurora heltzen den, 2017koa baino (are) zifra altuagoa. Datuak jarduera-segmentuaren arabera aztertuz gero, bolumenaren zatirik handiena akzioak ez diren baloreek hartzen dute: 44.289 milioi euro (2018an, berriz, 31.690 milioi euro). Akzioei dagokien segmentuak 10.943 milioi euroko saldoa du, aurreko urtean baino dezente handiagoa (-555 milioi euro). Laburbilduz, merkatu honek baliabide gehiago lortzen ditu, eta errekueratu egiten da, nolabait.

Finantza-erakundeen jarduera onaren ondorioz, akzioak ez diren baloreen saldoa hazi egiten da 2019an. 2018an balio negatiboak izan ondoren, 2019an guztiz alderantzikatzen da egoera, eta 11.739 milioi eurora iristen da. Hobetze horretan eragina izan dute finantza-erakunde monetarioek¹ (19.990 milioi euro) eta beste bitartekari finantzario batzuek² (nahiz eta oraindik balio negatiboa izan, -8.178 milioi euro, baina 2017an eta 2018an baino zifra txikiagoa); izan ere, bi osagaien saldoak egin du gora aurreko urtearekin alderatuta. Era berean, sozietate ez-finantzarioen jaulkipenen goranzko joerak (13.788 milioi euro) eta finantza-erakundeen jarduera onak orekatu egin dute Administrazio Publikoen murrizketa. Segmentuko partida nagusia izan arren, sektore publikoaren jaulkipenak 18.762 milioi eurora murriztu dira, Administrazio Zentralaren saldoaren jaitsierak eraginda.

¹ Barne hartzen ditu kreditu-erakundeak eta egoitza eremuan duten finantza-erakunde guztiak. Horien jarduera honako hau da: FEMak ez diren erakundeen gordailuak eta etorriko diren gordailuen ordezkoak jasotzea, eta kredituak ematea edo balioetan inbertitzea beren kabuz —gutxienez termino ekonomikoetan—. Azken talde hori, funtsean, merkatu monetarioko funtsek osatzen dute.

² Nagusiki, aseguru-konpainiak, pentsio-funtsak edo mutualitateak, higiezin inbertsio-sozietateak, inbertsio-funtsak, hipoteka-kredituen sozietateak, leasing-erakundeak, factoring-ekoak, diru-merkatuko sozietate bitartekariak eta elkarrenganako berme sozietateak.

254. koadroa Akzioak ez diren baloreak, finantza-tresna deribatuak izan ezik.
Inbertsio-funtsetako partaidetzak eta akzioak.
Jaulkipen garbiak eta salmenta-eskaintza publikoak

(Meuro)

Kontzeptua	2017	2018	2019	Urte batetik besterako aldakuntza	
				Aldakuntza 18/17	Aldakuntza 19/18
Akzioak ez diren baloreak, finantza-tresna deribatuak izan ezik. Balio nominalak	37.198	31.690	44.289	-5.508	12.599
– Finantza-erakundeak	-19.556	-11.943	11.739	7.613	23.682
• Finantza-erakunde monetarioak	9.887	12.720	19.990	2.833	7.270
• Bestelako finantza-bitartekariak	-29.443	-24.662	-8.178	4.781	16.484
– Administrazio Publikoak	46.903	37.929	18.762	-8.974	-19.167
• Administrazio zentrala	46.962	41.684	17.117	-5.278	-24.567
• Autonomia-erkidegoak	106	-3.621	1.698	-3.727	5.319
• Tokiko udalbatzak	-165	-134	-53	31	81
– Sozietate ez-finantzarioak	9.851	5.704	13.788	-4.147	8.084
Akzio kotizatuak eta ez-kotizatuak	16.092	-555	10.943	-16.647	11.498
– Kapitala zabaltea. Funtsen ekarpena	14.186	-1.802	10.234	-15.988	12.036
• Finantza-erakundeak	8.197	1.199	2.480	-6.998	1.281
• Sozietate ez-finantzarioak	5.989	-3.000	7.754	-8.989	10.754
– Salmenta-eskaintza publikoak	1.906	1.247	709	-659	-538
Jaulkipen garbien eta salmenta-eskaintza publikoen guztizkoa	53.290	31.135	55.232	-22.155	24.097

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina.

Akzio kotizatuak eta ez-kotizatuak segmentuak gora egin du 2019an; horretan eragina izan du sozietate ez-finantzarioen (7.754 milioi euro) kapital-hazkundeak (10.234 milioi euro), finantza-erakundeek baino saldo handiagoa izan baitute (2.480 milioi euro). Salmenta-eskaintza publikoek osatzen dute epigrafe hau. Aurreko urtearekin alderatuta, zenbatekoa murriztu duen partida bakarra izan da (709 milioi euro).

Bigarren mailako merkatuak Burtsak

Espainiako Burtsaren baloreen kotizazioek garapen positiboa izan dute 2019an. IBEX 35ak % 11,8 egin du gora, eta balore kotizatuak % 66k balio positiboekin amaitzen dute urtea. Hala, burtsa-indizeak 9.549,20 punturekin ixten du ekitaldia, erreferentziazko 10.000 puntuen azpitik, baina alde gutxiarekin. Dena den, bankuen sektoreko kotizazio kaskarren ondorioz, IBEX 35 indizearen igoera Europako beste indize batzuen baino apalagoa izan da. Izan ere, bankuen sektoreko kotizazioek garrantzi handia dute Espainiako indizean.

Akzioen kontratazio-jarduera aurreko urtean baino % 19,9 apalagoa izan da 2019an, 470.115 milioi euroko bolumenarekin. Hala, aurreko urteko atzeranzko joerari jarraipena ematen zaio. Dena den, Espainiako Burtsan kotizatutako konpainien kapitalizazioak % 11,5 egin du gora, eta 1.105.662 milioi euroko merkatuko balorea izatera heldu da, kotizazioen igoerari esker eta kapitala handitzearen bidez enpresek lortutako finantzazio

altuagoari esker. Azkenik, aipatzekoa da kontratazioaren zatirik handiena SIBEren bidez egin dela.

VIBEXen garapenari dagokionez, eguneroko batez besteko aldakortasun inplizitua % 13,7koa izan da, 2018an (% 15) baino ehuneko 1,3 puntu txikiagoa, eta 2016an baino ia ehuneko 10 puntu txikiagoa. Ondorioz, datozen urteetan aldakortasunak maila normalagoak izatea aurreikusten da. Horrek eragin positiboa izango luke Errenta Aldakorreko merkatuen negoziazio-bolumenetan.

255. koadroa Burtsa-merkatua Negoziatutako bolumenen balio efektiboa

Tituluak	<i>(M euro)</i>			
	2017	2018	2019	% Δ19/18
Funts publikoak	265	0	0	--
Beste betebeharrak	170	0	0	--
• Bankuak	0	0	0	--
• Gainerakoak	0	0	0	--
Betebeharrak, guztira	435	0	0	--
Akzioak (SIBE, Espainiako Burtsa arteko Lotura Sistema)	650.012	586.723	469.635	-20,0
• Bankuak	239.766	197.428	146.427	-25,8
• Elektriakoak	79.854	71.043	71.272	0,3
• Eraikuntza	26.633	22.936	25.194	9,8
• Komunikazioak	71.265	58.069	51.040	-12,1
• Gainerakoak	232.494	237.247	175.702	-25,9
Gainerako akzioak (Korro Sist. Kont.)	480	480	480	0,0
• Madrilgo Burtsa	360	360	360	0,0
• Bartzelonako Burtsa	120	120	120	0,0
• Bilboko Burtsa	0	0	0	0,0
• Valentziako Burtsa	0	0	0	0,0
Akzioak, guztira	650.492	587.203	470.115	-19,9

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina.

Akzioen negoziazio-bolumenen garapena jarduera-sektoreen arabera aztertuz gero, beheranzko joera nabarmenena duten adarrak bankuari eta gainerako sektoreei (-% 25,8 eta -% 25,9, hurrenez hurren) dagozkiela ikus daiteke. Bi talde horiek dira negoziatutako akzioen artean garrantzi handiena dutenak (% 31,1 eta % 37,4, hurrenez hurren). Komunikazioari dagokion jardueran ere jaitsi egiten dira negoziatutako baloreak (-% 12,1), baina akzio-multzoan duen garrantzia txikiagoa da (%10,9). Eraikuntza eta elektrikoaren sektorean, berriz, gora egiten du negoziatutako saldoak (+% 9,8 eta +% 0,3, hurrenez hurren), baina hauen ekarpena ere askoz txikiagoa da (% 5,4 eta % 15,2, hurrenez hurren).

Bigarren mailako merkatuak: Errenta Finkoa

Urtea oso positiboa izan da Errenta Finkoko merkatuentzat; izan ere, banku zentralak moneta-politika aldatzen dute: hedatze kuantitatiboko politketara itzultzen dira, interes-tasak jaisten dituzte eta likidezia-ekarpenak egiten dituzte.

Zor publikoaren tituluen zirkulazioak gorakada nabarmena izan du 2019an (+ %21,1), eta negoziatutako bolumena 78.999 milioi eurora iristen da. Hala, lau urtez jarraian egin du gora negoziatutako bolumenak. Bonuen eta obligazio ez-bereizien partidak urtetik urterako % 15eko igoera izan du, eta 63.212 milioi euroko saldoarekin amaitzen du urtea. Errenta finko publikoaren partidarik garrantzitsuena da (% 80). Altxorraren Letrek partaidetza txikiagoa dute (% 15,1), baita bonu eta obligazio bereizien partidak ere (% 4,9). Dena den, hauek ere goranzko joera dute.

256. koadroa Errenta finko publikoaren bigarren mailako merkatuan negoziatutako bolumenak: Estatuaren zorra ⁽¹⁾

<i>(M euro)</i>				
Kontzeptua	2017	2018	2019	%Δ 19/18
CADE sistema - ARCO sistema ⁽²⁾	44.297	65.252	78.999	21,1
– Bonu eta obligazio ez-bereiziak	36.512	54.982	63.212	15,0
– Bonu eta obligazio bereiziak	855	1.840	3.887	111,3
– Altxorraren Letrak	6.930	8.430	11.900	41,2

(1): Eskurako, eperako eta berrerosteko eragiketa-negoziazioen eguneroko zifren batez bestekoa. 2017az geroztik, araudi-aldaketa dela-eta, errenta finko pribatuko merkatuek ez dituzte argitaratu negoziazioaren gehiengoaren datuak (sistemako erabiltzaileen arteko salerosketa zuzenak).

(2): 2017an, Espainiako Bankuaren Idazpenen Zentralaren (CADE) lehengo sistemaren kudeaketa Espainiako Burtsa eta Merkatuen Taldearen esku geratu zen, ARCO izenarekin, eta Europako T2S sistemarekin homologatu zen.

Iturria: Altxor Publikoaren hileroko estatistikak. Ekonomia eta Enpresa Ministerioa.

Espainiako Burtsetako eta Merkatuetako (BME) deribatuen merkatuaren jarduerak, hau da, MEFFaren jarduerak, % 2,4 egin du gora 2019an. Aldakortasun gutxiagoko inguruneaz baliatuta, 42,4 milioi kontratu egin dira. Akzioen gaineko gerokoek eragin dute aurrerapen hori; izan ere, aurreko urtetik hazi den epigrafe bakarra izan da (+% 42,8), eta geroko finantzarioen gorakada eragiten du, % 24,6. IBEX indizeen gaineko gerokoek, berriz, behera egin dute (-% 6,1). Bestetik, aukera finantzarioek % 13,2 jaitiera erregistratu dute, akzioen (-% 14) eta IBEX indizeen (-% 9,6) beherakadak eraginda.

257. koadroa Geroko Finantzarioen eta Aukera Finantzarioen Espainiako Merkatua

<i>(mila kontratu)</i>				
Kontzeptua	2017	2018	2019	% Δ19/18
– Geroko finantzarioak, guztira	17.939	17.045	21.244	24,63
– Indizeen gaineko gerokoak (IBEX)	6.268	6.342	5.956	-6,09
– Akzioen gaineko gerokoak	11.671	10.703	15.288	42,84
– Aukera finantzarioak, guztira	24.620	24.421	21.198	-13,20
– Indizeen gaineko aukerak (IBEX)	4.304	4.183	3.783	-9,56
– Akzioen gaineko aukerak	20.316	20.238	17.415	-13,95
– MEFF, guztira	42.559	41.466	42.442	2,35


(*): Egindako eragiketak

Iturria: BME (Espainiako Burtsak eta Merkatuak)

4.2 BILBOKO BURTSA

Bilboko Burtsaren balioak % 11,7 egin du gora 2019an eta igoera horrek ia guztiz orekatzen du aurreko urtean izandako beherakada (-% 15,7). Kotizazioen balio maximoa 1.492,29 puntuan kokatu da –apirilean– eta, minimoa, 1.372,90 puntuan –abuztuan–. Hala, urtearen amaieran Bilboko Burtsaren indize orokorra 1.485,36 puntukoa da. Hortaz, ekitaldian zehar gorabehera arinak izan arren, oro har, goranzko bilakaerari eusten dio.

44. grafikoa Kotizazio Indize Orokorra Bilboko Burtsa (2019)



Iturria: Bilboko Burtsa.

258. koadroa Bilboko Burtsaren Indize Orokorra (2000 indizea). Azken balioa, maximoa eta minimoa

Urtea	Azkena	Maximoa	Minimoa
2011	1.366,61	1.808,89	1.210,76
2012	1.331,00	1.443,33	974,81
2013	1.658,57	1.660,80	1.231,66
2014	1.668,99	1.849,71	1.601,52
2015	1.578,45	1.941,39	1.530,92
2016	1.489,50	1.542,97	1.283,77
2017	1.577,50	1.748,99	1.479,05
2018	1.330,08	1.337,44	1.323,12
2019	1.485,36	1.488,93	1.481,62

Oharra: Oinarria 2000, 1999ko abenduaren 31koa.

Iturria: Bilboko Burtsa. Indizeak. Grafiko historikoak.

Bilboko Burtsaren kontratazio efektiboaren balioari dagokionez, 2019an jarduera 100 mila milioi euroz azpikoa da (88.089 milioi euro), aurreko urtean baino % 22 txikiagoa. Hala, azken hiru ekitaldietan beheranzko joera mantentzen du. Kontratazio-bolumena 2014ko eta 2015eko balio maximoetatik (172.655 eta 180.713 milioi euro, hurrenez hurren) urrun aurkitzen da. Era berean, aipatzekoa da kontratazio-bolumen osoa errenta aldakorraren

segmentuari dagokiola; izan ere, errenta finkoaren segmentuak ez du jarduerarik 2017az geroztik.

259. koadroa Bilboko Burtzako kontratazio-bolumena. Balio efektiboak*

Kontzeptua	2016	2017	2018	2019	(M euro) % Δ19/18
Errenta aldakorra - (SIBE) ⁽²⁾	107.132	117.825	112.922	88.089	-22,0
Errenta finkoa	2.116	0	0	0	0,0
Eragiketa-aretoa ⁽¹⁾	0	0	0	0	0,0
Elektronikoa (SEND) ⁽²⁾	0	0	0	0	0,0
- SAC-CL-BVB ⁽³⁾	2.116	0	0	0	0,0
Guztira	109.248	117.825	112.922	88.089	-22,0

(*): Erosketak + salmentak.

(1): Korroen merkatu tradizionala.

(2): SIBE (Espainiako Burtsa arteko Lotura Sistema) etengabeko merkatuak eta SEND (Zorra Negoziatzeko Sistema Elektronikoa), AIAF merkatuarekin loturik eta txikizkarietara zuzenduta.

(3): Kontuko Idazpenen eta Bilboko Baloreak Konpentsatu eta Likidatzeko Zerbitzuak (SAC-CL-BVB) EAEko zor publikoa kudeatzen du 1991. urteaz geroztik, eta, 1993. urtetik aurrera, Bilboko Burtzaren gainerako balio eksklusiboak.

Iturria: Bilboko Burtsa.